



POZ ALDREBESA

JUANJO OLASAGARRE

JUANJO OLASAGARRE

POZ ALDREBESA



Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2017 Juanjo Olasagarre

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2017ko martxo

Edizio hau: 2017ko martxo

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: susalit@armiarma.eus

Webgunea: <http://susa-literatura.eus>

Poztasuna dohaina da, baina baita konkista ere, bizitzako gauzekin gogoberotzeko gaitasuna; gauza horiek, hartara, bizitza gozatzeko modukoa eta posible egiten dute. Pozik egon, poza erakutsi. Poztasunaren garrantziaz jabetzen gara oparitzen digutenean, kutsagarri, miragarri, eredugarri.

MIGUEL SÁNCHEZ OSTIZ

Sin tiempo que perder

Prednisonak albo kalteak eragin ditzake: buruko mina, zorabioak, nortasun aldaketak, zoriontasun ezegokia...

Prednisona botikaren
argibide orritik

Beharbada dolua lantzen da noiz eta doluaren ondoren betiko aldatuko garela onartzen dugunean. Beharbada doluak adierazi nahi du aldaketa bat erasan (beharbada aldaketa baten mendean erori esan behako litzateke) eta emaitza aurretik ez ezagutzea.

Badakigu galera bat dagoela, baina badakigu baita ere galerak eragingo duen eraldatzea izango dela, eta eraldatze hori ezin da neurtu, ez aurretik planifikatu.

Saia gaitezke bideratzen baina eraldaketaren esperientziak berak bideratze hori noragabetu egingo du. Galera baten aurrean ez dut uste etika protestantea aldarrika dezakegunik.

Ezin dugu esan: “A, galera hau horrela eta horrela gaindituko dut, eta hauxe izango da emaitza, eta ekingo diot, eta saiatuko naiz, eta aurretik dudan atsekabeari halaxe eta halaxe jarriko diot fin”. Horrelakoetan uste dut korrontearen mendean gaudela, eguna hasten dugula plan batekin, helburu batekin, baina porrot egiten duela. Ahiturik, zergatik jakin gabe akitu egiten gara. Planteatzen duguna, aukeratzen duguna, dakiguna, proiektatzen duguna baino zerbait handiagoarekin ari gara lehian.

Zerbait zure buruaz jabetu da. Nondik dator. Zer zentzu du? Zer baieztatzen da gure baitakoak ez garen une horietan? Zerk eusten digu? Zerk harraipatzen gaitu?

JUDITH BUTLER

Precarious Life

Maitasunaren Kurba izenez ezagutzen zen hartan aparkatu zuen, Artxandako San Andres gainean, Bilbon utzi zituen lagunak gogotik fauntzen zitzaizkiola. Hiriaren argi iragaziek distira egin zuten autoaren kapot ilunean. Halako aire metalikoa usaintzen zen pinuz osaturiko baso lahartsuan. Han-hemenka zaborra zegoela iruditu zitzaion, paperezko mukizapiak. Bazekien, gehiago aurkituko zituen, bilatzera etorri zenaren aztarna baitziren, izaerarekin ia bat egindako paisaiaren berezko osagaia. Kondoiren bat ere bai. Eskuaren keinu ilaun batez uxatu zituen Txoko Landara zerbitzatzera etorritako EHGAMEko lagunak. Txato; Juanillo eta Oskar, beti bikote eta beti haserre; Javitxu. La Merced zubian utzi zituen, harriturik, batez ere Txato, Artxandara joateko adorea izan zuelako. Izan zuen, jakinmina akuilu, amore eman eta haiengana itzultzeko tentazioa, "Kenneth, Kenneth!" izen atzerritarra garra-si egiten entzun zituenean, baina erabakia hartua zeukan, hartua zeukanez. Lekua ezezaguna bazitzaion ere berehala hartu zion adakera, eta lurrezko bidean barna abiatu zen. Ez zihoan eroso Txatok jantzarazita-

ko kamisetarekin: 92 ez, 69 bai; nabarmenegi zen marika. Oztopo egin zuen sartu ahala. Bi aldeetara so egin zuen norbaitek ikusi ote zuen egiaztatzeko. Or-baina izatera heltzen ez zen urraduraren antzeko bat utzi zion oztopatzeko joerak, eta ondoren zetorkeen inguruko algarak. Inor ez. Autoa hartzean barrena puztu zion adorea husten hasi zitzaion. Handik aurrerakoa bazekien, egona baitzen Iruñeko Takoneran behin baino gehiagotan, edozeinekin elkartu eta zerrikeria azkar bat egin, eta azken boladan deserrotzen zuen hutsa kudeatu beharra gero, Txatok esanak esan. Ez zekien zertara etortzen zen Txoko Landara, ez jakiteagatik, ez zekien EGHAMEN zer egiten zuen ere. Bere burua onartu, beharbada. Gogoetak uxatu ziztuen, bazekien ez zirela une hartarako. Bazekien. Bideetan barna ibili zen. Ez zegoen inor. Langa bat agertu zitzaion. Pinu baten kontra bermaturik itzal bat egin zitzaion. Gero zigarroaren txingarra ikusi zuen mugitzen. Bat da, bai. Ez zegoen nahikoa argi gaztea edo zaharra ote zen igartzeko. Uneak urduritu egiten zuen. Desioaren oldarragatik ez balitz ez litzateke bertan egongo, bazekielakoz gerora ez zela ongi geldituko. Txatok barre egiten zion maitasunaz zuen ideiari buruz mintzatzen zitzaionean. “Orduan nobioa bilatze-

ko hurbildu zara hona?" botatzen zion irribarrez, "hona" horrek EHGA esan nahi zuela.

Dardara egin zitzaion zigarroaren txingarren aurretik pasatu zenean. Itzalari ez begiratu izanak ergel sentiarazi zuen, erridikulua baitzen haraino ligatzera joan, inor gehiago egon ez, eta ustezko sedukzioaren balizko jokoa errepikatu beharra, bai baitzekien arauak hautsi, aurrean plantatu eta "larrutan eginen diagu" esango balio bestea, arbolapean zegoen beste hark, ospa eginen lukeela arrapaladan. Eta, aldi berean, gorroto zituen Iruñeko Takonerara joan zene-kotan ikusteko-edo ia sudurra ukitzeraino aurpegira hurbiltzen zitzaizkion gizonak. Aurrera egin zuen bi-dean gora, kaskora ailegatu arte. Hiriaren argiek hala-ko itzal-argi fantasmala eransten zioten zuhaitzen artekoari. Zeharka so egin zuen, itzal mugikorra hurbil-tzen ari ote zitzaion jakin nahian zigarroari tira egin bi-tartean. Ezer ez. Ingurura so egin zuen. Beste inor ez. Erlojua. Goizeko lau eta erdiak. Ezkerretara egin zuen, hiriaren argietara. Bere burua irudikatu zuen bestea-ren begietan. Hiriaren argien kontrako ilun-argiek han-diago egingo zutela pentsatu zuen, zabalago. Ez zion bere buruari aitortu nahi izan, baina *gizonago* pentsa-tu zuen. Bermaturik zegoen zuhaitzaren atzetik, bi-

dexkak beherantz egiten zuen sasi artean eta gero ebakia zegoen, pixkanaka amildegi bihurtzen zela. Itzala amildegira hurbildu zen. Han egon zen aldi bakanetan berak ere egina zuen itzala egitera zihoana, hurbildu eta behera so egin. Ageri ziren zabor poltsak, ez zekien zergatik zuriak, obra hondakinak, horma zatia, porlan puskak bereizten saiatu. Zerbait entzutea iruditu zitzaion. Atzera so egin zuen itzala amildegiertzetik lekutu, argi iragazitara jalgi eta ondoan paratuko zitzaiolakoan. Baina ez zen ezer gertatu. Halako batean ohartu gabe eskuin aldetik agertu zitzaion itzala. Uste baino altuagoa zen. Uste baino senduagoa. Sorbalden gainean argiek halako distira egiten zuten. Hankak zabaldu zituen, irmoago-edo paratzeko. Parke batean lehendabiziko aldiz ligatu zuenekoaz akordatu zen; beldur berdina, urduritasun berdina, desioaren oldar berdina, gauak eta debekuak desioa matxinatzen ziotelakoz. Mutila ia ukitzerraino hurbildu zitzaion, eta aurpegira so egin zion arakatu nahiz bezala. Mutilarengana ia ukitzerraino hurbildu zen. Pixka bat atzera egitean, mutikoak, pottoka beldurtu bat bailitzan, atzera egin eta, arineketan, alde egin zuen. Bazekien, horrelakoetan, aurrean izaten dena ez dela jendea baizik eta animalia izutu bat; itzal hark nortasunik edo

sentimendurik edo gizakiaren arrastorik ez zuela, norbaitekin topo egin eta desioak gidaturiko haragizko tropoilu bat baino ez zela. Bere burua madarikatu zuen halako keinu braustekoegia egiteagatik eta bestea, itzala, mutila, uxatzeagatik. Ingurura so egin zuen aukera galdua beste tropoilu batekin konpondu nahiko balu bezala. Inor ez. Begiratua ezkerraldera itzuli zue-nerako itzala desagerturik zegoen. Auto urrun baten burrunba nabaritu zuen. Desio eta zuhaitzez egindako baso hura zibilizaziotik bertara zegoen, nahiz eta leku urrun bat eman.

Kasko soilduraino egin zuen. Inoren arrastorik ez. Erretzeaz okaturik bazegoen ere, urduritasunari eusteko zigarroa piztu zuen. Pinu baten enbor moztuan eseri zen. Klinex pare bat ikusi zuen. Kasko soilduan norbaitek larrua jo izana irudikatu zuen, harriduraz batera. Begien bistan egingo zuten, batetik bestera desioari jarraiki pasa zitezkeen gainontzekoen bistan. Edo gonbidatuz. Berehala uxatu zuen irudia "gonbidatu" hitzarekin batera, ausardia ezagatik esan gabeko hitzek izaten duten indar ezkutuak beharturik. Hor elkartuko ziren, eta, premiak larriturik, ez zuten hamar metro harantzago zeuden pinuen artera egingo eta, galtzak jaitsirik eta kamisetak altxaturik, arropak bilu-

zik utzitako haragi tartean arituko ziren bi ezezagun, bukatu eta inoiz gehiago elkar ez ikusteko.

Bere bizitza orube bat bezala agertu zitzaion. In-
guratzen zuen basoxka baino lehorrago. Gogora zetor-
kiona uxatzeko altxatu egin zen, mugimenduak eragin
odol jarioak konszientziaren burrunba etengabea gel-
dituko zuelakoan, jakinik, gelditu ez baina beste zara-
ta bat, giharren mugimenduaren zarata, erantsiko
ziola.

Beherantz hasi zen. Behera egin zuen, itzala go-
rrotatzen zuela; mutila gorrotatzen zuela. Zergatik ez
zen gelditu? Bat-batean itsusi sentitu ziren, argalegi,
luzeegi, errubioegi, zabalegi, beltzaranegi. Pausoa az-
kartu zuen. Garunaren alde batek kargu hartu zion
emakumeak gustuko zituzten gizonak zoriontsuago
izan zitezkeela pentsatzeagatik. Bazekien emakumee-
kin ibilitako gizonak ez zirela zoriontsuago, bera adibi-
de. Bide guztiak klinexez ereinik zeuden, ezertarako
balio ez zuen hazi... Beldurtu egin zuen gogoetak nora
eramango zuen pentsatzeak.

Autoa agertu zitzaion kapotaren distiraren pean.
Alde egin baso eskas haren hotzetik! Pausoa moteldu
zuen halako batean, ezkerretara, itzala, mutila, ikusi
uste izan zuenean, zuhaitz batean bermaturik. Bera

bezain nahigabetua egon zitekeen, eta inoiz sentitu gabeko gupida batek hartu zuen. Gelditu egin zen, bai baitzekien hura zela interesaturik zegoelako seinalea. Ondoko zuhaitz batean bermatu zen erridikulu sentituz. Bihotz pilpirak dantzan zeuzkan. Itzalarekiko elkartasunak hartu zuen, bera ere urduri izango zen. Beldurtuta. Ez atzera-ez aurrera gelditu ziren bestea-
ren presentzia erraldoia nabarituz. Bestea. Itzala. Bestea. Mutila. Hiru metrotara zeukan gorputz hura. Ia entzun egiten zion arnasa. Burua altxatu zuen eta zeharka so egin zion. Bera baino baxuagoa zen, indartsua ematen zuen, bizkar zabalak zuhaitzaren kontra bermaturik zegoen, eta gainontzekoa iluntasunean nabartzen zen, gorputzak gauarekin bat egingo balu bezala. Ez zekien zerk erakarri zuen, altuerak, ikusi bainoago igartzen zen errubiotasunak, aire deslaidak. Barre egin zion bere buruari. Artxandako baso ihar hartan zebilen bakarra izateak erakarri zuen. Gorputza beste aldera bermatu zuen zuhaitzaren kontra. Barnean zuten ezinegon eta kanpoko ekintza gabeziaren arteko desorekak denbora luzarazi zien. Zergatik ez zen mugitzen? Zergatik ez zuen mundua mugiarazten? Denbora pilpiretan gelditu zen. Pinu usaina aditu zuen eta lehendabiziko aldiz, lur usain sarkorra, euria

egin berritan bezalakoa. Adorea egin eta itzalaren
zuhaitzera hurbildu zen. Adorea egin eta hurbiltzeko
keinua egin zion mutilari. Eta itzalak ihes egin zion.
Atzeko zuhaitzera jo zuen bizkar zabalak mugitzen zi-
tuen bitartean. Alditxarra egin zitzaion eta hankak
ahuldu zitzaizkion. Gero ostia txar olde batek hartu
zuen. Braust batean itzuli eta behera hasi zen, auto-
rantz, itzala eta bere burua madarikatuz. Bilboko ar-
giak itzalita desiratu zituen lotsaizuna nabari ez ze-
kion. Putakumea. Putakumea. Putakumea. Seat 127
berde metalizatura hurbildu zen istapeka. Autora
sartu zenean babestu antzean nabaritu zuen bere
burua, eta lotsa urruntzen joan zitzaion, oroimenean
aspaldi gertaturiko zerbait bezala.

Arrankatu eta atzera egiten hasi zenean kax-kax
entzun zuen kristalean. Balazta egin zuen. Hankarte
bat agertu zitzaion leihatilaren parean. Hankarte bat
agertu zitzaion leihatilatik behera. Galtzek konkorra
estaltzen egindako zimurrei erreparatu zien, josturek
marrazten zituzten kurbei, botoien irtenari, zintzilika
zegoen hariari. Gora egin zuen begiratuak gero. Itzala
zen, aurpegia oraindik ilunpetan. Mutila zen, hor be-
hean, autoan sartuta hankak ilunpetan desagertzen
zitzaizkiola. Durduzaturik gelditu zen haurretan beza-

la, lortu nahi zuena ez lortuak eragindako haserrearen aurrean irrikan izandakoa muturretan eskaini eta haserrearekin zer egin ezin jakinean.

Leihatila jaitsi zuen.

“Epa!”.

Mutilak bazekien durduzaturik zegoela, eta durduzatik sartuko zitzaion, jolas baten moduan, azkenean nahi zuena lortzeko, susmatu bainoago jakin bai baitzekien berezko trebezia zeukala, artean berezko sedukzio indar hura erabat garatu barik baldin bazuen ere.

Esku bat sartu zuen leihatilatik eta animalia bat sartu balitz bezala izan zen; asaldagarri; inozentziarekin jostari eta sarkor.

Gidaria autotik atera zen.

Bera baino altuagoa zen, errubioa esango luke, luzea zabala bainoago, galtza bakeroak eta koadrozko alkandora bat, desegoki, egiten zuen eguraldirako.

Eman zion eskuaren ordeko, eskua eskaini zion auto gidariak; norberaren gorputz-atalak ez zirela gorputzaren parte iruditu zitzaien biei, atal desberdinak gorputz desberdinekin nahastea ez soilik erraza, baizik eta egin beharrekoa balitz bezala, harmonia eta oreka edertasunaren amarru merke bihurturik. Gor-

putz atal tropoilu ederra erotismoaren begi zorrotzez neurtuz, bat zetorkiela erabaki zuten, atalen desoreka hark eragiten zien kilikadura akuilu. Eskua hartu zioten elkarri. Epela zuten, eta Itzalari hasieran ahula iruditu bazitzaion ere, halako bigarren kargako sendotasun bat zuen; eskuek atzera egin zuen.

Bekoz beko, elkarri so gelditu ziren. Gauak halako isiltasun behartu bat hartu zuen. Zarata urruna isildu egin zen une batez. Batari iruditu zitzaion bestea atezuan paratu zela, bat-bateko aldaketa erreparatu gabekoak ustekabekoa -beti desatsegina- nondik ekarriko zuen atezuan.

Ukabilkada ezti bat botatzeko keinua egin zion, lasaitu nahi antza. Batak ukabilkada bortitzegiaren plantak eginez, atzerantz bota zuen gorputza. Eta gero urduritasuna ezarri zen iltze baten moduan. Batak pentsatu zuen hurbilago baleude berehala egingo luketela eskuek tarte gaintitzekoa, baina bi metro tara zeudenez, besoaren mugimendu bat eginez ez lukete elkar ukituko. Pauso bana eman zuten aurrera mugimendu horretan eta orain metro erdira zeuden, ez nahikoa, ordea, besoen hurbiltzeko mugimendua salagarri suerta ez zedin.

Irri artega iruditu zitzaion, eta ez zitzaion gustatu, bestearen aurrean barrunbeetakoaren nabarigarri; “Estali, ez erakutsi, ahuldadeak ez salatu” adarra joko zion Txatok.

Besteak, aurreko jolasa jarraituz, bularra uzurtu zuen izugarritzko mina egin balio bezala. Eta atzera pauso horretan Itzalak jauzi egin zion, eta besoak lepora botaz, musu eman zion mingaina eztarriraino sartzen zuela. Eztulak jo zion, eta bere baitara makurrarazi zuen eztulaldia irriarekin nahasiz.

“Ia ito nauzu” bota zuen barre artean.

Hura entzutean laxatu egin zen, eta jauzi egin zuen bestearengana.

“Horrelakoa zara beti?”.

Barre egin zuten biek ergel moduan harik eta auto bat hurbiltzen entzun zuten arte. Orduan banandu egin ziren berriz ere, bi ezezagun balira bezala. Autoa kurbak egiten zuen aparkaleku barnean sartu zenean fokupean gelditu ziren gidariaren begien -goseak- gezietara. Autoa, haien gorpuzkerak antzemateko denbora hartu ondoren, mugitzen hasi zen, pixkanaka aparkalekua utzi eta errepidera bideratuz.

Batak besteari mingaina sartu zion. Besteak bata-ri gingilean hozka egin. Ezerezgarreneko galtzak orka-

tiletan zituzten, zakilak airean. Autoen burrunba entzuten zen, baina haiei ez zitzaien axola. Gutxi iraun zuen. Eskua, galtzetan lehortu ondoren, “Asier naiz, Axi”, eskaini zion.

“Joseba”, estutu zion.

“Zenbat eman dizu?”.

“300, baina ondo nagoela esan dit medikuak, Joseba”.

“300? Ostia! Asko da!”.

“Zer egingo zaio; hori utzi zidaten gurasoek herentzian. Baina ez dizut hori kontatu nahi”.

Eta Miren Akerretarena kontatzen hasi zaio Axi Josebari, Agape jatetxean, Bilboko Hernani kalean, 19. urteurrena, edo 18.a –bigarren hasiera hori beti izaten da zalantzazkoa–, ospatzen ari direnean, azken boladan gehiago egoten baitira Bilbon Iruñean baino; laguna ere mugitua zaie aspalditxo, Begoña Bilbon izaten baita Kultura Sustatzeko zuzendari karguko lanek uzten diotenetan; eta Txato ere bertan dabil.

Josebak Axiri erantzun dio Muñoz Eugik poeta ingeles baten poemak –Andrew Motion du izena– itzulitzeko agindu diola, ama hamazazpi urtez koman izan eta idatzitako poemak. “Badago bat *Natural Causes* deitzen dena, oroimena galdu duen musikari baten ingurukoa. Imajinatu: gaixotasun batengatik oroimen berriak egiteko gaitasuna galtzen du Clive Wearingek.

Youtuben dago BBCK egindako dokumentala, haluzinantea. Orain betikoan bizi da. Poema oso polita da:

Paratu ontziak egiten: hortxe
hartutako plater bakoitza lehendabizikoa da.
Lo eginarazi arratsalde osoa
eguzki errainuz ereiniko erietxeko zoruetan
eta hiru segundoro esnatuko zaizu
bere desesperazio berri-berrira.

“Edo horrelako zerbait. Oraindik ez naiz itzultzen hasi”.

Axik ogiari heldu dio, eta puska bat ahoratu bitartean Josebak begietara so egin eta berehala nabaritu du Axi trostan, zamalka gero, galopan.

“Nik kristoren berria kontatu dizut, Mirenek zuri bakarrik kontatzeko baimena eman didana, eta zuk Muñoz Eugik agindu dizun ez dakit ze poema aipatzen didazu. Entzun didazu... nire adiskide Miren Akerreta Glencreen egon da Gatazkaren beste biktima batzuekin, eta zuk Muñoz Eugiren ez dakit zer poema eta zer poema ere aipatzen didazu?!”.

Enbata bezala egin zaio Josebari. Sardexka uztean platerak txirrin egin du, eta hemeretzi urtetako zaun-

kak -halaxe esaten dio Axiri berari- etorri zaizkio gogora, ezdeuskeriengatik lehertutako beroaldiak, brausteko itzelak, arrazoi ez argiko haserrealdiak.

Josebari azken boladako bizkarreko mina zorroztu zaio, eta arnasa hartu du; bizkarra tenkatu eta nagiak ateratzen saiatu da, baina gerri aldean giharrak gogortu egin zaizkio.

Atzera egin du bere baitan. Urrutitik agertu zaizkio jatetxea, zoru lustratuaren bukaeran ageri diren ondoko mahai txikituak, afaltiarren aurpegiak; lauso, barra laburra, han, zerbitzariaren joan-etorri ia mitikoak, eta Axi mahaiaren beste aldean kondairazko lurralde antzinako batean bezala.

“Zergatik egiten didazu garrasi? Zu whatsapppean aritzen zara egun osoa!”.

“Ez dizut garrasi egiten, bakarrik esan dizut nik gauza garrantzitsu bat kontatu dizudala eta zuk txorrada bat atera didazula”.

“Zaunka egin didazu beti bezala, eta esana dizut ez egiteko zaunkarik”.

Ondoko mahaiko afaltiarren arreta eurenganatzten ari direla ohartu da Axi, eta isildu egin da. Orein solo-moari erreparatu dio, inguruan dituen patatei, ilarrek egiten duten distira olioztatuari. Aparra bezala jaitsi

zaio haserre eta mokadua atondu du sardexkan. Solomoa eta patata bi, brillant, guritsu, ardora ahorantz. Zaporean kontzentratu da. Haragiaren kerua, pataten irintasuna, baratxuriaren lurrin urruna. “Momentu berezia duk harendako, urtemuga”, pentsatu du, bera-rendako ez bezala, berak ez baitu sinesten urtemugetan eta txorrada horietan.

Josebak amore eman eta barkamena eskatzea pentsatu du, haien arteko urtetako dinamikan bera izan baita barkamena eskatzera jotzen bakarra, ahalegin gehiegirik eskatzen ez diolako, paradoxaz, barkamen eskatzen dutenak izaten baitira benetan barkamen eskatzen ez dutenak, ezen eskatzearen eskatzez ariketaren ezaugarriekin doiturik, teknika, erritu eta ezagutza egokiei esker benetakotasunik gabe eskatzen baitute. Aldiz, Axiren kasuan, barkamen eskaerak nortasunerako -harrokeria hutsez edo nortasun ahul baten ondorioz, babes beharrean- hartutako oholztatik jaistea eskatzen du, neurri batean nortasuna papurtzea.

“Barkatu” ahoskatu du Axik.

Axik gustuko ez duen zerbait egitea atera zaio Josebari, eta eskua laztantzekoa egin du ernegatu deza-keela neurtu gabe. Eta Axik ez du eskua aldendu, ez

dio goi oholtzatik ostia txarrean begiratu; aitzitik, bertan utzi du eskua, orein puska batekin sardexka, patata eta ilarrez inguraturik, plater zurian zain duela.

“*Barkatu* ahoskatu duzu” egin dio ironia Josebak.

“Zure ni bezatzeko lanei esker” erantzun dio Axik, pareko ironiarekin.

“Kontatu Mirenena” eskatu dio, ez, ez dakielako, egunero irakurtzen du *Berria* lanera sartu aurretik, baizik eta Josebak asko gozatzen duelako Axirekin gutxitan izaten dituzten elkarriketa luze, abarotsu, otordu ostekoekin, areago maitasunaren islatarako ditue-lako, ezen ez ezer interesgarritarako.

Eta Axik Miren Akerretarena kontatuko dio. Egoki, kronika bat egiten ariko balitz bezala, lasai, Josebari egindako erregalia moduan, bai baitaki gustuko dituela maitasunaren sasi-antzezte horiek.

Postreetarako aitatuak dituzte Mirenena; Andrew Motion-en poemak; oroimenik gabeko gizonarena –“Motionen poemetan bizitzaren bat-batekotasuna, aldakortasuna, ezustekotasuna azpimarratzen da bukaeran” zehaztu dio Josebak batzuetan izaten duen hitz egokiarekiko zurruntasunarekin–; Begoña eta –halaxe esaten diote– *KulturaSustatzekoZuzendaritasuna* tarteko Muñoz Eugirekin izan duen liskar publikoa: Axi,

Begoñaren aldeko, gertatu denaz axolagabe, lagunena aldekoa izan behar delako beti; Joseba, Muñoz Eugiren aldeko, ustez arrazoia alde duelako, agerikoa baita ETB-1 kakazaharra dela eta Eusko Jaurlaritzak euskal literatura sustatzeko egiten duen ahalegina exkaxa baino exkaxagoa dela; Txatoren sareetan eroritako azken ligea; Lander eta Lokarriko lana, Lander eta sexuaren zulo beltzetan ezkutaturiko praktika desberdinak, Lander eta sexuaren zulo beltzetan ezkutaturiko praktika desberdinetan saiatzea nobioa aurkitzeko esperantzarekin.

Axik poltsatxoa erakutsi dio Josebari. Kokainaz hitz egin dute, izan zuten bolada hartaz, ia astebururo kokaina hartzen, afaltzera atera, parranda, zigarroz ito, eta, zorionez, nola aldendu zituen bizitzak, Joseba Axi baino gehiago, duela lau urte-edo hartatik eta bizimodu lasai -tabakoa ere utzi zuten- baina aspergarriago batera bideratu, Axiren zaputzerako. “Krisi ekonomikoa ondo etorri zaigu” egin du ironia Axik, Josebari ironia krudela irudituko zaiolako usteaz ezaxola.

Lehendabizi Axi joan da, eta gero Joseba. Kopa bana eskatu dute.

“Uste dut gureaz mintzatu beharko ginatkeela” bota du Josebak, espantu kutsua ironia azpimarratze-ko erabiliz.

Axik, erronkari eutsi dio begiak harridura keinu nabarmenegiz zabaldurik: “Gurea!!!”.

Barre egin dute biek, *gurea* hori urtetan erabili duten gaia balitz bezala, baina norbaitek galdetuko balie gertatu eta gertatzen ari zaienari buruz asko solastatzen diren, biak ala biak ezezkoan ados egongo lirateke. Josebak, zeinaren gainean erori baita urteekin bikotearen singladura, gutxiegi iritziko lioke, eta Axik, ez gutxiegi ez lar, besterik gabe: “Behar dena”. Kontua da esantzat eta jakintzat jo dituztela urteekin sortutako aztura eta hitzerdiak.

“Eta zure ustez zer gertatzen zaio *gureari*?”.

Eta orduan Josebak urteak aipatu ditu –egon da Muñoz Eugiren “Urteak badoaz” poema aitatzeko, baina nahiago izan du bere horretan utzi–, eta monotonía, eta elkarrekiko arreta eza, eta gero eta gehiago kostatzen dela autoa edo autobusa hartu eta Iruñetik Bilbora –Axi mahaiaren beste aldean, argifokupean, guapo dago, imintzioka ikusi duenean– eta Bilbotik Iruñera ibili beharra, eta ilusioa jarri beharra, eta...

“Ilusioen kutxa hutsik dago”, Axik.

“Ilusioen kutxa?”.

“Bai, ilusioen kutxa. Onartzen dut azken boladan zerbait falta zaigula”.

“Sexua, besteak beste”.

“Bueno, boladak izaten dira sexu askokoak eta sexu gutxikoak” laburbildu du Axik.

Josebak baiezkoa egin dio, senak zerbait ez dabilela ongi aditzera ematen dion bitartean.

“Askokoak edo gutxikoak. Orduan *kanpoan* maiz larru jotzen ari zara?” galdetu du Josebak, erantzunaren beldur.

Ustekabean harrapatu du Axi galderak, ezohikoagatik galdera beragatik bainoago.

“Bueno, ez, ez da hori. Baina egin genuen akordio hartan gauza hauetaz ez mintzatzea onartu genuen”.

Josebak onartu behar izan dio, ez diotela elkarri hor zehar izan dituzten sexu harremanez inoiz hitz egin, Txatoren harridurarako, eta Kennethena gertatu zenetik ez dutela inoiz hirugarren bat ekarri haien ohera. Eta hori kontatutakoan Txatok behin iradokia etorri zaio gogora, alegia, harreman homosexual bat, *marika* izan zen Txatok erabili zuen hitza, eramateko moduari dagokionez, beharbada zintzoagoa –eta iraultzaileagoa– dela bikote harremana egiaren gainean

eraikitzea, “Egia elkarri gauzak kontatzea da” zehazten ziola. Josebak –ordurako irakurria zuen Foucault–, egiaren indar inposatzailearekin erantzun zion, egia esan beharraren beharrak eragin zitzakeen bikote arteko gaizki ulertuekin, eta, gero betikoa, Txato ernegatzen zuenarekin, “Egiarik ba ote dago?”. Eta Txatok baietz erantzun zuen: “Egia dago, eta ez erantzun nik noizbait nire amoranteak engainatu ditudala esanez, engainuak egia badela onartzen du, eta zure sinplekeria filosofiko horiek ez”.

“Bai, baina igual akordioa alda daiteke” esan dio Josebak. “19 urte paktu bat errebisatu gabe...!?”.

Axi gotortzen nabaritu du Josebak.

“Zertarako errebisatu nahi duzu akordioa? Zer aldatuko luke? Zer jakin nahiko zenuke, zenbatekin oheratu naizen 18 urtetan? Norekin oheratzen naizen orain? Hori agindu dizu zure Foucault horrek?”.

“19 dira; norekin ala zenbatekin? *Norekin oheratzea* ezinezkoa duzu, printzipioz ezin duzulako errepi-katu”.

“19, igual du. Norekin ala zenbatekin? Igual du”.

Josebari Axiren txango sexualei buruz jakin nahi izatea tontakeria iruditu zaio. Gogoak atzera egin dio Josebari, San Frantziskotik itzulitakoan banandurik

egon ziren hiru hilabete haietara. Hara zer hiru hilabete! Ez zuen sekula horrenbeste min izan. Hasieran errealitateak zentzua galdu zuen; gero, ezin sinetsirik ibili zen bolada labur batean; ondoren sumina egin zitzaion, suminetik herra Axirekiko eta munduarekiko; eta, azkenean, tristura sakon bat. Batetik bestera jauzika ibiltzen zen egunaren buruan mila aldiz goitibehera batean bezala. Axik ez zion Iruñea eta harremana zergatik utzi zituen adierazi. Bigarren hilabetera arte ez zion kara eman, ez zituen bere deiak erantzuten, eta gerora, hiru hilabete haien ondoren, “bera prest egon zenean” deitu zion eta erdibidean gelditu ziren, “erdibidean-edo”, Lekunberrin, lehenago bideberri nazionalaren ertzean egon arren Sakanako autobidea egin zutenetik bazterturik gelditu zen aspaldiko jate-txe batean. Ordurako zazpi kilo galduak bazituen ere, lasaitzen hasia zen, hobeki lo egiten zuen, eta lanean, ahalegin handiz, kontzentratzeko gauza zen. Beste kontu bat zen bizitzari zentzua ematea. Zenbat aguantatu zuen Txatok! Akordatu zen lotsa eman ziola argal azaltzeak, laidoaren seinaleztat zituela berak sufrimenduaren eraginez galdutako kiloak, beste batek amodio handiaren erakusgarri lituzkeenak. “Kontuz ibili ezean utzia izateak barne homofobia lokartua es-

natzen baitu, norbere buruaren gaineko gorrotoz eta lotsaz edo uztaillearekiko gehiegizko herraz” laburtu zion Txatok, euskaraz behartu gabe aritzen zenean ateratzen zitzaion Erriberako azentu harekin, justu orduan, amodiotik gorrotorako bidea segundo baten buruan ehun aldiz egiten zueneko hartan.

Eseri zirenerako Josebak jakin zuen itzuli egingo zirela, ez ordea, hark amestutako baldintzetan, Axirenetan baizik. Barkamena eskatu zion Axik, baina hitz-erdika, ardura bere buruari barik izate abstraktu bati egotzirik. “Badaude nire nortasunean zuri min egin dizuten hainbat gauza”. *Stop*. Tarte egin zuten isilik. Josebak leihotik ageri zen zeru zatia bilatu zuen, kukukari ziren eguzki printzak. “Baina larrua jo bakarrik; sentimenduak sartzen badira, esan egin behar da” laburtu nahi izan zuen Josebak. Ez, ez du inoiz kontratupean horrelako jakinminik izan.

“Arrazoi duzu, baina niri gustatuko litzaidake bion artean beste norbaitekin enrollatzea”.

“Esan nizun ez nuela hirukoterik egingo San Franziskokoaren ondoren” moztu du lehor Axik, tonua pixka bat gora.

“Aizu, eta negoziatu?”.

“Zer negoziatu behar da nahi ez badut?”.

Hori da Axi. Gotorleku bat batzuetan, ez badu zer-bait egin nahi, ez du egin nahi, eta kito; harendako ez dago erdiko biderik, bere burua negoziaketetan sartzerik, *beharbada saia gintezkerik*. Ez, ezetz da. Akabo.

“Baina zergatik ez duzu nahi? Zer gertatu zitzazun San Frantziskon?”.

Zartako bat bezala izan da galdera Axirendako. Zertan ari da hau orain sekula egin gabeko galderak egiten? Ez dute ba utzi eta berriz hartu zutenetik adosturiko bizimodu bat osatu bikotearen lege idatzi-bakoei jarraiturik? Ez zaie bada ongi joan? Zertara dator etengabe gogoeta egin behar hori? Azkeneko 19 urteetan ondoan, aurrean, atzean, gainean, azpian, alboan izan duen bisaiari so egin dio: oraindik gazte mantentzen da, ez du zimur gehiegi, begi urdinek traza argitzen diote, bixar urdintzen hasiak halako eite interesgarri bat ematen dio; eta beherago oraindik jarraitzen du itxuroso, beharbada, bera ez bezala, gizenegi, lodikerak txintxilikatzen hasiak. Maite du. Maite du? Maita daiteke norbait 18 urte ondoren?, edo 19?, igual du! Seguru dago Josebak baietz erantzungo lu-keela. Maite du, nahiz eta maitasun hura...

Berak ere ez daki zer gertatu zitzaion San Frantziskon. Zer ostia!? Zertara dator galdera orain? Urteak dira Kennethez akordatu ere ez dela egiten. Iñigo igaro zaio gogotik hanka puntetan. Iñigo. Iñigo. Apalategiari eusten dioten metalezko barrak; bertan argiak egiten duen distira; whiskiaren errainu gorrixkak; ginebra botilen ardora koloretsuak; ardo botilen ilara ordenatuak, label zurixken fita urreztatuak, brilliant; kamareroaren mugimendu zehatz eta geldoak basoak lehortzen; mahai gehienak jada ilunpetan, hegi berdexkak agerian. Iñigo. Galdetu behar dio zer iruditzen ari zaion oparitu dion *Bestela Izanik* liburua, Josebarenez, euskal literaturaren azken *hita*. Axi... koadroen hurrenkera ordenatua, zutabearen arrakala zurixkak, zoruaren kolore beltzaxkaren laztasuna...

“Nik uste dut ondo gaudela erabaki genuen harekin” esan du Axik.

“Nik uste dut ezetz. Bata bestearengandik aldentzen hasi gara. Begira sexua”.

Josebak gauza horietan sinesten du, berak nahia-go du egunean bizitzea.

Egunean, hori da hitza.

Kamareroak zeharka so egin die. Bezero bakarrak dira jantoki ilundu berrian, haien mahai gaineko argia

da izekita dagoen bakarra. Axik irribarre egin dio. Ohartu da Joseba ohartu dela berak kamareroari irribarrea egin diola, eta libertigarria iruditu zaio, zeloek Josebari eragin diezaioketenaz sadikoki gozatuz.

Josebari oraindik harrigarria egiten zaio Axirekin hizketan aritzen denean izaten duen tunel batean egotearen sentsazioa, ez bertan dagoenean -orduan haien arteko bikotea baino ez da, gorabeherekin, lis-karrekin, alegrantziekin- baizik eta bukatutakoan el-karrizketatik burua jaso eta munduari egiten dion le-hengo begiratu aldian dena arrotz zaiolako sentsazioa, haien arteko intimitate hura -behartua ziur aski- balitz bezala errealitate bakarra, eta gainontzekoa ametsez-ko mundu ulertezina.

Mahai gainean dute kontua. Axi Bilbora etorri zenetik ez dute diruaz inoiz hitz egin; “Horrenbestearino gara klase ertaina” pentsatu du Josebak. Iruñean bizi izan ziren garaian bazuten bien arteko kontu korronte bat alokairua eta gainontzeko etxeko gastuak pagatzeko, baina “banandu” zirenetik -Josebak tonu adar-jotzailean batzuetan erabiltzen duen hitza da- ez dira inoiz diruaz mintzatu, batak besteari noizean behin egin dizkion maileguak gorabehera.

“Nik badakit zer gertatu zitzaizun San Frantziskon. Eta duela gutxi jakin dut niri ere antzekoa gertatu zitzaidala” arrapostu egin dio Josebak Axiri.

“Joseba, ez jo hortik! Egunean, moñoño, egunean bizi behar da. Bost axola San Frantzisko!”.

Lamiak tabernara jo dute bigarren kopa hartzera. Eta handik Highera, nahiz eta Josebak ez duen gustuko. Seguru asko ireki zutenetik –hirurogeiko hamarkadan izango zen– aldatu barik dago: azulejo zuriak, ispilua, komunak –dutxa antzeko batek inoiz egin gabeko praktika sexualak iradokitzen ditu–, goian gela iluna, labirinto exkax bat, non argiak piztean jendea agerian geratzen baita bere zereginetan, prakak orkatiletan bildurik, batzuk-batzuk kamisetak goraturik eta alkandorak zabalik, baten bat, ausartena –*eroena* esan-en luke Axik– biluzik. High erreginatxo baten modukoa da, baina “Oraingoan denbora gaintetik pasatzen ari zaio” pentsatu du Josebak, “eskabadora baten moduan”. Ia ez dago inor. Gazteek, eta zaharrek haien atzetik, Badulakera jo dute, duela zortzi urte inguru ireki zuten taberna moderno, hobeki dekoratu, garbi eta gela ilun gabeko batera; edo etxean gelditzen dira, aplikazio informatikoek haragia etxera eramanda. Eta telefono aplikazioetan, Lander gizajoari begi-

ratu besterik ez dago, “Marika ergelak baino ez! Orain ETAK marikak hiltzen hasi behar zuenean, zer eta utzi”, esaldi harrigarria Lokarrin bakea eraiki nahian dabilen batendako.

Barraren muturrean ohiko parrokiano egin dituzten lauzpabostez gain, Highen ez dago inor. Josebari oka egin zaio. Entzuna da jabearen xurkeria *kondairazkoaz*, eta hala ere ongi joan zaio duela lauzpabost urte arte. Zenbat istorio gertatuko zen bertan, eta, horregatik da taberna hori ahitze bidean den animalia espezie baten moduan babesteko zerbait.

Bi zerbeza eskatu dituzte. Ez dute elkarri ezer esateko, nahiz eta biek susmatu erabili duten elkarriketa ez dela bukatua. Josebari egin zaio gaia ateratzeko deliberoa sendotasun gutxikoa izan dela, bere burua lasaitzeko amarru antzeko bat, hurrengo egunean, bixamonaren menpe, ez duela ezer aitatu, ez hurrengoan, ez hurrengoan, ez hurrengoan; eta horrela jarraituko dutela azkeneko 18 urteetan bezala, bikoteek, makinek bezala, duten inertziaren indarraz, ongi antzean, baleko, are pozik ere.

Josebak barra izkinara begiratzean Oskar Iruñekoa ikusi uste izan du. Zeharka begiratu du. Bera da. Urteak daramatza Bilbon atzera-aurrera, eta ez du inoiz

ikusi... beharbada San Frantziskora egindako bidaia hartatik. Gero akordatu da entzun zuela ez zela Bilbon bizi, Sevillara alde egin zuela, marikiten nomadatasunaren arrazoietako nagusienari jarraiki, bikotekideen atzetik mundua batetik bestera korritzera.

Irribarrez hurbildu zaie, hatzarekin seinalatzen dituela. Josebak erabaki du guapo dagoela, hogeitazaharrago, baina hor daude sorbalda zabalak eta ilajea, Higheko foku mortuen argitara, ilunxko.

“Oraindik elkarrekin!”.

Eskua eskaini dio Josebari eta, behin helduta, elkar besarkatu dute. Josebak besoen indarra nabaritu du, bizkarreko giharren sendotasuna, eta beroa, beti harritzen baitu besarkadetako denboratxoan sortzen den beroak.

Oskarrek Axi besarkatzera jo du besoak zabalik.

“Ez nauzu ezagutzen...” laxatu da Oskar.

Eta orduan Axiren aurpegia argitu egin da oraindik ere Josebari harrigarria iruditzen zaion egia berdaderoz, ezen berdaderoa egiten baitu Axiren eta Axik adierazten duenaren artean tarterik ez izateak, desiratzen duen desira eta Axi gauza bera balira bezala; aldiz, Josebarendako beti dago tarte bat, askotan desira hori desiratzera behartu duelakoz bere burua; edo

desiratzen duena “eraikuntza lanetatik” datorkiola-koz, desioaren iturriaren ontziak jariora duelakoz.

“Aspaldiko!”.

Ez dutenez elkar ulertzen, Axik barraren sarrerako aldera joateko keinua egin du eta segitu egin diote.

“Zenbat denbora!” bota du Oskarrek.

Denbora pasatua da haren gainetik, baina ez luke- te txarrerako izan denik esango, baizik eta oinarrian dagoen trazaren alde-edo, zimurrek, haragiaren eror- tzeek, ilajearen bakantzeak –orain ikusi du burua ia soil- dua duela–, eskuetako larruazalaren laxatzeak alde egin dutela, gorputz horrendako gaztaroa pasatu be- harreko aroa izan eta adinean aurreratuxea izatea be- rezkoa balitz bezala.

“Iruñea utzi zenuenetik elkar ikusi gabe” laburtu du Josebak, azkenekoz San Frantziskora zihoazen bi- daia hartan ikusi zutela ezkutaturik.

Oskarrek irribarre egin du.

“Nik uste dut gaykanpada hura izan zela azken aldia. Amerikar batekin zeundeten”.

Axiri gogoak atzera egin dio une batean. Zerbeza- ri heldu dio gorputzak gogoeten bide malkartsuei itzu- ri egiteko helduleku moduan.

Kenneth! Gehiegitan agertzen ari da San Frantzisko gaur gauean. Galdetu baliote akordatzen den hartaz, ezetz erantzungo luke; gogoratzera jarrita, Kennethekin gertaturikoaz akordatzen dela, Iruñean izan zuten aste nahasi hartaz, baina gero San Frantziskon gertaturikoa errealitatearen halako azpil ilun bat baino ez da, azpilak beste azpil bat estaltzen duela. Horixe aurpegiratzen dio Josebak, errealitatea, arazoak esaterako, konpontzeko ez duela muinera jotzen, ez arakatzen, ez aztertzen, ez eta irtenbiderik aurkitzen ere, azpil bat paratzen diola errealitate horri, “Eta azpilez azpil errealitatea tinta tanta lodiz zipriztindutako koa-droa bilakatzen joango zaizu harik eta erabat ilu...”.

“Bai eta ostiak ere!” erantzun dio aipatutakotan, inoiz irribarrez-edo; behin, gogoan du, haserre, “mamia ukitu zuelakoz”, Josebaren ustez. “Berriketak”, haren erantzuna.

“Eta zuk, zer bizi klase?”.

“Noiztik...? Juanillorengandik? Ala, homosexualitatea bide, mundua aldatu nahi izan genuenetik?”.

Irribarre egin die.

“Ala *zenutenetik*, ze ni ez nengoen nireekin. Ze Juanillok esaten zuen moduan, jo dezagun larrua nahi dugunarekin, baina nik jotzen nuenean, muturra, isti-

lua eta bekain beltza besterik ez. Baduzue haren berrik? ”.

Josebari iruditu zaio antsia arrasto bat geratu dela dilindan galderaren ondoren.

“Honek esango dizu... uste dut badutela harremana”.

“Betiko moduan”.

“Joder, Joseba, betiko moduan... Oskarrek ez du jakingo ezer hari buruz noiztik, 93. urtetik?”.

Joseba lotsatu egiten da oraindik ere Axik jendarean errieta egiten dionetan, izan ere, badaki Juanillo eta Oskar...

“Ez, ez, egon gara bizpahiru aldiz, onesean. Hasieran kalean ikusi eta ez genuen elkar agurtzen, baina hemen bizi nintzela behin topo egin eta mintzatu ginen, eta gero beste behin elkarri deitu... baina gauzak hausten direnean...”.

Isildu egin da.

“Bai, aldarrikatzen zenuten ligeak lagun bihurtzeko gay jendeak zuen joera hura ona zela eta abar” jarraitu du Oskarrek.

“Zenuten...?” egin dio irribarre Josebak.

“Genuen” onartu du Oskarrek. “Baina ni berehala ohartu eta dezepzionatu egin nintzen; gauza bat da

teoria, beste bat praktika. Eta orduko Herri Batasune-ko nire militantzian ez bezala, zailagoa zen gaytasuna-ekin iraultzarekin baino koherenteagoa izatea. Bi gauzak nahasten zirenean gainera. Nafarroako EHGA-men gehienak Batzarrekoak zineten...”.

“Neroni ez” erantzun du Josebak.

“Neu ez nintzen ezta EHGAMEkoa ere!” bota du Axik, baso hutsak seinalaturik beste zerbeza bat eskatuko duelakoa eginez.

“Eta zu non ibili zara urte hauetan?”.

Eta orduan sorbaldak ñarrotu zaizkio, eta begiak lausotu. Dos Hermanasen bizi izan dela: “Bertako batekin” -euskara zein itsusia den batzuetan erreferenteak seinalatzeko orduan, pentsatu du Josebak-, “ni baino hamabost urte zaharrago batekin, Manuelekin; Juanillorenaren ondoren ohartu nintzen zaharragoak gustatzen zitzaizkidala”; eta hamar urtez-edo bikote-kide izan zirela, baina gero ahitu egin zela hura, eta beste hamar urtez bizi izan zirela elkarrekin bikote izan gabe -bikote bizimodua eginez baina bikote izan gabe-; eta duela urtebete edo beste zerbait behar zuela eta Bilbora etortzea erabaki zuela; “Informatikoa naiz, badakizue, eta lana topatu dut. Eta orain hemen, bakarrik”. Burua altxatu du Josebak taberna-

ren hondora begiratzeko. Betiko parrokianoak. Kamareroa, gaztea, hartza, guapoa, bizarduna... denentzat ere gazteegia. Konspirazioan ematen dute barraren bukaerako parrokianoek. Seguru larunbatero etortzen direla, eta barraren ertzean haien bizitzatik salbatuko dituen gizonaren zain daudela. Haserretu egiten dute Joseba, berak ez bezala, ez baitute haien alde borroka egiten, ez dute haien bizitza eraikitzen, ez dira berrasmatzen, hitz batean, ez dira marika. Axiri begiratu dio harro. Ilaje beltza, aurpegi zorrotza, adimena... uxatu egin ditu sualdiak, bikotearen gaineko gogoeta eta norabidea bere lepora bota izana, azken boladako nagia eta utzikeria, oso ongi jakin ez baina susmatzen ez duen zer edo zer. Harro sentitu da bere bizitzaz, baita Oskar kontatzen ari denarekiko. Nola liteke bikotea bukatu eta beste hamar urtez elkarrekin jarraitzea?! Txato entzun du errietan, bikote bat da bik bikotea direla erabakitzen dutena.

“Manuel gaixotu egin zen, gaixotasun larri bat dauka, eta gelditzea erabaki nuen; baina halako batean, hil ala biziko ebakuntza egin behar ziotela, nire buruari galdetu nion zer egiten ari nintzen han... eta Manuel uztea erabaki nuen. Hasieran ez zuen onartu nahi, baina orain gaixotasuna egonkortu denean... Ez

nago ongi, dena dela” bota du halako tokian halako aitortpenak Joseba eta Axirengan sor dezakeen atzerakoa kontuan hartu gabe.

Axik pentsatu du: marikek, diren lakoak direla, beren bizitzaren gainean halako laburpen borobilak-espantuk nortasunaren araberakoak dira- egiteko demaseko joera dute. Eta Joseba poztu egin da, Oskarri -barraren ertzean dauden beste horiei ez bezala- bizitza eraikitzen lagunduko diolako espantuzko laburpenaren borobiltasunak, sendotasunak, are desegokiak.

“Asko akordatzen naiz azken boladan, eta batere gorrotorik gabe diot...”.

Axik eta Josebak zeharka elkarren begirada bilatu dute taberna zuloaren ilunean, Josebaren pozerako, maitasun adierazpentzat jo baitu, egunerokotasunaren aztura bainoago, “ez nago ongi, dena dela” baino zerbait borobilago eta, beharbada, larriagoa datorrela igarririk.

“Akordatzen naiz, Juanillorekin utzi ondoren Iruñeko EHGAMEkoek bizkarra eman zenidatenean eraginda-koaz. Garai hartan zuk eta Txatok berariaz aipatzen zenuten Etika Marika hartako puntu batekin akordatu naiz askotan: marikak leiala izan behar du beste paria

batzuekin, beraz bikotekidearekin leiala izan behar du; horrek esan nahi du egiak eta justiziak gauza guztien gainetik egon behar dutela. Eta nire kasuan... ez dakit...".

Axik ez du atzera ahoskatu nahi izan bera ez zela EHGAMEkoa, egokitasun sozialerako duen dohaina gidari.

Joseba desenkusatan hasi da zizaka, duela hogeit urteko kontuak zuritu beharrak eragindako ezustekoa eta antzinako errua akuilu.

"Lasai" eskua sorbalda gainetik bota dio, "ez ditut kontu zahar haiek atera nahi, baina hori erabili dut buuruan. Bilbon bizi garen nafarren bazkari bat egin beharko genuke!".

"Ok, esango diot Txatori!".

Josebari iruditu zaio Oskarri gogoia ilundu zaiola. Axi seguru dago. Ilundu ez, belztu.

Nahiko mozkorrik etxe atarira ailegatu direnean ere ez dute Oskar aitatu.

"Aizu" bota dio Josebak, "ohartu naiz Bilbora bizitzera etorri zinenetik berriz ere elkarrekin bizitzeko esperantzatan bizi izan naizela, 19 urtez hor izandako zerbait dela. Eta badakit oso zaila dela, baina nola sentitzen naizen jakin dezazun nahi dut".

Axik ezin du sinetsi. Ze gau arraroa! Zertara dator hori orain.

“Ez dugu ba eztabaida hori afaltzerakoan bukatu?!” bota du ia garrasika.

“Nola bukatu?! Gure harremanaz mintzatu gara. Eta niri hori esan gabe gelditu zait”.

Josebak Axiren sualdia enbataren moduan sortzen nabaritu ahala urruntzeko ahalegina egin du, gero eta urrunago gogoia, Axi gero eta txikiago, haren hase-rraldia gero eta ñañoago.

“Zu beti igual... gauzak bukatutakoan berriz ere ireki behar”.

Atea zabaldu eta lekua egin dio.

“Ez naiz igoko” bota dio Josebak.

“Pikutara!”.

Eta portalean barna desagertu da, “300 mailako kolesterolarekin” pentsatu du Josebak sadismo ukitu batekin. Josebak Uribarriko plazari so egin dio. Isil dago. Distira egiten dute argiek; harantzagoko eraiki-nak itzal ilunak dira. Uste ez bezala, alkoholaren anestesiarene hondoan ez dio Axik min egiten, Oskarrene akusazio ia arbinduak baizik. Bueno, Axik ere bai, haren nagusikeriak, haren oldarrak, beraren gaineko haren itzalak. Mina baino areago, zaputza. Beherantz

hasi da txinbilin-txanbalan. Autorantz. Kontuz ibili beharko du gidatzerakoan. Badaki bide luzea duela Iruñeraino.

Parrandaren ondoren altxatu eta astelehenarekin atera zen Joseba etxetik. Nazkaturik zegoen, hainbeste parranda. Parranda klasekoekin, parranda EHGAMEkoekin, parranda AEK-ko lankideekin. Goibel. Burua ere galtzen hasi zen, eta horregatik ez zuen uste oposizioak gainditu zituenik. Hala ere, ezin izan zuen ongi lo egin, eta goizegi altxatu zen notak ikustera joateko. Lau azterketa gehiegi ziren. Ez zuen uste lehendabizikoa, zailena, pasatuko zuenik baina pasatu zuen.

Iruñeko Los Caídos monumentu frankistaren ezker aldeko irteeratik egin zuen Taxoare kalean behera. Eraikin Adimentsuak. Eskola. Eta gero, ezkerretara, Unibertsitate Publikoa zegoen. Aurreraxeago hiria bukatu egingo zen bat-batean, nekazari erroak azalaziz, agertuko zirenak ez baitziren orube edo lantegi, baizik eta soro, larre, baina soro.

Ez du aprobaturik. Gustatuko litzaioke, izan ere, AEKn kobratzen zuenarekin ez zeukan nahikoa bakarrik bizitzeko, eta nazkatzen hasita zegoen AEK-ko lankideekin bizitzeaz. EHGAMEkoekin ibiltzen zela ezkutatu behar izaten zuen eta, makurrena zena, EHGAMEkoei

ezkutatu behar izaten zien beraiekin ibiltzen zela ezkutatu behar ziela.

Eta ez zuen ezkutatzten ibili nahi. Goiza fresko zegoen, eta ahotik zerion lurrinak eutsi egiten zion aienatu arte. Txamarraren lepokoak jaso zituen arrasora ailegatzean. Hanketan dardara nabaritu zuen. Ez du aprobatuko. Eta ordura arteko bizitza eramango zuen AEK-ko lan eskas eta lankideekin bizitzen. Ezkutatzten. Luze egin zitzaion Taxoare kaleko azken eraikinetik -eskola batzuk- Sario eraikinera arteko kilometroa.

Atarian, esan zuten. Hurbildu ahala areago egiten zioten dardara hankek. Inpentsan bezala aritu zen oposizioetan, gainditzeko batere asmorik gabe. Egia zen ez zuela lehenengo azterketa gainditzeko asmorik, zailena batzuentzat, berarendako euskal aditzaz aritzea zaila ez bazen ere; baina gero itzulpenak ez zituen ongi egin. Eta nahikoa jende zegoen, hogeit bat, eta lau lanpostu baino ez ziren.

Zerbait falta zitzaion bizitzan. “Nobio bat, nobio bat” egin zioten dantza gogoan Txatoren hitzek, “zer nobio eta zer ostia, hemen larrua jo beharra dago; Etika Marika bat sortu beharra dago”. Etika Marika bat sortu beharra, berariaz aritzen zen Txato baina, hala ere, seriotan. Burua inarrosi zuen utikan esanez, ez

luke nazka sentitu behar, nahiz eta sentitu. Eta gero beldurra zetorren, bazekien, nahiz eta ez egin kutsatzeko ezer, birusa harrapatzeko beldurra.

Eguzkiaren eraginez lurrina zerion Sario aurreko aparkalekuari. Kanpoko atean bilatu zuen; ez zegoen paperik han.

Zalantza egin zuen sartu-ez sartu. Seguru asko ez zuen aprobatuko. Aldapan gora egin beharko zuen, eta kito, eta bere bizitzarekin segitu. Berehala ohartu zen ergelkeriatan ari zela. Sartu egin zen. Langile bat zerrendak zintzilikatzen ari zen ezkaratzeko taula batean.

Hurbildu egin zen. Lau grapa kolpe aldi jo eta kortxo-panelean zintzilikaturik utzi zuen folioa. Nahiko goian gelditu zen eta letra txikia izanagatik, hantxe ikusi zuen bere izena. Nahiko goian. Zenbakiak zetozen. Laugarren zegoela ikusi zuen. Laugarrena. Laugarrena. Laugarrena. Laugarrena. Ukabila bildu eta itzultzean besoa altxatu zuen. Gero notei erreparatu zien. 6.51 zuen. Aurrekoei erreparatu zien. 6.69, hirugarrenak. 7, bigarrenak. 7.20 lehenak. Joseba Aldaz, bera; Pello Muñoz Eugi, hirugarrena; Joxemari Sistiaga, bigarrena; Begoña Agirregomezkorta, lehena.

Ostia, aprobatu du! Neska bat ikusi zuen sartzen, ondoan mutil beltzaran bat zeramala. Hautsiapur hurbildu ziren kortxo-panelera. Zerbait ezaguna egin zitzaion Josebari. Ez zekien zer, edo neskaren zurrunbilo ardailatsua edo mutilaren eitea.

Neska txikiak kortxoari so egin zion. Tarte handia zegoen begien eta folioen artean, baina ikusi, ikusi zuen; eta mutil zurrunduarengana itzulirik, jauzi batean besarkatu zuen.

“Aprobatu dut, aprobatu dut!”.

Neskak jauzi egin zuen berriz ere, aretoaren erdian mutila zurrundurik zegoen bitartean. Mutilak Josebari so egin zion. Josebak mutilari. Irribarre egin zion harriturik: Artxandan ezagutu zuen Bilboko mutila, Asier. Asierrek ez zion irribarrea itzuli. Gorputza jiratu zuen pixka bat, bizkarra erakutsirik Josebaren hurbiltzeko asmoa zapuzten zuela. Josebak erdi bidean aurkitu zuen bere burua. Pinuak, gauak, hiriaren argi urrunak. Eta mutikoaren bizkar emate ia nabariezin hark azken urteko bere buruaren onartze guztia aienatu zion, eta beldurtu egin zen, eta damutu, zen bezalakoa izatea-gatik, “marika” entzun zuen Txato bere artean, “horrenbeste kostatzen zaizu onartzea?”. Gorroto olde batek hartu zuen. Eta bera ere bizkarra ematen hasi

zenean, Asierri begiek traizio egin ziotela iruditu zitzaion, gorputzaren jarreraren eta begien arteko desadostasun erotiko batek gogo eta gorputzaren talkaren bitartez, beldur eta desioaren amildegiaren gaineko jauzia erakutsiko balu bezala. Berak ere bi indar horien tenkan nabaritu zuen bere burua.

Neska zerbaitez ohartu zen orduan. Bi mutilek zerabilten energia joan-etorriaz. Orduan mutilaren gorputz jiratua zuzendu egin zen, ezer gertatzen ez zela, ez zitzaiola, ez zaiela erakutsi nahian.

Neskak Asierri so egin zion. Eta gero irribarre zabalarekin hurbildu zitzaion Josebari, gerora denei harrigarria irudituko zitzaien segurtasunez.

“Zuk ere aprobatu al duzu?” bota zion arranditsu.

Neskaren atzean gelditu zen Axi, atzean babesa zela erabakirik.

Axi ohartu zen mutilaren irribarrea -nola zuen izena, ez zen akordatzeko- ez zela Begoñak uste bezala harendako, baizik eta berarendako.

“Bai” bota zuen Josebak, areago Axiri neskari baino, lehenagoko beldur eta desioaren arteko tenka ahantzirik, zeina berehala berritu baitzitzaion, Axik begiekin ezezko keinua egindakoan.

“Bai” esan zuen berriz ere.

Orduan jakin zuen Axirekin beste lotura bat sortu zuela, sekretu bat partekatzen dutenen artean sorturikoa.

“Joseba”.

Duda egin zuen, beti bezala, emakume gaztea agurtzeko orduan: musua ala eskua. Neskak erabaki zuen, bere altuera baxutik hanka puntetan paratu eta masaila eskaini zionean; keinua naturalegi izan nahian konfiantza handikoegia suertatu zen.

“Begoña Agirregomezkorta, Bego”, gehitu zuen gero. “Zenbatgarren gelditu zara?”.

“Azkena, laugarrena”.

“Ni lehendabizikoa”.

Lehendabizikoa. Dilindan gelditu zen hitza airean, bere tonu ezaxolatiak areago azpimarratzen zuela ordena, lehendabizikoa, kanpoko eguzki susmatuak iluntasuna lodiago egiten zuen hartan; lehendabizikoa, tenplu lako isiltasunaren artean.

“Zorionak”.

“Eskerrik asko”.

Bi mutilen begiak gurutzatu egin ziren neskaren buru gainetik.

“Zuri ere bai”.

“Eskerrik asko” itxi zuen Josebak.

Orduan neska atzera jiratu zen.

“Hau nire...” zalantza egin zuen.

Elkarri so egin zioten, Axik Begori, Begok Axiri. Axik ez zuen ezer pentsatu. Beharbada, pentsatu zuen, Begoñak usteko zuen berak lotsaturik egon beharko lukeela, erreprotxeek eta gaizkiulertuek ezartzen zuten joan-etorrien dinamika zoroan, non logikak dimititu egiten baitu, eta arrazoiak korapilatzen baitira garunean paisaia nahasia sortuz; baina ez zegoen, ez zegoenez.

“Hau nire... senargaia da”, bota zuen Begok zalantza egin ondoren. Axik urduritasun keinua egin zuen Begoñak esandakoak Josebarengan eragingo zuen us-tezko harriduraz kezkatutik.

“Et, et...”.

“Beno, nire senargai... ohia”, zuzendu zuen Begok, Axiren begirada zemaizkoaren pean.

Begok ingurura so egin zuen. Han urrutian, argitan murgilduriko mostradorerantz abiatu zen, bi mutilak aurrez aurre utziz iluntasunean. Axik mugimendu eme harrigarri batez gorputzaren zama ezkerreko hankaren gainean bermatu zuenean, eskuineko hankaren gainean bermatu zuen Josebak bere gorputzaren zama, halako mugimendu paralelo batean, bien gor-

putzak gogoaren zentsura eta aurreiritzien gainetik, gertaturikoaren oroimenez edo: Axiren aldaka aurrera-tzeari aldaka aurreratuz erantzun zion Josebak; giha-rreren tenkatzeari giharren tenkatzearekin; burua gora-tzeari buruaren goratzearekin.

“Ez aipatu ezer” esan zuen Axik.

Josebaren gorputzak, ezen ez gogoak, atzera egin zuen: aldaka atzeratu zuen, bizkarra zuzendu, besoak aurreratatu.

“Hartuko dugu zer edo zer... ospatzeko?” proposa-tu zuen Josebak, Begoña hurbildu zitzaienean jatorri ez jakineko larritasun batek harturik. Ausarta izan be-harra zeukan.

Proposamenak harritu zituela ohartu bazen ere, esan ahala jakin zuen baiezkoa emango ziotela, ez nahi zutelako baizik eta ustekabeen harrapatu zituela-ko.

“Goazen bertako kafetegira, ongi dago”.

Noraezago nabaritu zituen. Eta halako batean ber-tan arrantza egingo zuelako segurantza izan zuen; haien arteko lotura gauzazkoa zela agertu zitzaion bere buruaren harridurarako klarki. Bilbon egindakoa egin ondoren, elkar agurtu zuteneko unea etorri zi-tzaion gogora olde min baten moduan, oraindik ha-

tsak hatsari emanik besarkaturik gelditu zireneko unea, gauaren isiltasuna, larruazalaren ukitu itsaskorra, usaina. Eta gero autoraino egin zuten bidea, isilik, bata bestearen ondoan, ukitu gabe pinu artean behe-
ra, eta autora ailegatzean zoruaren gorabehera bat zela eta gorputzek tupust egin zuteneko unea, eta bien artean ezarri zen lotsa antzeko hura, esku ematea eta nola sartu zen Joseba autoan halako asaldatze bat geratu zitzaiola, errealitateak, ikusten eta nabaritu zuen orok dardara eginen balu bezala. Ez zen telefonoa eskatzera ausartu. Elkar aurkeztu zuten. Eta kito. Eta orduan sexuaren ardailaren bukaerari egotzi ziona beste zerbait iruditu zitzaion une hartan, zerbait, beste zerbait, ongi ez zekien zerbait. Zerbait.

Korridore luzeetan barna gidatu zituen.

Axik aurretik joaten utzi zituen. Bi metrora-edo, el-karrizketan kateaturik ordurako, lanpostuaren gorabeherak aletzen zihoazen. Bazekien Begoñak xehetasun guztiak galdetuko zizkiola, borroka egingo zuela, antzinatasuna erakutsiko ziola, nagusigoa ez bazen. Bi oilarreko bikote batek ez du funtzionatzen, bestela harekin segituko zuela pentsatu du Axik. Ez zuen harekin bizi nahi, baina beste inor ezagutzen ez zuenez bazekien, nahiz eta haien artekoa berak bukatutzat jo, Be-

goñari ez zitzaiola erabat pasatu, edo haren izaera borrokalariak ez zuela pelea finitutzat emango.

“Zer nahi duzue?” galdetu zien Josebak taberna argitsuko barrara hurbiltzean.

Argian murgildurik gelditu ziren; patioko mahaiek baporeak ematen zuten errainutan igerika.

“Aizu, ikusi dut Aldaz duzula abizena” ohartarazi zion Asierrek Josebari.

“Bai. Zergatik?”.

“Ni ere Aldaz naizelako”.

“Hara zer kointzidentzia! Ama Iruñekoa da, baina aita Lekunberri Aranazkoa zen, gaztetan Iruñera etorria, baina hangoa”.

“Ez esan! Gure ama ere Lekunberrin jaioa eta hamalau urteak arte han bizitakoa da; errota zeukaten gure aitonek alogerean; gero Bilbora joan ziren bizitzera. Nire arreba hasi da orain herrira joaten”.

Begoñak inbidiaz begiratu zituen.

“Bueno, gu bion lanengatik”.

“Hiruron lanengatik” zehaztu zuen Begoñak.

“Hiruron?”.

Josebari so egin zion Axik.

“Bai, datorren astean hasiko da ETBn lanean”.

Josebak galdera ikurra marraztu zion aurpegian.

“Hara! Orduan hirurongatik”.

Kopak altxatu zituzten.

“Elkarrekin biziko gara” zehaztu zuen Begoñak.

Josebak eta Axik elkarren begiradak elkarren hankartera bidea egiten antzeman zituzten. Ez zen irribarrerik izan.

Ardailan egin ditu Bilborako 150 kilometroak. Begoñak deitu dio: “Zerbait pasatu zaio Axiri”. “Zer?” galdetu dio, baina ez dio esan nahi izan; *KulturaSustatzekoZuzendaritasunak* kalte egiten diola aipatu behar diola iragan zaio gogotik, idazle, antzerki-talde, zinema zuzendari, eskultore, malaparteo artisten artean hitzaldiak eta kanporako bidaiak erregalien moduan banatzera ohitu izanak adiskideen artean botere igualtsua erabil dezakeelako uste ustelaz errepararaziz.

“Bueno, beharbada ez da ezer” pentsatu du Lekunberri Aranatz parean azeleragailuari sakatzen diola. “Edo beharbada hil egin da, eta ez dit esan nahi izan beldur ez nadin” egin zaio gogoan bere buruari, dramatizatzeke joeragatik erdi errieta erdi trufa. Edo errieta herena, trufa herena, desira herena, astebete baitaramate hizketatu gabeen, Bilbon 19. urtemuga ospatu eta Axik pikutara bidali zuenetik. Arrapaladan iragan zaizkio Bilbotik Iruñerako hamabosteroko bidaietan egiten joan zaion desgogoa, lehendabizi, eta nekea gero; elkar ezagutu zutenekoa, eta hari buruz

izaten zituzten xehetasunekiko desadostasunak: se-
guru dago elkar ezagutu zutenean bera ez balitz Axi-
rengana hurbildu, bakoitzak zenbait alde egingo
zuela, eta bakarrik jaitsiko zela Artxandatik, joan beza-
la, autoan lo egin eta hurrengo goizean Txato-eta ja-
sorik Iruñera buelta; eraiki duten guztia, eta, jakina,
heziketa sentimentalari dagokionez, ezkerkeriagatik,
eta marikitismoari dagokionez, sexuaren aldarriaga-
tik, handi, larri, gora edo higatuagatik onartu nahi iza-
ten ez duen hitza: maitasuna; hasieratik bukaerara-
koa, une zoro haietatik orain duten urmael moduko
harreman honetara egindako lan guztia; elkarrizketak;
haserreak, batez ere, haserreak; gaizki-ulertuak, neke
edo utzikeriagatik egindako traizio txiki horiek guz-
tiak: gogo txarrez egindako deiak, lehen irrika sortzen
ziren bekokiaren kurba leuna itsustasunaren eredu iru-
ditzeari kontra ez egin izana; aldapatxo egin, eta, hala
ere, larrualdiak, higadura; baina, baita ere poza, ho-
rrenbeste urte elkarrekin hori guztia eraiki izanaren
harrotasuna, heterosexualez bestela sortutako harre-
mana, harreman irekiaren kontua... Josebari oztopo
egin dio gogoaren ideien hurrenkera labainak. Harre-
man irekiaren kontua. Baina askotan ergel moduan jo-
katzen dute, astebete hitz egin gabe eta orain...

Errabiak hartu du Begoñak ez diolako zer gertatu den esan. Estomagoa dantzan du. Cruz Mariren bulegora sartu eta badoala aitatu dionean ez dio kasu gehiegirik egin, hura ere ez baitabil ongi; emazteak nazkaturik maletak atarian paratu dizkio urteetan buztanarin baten moduan aritu ondoren, emakumeei eman ezin diena eskaintzeko itxurak egiten, eta gero arazo gehiegirik gabe atzera egin ahal izateko eskainitakoa eskaini duela ukatzen; horien artean Begoña gaixoa, zeinak urteak eman baitzituen entzungor, Cruz Marik andrea utziko zuela sinetsirik, Axik zein Josebak aukeraren urruntasuna seinalatzen bazioten ere.

Nahiz eta buletina itzultzearen lana gero eta errutinatsuago egin, makina olioztaturik daukate -lege espainiarrari bereziki darion idazmolde korapilatsu eta nasai hori itzultzeko sortu dute, eta urre gorria bailitzan ordenagailuan gordetzen duten korpus hori-, hainbeste, astero itzuli behar dituzten buletinak goiz erdirako eginik, norberak bere gauzetarako erabiltzen ditu arratsaldeko hirurak arteko lau orduak. Berak, azken boladan, Andrew Motionen amaren heriotzari buruzko poemak itzultzeko, Muñoz Eugik *Elgacenan*

argitaratzeko aginduak eta Miren Akerretaren *Dolutan* filmaren prentsarako aurkezpen fitxa.

Axik adarra jotzen dio Landerri, Euskal Gatazka noiz bukatuko eta krisi garaian, adiskidetzea, erreparazioa aurrera eramateko -antzezteko, kongresuak egiteko, nahi balitz Landerrek Axirekin eztabaidatu ondoren horren inguruko telebista programa bat egiteko- dirurik ez dagoen une bertsuan. "Euskaldunok beti horren egoki" ihes egin dio, ironiari ezin eutsirik.

Zenbat aldiz egin du bidaia hau? Errudun nabaritu du bere burua astebete daramatelako haserre, dena, 19 urteren ondoren berak oraindik elkarrekin bizitzeko gogoari eusten diolako. Eta haren sutu aldia. Hura sutu egiten baita gauzak arrazoitzen hasi aurretik.

Telefonoak jo dio.

"Bego naiz!".

Egin den isilunearen hondoan ardaila borborka nabaritzeak antsiatuago paratu du bera. Autoaren zarat leuna entzun du.

"Zer gertatu da? Zergatik ez didazu lehen esan?".

Bego irudikatu du beste aldean, sakelakoa belarrian. Eta orduan jakin du hark ezer esan gabe zerbait larria, ziur aski istripu larri bat, heriotza, beharbada, gertatu dela.

“Ez nekien zer gertatu den, Joseba!” erantzun dio Begoren ahots metalikoak.

“Hil egin da?” bota du arin.

Harritu egin du bere buruak esan ahala; ez du susmatzen botatako esaldiaren eta benetako esanahiaz jabetzearen tartean ereinik dauden neke eta atseka-been demasa.

“Gurutzetan gaude. Bihotzekoa!”.

Gurutzetako erietxera ailegatutakoan zain ditu Begoña eta Lander. Musu azkar bana eman eta, ordua delakoz, airean bezala eraman dute Zainketa Intentsiboko Unitatearen itxarongelara. Sartu direnean zain daude gainontzeko ahaideak. Gaixo bakoitzeko bi, gehiago badira -dio kartelak- ziu gela inguratzen duen korridoreetako leihoetan behar dute. Larritasuna nabari zaie aurpegieretan, bizitzaren zama guztia gainera erori izan balitzaie bezala. Bozgorailuetatik sar daitezkeela entzun dutenean abiatu dira gela barnera Bego eta Joseba, Landerrek, zalantzan, ziu inguratzen duen korridorera jo duen bitartean. Ia dantza harmoniatsua izan da ahaide bakoitzak bere gaixoa aurkitzea. Han daude gorpu ia, tutuz, trakeotomiez, sue-roz eta odol poltsez josita.

Axik ez duela Axi ematen pentsatu ahala, Begoñak, gogotik iragan zaionaz ohartu balitz bezala, sorbaldatik heldu dio Josebari.

“Ezin dut sinetsi. Gizajoa, ez du bera ematen”.

Begoñak baiezkoa egin eta areago estutu du.

Tutu batek eskuineko besotik suerorainoko bidea egiten dio; beste bat, lodiagoa, ageri zaio zintzurrean; beste bat sudurretan barna doakio.

Ordu batzuk baino iragan ez badira ere, besoek galdua dute guritasuna; aurpegia, zurbilaz gain zorrotua du, sudurra luzatua, eta kokotsa barnera sartua; zaila da Axiren gorputz sendoa izara zuri-urдин haien pean dagoela sinestea, halako muino leun batzuk baino ez baitira nabari.

“Ez da ezer izango. Aterako da, eta ongi paratuko”.

Begoñak baiezkoa egin dio buru keinu arin batez.

“Esan didate gero egon gaitezkeela medikuarekin”.

Josebak beste gaixoei erreparatu die, Axi bezala maindire, tutu eta poltsez estalirik. *Elgacenarako* itzuli zuen Philip Larkinen poemaz akordatu da: “Hotelik dotoreena baino erraldoiago...”. Eta gero Andrew Motionen poema oraindik itzuli gabeak: *Anniversaries*,

ama zalditik erorita koman izan zuen urteetan eskaini zizkion poemak etorri ahala uxatu nahi izan ditu.

“Hilabete baten buruan kalean egonen da”.

“Uste dut anbulantziak dexente berandutu direla” esan dio Begoñak, makurrenaren iragarle.

“Zer esan nahi duzu?” galdetu dio erronkan Josebak.

Axik mugitzekoa egin duela iruditu zaio.

“Mugitu egin da!?”.

Begoñak maindire, tutu eta suero-poltsa tropoilura jiratu du burua. Han datza kamillan, hormatik hurbil, leihoa atzean dutela, eta leihoaren atzean Landerren aurpegi mindua, denak ere bigarren mailako ikusle izatera beharturik. Eta Axi, haien artean, mugiezin, bizitazatik aparte, ia objektu, tutu, maindire eta aire irreal horren ondorioz.

“Txikia ematen du, ezta?”.

Josebak baiezkoa egin dio.

“Ongi jarriko da, ezta?” esan dio Josebak Begori. “Baina non gertatu da?” galdetu dio ondoren, Begoña elkarrekin astebete haserre eta hitz egin gabe daramatela jabe daitekeela-eta asaldaturik.

“Deustuko Erriberan. Nonbait lasterka egiten ari zen”.

“Lasterka!?”.

Josebari so egin dio. Durduzaturik. Gertatutakoa ezin sinetsirik. *In shock*. Bozgorailuetatik denbora amaitu dela entzun dute.

Josebak azken begirada bota du Axi zenera; eta “zenera” bururatzearekin bat damutu egin zaio, pentsatze hutsa zorigaitza deitzea baita. Hurrengo egunean deitu izan balio, sikiera! Zergatik kateatzen dira horrelako haserreetan?

Senideak itxarongelan bildu dira; atzean gelditu dira maindire, tutu eta suero-poltsa tropoiluak, ez ordea, halako harridura bat, artean bizitza injustua dela erabakitzeke gauzeza, ez erabakira ez direlako ailegatuko, logikoena da, baizik eta harridurak berak oraindik ez dielako gogoaren oldoztera iristen uzten. Hormak iragan dituzte tunel batean balihoaz bezala, gehiegizko beroak pertsekutaturik, eta handik igogailuetara, eta handik kalera, eta handik metro, autobus eta autoetara. Josebari dena irrealia iruditu zaio, amets bat bezalakoa. Hura ez zaio hari gertatzen ari, beste norbaiti baizik, eta, hala ere, objektuek eutsi egiten diote materialtasunari, baina kokaturik dauden espazioak ez du funtsik, ez dago lurrari loturik, eta dardarra egiten du zorabio histua sortuz. Hura ez zaio hari

gertatzen ari, beste norbaiti baizik. Begoñari eutsi dio atarian ez erortzeko, Landerren begirada errukitsua-
ren pean.

Begoñak, larriturik, heldu eta Landerrekin kezka begirada trukatu du. Josebak laxatu eta eskua altxatu dio, ez dela ezer gertatzen aditzera emateko.

Piliri, Axiren arrebari, deitu behar dio. Ez dira inoiz ongi konpondu elkarrekin, Josebak pentsatzen du batzuetan Pilik berari egozten diola Axi homosexuala izatearen errua, Bego utzi eta gizonetan hasi izana berak hedaturiko birus baten ondorio izan zela, kasik izurrite baten antzekoa. Eta Lekunberrin bisitatzen dutenean, Josebari ez zaio gehiegi gustatzen aitaren herrira bisitan joatea, urruntasun nabarigaitz baina tenkor batekin hartzen du beti, kasik mesede bat egiten ari baltzaio bezala, nahiz eta kanpotik, Axirentzat esaterako, oso zaila izan antzematen, biek ala biek bai baitakite ez dutela elkar gehiegi maite, eta hor daudela partekatzen duten afektu bat dagoelako, bestela ez luketela elkar agurtu ere egingo kolean bata bestearen ondotik pasatzean; Josebak Nafarroaren eta herrien ja-tortasun indigenaren loriatan bizi den abertzale bilbo-tartzat du.

“Piliri deitu behar diot”.

“Deitu diot nik” esan dio Begoñak.

Bego ez dagokion tokian sartu izanak Josebari errabia eman dio hasieran, baina gero lasaitu egin du Piliri anaiaren bihotzekoaren berri eman behar ez iza-teak.

Korridorearen izkina batean dituzte zain medikua eta erizaina.

“Zu nor zara?” galdetu dio gazteleraz jatorri latinoamerikarreko medikuak.

“Bikotekidea” erantzun du Josebak, besteengandik pauso txiki bat aurreratuz.

Ohiturik ez balego ez lioke erreparatuko mediku hegoamerikarraren harridura keinu nabariezinari, baina ohituta dago eta argi eta garbi irudikatu du mediku gaztearengan egin den halako tupustea.

“Zer moduz dago?” galdetu dio gazteleraz medikuari.

“Bihotzekoak eman dio. Ez dakigu oraindik. Non-bait norbaitek lurrean ikusi, deitu eta anbulantziak ailegatu arte denbora dezente pasatu omen da”.

Josebari anbulantzien kontua arkano bat egin zaio. Bigarren aldia da esaten diotena.

“Eta?” erronka-edo egin dio medikuari.

“Ez dakigu. Jakin dugu hiperkolesterolemia arazo bat duela. Eta, beharbada... ziur aski, buxaturik izango du arteriaren bat” laburbildu dio medikuak, “arteria” hitzaren r-a leuntzen duela. “Itxoin baino ezin dugu egin. Bihar izango dugu informazio gehiago. Egonkor dago, hori bai”.

Egonkor pentsatu du bere baitan Josebak, hara ze hitza!

“Ongi jarriko da?” galdetu dio, antsietatea dela-eta kio egiten zaiola eztarrian gora.

“Ez dakigu” itxi dio medikuak azentua finduz. “Bihar egongo gara”.

Medikuak bukatutzat jo du elkarrizketa.

Autora ailegatzean Begok -Axik egiten zuen moduan, bestalde- ez du zalantzarik izan eta eskuaren keinu agintari batez autoaren giltzak eskatu, ireki eta gidariaren jarlekuan eseri da.

Landerrek txintxo-txintxo berehala jakin du zein den bere tokia, eta atzean eseri da.

“Bazkaltzera joango gara” ebatzi du Begoñak.

Joseba ezetza zezeltzen hasi da, marmarrak autoaren sabaian oihartzun moduko bat egiten duela.

“Et, et, et... ez zaizu komeni bakarrik egotea. Lotara ere nirera etorriko bazina, hobe”.

Zer gertatzen ari da? Denak irrealia ematen du, baina autoak auto dirudi oraindik, eskuan dituen bere eta Axiren etxeko giltzen metalak gogortasun ikaragarria transmititzen dio, plastikozko autoaren altzama-haiak presentzia itzela du, baina, gero, dena... oso irrealia, beraren eta egoera eta gauzen artean izugarrizko distantzia balego bezala.

Ez daki zergatik, baina ezezkoan tematu beharra du.

“Ez, Bego, Axirenera joango naiz... eta, bazkaltzera... nahiago dut rato bat bakarrik egon”.

“Ez, bazkaltzera joango gara. On egingo dizu” eten du Begok.

Une batez Landerren laguntza izatea desiratu du, baina Lander ezkerretara ageri den San Ignazio auzoari so doala iruditu zaio Josebari, eta berriz ere harri-garria iruditu zaio dena, lasaitasun interpretatu duen Landerren isiltasuna barne.

Josebaren gogoak zurrumbiloa dirudi. Batetik bestera egiten du ardailan, San Ignaziotik pultserez betetako Begoñaren besoetara; erdizka utzi dituen itzulpenetatik Axirekin duela astebete izan zuten esan gabe-ko hitzen errieta hartara, “deitu izan balio sikiera”; ez du bazkaltzera joan nahi; Landerren amoranteetatik

etxean, Iruñean, arratsaldean egitea pentsaturik zeukan arropa garbialdira; batetik bestera, bestetik batera. Bazkaltzera joango dira, eta kito pentsatu du Begoña. Ongi etorriko zaio, ezin dute bakarrik utzi.

“Ni ere gaizki nago, indeed” esatekotan egon da Begoña, baina bere horretan utzi du, alegantzia eta sufrikarioa bikoteetako kideen eskusiba balira bezala. Bikotekidea izatea desiratu du une horretan, etxera joan eta norbaiten besoetan bildurik adiskide mina koman dut esan eta negar egin, hemen, Joseba sostengatzen egon beharrean, sufrikarioaren eskusibotasuna harena dela ahoskatu barik. Cruz Mari eta *wasted time*-aren adakera. Edo hobe lanean, *Alde!* Idazle abertzaleek Eusko Jaurlaritzaren politika kulturalaren kontrako gutun irekiari erantzuna idazten; Muñoz Eugiri *Argian* egindako elkarrizketan ETB-1en kontrakoak aztertzen, edo Euskal Herria hobekien ordezkatzeko luketen idazleen zerrenda sortzen Etxepare Institutuari pasatzeko, edo Estatuan euskal kultura sustatzeko kanpaina nondik joan litekeen gogoeta egiten.

Lodia egin zaio auto barneko eguratsa, eta Joseba eta Lander bi ezezagun. Axirekin ez zaio hori gertatzen, Axirekin beti izaten du halako kidesun ezkutu

bat, noizbait galdua -banandu zirenean ziur aski-, baina berehala errekuperatu zutena. *A soulmate*.

Eta Begok baiezkoa egin du buruaz, baiezkoa ahoskatzera ezin ausarturik. Susmatu du medikuaren hitzen azpian, “dexente berandutu omen ziren anbulantziak”, Axi Axi izatera inoiz itzuliko ez den epaia dagoela, *indeed*. Koma egoeratik ateratzeraz, eta duda egiten du, Axiren parte bat joana dela. *Lost forever*. Nahikoa badaki kulturaz, pentsatu du, bizitzaz jakiteko, eta bizitzan gauzak nekez ateratzen dira ondo. Ondo ateratzeko bulkatu egin behar dira, ekin, eta hemen ez dago zeri ekin. Patua da, kolesterola -hori esan die medikuak- haragiturik, sekula ez hobe esanda, gantz eta odol.

Bazkaltzera eseri direnean, Begoren hizketa sortzeko galdera ia erretorikoari erantzunez -“zer moduz zure ligeak?”-, hitz eta pitz hasi da Lander ordura arteko isiltasuna konpentsatu nahian.

“Nazkatuta nago. Gero eta zoro gehiago dabil aplikazio informatikoetan; baiezkoa esaten dizute, ez dira agertzen; eta agertzera, jota daude; ikusi eta giharrak baino ez dituzte nahi; nik badauzkat, baina, nonbait ez dira egokiak; edo larrutan egin ondoren alde egin nahi dute, dutxa hartu eta berehala, larrualdiaren truke ez-

kontzeko eskatuko diezulakoan; joder, ze beldurra konpromisoari. Inposible dago, benetan. Txatok sortu nahi zuen Etika Marika haren ordeztu Terrorismo Marika sortuko nuke eta banan-banan marikak hiltzen hasi. Joder, ganbaratik jotako ze kuadrilla” korrituan atera zaio, mina dariola.

Josebari oso urrutikoa egin zaio dena; zertaz ari da Lander hau ligeez hizketan Axi erietxean dagoen bitartean?

“Baina ibili zara batekin hiru hilabete inguru” esan dio Begok. “Topo ere egin genuen elkarrekin, akordatzeko zara?”.

“Bai. Ea inora irtengo ginen galdetu nion aurreko egunean larrua jo ondoren, eta komunera joan eta bueltatu nintzenerako alde egina zen. Aplikazio guztietan blokeatu nau!”.

Zertaz ari dira bi hauek? Josebak urruntzen nabaritu du bere burua jatetxearen argi iragazietara; dena da oso erreala, baina tunel baten ahoan bezala ematen du. Eskatutako entsalada mahaian paratu diotenean okada egin zaio. Saiatu da letxuga hosto bat ahoan sartzen, baina janariak nekez egiten du behera. Atsekabe handien aurrean beste batzuk jatera ematen

diren bezala, berak baraura egiten du ezin irentsi due-lakoz.

“Jan ezazu, gizona!” agindu dio.

“Banoa!”.

Altxatu egin da. Zertan ari dira!? Axi erietxean dago. Axi koman dago! Jatetxean utzi ditu, La Merced zubitik Zazpi Kaleetara abiatu bitartean. Badaki haiek gurutzatuta Uribarri daukala. Arranpa mekanikoa, igo-tzeko; plaza; Axiren etxea. Axi. Begoña, Lander; Lander, Begoña. Hara ze bi! Nola liteke gertatzen ari zaiona. Zaiena, zuzendu du bere burua.

Iruñeko Curia eta Nabarrerria kaleen gurutzean zegoen eraikinera sartzean, bazekien argia aldatu egingo zela, eraikinaren barnean kristalezko kupula karra-tu batez estalitako patio ikaragarria baitzegoen, eta ilunkerek itzalak eragiten zituzten, argi-ilunetan nabigatzeko. Institutu bat izan zen, eta baita merkataritzarako erabilitako zerbait ere. Bertan konbokatu zituzten oposizioak aprobaturikoak lantokia erakutsi eta bihamunetik aurrera lan egiten hasteko.

Patioan eserita ikusi zuen Begoña, Axiren ohia. Egunaren ilunagatik ere, goitik argiturik, transparentea zirudien, bizitzaren korapiloa bere baitara bildurik gardentasuna hedaraziko balu bezala. Adinari ez zegokion trajea zeraman: gona grisa, jaka grisa, alkan-dora zuria, zapata takoidunak; ezer ikustekorik ez Sarrion oposizioak gairitu zituzten egun hartan elkar ezagutu zuten neska bakerodun eta larruzko jakadun harekin. Iruditu zitzaion Begoña gelditzeko etorria zela bere bizitzara, Axirekin batera. Axi gogora ekartze hutsak kulunka moduko bat eragin zion, baina ezezagunarena egin behar zion oraindik, Begoñak jakin ez

zezan aitzakiarekin, nahiz eta Joseba ez ausartu pentsatzera batzuetan gogoan zerabilkiona, alegia, Axiren armairutasuna zela arrazoia.

“Kaixo” altxatu zen Begoña, “oraindik ez da inor etorri”.

Ahotsak hegan egin zuen patio erraldoian gora, hormetan errebotatu eta aireari halako pisutasun bat erantsiz. Begoñak bazuen pisutasun bat, beharbada norberaren helburuak argiegi izateak jardunari eta besteekiko harremanari ezarritako estutasun oharkabe bat, askotan zuzena, gehienetan zurruna.

“Gu txintxoena” gehitu zuen.

Baiezkoa baino ez zion egin, eta ondoan eseri zitzaion, autobusean toki bakarra izan eta han eseri beharrak eragin melekakeria mesfidatiarekin. Axiren irudia agertu zitzaion, eta zuela bi hilabeteko enkontru haren ondoren, Begoña eta harekin Sarioko eraikinean oposizioak gainditu zituela jakin zuen egun hura, etxerik ezean -Txato entzun zuen: “Armairua, armairua, alokairua pagatu eta gizonak etxera eraman ezinda”- murailetan bota zituzten larrualdi azkarrak, haren zakilaren xuabea. Txato, berriz ere, gogoan: “Lau larrualdi ziztrinekin maitemindu zara!”; aurretik zuen sufrimendua, eta dena galtzeko beldurra.

Gorputza pixka bat mugituz, Begoñarengana hurbildu zen, elkarren ondoan bidaiatu beharko zutela jakinda. Axiren ordezeko egin zuen, eta Axi izan nahiko luke bertan, eta ez Begoña, eta orduan ordezeko objektuari hartutako herra jabetu zitzaion.

Gizon luze bat sartu zen patioan barna, begirada galduta. Pello Muñoz Eugi. Ezagutu zuen, poema liburu bat argitaratzera zihoala esan zioten. Hurbildu egin zitzaien gorputzaren atalak bakoitza bere erritmora dantzan, baldar hitzaren definizioaren beste adierak nasaiki berrasmatuz. Aurrean gelditu zitzaien, oreka ezegonkorrean.

“Kaixo, itzultzailearen lanpostuetarako...”.

Airean utzi zuen, hizketan ari zela erreparatzeak aurrera egitea galarazi izan balio bezala.

“Bai” zehaztu zuen Begoñak, “itzultzaile funtzionarioak. Begoña Agirregomezkorta... Bego”.

Eta eskua eskaini zion, ezohiko keinua adin horretako emakume batengan.

“Urte askotarako” esanez hartu zion eskua Muñoz Eugik.

Ahotsak kioak egiten zizkion.

“Hau, Joseba Aldaz”.

“Bai, ikustez ezagutzen dugu elkar”.

“Berandu dabil hemen jendea” ebatzi zuen Begoñak.

Eta orduan, haren hitzek mundua sortu izan balute bezala, ate danbateko baten ondoren, talde bat sartu zen, trajez jantzitako gizon bat eta oposizioa gainditu zuen bestea.

“Cruz Mari Alonso, Hizkuntza Politika arduraduna”.

Berehala osatu zuten zirkulu euskalduna, Josebak AEK-ko irakasleekin osatzen zituen horietakoa.

“Gola sartu diogu nafar eskuinari. Funtzionarioen artean gehien kobratuko duzuenak izango zarete. Zuen zeregina Nafarroako Aldizkari Ofiziala itzultzea izango da; baina hori badakizue, ez?”.

Denek egin zuten baiezkoa. Cruz Mari Alonsori Nafarroako abertzaleei zerien erresuma galdu baten oinordeko zuzen eta berezko izatearen handikeria galea zerion, nafar eskuin espainolak ezarritako guda zelaian –diruaren eremua, negozioak, lanbide profesionalak, inteligentzia– peleatzen trebaturikoa. Horrelako familia euskaldun abertzale batetik zetorren Joseba; gainbehera etorria, aita goiz hil zelako –aitak bere homosexualitatea ez lukeela ongi hartuko otu zitzaion behin baino gehiagotan–, baina hala ere nahikoa En-santxean hazi eta arazo gehiegirik gabe ikasi ahal iza-

teko. Euskal Filologia Gasteizen, amari oso ongi iruditu ez zitzaion karrera. Horregatik oposizioak gainditu eta funtzionarioa izango zela aitatu zionean atzo, poztu egin zen ama; eta kandela piztu zion Xabierko Frantziskori, saindu abertzalea abertzalerik bada.

“Bueno, zuen bulegoak erakutsiko dizkizuet” bota zuen Cruz Mari Alonsok.

Tonuagatik, areago zirudien leku interesgarri batera egindako txangoa ezen ez lantokia erakusteko saioa.

Gora igo ziren. Gela itzela. Hainbat mahai zeuden pilatuta alde batean, eta gainontzekoa hutsik zegoen.

“Gaur duzue hasteko eguna, baina euskararen kontuekin beti doaz gauzak berandu. Biharko egongo dela agindu didate. Zuek bihar etorri, eta gauzak ez badaude ongi jarrita jai daukazue. Baina agintzen dizuet datorren asterako egina egongo dela. Ordenagailu bat ere jarriko dugu” bota zuen *ordenagailu* hitza arkano baten moduan ahoskatuz. “Lanean hasteko prest?”.

Halako harridura sor bat ezarri zen funtzionario gaien artean. Elkarri so egin zioten, ezin sinetsirik.

Cruz Mari Alonsok harriduraz berazturik zera gehitu zuen: “Lasai, neska-mutilak, aurkituko dugu modua

Aldizkari Ofiziala argitaratu ahal izateko, hilabete honetako ezin bada hurrengokoa izango da. Eta orain goazen zer edo zer hartzera” erlojuari begiratu zion, “nahiz eta goizegi izan, eta gero etxera alde egin dezakezue”.

Kalera irten zirenean bederatzi eta erdiak baino ez ziren, eta haien lehen lan eguna izan beharko luke; baina hantxe zeuden, euskal borobil horietako bat egirik, elkarri begira, Cruz Mari artzain gidaria noiz agertuko zain, atezainarekin berriketan gelditu baitzen. Den-denek igo zituzten zamarren lepokoak gora, batzuk-batzuk, Joseba tarteko, zoruari kolpeka hasi ziren oinak berotzeko, lurruna zerien. Negu gogorra zihoan, elurra gogotik, euria erruz. Joseba, ez zekien zergatik, Begoña bizkaitarraren parera mugitu zen, denak urduritu zituen keinu batez. Inork ez zuen ezer esaten. Josebak txiki-txikitatik ezagututako Katedralaren aurrealde itsusiari so egin zion, dorre neoklasiko topor eta zabal hariek, batere ez gora, triangelua atearen gainean, lau zutabe borobil korintiar itsusi haiek; narraskeria bat, barnea hain ederra izanda. Joseba ohar-tu zen Begoñak jakinminez so egiten ziola aurrealdeari, itaunka legezt. Seinalatzeko keinu ilaun bat egin zionean, nabarmenegi gelditu zelako ustez atzera egina-

razi zion bere buruari Josebak, eta ez zerurako ez lurrerako gelditu zen, hasi bai, baina edozein oztopo zela-eta erdibidean eragotzitako egitate bat bezala. Eta lotsak hartzean txikitara itzultzearen antzera izan zen, oroitzapen... hitzaren bila jardun zuen, oroitzapen *pitxatu* haiek guztiak, eufemismorik leunena erabilita, eskolako burlak -marika, marika- izendatzeko. Itzultzen zen aldiro, zela estimulu ñimiño batengatik, zela norbait horretara paraturik haurtzaroa aipatzen zuelako, lotsa hesitu behar izaten zuen, jada mutiko hura ez zela gogoratu, bere baitan arakatu eta orduan zena erabaki -“oraindik marika erdi”, aurpegiratuko lioke Txatok- eta itoaldi arinari hauspoa eman lasaitzeko.

Ilbeltzeko egun iluna argitzen hasi zuenean hasi ziren Cruz Mari artzaina gidari Nabarrerriako plazan behera.

Josebari iruditu zitzaion *Korrok* aldizkarirako itzularazi zioten Audenen poema batean bezala zela, kongregazio bat osatzen zutela, karrika zoru lauzatuan behera egiten zutela, hotzak eragindako lurrin arrastoek gora egiten zuten bitartean.

Iruñazarra tabernara bideratu zituen Cruz Marik, Alfredo Jaime alkateak kaleak garbitu beharrez mar txan jarritako kamioi ilunek botatzen zuten ur artetik.

Edozeinek usteko luke egiten zuen hotzarekin beharbada ura bota ahala izoztu egingo zela, baina urak hormetan jo eta behera egiten zuen, horma goraxea-go zipriztinez pikoztaturik utziz.

Berriz ere nabaritu zuen Begoñarengana hurbiltzeko beharra eta hurbildu egin zitzaion. Cruz Mari eta Muñoz Eugiren ondoan zihoan, zerbait esaten. Burua altxatu zuen Begoñak eta halako batean, txita bere hegalepean onartuko lukeen oiloa balitz bezala, baiezko nabariezin bat egin ziola iruditu zitzaion Josebari.

“Poema liburu bat argitaratu duzu, ez?”.

Muñoz Eugiri, aurpegia zimurtu ahala, begiak loratu zitzaizkion, aipamenarekin kontraesanean, modestiak nia bitan losintzen duela frogagarri: бага, aipamen berarekin; biga modestiak eragindako norbere buruaren zintzotasun ustearekin. Joseba durduzaturik utzi zuen jarrerak, beharbada, artean ere, 27 urte betetzear zituela, ez zekielako nor zen, nia oraindik ere hilbanaturik zuelako, eta, hortaz, norbere buruaren usteko izateko eta modestiaren amarruetan erortzeko aukerak zailagoak zirelako.

“Bai” bota zuen Cruz Marik, Muñoz Eugiren modestiaren morroi bihurturik.

Ordezkaritzazko bai bat.

“Badakizu, artistakeriak!” laburbildu nahi izan zuen Muñoz Eugik.

Begoña artisten zuriketan hasi zen, artea gizartearen oinarrietako behinena izan zitekeela gora eta behera, Oteizaren eta haren eztabaiden garrantzia azpimarratzen, larruzko poltsari heldurik bertan egunkaria zuela adieraziz.

“Azkenean Oteizak bere lanak hemen uzten badi-tu, izugarria izango da Nafarroarentzat”.

“Bai, halaxe izango da” ebatzi zuen Cruz Marik, Begoñari arreta erabatekoa eskaintzen ziola.

“Bai” erantsi zuen Josebak, bien arreta erakarriz.

Esan ahala damutu zitzaion. Batzuetan ordea zerbait esan beharra izaten zuen, ez bere buruaz kanpo-tikoari -errealitate objektibo delakoari- erantzunez, baizik eta barneko bideen sigi-sagaren batean agertu-tako objektu, edo aldapa, edo ezponda batean ikusita-koari erantzunez. “Klaro, oraindik ere ez duzu zure buru marikita onartu” esango zion Txatok, ileapain-tzaile bati berez eta printzipioz ez zegokioken sakon-tasunez eta zorroztasunez.

Saldotik apartatu zituen begiak Nabarrerriako plaza mugatzen zuten atarietara eramanez. Tabernak artean itxirik. *Mejilloneraren* atarian edari kamioi batek

eskuinetara mugiarazi zituen, arestiko bere “baia” hutsal bihurtuz. Kamioiak egitera behartu zituen mugimenduaren ondoren banandu egin ziren hirurak. Cruz Mariren ondoan suertatu zen Joseba. Gizon lodikotea zen hura, jantzia, entzuna zuen nonbait sandinisten gobernuaren goi laguntzailea izan zela, lan handiak egin zituela Nikaraguan. Guru itxura zuen, besoak zabalik azpiko oro bere baitan hartzen duen Buda, hanka zapalen eraginez kili-kolo.

“Ai Aldaz, Aldaz” bota zion besoa lepotik Josebaren altura guztiak bere besapera erakartzeko gero. “Beti-ko Aldaztarak! Zer moduz dabil ama?”.

Joseba zerbait ahoskatzen hasi zen: ongi edo ongi esan beharko edo zena zelakoa.

Baina Cruz Marik aurrera egin zuen galderaren erantzuna esperatu gabe. “Uste nuen ez zinela sartuko” bota zion ahots bolumena tonu konplizeraino jaitsez. “Bigarren azterketan justu-justu ibili zinen-eta! Aldiz, gure neska bizkaitar hau” altxatu zuen ahotsa.

Josebari atzera egin zion konplizitate tonuak, ez tonuagatik beragatik, baizik eta konplizitateak bere balizko porrota zuelako zio. Eta errudun sentitu zen. Errudun bigarren azterketan –distira egin nahian sasia

baino nahasiago gelditu zitzaion testu zaila- justu ibili zela aurpegiratu zionean aita etorri zitzaiolako gogora.

Tabernara ailegatu zirenean, urduritasuna ezkutu nahian, egunkariak harrapatzera jauzi egin zuen, nabarmen gelditu zen keinu batez. *Egin-a* bazterturik *Navarra Hoy* aurkitu zuen esku artean.

Pixka bat apartatu zen taldetik, bereziki ondoan suertatu zitzaion Muñoz Eugik zer leitzen ari zen ikus ez zezan; eta bukaera aldetik ireki zuen egunkaria. Orri pare bat atzera-aurrera egin ondoren, hantxe agertu zitzaion Benettonen kanpaina berria. *United Colors of Benetton*. Argazkiaren konposizioa erabat desberdina izanik ere, koloreengatik beharbada, El Grecoren *Orgazko kondearen hileta* gogoratu zion. Baina argazkian ihes puntua ezkerretara eramana zegoen, hiesak jota hiltzen ari zen eriaeren bururantz. Aurpegia azal hutsa zen, zuloetan begiek harriturik ziruditen eta, aldi berean, sufrimendu itzel sinestezin bat nabari zitzaien. Sudur zuloak agerian, ahoa irekita, beso mehean erloju antzeko bat ageri zen. Ospitaletako eskumutur horietako bat ere izan zitekeen. Aita amerikar batek besarkatzen zuen eria Pietate baten moduan, ama behar zuenak arreba gaztetxo bat besarkatzen zuen bitartean. Hiruren gizenkerek kontras-

te itzela egiten zuten eriarren mehetasun izugarriarekin. Ezkerretan zegoen pertsonaiari besoa baino ez zitzaion ageri; mahuka beltzez jantzita zegoen; apaiz bat beharbada. Josebak pentsatu zuen aitaren bolumen handi ilunak hartzen zuela dena, bere etxean aitak dena hartzen zuen moduan.

Ezinegona, eta gero, zeharka, gainontzekoengandik zein distantziatara zegoen neurtzen hasi zen -batez ere Muñoz Eugirengandik-. Ikusi ote zuten argazkia begiratzen? Argazkiari eskaini zion arretari erreparatu ote zioten? Susmatu ote zuten? Uxatu egin zuen desegokiz eta kalakariz Txatoren ahotsa bere baitan. Egunkari irekia itxi zuen zakar. Eta berri horri ez ezik beste berri batzuei ere arreta eman nahi ziela adierazizko itxurak egin nahian, Lamberto Perezen zutabea begiztatzen hasi zen. Maite zituen Lamberto Perezen zutabeak, Nafarroako UPNko gobernuari umorez eta adimenez kritika.

Erdia edo irakurria zuenean ohartu zen Benettongo argazkiari buruzkoa zela, Heideggerren filosofia erabiliz, zeharkako estilo dotore eta zorrotzez dena merkataltzea salatzen. Baita hiesdun hil hurren batena ere.

Begiztatua sentitu zen Joseba, norbaitek amarrua jarri eta berak amua irentsi balu bezala.

“Ona Lamberto Perezena!” bota zion Muñoz Eugik, *ona* hitza munduan lehen aldiz hark esana zela uste zuenaren tonuaz.

Eta orduan jauzi egin zion ezinegonak, tabernako kristalezko atearen beste aldetik maila gorri-beltz marraztutako batzuk agertu zitzaizkionean; goraxeago zamarra laranja eta fular morea. Ez zuen ezagutu, edo ez zuen ezagutu nahi izan, ezohiko lekuan ezusteko laguna agertzean kontzientziak begiek behaturikoa sinetsi nahi ez izateagatik bainoago, Txato han agertzeak egiten zion enbarazuagatik. Txatoren ile harrokaoben dantzak Muñoz Eugiren eta Cruz Mariren arkeriaren aurrean nabarmen utziko zuelakoz.

Braust batean gogoratu zen COFLHEEko taldeek egin behar zuten batzar antzeko baterako hainbat ponentzia itzuli behar izan zizkiola.

Txatok atearen beste aldetik erronka egin zion ateratzeko aginduz. Ahaztua zuen. Atera egin zen, beste erremediorik ez zuenez.

Eta Txatok muturra eskaini zion ezpaina ezpainaren kontra muxu emateko, EHGAMEko Iruñeko jendearen artean derrigorrezko keinua.

Ohartu egingo dira, jakingo dute. Zertara etorri da hau hona?! Egin zituen baitaratzeek ez zioten aurrean zain zituen ezpainak errealitatetik ezabatu.

Ezpainak alde batera utzirik, masaila masailaren kontra eginez eman zion musu. Berehala ohartu zen Txatori ez zitzaiola gustatu eta bere etorkizuneko lankideei arraroa baino arraroago egingo zitzaiela -Iruñazarra barnean irudikatu zituen haiei atezuan arbuioz so- bi gizonen artean masailetan musu emate hura.

“Itzulpenak egin al dituzu?”.

Zergatik etorri behar izan zuen hara itzulpen puta horien bila? Gainera txostenek txorradak baino ez ziztuzten esaten, marika hitzaren aldarrikapena; marika hitzaren gainean identitatea ezarri beharra; mugimendu politikoekin izan beharreko harremanak; “Txorradak” pentsatu zuen sakonean zerbaitek ez zirela txorradak agintzen zion bitartean. Txato haserre sumatu zuen; eta bera ere haserre zegoen bere buruarekin, uste baitzuen zena izateagatik -zentzu horretan EHGA-men hasteak on handia egin zion, ez nahikoa hala ere- ez zela inoiz ere gehiago lotsatuko.

Bere burua gorrotatzen zuen, beste modu batekoa izatea nahiko zuen; gero Txato gorrotatu zuen; hark ez zuen beste modu batekoa izan nahi; lankideak gorro-

tatu zituen ondoren. Zertara etorri dira kafea hartze-
ra.

la gauza bihurtu zen Txatoren haserre borborra.

“Begira, niri ez egin... Eman itzulpenak”.

Aire bat nabaritu zuen bizkarretik. Itzuli eta lanki-
deak ikusi zituen, Cruz Mari buru, nonbait kafeak bu-
katurik, kanporantz. Berriz ere zirkulu euskalduna egin
zuten haiek parte harturik.

“Txato” bota zuen Txatok bere buruaren aurkez-
pena eginez, Erriberako doinuko euskaraz.

Josebak esanen zuen Cruz Mari harriturik zegoela
Txatorekin, halako piurak izan eta euskaraz jakiteaga-
tik.

“Bueno, Joseba, egongo gara” bota zuen Txatok
musu emateko batere keinurik gabe. Paperak zorroan
sartu zituen eta itzuli egin zen.

Josebari iruditu zitzaion Mercaderes kalean Txatok
luma gehiago atera zuela, ez zekien Cruz Mariren au-
rrean nabarmentzeko edo berak egindakoaren men-
deku.

“Bukatutzat emango dugu zuen lehendabiziko lan
eguna”.

Zenbait alde banandu ziren. Begok harekin bidea-
ren zati bat egitekoak egin, eta berak keinu nabariezin

batekin uxatu zuenean, Cruz Marirekin jo zuen Estafetan gora.

Gero Axirekin gelditu eta larrua joko zutelako etorkizuna laztandu zuen. Murailetan, berriz ere; beren etxeetan, ezin.

Pisuak ere ez die balio. Hemeretzi urte lehenago alokatu eta gero berak erosi zuen pisu hartara ailegatzeko igo behar diren eskailera piko haiek ez dira egokiak koloka egiten duen batendako. Hori ere injustizia bat, auzokide guztiak konbentzitu, proiektua egin eta, hala ere, Udalak ez dielako baimenik eman, igogailuaren tamaina ez delako nahikoa segurtasuna bermatzeko. Erredura. Hotz egiten du. Galtzontzillotan eseri da ohearen gainean burua eskuetan hartuz. Ez daki zergatik baina Axi komatik atera denetik pijama janzten hasi zaio, nahiz eta berak galtzontzillotan lo egin. Bata hartu eta gainera bota du. Landerren aholkuari jarraituz ezertan ez pentsatzen saiatuko da: komunera joan, pixa egin, bonbari bota; sukaldera abiatu; leiho balkoidunetik zer eguraldi dagoen begiratu; erreparatu Iruñeko Alde Zaharreko teilatuei, bustirik daude?; ez galdetu, ez erabaki bustirik dauden ala ez; miratu; kafetera bete; sutan jarri; ogi-xerrak ebaki eta xigor-gailuan sartu; leihotik begiratu; bizitzari ezer ez galde-tu. Hor egoten –hor oraina dela– ikasi. Kuantu oraina leku ederra bizitzeko! Oraina, kaka zaharra. Oraina gi-

zona koman eta oroimenik gabe gelditu zaion toki hau da.

Landerrek gomendatu zion, harekin bi “orientazio” saio egin ondoren: “Zu eta biok adiskideak gara, eta alde batetik ez dakit oso etikoa den eta bestetik uste dut ez dela eraginkorra, adiskideak garelako, eta zu Iruñean eta ni Bilbon nagoelako. Gomendatuko dizut bat, Guillermo Echegaray, oso ona. Nire irakaslea”.

Josebak kontra egin nahi izan zion, baina bazekien Landerrek argudiatu moduan, adiskide baten aurrean ezezagun -profesional- baten aurrean izaten ez den zentsura izaten dela, lagun izatea onarturik kontra egiteko ahalegina gorabehera. Eta orainean bizitzeko aholkatu zion eta tipo hura gomendatu.

“Hasi zara *Dolutan* filmaren aurkezpen-fitxa itzultzen?” galdetu zion Landerrek psikologoarekin zer moduz kontatzeko deitu zionean, deitu berak deitu behar izan baitzion eta ez alderantziz, pentsatu zuen Josebak.

Josebak bazekien istripuaren -hara ze eufemismoa- aurretik ere *Dolutan* filmaren prentsarako aurkezpen fitxak presa zuela. “Azkar egingo duzu, zu ere dolutan zaude eta”.

Joseba harritu egin zitzaion. “Dolutan?”. “Doluari buruzko teoriak daude. Iragan behar dituzun faseak ageri dira, edo egin behar dituzun lanak, atazak. Ongi etorriko zaizu eta Guillermorekin ongi konponduko zara. Nik ezin dut zurekin jarraitu”.

Landerren aholkuez kontrara ari dela ohartu denean, kafeontzi italiarra betetzen kontzentratzeko ahaleginetan paraturik, ohartu da ezin duela, distorsionatu egiten baitio oraina -kafeontzia hartu, ontzitik atera, kafeontzian koilara sartu, itxi, sua piztu, sutan paratu- hondoan hozka dabilkion herrak. Herra, erresumina, sutzea, mina, haserrea, gorrotoa, aldarria... izen gehiegi erraiak jaten ari zaion su-lama izendatzeko.

Kafetera erdi beterik leihora ondoratu da arnasa sakon hartuz. “Bare hadi!”. Baina zergatik gertatu zaie hau guztia beraiei?! Leioa zabaldu du. Lainoturik; tei-latuek lantxurda dute neguaren iragarle. Arnasa hartu du. Eta arnasaren atzetik tristura erraldoia, itzala egiten diola. Sillan eseri da. Sukaldeari so egin dio, barnean darabilenari ihes egin nahian. Nekea. Akidura. Zama. Paisaia erre bat. Bizitzak zentzurik ez dueneko adakera indartsua. “Izan ere, ez du”. Bakardadea, ol-darrean. Eta negargura egin zaio. Eta, Landerren ahol-

kuari jarraituz, utzi egin dio negarrari bide egiten. Malkotan, zotinez. Desesperazioa nabari du bere baitan, deslaia, nora eza, erredura.

Bere burua ikusi du, bernak agerian, bata erdi loturik, bularreko ile urdintzen hasiak ageri zaizkiola, negarrez, malkotan, jostailurik preziatuena hautsi dioten ume gizajo baten moduan.

Sukaldeko mahaiaren gainean ia hilabete darman Axiren Padre Ligetiko informe neurologikoa hartu du.

Asier Iminizaldu Aldaz. Arreta Bereziko Unitatean egon zen hamabost egun. Ingresatu ondoren ikusi ahal izan zen aurre aldeko MIL-a (Miokardio Infartu Larria) izan zuela; %41ko EF eta hipokinesia apikala, septoan eta aurreko aldean. Begiak 5-6. egunaren inguruan ireki zituen. ABuko azkeneko egunetan agindu errazen bati erantzuteko gauza izan zen; zer edo zer ahoskatzeko ahalegina nabaritu zitzaion bizpahirutan. Neurologia sailera ailegatzean, trakeotomiaz gain zunda besikala eta elikatzekoa zekartzan. Neurologia zerbitzuan sartu zenean kontzientzia maila ona zen, begiradarekin jarraitzen zien objektuei, espastizitatea zuen. Neurologia atalean hobera egin du. Zunda besikala eta ZNG (Zunda Naso Gastrikoa) kendu zitzaizkion.

Fisikoki asko hobetu du, ia laguntzarik gabe ibiltzeko gauza da, nahiz eta askotan koloka egin. Ataxia optikoa antzeman zaio eta simultagnosia. Hizkuntza inkoherentzia, amnesia larria eta konfabulazioa”.

Josebak ez zeukan ifrentzuan eskuz apuntaturiko oharretara joan beharrik “ataxia optikoa” hitzek ikus estimulua eta harengana bideratzeko mugimendua-ren hasieraren arteko aldea zela jakiteko, ez eta “simultagnosia” irudi batean ageri ziren objektua desberdintzeko zailtasuna zela jakiteko ere, horrenbestetan irakurria zuen informea.

“RMNan -erresonantzia magnetikoan- seinalearen aldaketak nabaritu dira bi giro intralimbikoetan; seinale aldaketa handixeago delarik eskuinekoan. Bestalde kaudado buruan eta bi lentikularetan seinalearen aldaketa nabarmenagoa da.

“Laburbilduz, hona garapena. Hasieratiko nahasmena, ezinegona, haserrea, negarrak gutxitu egin dira, beraz, maneu arazoak ere bai. Esaneko izaten da gehienetan, eta, halaber, kanpoko eragina behar izaten du zerbait egiteko. Gaixoak berak eskatzen du kanpoko onespina eta zaintzailearen gainbegiratzea. Aldarte apaldua izaten du gehienetan, istripu aurretik ez bezala.

“Funtzionamendu kognitiboaren aldetik, ikusmen-hautemate arazoak gutxitu egin dira: eskuineko hemianopsia homonimoa, hautemate antolaketa eskasa eta analisi ikus-espaziala eznahikoak baita ere. Orain ongi bereizten ditu koloreak, tamainak, irudiak, zenbakiak eta letrak. Ez du, beraz, objektuak kokatzeko arazorik hainbat egoeratan: objektuak mugitzen-gaixoa mugitzen. Irakurmen-ahalmena asko hobetu da”.

Handik aurrerakoa ere badaki: bi test pasatu zizkiotela, Reyren Irudi Konplexuaren Testa, eta bertan argi gelditzen zela hobetu bada ere, ez duela maila normala ematen, eta itxoin egin behar dela gaixoak nola eboluzionatzen duen; bigarren testak, aldiz, Weschsler Oroimen Eskalarenak emaitza oso txarrak izan zituela eta bertan behera utzi zutela testaren pasatzea Axik ez zituelako ez hitz zerrenda sinpleenak, ez irudi errazenak, ez hitz-bikoteak gogoratzen.

Erdeinuz bota du informea mahai gainean. Adore pixka bat bildu eta koilara kafeontzian sartu, kafetera erdi betea bete, gainaren gainean utzi, sua piztu eta bertan paratu. Ogi-xerrak xigorgailuan sartu, botoiari beherantz sakatu. Bizkarreko minari erreparatu. Gelara abiatu da. “Zer egingen dute gaur?”. “Ez pentsatu,

egin, eta egindakoaren gainean paratu arreta. Arnasa sakon hartu”.

“Axi, Axi” deitu dio esnatzeko. Axi ez da esnatu. Josebari iruditzen zaio gaiztakeria bat egiten ari zaiola horrelako enbataren ondoren lotatik jalgiazteagatik baina medikuek -batez ere Carmen neurologo andreak- azturak sortzearen garrantzia azpimarratu diote “istripuaren” ondoko lehendabiziko urte-urte eta erdian -lehendabiziko hiru hilabeteak omen dira erabakigarriak, hala ere- epe horretan egiten diren aurrerakuntzek erakutsiko baitute gerora gaixoak izango duen bilakaera, eta Axiren bilakaera Padre Ligeti zentroan ona izan ez bada ere, “oraindik ba omen dago esperantzarik”.

Begiak ireki ditu. Sabaiko veluxetik argi zirrinta sartu da. Burua mugitu du ahotsa entzun duen lekura. “Hara, Joseba!”. Pozak hartu badu ere, ezinegona du, eta gorputz aldartea bere baitara erabat ez etorria. “Hara Joseba! Nondik sortu ote da?”.

“Altxatu egin behar duzu!” agindu dio.

“Maitea” gehitu behar du baina gaur ez du gogorik, adorerik gabe dago.

Axi altxatzen saiatu da. Ez du berezko ezintasunik baina panpina baten koordinazioa gelditu zaio, urtean hobetzeko esperantzan.

Pijamaren goikoa erantzi dio. Usaina -ez da oraindik kiratsa- aditu du, mina, hartzitua. Ez du gustuko dutxatzea baina badarama aste bete eta ez dio ihes egingo. Musu eman dio. Ohearen beste aldera abiatu da bataren bila, hotz ez dadin. “Bilboko eguraldira ohi-turik dago, hau hotzagoa da”.

Batarekin itzuli denean “Hara, Joseba!” bota du atzera berriz Axik.

Josebari arima lurrera erori zaio. Eta gero erresumina, “Zergatik haiei?”. “Hobetzen joango omen zen? Noiz? Non zegoen falta zen puska?”.

Informearen beste zati bat laburtu du buruan: “Oso gutxi inplikutzen da birgaitze prozesuan, eta, hortaz, zaintzailearen arreta behar du atazak erakusteko eta errepikarazteko, hala ere, esan beharra dago azken egunetan aurrerakuntza seinale txiki batzuk antzeman direla, eta zentzu horretan terapiak aurrerakuntza horietan lagundu egin duela. Hainbat galdera egiten duenean, kanpoko laguntzara (agenda bat) bideratzen zaio, baina, berez, ez zaio hura begiratzea otu orain artean, hala ere, badirudi ohartzen hasi dela

kanpoko laguntzaren behar horretaz. Bestalde, nora eza tenporal eta espazialek bere horretan jarraitzen dute ohiko ingurutik kanpo dagoenean.

“Anasognosia. Horixe da gaixoaren gabezia nagusia. Aspaldiko oroimena nahiko ongi badauka ere, oraingo oroimena, aldiz, kalteturik dauka, ezin baitu oroimen berririk ekoitzi. Hilabeteko birgaitzearen ondorioz ez ditu sarritan ikusten dituen terapeutak eza-gutzen, eta ez daki zergatik dagoen erietxean”.

Altxatzen lagundu dio. Axi ongi mugitzen da baina badago haren koordinazioan koloka egiten duen zer-bait, mugitzeko naturazkoa dirudien naturaltasun bat, altxatzeko besoa eta hankak aldi berean bermatu eta indar egitera behartzen duen armoniaren zentzu bat, zeina natura barik gizakiaren -edo animalia- izae-ra eraikia seinalatzen baitu, berezkoak uste diren mugimenduak artifizioaren ondorio direla ez badira bai bigarren mailako natura baten ondorio.

“Nora goaz?” galdetu dio Axik burua Josebarengana jiratzen duela hark besotik helduta komunerantz daramala.

“Dutxara”.

“Ez dut dutxatu nahi”.

“Betikoa” pentsatu du Josebak, “espero espantuka eta ijili-ajalaka ez hastea”.

Marmar gehiegirik gabe sartu du komunean.

“Erantzi bata”.

Axik bata erantzi du, ulertzen ez duelako bisaia paraturik.

“Nora naramazu?”.

Josebari herra hedatu zaio, berriz ere.

“Lagunduko dizut”.

Obra egin beharko du. Orain ohartu da etxea erosi eta obra egin zuenean, Axik -beti izaten zuen arrazoi eta ez bazuen bazuelakoa sinesten zuen irmo-irmo-bainera beharrean dutxa soila jartzearen abantailez erretolika bota zionean, arrazoi zuela. Herra urtu zaio. Maittetasuna.

Kortina zabaldu dio. Oreka gal ez dezan baineraren hormen gainetik hanka pasatzen lagundu dio, gero bestea. Dutxa-sagarra hartu, ura ireki eta tenperatura probatu ondoren Axiren itxterrera zuzendu du. Axi jauzi txiki batek bota du atzerantz.

“Zer egiten duzu?!”.

Joseba ikaratu egin da, eta behetik gora so egin dio Axiri. Gorputz erkindua gizentzen hasi zaio, gor-

putz gihartsu izandako hura borobiltzen doa gantzaren eta ariketa fisiko ezaren eraginez.

“Dutxatuko naiz ni”.

Josebak dutxa-sagarra eman dio eskura eta, haserre antzean plastikozko kortina itxi du. Komunean eseri da. Ura korritzen entzun du, erortzean gauzarik jotzen ez duelako soinua eginez. Ura irudikatu du, zuloan barna erortzen, eta gero estoldak, eta... Haien bitzita bezain kaka-zaharra.

Anasognosia: oroimen berriak egiteko ezintasuna. Padre Ligetiko terapeutak saiatzen ari dira Axik amnesiaz ohartzen denean kanpoko dispositibo bat bila dezan –agenda bat edo telefono mobil bat, esaterakohara jo eta gertatzen ari zaiona ulertu, non bizi den jakin eta abar irakurtzeko baina oraindik ez dute lortu. Horrek, hala ere, neurri batean Axi duen arazoaz ohartzeari esan nahiko luke, eta esan diote gertatu zaionaz ohartzeko gauza bada, depresioan erortzeko arrisku handia dagoela.

Altxatu eta brausteko batez kortina bazterreratu du. Hantxe dago Axi, zerbait falta zaiola, sagarra eskua ura haren gorputza ukitu gabe.

“Hara, Joseba!”.

Begirada galdua, eta gero laguntza-eskaera mutu baina larri bat.

“Zer egiten dut hemen?”.

Josebari negarretan hasteko gogoia egin bazaio ere eutsi egin dio “adorea” landu behar duelako Lande-
rren aholkua akuilu.

Zaugarritasuna. Zaugarritasuna.

“Zer egiten dut hemen?”.

Berriz ere galdera zaugarria.

Sagarra kendu dio zakar antzean eta ura burutik behera botatzen hasi zaio. Urak Axiren aurpegitik behera erotzean guapotu egin duela otu zaio, oreka gabezia hori, oroimen eza bera zulotik behera eramango balitu bezala.

Txostenaren bukaera: “Oraindik ez da bere kabuz baliatzen eguneroko ekintza arruntak aurrera eraman ahal izateko: janariak prestatzea, dirua erabiltzea, garraio publikoa hartzea eta abar. Oroimen gabezia larriak eta ekimen eskasak beharrezkoa egiten dute zaintzaile bat”.

Negargura egin zaio berriz. Irudi polita iritzi dio malkoak Axiren gorputz gainetik irristatu ondoren bere bidea egiten duen urarekin nahasi eta pena guz-

tiak eramaten dituelakoari, baina eutsi egin dio. Adorea. Behar du.

“Joseba, ez dago ezer nire barruan” bota dio harri-duraz Axik larrugorritan urak gorputz behera egiten diola.

Azken boladan entzungai bakarra bilakatu zaion cdaren kanten zerrenda egin zaio gogoan: Carmane: *Fado siempre*; Leonard Cohen: *Alexandra's leaving*; Paquita la del Barrio: *Ni tú ni yo*; Nick Cave: *Hallelujah*; Purcellen *Cold Song* Klaus Nomiren bertsioan; Chave-la Vargas: *Te estaré esperando...* Anari: *Orfidentalak*; Anari: *Habiak*; Anari: *Anari*; Nacho Vegas: *Cerca del cielo (canción de Juanito Oyarzabal)*.

Eta Bego eta Lander hots egin gabe. Adorea. Ez daki izango duen.

AXi berehala hasi zen lanarekin ohitzen. Iruñea igaro, hiri txikia zen, eta Eraikin Adimentsuetara, halaxe deitu zien nafar artabururen batek, eta lanean hasi. Kalera bidaltzen zuten lanera gehienetan, bekadun bat balitz bezala, eta behin baino gehiagotan adierazi zioten nafar kutsua erantsi beharko ziola euskarari; ez zien, ordea, ama Lekunberri Aranatzan hazia zenik aitortu, badaezpada ere. Bulegoa ederra zen, moderno, joan berriak omen ziren hara. Eta lana, ba, oraindik ez zekien zer esan. Goizegi hasten zen. Berak goizeko hamaiketan hastea irudikatu zuen, eta elkarriketa mamitsuak egitea, ez itzulpenak; irteera txatxuak, autozerbitzu moduan funtzionatzen zuten lehendabiziko gasolindegia “nafarra”ri buruzkoaren moduko erreportajea adibide; ikerketa lanak; nafar politikarien prentsaurreko ergelen orde, haletako batek Foruak Nafarroaren potro izendatu zituen kazetarien aurrean; jende esanguratsuari egindako elkarriketak; gauza interesgarri bakarra Leitzarango autobiaren gatazka konpontzeko bideetan zegoela, eta Alli, Ardantz eta abarren artean espero zen elkarretaratzeari

buruzko berria. Elurrarekiko berriak ematera ere bidali zuten Belate, Etxegarate edo Azpirotza, elurretan belaunetaraino ondo sartuta agertzeko aginduz, berria sinesgarriagoa-edo egiteko. Nagusia Iruñekoa zuen, Miren Akerreta, Alliren adiskide zen EAJko eraikitzaile baten alaba, mihi gaiztoen arabera, hark makina bat kontratu lortutakoa, eta alaba ETBko delegazio buru haren aginduz paraturikoa.

Iruñea hotza zen, Bilbo baino askoz hotzagoa. Eta etxetik, Begorekin partekatzen zuen etxe horretatik, ateratzean, beti igo behar izaten zituen lepokoak hotzari ihes egiteko. Ahotsa zuen alde, badaki, belusezko ahots erakargarria, irratirako telebistarako baino hobea. Eta horrela zaintzen zuen, beti eramaten zuen painueloa lepoan, nahiz eta painueloak ez gustatu, halako aire... hitza gogotik iragan ahala eraman zuen eskua lepora –“zer ostia!”– emea.

Atariko ateak danbatekoa jo zuen ixtean, eskaile-rak pikoak ziren, azkeneko pisua zen, eta gehiagorik ezean berak egongelan lo egin behar izaten zuen, Begoñari utzi baitzion gela, nahiz eta Begoñak pisua alokatu eta hartaz hitz egin gabea, lehendabiziko gauean gelak banatzea egokitu zitzaienean, hitz gabeko keinu ilaun batez zera adierazi nahi izan zuen.

Zera. Azkeneko urtean zeramatzaten siesnoes hura. Eta bukaturik zegoen, kito. Eta bukatu zen Joseba Artxandan ezagutu aurretik, gainera.

Kale Nagusitik hartu zuenean, hotzarekin gorputza tenk, egin beharrekoak erreparatzeari ekin zion. Entzierroari gorazarre egiten zion eskultura baten mus-tualdi-prentsaurreko batera joan behar zuen. Gero ha-mabietan Muñoz Eugi delako baten liburuaren aurkez-pena, Begoñak aitatu zion lankidea zuela. Denetarako morroia. Eta azkenik Lekunberri Aranatzera -gurasoen herrira- baina ez zen akordatzan zertara.

Udaletxeko plazara ailegatu zenean arrotza egiten zitzaion hirian berea egiten hasi zen txoko bakarrera jo zuen Josebarekin kafea hartzera, Iruñazarrara.

Tabernan sartu zenean zerbait argitu zitzaion. Jo-seba. Arraroa zen nabari zuena, hura agertzean argia piztuko balute bezala egiten zitzaion, eta gero ahulda-de antzeko bat, eta gero, kontrara-edo, oldarra eta mundua jan nahia.

“Zer nahi duzu?”.

Urduri zegoen. Urduri zeuden. Bizi-bizi etorri zi-tzaion Artxandan elkar ezagutu zutenekoa, nola hur-bildu behar izan zitzaion zerbait gerta zedin. Eta gero desio hura guztia olatu enbata baten moduan.

“Kafesnea”.

Katilua hartu zuten biek ere. Zurrupa aditu zen.

Axik begirada altxatu zuenean hantxe zuen, hortzak zuri, begirada iheskor berriz ere Joseba. Harrigarria zen gorputzek zein azkar eta erraz ulertzen zuten elkar, eta, aldiz, zenbat kostatzen zitzaien gogoei bata bestearenganako bidea egitea. Isiltasuna. Ematen zuen mendeak pasatu zirela Artxandan elkar ezagutu zutenetik, beti ezagutu zutela gorputzek elkar, gihaurrek neurri egokia zutela, tamaina behar zena zela, imintzioek musikaltasun harmoniatsua sortzen zutela.

“Ni ez banintz zugana hurbildu, ez ginen ezagutuko!”, Axik.

“Zer, Artxandan?! Ni hurbildu nintzaizun-eta!”, Josebak.

“Ez, ni izan nintzen zure autoraino joan nintzena”.

“Bai, lehenago ni hurbildu nintzaizulako”.

Isildu egin ziren haien arteko arrakalari so. Paper pare bat ageri zen lurrean, beharbada haiek botatakoak. Axik barra barnera so egin zuen. Botilak, kafeterraren errainu distiranta atetik sarturiko argitara, kama-roen lehia ardailatsua.

Josebari begiratu eta “lasai” ahoskatu zion.

Bentrilokuoarena iruditu zitzaion ahotsa. Gezurra. Iruzurra. Baina nahikoa izan zen besoa ukitu, arrakala gainditu eta bat egiteko. Kimika. Desioaren kimika.

“Film bat dago, *Longtime Companion*. Egunkarian irakurri dut. Esan... ongi dagoela. Merezi duela. Gauean?” ikara egin zioten hitzek Josebari.

Baiezkoa egin zion.

“Golem aurrean”.

Elkarrekin egin zuten kanporako bidea. Axik pentsatu zuen barrako bezeroak ez zirela ohartu elkarrekin larru jo izanak berezi egiten zituela; eta pozik atera zen nahigabeaz bezala Josebaren ipurdia ferekatuz.

“Zure andregaiarengana noa” bota zion Josebak ironikoki.

Axi muturtu egin zen. Ez zuen jakingo esaten Josebak adierazi zuen nagusitasunagatik ote zen, nagusitasuna, izan, berak baitzuen, desirak argi izan, haien atzetik irrikan abiatu eta -sasi guztien gainetik, hodei guztien azpitik- oztopoak traka-traka gaindituta -zenbat eta handiagoa eta zailagoa oztopoa, orduan eta indartzenago desira- betetzeak erantsitako asetzeak sorturiko nagusitasun nahi hura.

Josebak, aldiz, susmatu zuen batez ere bere bu-ruaren aurrean famatzen zuen ustezko senaren harira, portatzeko molde bat mustu zuela adar jotze harekin, bien artean aritzeko modu bat, areago zuena lehiatik ezen ez elkarlanetik, ziren hori -ez-bikote, ez-adiskide, ez-amorante, oraindik-, kontrario izateko bidean eza-rriz.

Axik Gaztelu enparantza hesitura hartu zuen. Ar-
kupetatik egin zuen Sarasate pasealekuraino bertan
autobusa hartzeko, oinez baino nahiago zuen nahiz
eta jakin ongi etorriko litzaiokeela pixka bat ibiltzea
erreportajeetan erabili beharreko kazetari hizkuntza
hori erreparasatzen joateko.

Eseri zenean berehala erreparatu zien, berrogei
urte inguruko gizon bi, gizentzen hasiak, burusoil-
duak, jaka bakero ilunxka bata, argikera bestea, zu-
rrun; baina zerbait arraroa nabaritu zion bata bestea-
ren alboan eserita zihoazeneko jarrerari, bernen elkar
ukitze bestela ustekabekoari, edo susmatzen zaila zen
bien arteko halako mimetizatze bati, keinu ia nabarie-
zin berdintsuak egiten baitzituzten, elkarrekin denbo-
ra asko pasatu izanaren ondorio. Eta orduan, konti-
nente bat deskubritzen den bezala, harrigarriki agertu
zitzaion aurkikuntza, bikotea ziren, eta hortik zetor-

kien mimetismoa. Aurkikuntzak, desatsegina iruditzeaz gain, ezinegona eragin zion, eta orduan beste begi batzuekin erreparatu zien bi gizonei. Leihatilaren ondoan zihoanak, gizenenak, emetasun antzeko bat zuen kokotxaren forman eta eskuek, pentsatu zuen destainaz, gehiegi irauten zuten airean. Besteak, mehexeagoak, bere lagunari arreata gehiegi ematen ziola iruditu zitzaion, hirurogei urteko andre batek senar zaharragoari eskaintzen dion gehiegizko arreata hura. Joseba agertu zitzaion. Baina ezinegona eragin zitzaion Joseba aurrean zuen bikote ezkutu haren moduan irudikaturik. Desira zuenak talka egin zion desira gauzatzeko hark eragindako nahigabearekin. “Gu ez gara horrelakoak izango; haiek...” hitzen bila aritu zen “besteak izango dira. Bietako inork ez du gizon gizen eme haien itxurarik”.

Keinu mespretxuzko batekin leihatila aldera begiratu zuen.

Hantxe zeuden Plaza hartan, Coñoaren Plaza beste izenez, txistu haiek, batzuk goraka, besteak beheraka, itsusi mortal. Ez zen haiek bezalakoa. Ez ziren izango haiek bezalakoa. Foruen plazan jaitsi zen, azken kilometro erdia edo oinez egiteak gogo asaldatua arin ziezaien.

Milagrosako Eraikin Adimentsuetara ailegatu zenerako faundua zitzaion haserrea eta gogoia alegeratu. Eraikinak dotoreak ziren, berriak, metalezko atea zituzten igogailu handiekikoak, atezaina. Dotoreak. Bigarren solairura igo eta bulegoan sartu zen. Erruz erortzen zen argi iragazi gabea mahai nahasi eta paperekin gainean.

“Ezin dut, gasolindegikoa grabatzera joan behar dut” esaten ari zitzaion kamera erredaktore bati.

Axi harrapakin sentitu zen.

Erredaktorea altxatu eta bideo gelara sartu, kobazulo batera bezala. Kristalaren beste aldean lokutore bat erreportaje bati hitzak paratzen ari zen; kristalaren alde hartan erredakzio burua zegoen, Miren Akerreta, gaztea zen erredakzio burua izateko, Axik bera baino bost urte zaharrago egin zuen.

Erredaktorea eta Miren Akerreta grabaketa gelatik atera ziren.

“Ongi” bota zuen erredaktoreak. “Honek” seinaltatu zuen erredaktoreak kamera “eta Asierrek arratsaldean gasolindegiko erreportajea graba dezakete, baina goizeko prentsaurrekora joateko ez daukagu kamerarik”.

Miren Akerretak, nahiz eta erredaktorearen argibideen itu izan, ez zuen keinuaren aztarnarik ere egin.

“Eta gero...”.

Koaderno bat hartu zuen mahai gainetik erredaktoreak.

“Muñoz Eugiren liburuaren aurkezpena daukagu. Muñoz Eugi. Zizen moduan ateratzen dira idazleak hiri honetan. Eta zer eta kaka! Gasolindegira ilundu aurretik joan behar da. Baina orain bigarren kamera bat falta zaigu”.

“Neroni joango naiz” ebatzi zuen Miren Akerretak mahai gainean zegoen kamera hartzera mugituz. “Nora joan behar dugu?”.

Axik esangabeen ulertu zuen gu haren barnean bera zegoela.

“Homenaje al encierro. Eskultura bat eskatu dio” jarraitu zuen erredaktoreak “udalak Bizkaiko -zu bizkaitarra zara ez?- eskultore bati eta bukatu duela adieraziko duen prentsaurrekora joan behar duzue. Lehenago enkarguaren prentsaurrekoa izan zen, eta orain bukatu eta kokatu egingo dutela esango duten aurkezpena. Salmenta deitzen zaio, gauza bera hiru-lau aldiz saltzea”.

Arrapaladan atera ziren Miren eta biak autoa hartzera.

“Asier, ongi etorri Metropoli Foralera”.

Autoa aparkaturik abioan egin zuten Diputazioaren Jauregira, prentsaurrekora. Agintariak mutxoasmoa erantsi nahi izan zioten, Iruñea promozionatu nahi zuten, eta Iruñea promozionatzeko “zer San Ferminak baino hobe” bota zion Mirenek.

Atariko foralei karnetak entregatu eta poltsak detektigailutik pasatu ondoren, Jauregiko patioan barna abiatu zen Mirenen atzetik; marmolezko areto dotore batera sartu ziren. Lau edo bost kazetari zeuden, eta Telenavarrako kamera pare bat ekitaldia grabatzeko. “Hona Metropoli Forala” seinalatu zion Miren Akerretak.

Rafael Huerta Celaya zuten aurrean, Kultura kontseilariarekin batera. Nonbait, garrantzi handikoa zen eskultura.

Kontseilariak eskultura hark Nafarroa eta Iruñea-rendako zuen itzelezko garrantzia azpimarratu zuen hitz ponpoxoz: bi urtegarreneko egina egongo zela, nahikoa eskultura garrantzitsua iruditu zitzaiela enkaragua iragartzeko, Rafael -iruzkindu zuen betiko lagunak balira bezala- eskultore handia zela, “Oteizaren

tamainakoa” gehitu zuenean, Mirenek irribarre maltzurra egin zion Axiri. “Kostako zaik” gehitzen zuela hortzartean.

Brontzea. Xehetasun teknikoekin jarraitu zuen eskultoreak ahots xumez. Berehala bukatu izana eskertu zion Axik, pisu, material eta tamainaz gain ez zuen ezer gehitu. Bukatu zuenean halako isiltasun astuna egin zen. Kontseilariaren zeregina izan zen galderarik bazegoen itauntzea. Axik bere lehendabiziko prentsaurrekoa zuen Iruñean eta ez zekien gauzek nola funtzionatzen zuten. Bukatutzat jo ondoren, altxatzen hasi zenean kontseilaria hizketan hasi zen. “Dinamismo izoztua” esan zuen gazteleraz, *congelado* hitza esdrujulu bihurturik. Eta definizioarekin bere burua leloturik, grabatzen ari zitzaizkiola jakin badakienaren manierak puzturik, eten teatral bat eginez berriz ere errepikatu zuen “Dinamismo izoztua” azentua bigarren aldiz silabaz okerturik. “Paradoxa bat”, izoztu eta dinamismo hitzen kontradikzioa azpimarratu ondoren.

Axik adierazpena apuntatu zuen gerora erabiliko zuela jakinik.

Argazkilaria hurbildu zitzaion kontseilariak hizpide motza bukatu zuenean.

“Apuntatu duzu?” galdetu zion Mirenek “hauek edozein gauza esatera jarrita daude!”.

Harritu egiten zuen Asier bere nagusiak, ironia leunaren eta zurruntasunaren artean mugitzen zen, buruzagitza erakustearen eta hurbiltasunaren artean zailantza egingo balu bezala. Gainera... manerek... zerbait arraroa zuten.

Mirenek erlojuari so egin zion. Muñoz Eugiren liburuen aurkezpena abiatu behar zuten lasterka Auzolan liburu-dendara. Ailegatu zirenerako prentsaurrekoa hasita zegoen. Editorea -Axik ez zuen ezagutzen, eta damu zen orain Begori, edo Josebari, Muñoz Eugiren liburuari buruz ez galdetu izanaz- Muñoz Eugiren lehen liburuen loriak kantatzen hasi zen. *Hiriaren geldotasunak* ipuin liburuak poetika bat zuela, bizitza ageri zela liburu hartan, poetikak bizitza mamitzen zuela, beste hura zuela eta ez zuela.

Muñoz Eugik irribarre ergel antzekoa zuen aurpegiari, gezurrezko umildadea ezkutatu nahian sortu klasekoa. Axik galdetu zion bere buruari zer *ostia* etorri zitzaion burura. Poesia libururen bat, ziur aski, nonahi sortzen ziren poetak; harri bat jaso eta euskal poeta bat agertuko zitzaizun.

Argitaratzaileak -gipuzkoarra hizkeragatik- Muñoz Eugiren liburuaren loriak kantatzen zituen bitartean, Axik kasurik egin barik ingurukoak aztertzeari egin zion, exotismoaren exotismoz. Bizpahiru kazetari eta Auzolaneko dendakoez gain bospasei lagun gehiago zeuden, aurpegi liluratuekin Muñoz Eugiri begira, kuantu idazle handia. Lepoa egingo luke euskara talderen batekoak zirela, euskararekin harremana zuen edozertara -zena zelakoa- joaten ziren talde horietako batekoak, Euskal Herrian Euskaraz edo Bego aurreko aldian -bazkide egin beharko zutela iradokiz- mintzatu zitzaion elkarte batekoak, Zaldiko Ezdakitzer. Bilbon ere ezagutzen zituen horrelakoak.

Argitaratzailearen hitzei arreta eman zienean jakin zuen Muñoz Eugik ez zuela espero bezala poesia liburu bat idatzi, baizik eta ipuin liburu bat, ukitu surrealista eta ironikoduna. Axik bi izenondoak apuntatu zituen koadernoan, badaezpada ere, ez baitzioten esan kronika egin behar zuen ala besterik gabe Euskadi Irratikoek editatuko zuten aurkezpena.

Gero Muñoz Eugik hartu zuen hitza. Ahotsa leuna bazuen ere, Axiri iruditu zitzaion bazuela umildade haren guztiaren azpian, bere buruari buruzko uste sendo eta osatua, bazekiela nor zen eta nora zihoan.

Egungo egoerak jasotzen zituela, banaketak, seme-alabekiko arazoak, egoera politikoa, presoak, denetatik. Saiatu zela egoerei zukua ateratzen... Nahiko batu neutroa egiten zuela esanen luke Axik, jaioterria zein zen adierazi nahi ez balu bezala, izan ere, Axik oharturik zegoen Iruñeko hainbat euskaldunek haien jatorria ederki markatzen zutela, erranka-merranka, bertzeka-mertzeka eta deuzutka-merauzutka. Gehiegi ere esanen luke, Begoren iritziak gorabehera.

Muñoz Eugik, bukatzean, galderarik ba ote zegoen galdetu zuen argitaratzaileak tonu abegitsuegiaren abegitsuegiz ia faltsu. Eskuinean zuen gizonkote lo-diak eztul egin ondoren zera galdetu zuen: “Eta dirudienez ez duzu zure jatorria adierazi nahi. Izan ere, Imozekoa zara baina ez duzu zure hizkera erabili”.

Muñoz Eugik begiak goratu zituen instant ia erreparaezin batez. Axik ez luke jakinen keinu automatikoa ote zen. Nekeza egiten zitzaion idazlearen eiteaz jabetzea, hori bai, gero eta gutxiago gustatzen ari zitzaion Muñoz Eugi hura. “Idazle guztiak dira beren buruaren ustezko” laburbildu zuen koadernoan idatziz. Eta hark areago ematen zuen, gehitu zuen bere artean.

“Beno... ez dakit...”.

Ulertu ezinezko azalpen luze batean sartu zen, batuaren garrantzia, Ultzamako euskalkia eta batuaren parekotasuna eta gauza filosofiko anitz, Axirendako garrantzirik gabekoak.

Auzolaneko langileak ardo eta urdaiazpiko-gazta platerekin agertu ziren liburuz inguraturiko aretora.

Miren dena biltzen ari zen. Arretaz jaso zituen kableak, arretaz sartu zuen kamera zirazko zorroan.

“Egiozu elkarrizketa luzeago bat badaezpada ere” agindu zion Axiri leun baina irmo.

Alde egin zuenean “Akerreta enpresariaren alaba” eta “entxufea” hitza entzun uste izan zituen Axik bazterrean zegoen talde batetik. Irribarre egin zien. Naturaltasunez egiten saiatu zen, Muñoz Eugiren naturaltasun behartua kontrako eredutarako hartuz. Eskua altxatu zuen gero. Irribarrez zituen, zerbait esango zuelako esperantzatan, baina ez zuen hitzik ahoskatu. Koadernora jaitsi zuen begirada eta ez zen ohartu Muñoz Eugi hurbildu zitzaiola besoa luzaturik eskua emateko prest, ezohiko keinuan, eskua ematea ez baitzen usadioa giro haietan.

“Begoña mintzatu zait zutaz, Asier, ez?”.

Harridurak ihes egin zion imintzio moduan.

“Iruñea hiri txikia da, Bilbo beste gauza bat da”.

Bere burua lehor ager ez zedin saiatzen ari zen.

“Bai, bai”.

Eta isildu egin zen. Ez zekien zergatik baina Muñoz Eugik bere baitara babesarazten zuen halako mesfidantz bat sortzen zion. Beharbada, eta ez zen erabat ausartu aitortzera, desira ezkuturen batekin baitzuen zer ikustekoa. Muñoz Eugi altua zen, zabala, bere manera xaloen atzean Axik oso ongi definitzen ez zekien zer bat nabari zitzaion, gotortasun -ez zuen jakin esaten gizonkeriari zegokion, edo arauak estuegi hartzeari- eta herabetasunaren antzeko halako lausotasun lodi bat; kontua zen mesfidantza hark erronka egitera eramane zuela.

Auzolaneko dendariak atera zituen beraien ezinezko elkarrizketatik gazta eta urdaiazpikoa eskaintzen zizkiela. Muñoz Eugiri bat-batean keinua aisatu zitzaion, eta Axik esanen zuen gotortasun eraiki horren beste aldera jo zuela, axolagabezia berriz ere eraiki batera, hura orekatu nahian edo.

Axi prentsaurrekoaren aretora begira gelditu zen denda erditik. Txikia zen, liburuz inguraturik zegoen, hala ere jakintza aire bat zerion, apalategietako liburu- en paperak eta zoruko kortxoak heldu ezina gauzatzeari lortuko balute bezala. Baina, bestalde, bazen zer-

bait maskala, ez zekien esaten halako itxitura bat, bertako partaide izan beharraren beharrezkotasun-
edo. Liburuak begiratzen hasi zen. Kazetaritzako zer-
baiten bila, ohituraz. Poesia liburuen apalean zebilela
erreparaturik, beste aldera jo zuenean, berriz ere
prentsaurrekoaren arrastoak agertu zitzaizkion. Lauz-
pabost lagun, haien artean Muñoz Eugi eta editore gi-
puzkoarra.

Alde egitea erabaki zuen. Etxean bazkaldu eta lau-
retarako prestatuko zen.

Golemetako atarian agertu zenean ez zuen Joseba
ikusi. Urduri begiratu zuen kartelera, *Longtime Com-
panion*, *El Rey Pescador*, *Pesadilla en Elm Street 6* ira-
kurri zuen urduritasunak begirada karteletatik altxara-
zi zion arte. Ez zekien zein film aipatu zion Josebak.
Longtime Companion, uste zuen. Berriz ere kartelde-
gira hurbildu zen, kartelaren bidez filmari trazaren bat
hartzen zion. Bi gizon ageri ziren besarkada betean;
baten bizkarra alkandora urdinez jantzita, besteari,
aurrez aurre zegoenez, aurpegia ageri zitzaion, irribar-
retsu, amerikarrek eramaten zituzten bixera haietako
bat atzeraka. Ezinegona eragin zion kartelak, zerbait
arraroa zuen, deserosotasuna sorrarazten zion zer-
bait. Eta orduan ohartu zen. Asuntoari buruzko filma

zen, besarkaturik zeuden horiek -hitzaren bila aritu zen- *maitaleak* ziren.

“Kaixo”.

Itzuli zenean hantxe zuen. Fokua izeki zen halako batean, eta Josebaren arropetan joz, lurreraino egiten zuen errainu. Ez ziren autobusean ikusi zituenen modukoak.

“Aurkitu duzu orduan ikustera goazena. Bi urte ditu jada filmak, edo hiru. Uste dut 89koa dela baina orain mustu dute. Asuntoari buruz da, EHGAMEko batek gomendatu dit”.

“Zer ikusi behar ditugu, homosexualak?” ohartu zen lehendabiziko aldiz izendatu zuela horrela bere burua “bakarrik homosexualen gaineko filmak?” bota zion haserre antzean.

“Nahi baduzu beste bat ikusiko dugu” Josebak adiskidetsu.

Ezezkoa egin zion. Joseba itzuli eta leihatilan paratu zen sarrera hartzen. Haien artean ezarritako tar-teak ardaila areagotu zien, bestearengandik urrutitaturik biko barraturik norbera izatearen ahuldadera kondenatuko balitu bezala. Biak ezkutatu ziren gor-puzkeraren zurruntasun behartuan. Eta bat-batean bi ezezagun izan ziren Golem zinemetako leihatilan,

nora joan jakin ezinean, besteak noraezetik salbatuko zituelakoan. Urrats batzuk eman zituzten bakoitzak zenbait alde. Eta gero gelditu egin ziren hiru metroko distantziaz.

“Hemendik” Josebak.

Laugarrena bilatu zuten, jarlekuak aurkitu, isilik, beharbada pozik, zerbait konpondu beharrak -aretoa bilatu- berriz ere elkartu eta bi egin zituelako, agian gu bat. Balizko gu bat.

Belaunak parez pare eseri ziren. Josebaren izterra luzangagoa, Axirena sendoagoa. Josebak eskua mugitu zuen kontrako norabidean, sortu zitzaion desirari -Axirena ukitzea- bide ez emateko. Beharbada gero argiak itzaltzean. Berriz ere deserosotasuna, orain ezer konpontzekorik ez zutela.

Argiak itzali zituzten azkenean. Josebak izterra ukitu zion Axiri. Axik inguruetara so egin zuen ilaran bakarrik zeudela egiaztatzeko. Gero lepoa atzera biratzeko mugimenduari eutsi zion, nabarmen geratuko litzatekeela sentituz, ez beharbada Josebaren aurrean, baizik eta atzean zeudekeen ikusleen aurrean. Gorputza tenkatu zuen. Eta gero erlaxatu egin zen. Hortxe zeukan Josebaren eskua, zerbait hila bezala, Joseba-

rendako ere neurri batean keinu behartu bat zela otu zitzaiolako bat-batean.

“Uste dut hiesari buruzkoa dela”.

“Zer?”.

“Hiesari buruzko filma dela uste dut”.

Joseba eskua erretiratzeko hasi zenenean eutsi egin zion Axik, eta kimikak oldarra eragin zion. Artxanda. Eta Iruñeko harresia, eta Bego ez zegoela etxean jotako larrualdia... Joseba poztu egin zen eskua izterraren gainean egon zen minutu erdian-edo ez zitzaiolako berea iruditu baizik eta bere gorputzetik ebakitako atala; Axiren keinuak bere gorputz osoaren kontzientzian baitarazi zuen, eta desioa sortu. Odola nabaritu zuen hankartera bolbolka.

“Zer moduz elkarbizitza Begorekin?” galdetu zion odolaren mintzoari –hura ere odolaren mintzoa baita– ihesi egin nahian.

“Ez oso ongi”.

Axik zalantza egin zuen.

“Aztoraturik dabil. Cruz Marirekin liatu da”.

“Baina Cruz Mari ezkondata dago eta!”.

Josebari esan ahala ergelkeria galanta esan zuela bururatu eta atzera egiten saiatu zen.

“Horrek ez du ezer esan nahi”.

“Ez” gehitu zuen Axik.

“Dena dela, ez dakit zergatik senak agintzen zidan horrelako zerbaitetan zebilela. Sen zorrotza dut” bota zuen Josebak.

Argiak itzali zituzten.

*Longtime Companione*ek New Yorkeko gay komunitatean hiesak eragin zituen lehendabiziko zalantzak, traumak –kutsaturik nago?– eta heriotzak kontatzen zituen.

Heriotzatik salbu iraun zuten protagonistetatik hiruk –lehenago hildako guztiekin elkartu ziren fantasia batean– eta AEBetan hain ohikoak diren egur barandaz hesituriko hondartzatik at desagertu ziren kredituek pantailan behera egiten zuten bitartean. Ez ziren altxatu, eta gero pantaila ilundu, kredituak agertu eta zerrendak gora egin zuen tarte luzean bertan irautea augurio ona iruditu zitzaion Josebari; elkarrekin uste baino gehiago zutelako ustea egin zitzaion Axiri. Gero eskuak askatu zituzten.

Gizona izatea gustatu egin zaio. Maya kaleko bulegora sartu denean –Iruñeko Zabalgunekeo pisu oparo eta argitsu horietako bat da–, zorrozki so egin dio Guillermo Echegaray psikologoak, soraio, begiratu bakarrean gertatzen ari zaion guztiaz jabetu ondoren, keinu nabarigaitz batez silloi gorria seinalaturik, azterketaren diagnostikoa hitz bakarrean ahoskatu eta konponbidea braust batean aurkitzera balihoa bezala iruditua zaio Josebari.

“Konponbidea braust batean aurkitzera balihoa bezala”. Horixe da. Konpontzera. Horixe esango dio lehendabizi, erietxeetara, neurologoarengana, hematologoarengana, kardiologoarengana, Landerrengana, Begorengana (urrun nabari zituen) jotzen duela elkarriketa bila, haien izate hutsak, magiaz edo, Axiren neuronak sinapsiak egitera behartu eta dena “konpontzen dela”: glutamatoa, sare neuronalak, karbono ion kanalak, hipokanpoa, boltaje aldaketak, neurologo andreak gomendatu zion TED hitzaldi horretan ageritzen moduan. Eta, gero, elkarriketa salbagarri –ironia du izenondoak– horiek bukatu, begiak kliskatu eta be-

rriz ireki ondoren, Axirengan falta den zera zehazgaitz hori -oroimen gabeziaz harantz konszientzia hankamotza, norbera egiten duena, alegia- oraindik faltan duela ohartzen denean, herra, gorrotoa, haserrea erraiak erretzen.

Psikologoaren begirada zelatariaren pean eser-tzean, arnasa sakon hartu eta ez zaio gehiegi axola izan -beste egoera batean arnasa sakon hartzeko keinu automatikoa, begiak zirrituz begira ari zaiola kontziente egiteko ahalegina, intimitate urraketa irudituko zitzaion-, intimitatea biluztera etorri dela aitortu baitio bere buruari.

“Esan bezala, Lander Lauzirikak... Harekin egin ditut hiruzpalau saio baina lagunak garenez... zuregan bideratu nau”.

Baiezko keinu nabariezin bat egin du Echegaray psikologoak.

“Zergatik zaude hemen?”.

Eta Josebak banan-banan aletu dizkio: elkarrekin ongi konpontzen ziren bikotea, bi hiritan bizitzearen aldizkakotasunak berritasunaren eta errutinaren artean kulunkarazi izan dituela; urteetako harremanaren kuxintasuna; noizbait ere, atzera berriz ere elkarrekin biziko zirelako esperantza; “Amodioa” aitortu dio aho-

tsa sendotuz aipatzeke utzirik bikote irekiarena eta, aspaldi, oso aspaldi izan zuten uztea; eta Axiren bihotzekoa, eta oroimen galera, eta infernuan daramatzan –“Badut adorea” esan dio gazteleraz– sei hilabeteak; Landerrekin izan dituen hiru saioak eta hark adierazitakoa: dolutan dagoela, “ez Axi osoagatik, baizik eta Axiri falta zaion zera deskribaezin horrengatik”.

“Eta zer da zera deskribaezin hori, zure ustez?” bota dio psikologoak, “eta nola sentitzen zara zera deskribaezin hori galdu duzulako?”.

“Ez da oroimena. Esan nahi dut, Axik galdu duena oroimena da, ikusi eta handik segundo batera ez zaitu gogoratzen, orain pixka bat hobetu du eta hamar minutuko tarteetan-edo gogoratu egiten du. Ez da Axi, baina Axi da”.

Isildu egin da. Zuhaitzen kukulak leihotik kanpora.

“Dena dela, neurologoak agindu dit oraindik erre-kuperatuko duela... beharbada oroimen guztia”.

Psikologoak Axik oroimena berreskuratuko duela-koaz gehiegi ez arduratzeaz gain, Axiren egoera orokorraz kezkarik apurrena erakutsi ez izanak zapuztu egin du Joseba.

“Eta zu, nola sentitzen zara?” errepikatu dio.

Eta Josebak azken sei hilabeteetan atonduriko narrazioari ekin dio zeina errepikatzearen errepikatzez xehetasunez beztitzzen, tentsio uneekin interesa sortzen, entzulearen arabera doitzen joan baita harik eta jazotakoa gertakarien eremu krudeletik urrundu eta narrazioaren erresuma min gabekoagoan kokatu arte. Baina gertakariak min egiten diote oraindik ere, nahiz eta kontatzean onartu halako plazer morboso bat sortzen diotela, hondo-hondoan, autoerrukiaren maskara dela dakiena.

“Ez dizut eskatu gauzak nola gertatu ziren azaltzeko. Ikusten dut egina duzula errelato bat –gauza normala bestalde–” egin dio arrapostu, azkeneko *bestalde* hitzean Josebari zergatik jakin gabe dardara eragin dion azpimarra eginez, “baizik eta nola sentitzen zaren!”.

Soraio gelditu zaio. Nabari da isiltasunei –negarrei, are lantuei– eustera ohiturik dagoela.

“Gorrotoa” bota du Josebak.

Ez du une luze batez ezer gehiago esan eta gero gehitu du:

“Bizitza injustua da. Eta gero tarteka tristura... sakon-sakona. Landerrek esan dit fase hauetatik iragango naizela: hasieran ukazioa, gero gorrotoa, gero

tristura, gero etsipena eta azkenean bizitza berri bat hasiko dudala. Ez dakit, fase horietatik iragan behar dudala, baina bizitza berriarena...”.

“Elisabeth Kübler-Ross” bota du Guillermo Echegarayk ahots sendo harekin, “ez dut gehiegi sinesten. Ongi jaten al duzu?”.

Josebak baiezkoa egin dio. Landerrek hasiera-hasieran aipatu zizkiola oinarrizko laurak: ongi jan, ongi lo egin, kirola egin eta entretenitua egon.

“Bale. Beste fase batean zaude. Orduan zer sentitzen duzu, esadazu...”.

“Bizitza injustua da. Askok kostatu zaigu genuen bizitza eraikitzea, gure bikote harremana, eta hobekien geundenean... zast... hau etorri da, sega batekin moz-tuz dena. Bizitza zentzurik gabea iruditzen zait, leku huts bat bezalakoa”.

Guillermo Echegarayk adierazi dio “dolua egitea” formularen baitan eraiki den “gehiegizko ekina” –kuanto dolua lana izanik, eskema bati jarraiki egin behar-. Lehendabizi, gertatu dena onartu, gero gertatu den horrekiko herra adierazi, sumina, haserrea. Ondoren tristura ala depresioa, eta, azkenik, etsipena, eta gerozkioz galdutakoarekin beste bizitza bat egiten ikasi. “Dolua egitea” esamoldeak ekitea adierazten

duen neurrian, itsasontziko kapitainaren irudia sorra-
razten diola, baina, beharbada, irudia bera dela oke-
rra, alde batetik, “dolua egiteak” galdutakoari garran-
tzi gehiegizkoa ematean berean, katakrexia ahuldu
beharrean indartu egiten baitu; eta bestetik, zerbait
edo norbait galdu izan ondoren ezin baita ezer “egin”;
itsas edo ibai metaforarekin jarraituz, korrontearen
mende gaude, nahiz eta gure ontziaren zubitik iruditu
kontrolean gaudela, ez gaude. “Dolua egin” esamol-
deak bizitzaren ikuspuntu protestantea, lehiaren ideia
adierazten du, nolabait iradokiz egin egiten dugun
neurrian nahi ditugun emaitzak izango ditugula, eta
hori doluarekin ez da gertatzen; “Nor naiz ni zu gabe?”
edo “zer naiz ni gauza hori gabe?” galderari erantzun-
tea du helburu doluak, eta hori bizi ahala topatu behar
den erantzuna da. Eta erantzuna beti da uste ez beza-
lakoa; beti; beste bat izaten ikasi behar dugulako,
beste subjektu bat bere bizi baldintza berriak sortu
eta iragana berrinterpretaturik.

Horregatik da trauma ondoko subjektua, bizi bal-
dintza berriak sortu arte bederen, zonbi bat” gehitu
du. “Esaterako hori argi ikusten da bikote hausturetan.
Bikote harremanaren aurretik batenak zein bestere-
nak ziren adiskideak birenak bilakatzen dira harrema-

nak irauten duen bitartean, baina behin dolua hasita, ez da jakiten -bikotekideek ez dute jakiten- pertsona horiekin adiskide ala ez-adiskide bukatuko duten, dolua egitea korrontean sartzea bezalakoa baita; eta ez dakizu korronteak ibaiaren zein kilometrotan, zein aldetan, ez nola utziko zaituen”.

Soraio begiratu dio.

Txato, Lander eta Begoña etorri zaizkio gogora Josebari. Zein urruti nabari dituen, batez ere, Lander eta Begoña, istripua gertatu zenetik, zenbait alde aienatuak, ia fantasma.

“Berriz galdetuko dizut” bota dio Erriberako ukitua duen gazteleraz, “eta zu nola zaude?”.

“Gaizki nago”.

“Deskribatuko zenidake zure barne paisaia?”.

“Ez dakit, natura erre bat ematen du. Dena kiskaldurik dago, ez dago basorik, sasi batzuk daude, eta ikaragarri handia da dena; distantziak itzelak dira, eta hotza egiten du, edo hotza baino gehiago haize hotza, bizkarretik, beti bizkarretik; babesgabe uzten nau”.

Leihotik begiratu du ataka zailetan baitaratzeko azken urteetan egitearen egitez ohiko bihurtu zaion keinua errepikatuz.

“Eta gero garrasi egiten dut. Baina inork ez dit entzuten”.

Munchen *Garrasia* pinturaren irudia etorri zaio gogora.

“Munchen *Garrasian* bezala” aitortu dio.

Echegarayk baiezkoa egin dio keinu isil batez.

“Bizitza injustua da”.

Eta hor utzi du. Leioa bilatu du berriz ere. “Aste-bete generaman hitz egin gabe, haserreturik geunden”, bota beharko lioke deblauki.

“Ez ihes egin. Zure baitara etor zaitez! Eutsi minari, ez ihes egin”.

Josebak leihoko beiradura bilatu du, eta pentsatu du hortik ez begiratzea nahi ez badu, errezelak paratu beharko lituzkeela “eriei” -bera eria da- baitaratzea, ihes egitea oztopatzeko.

“Mina. Eutsi. Begira iezaiozu. Behatu. Eta behatu ahala desagertu egingo zaizu. Zenbat aldiz pentsatzen duzu gertatu zaizunaren gainean?”.

Josebak soraio so egin dio ulertzen ez duela aditzera emanaz.

“Bizitza injustua dela eta gertatu zaizuna izugarria dela... zenbat aldiz pentsatzen duzu ordubetea... bost, hamar, hogeia aldiz?”.

Galderak durduzaturik utzi du Joseba.

“Demagun hogeia aldir. Zer sentitzen duzu hori pentsatzen duzun bitartean?”.

“Estura bat bular aldean, arnasa sabel gainean etengo balitzait bezala”.

Baiezkoa egin dio jarraitzeko agindu moduan.

“Baina hori lehenago gertatzen zitzaidan gehiago, orain sabelean halako ezinegon bat”.

“Beldur bat bezala?”.

“Bai”.

“Lehendabizikoa: antsia; bigarrena: larrimina. Antsia iragana galtzearen ondorioa da, larrimina etorkizunaren beldurra. Nonbait iragana galdu duzula onartzen hasia zaude eta etorkizunak ematen dizu beldurra. Zerk ematen dizu beldurra?”.

Galderak iraindu egin du Joseba. Zerk ematen dion beldurra? Notejode! Bere bizitza iraulita, hautsita, papurtuta, txikituta, deseginik gelditu da, eta zerk ematen dion beldurra!? Altxatzekotan egon da baina zerbaitek galarazi egin dio, Guillermo psikologoaren bisaiako imintzio burlati itxurakoak edo eskuaren koka-leku ezustekoak; zerbaitek.

Eta barrunbeak irakiten hasi bazaizkio ere, eutsi egin dio eta isilik gelditu. Erronka egingo dio. Eta

erronka erantzutea denez, azken hilabeteetako poz apurra egin zaio Guillermo planteatzen ari zaion jolas-joko ere esango luke- horretan sartzean. Beharbada horixe da hitza, erronka onartu eta aurrera ateratzea. Adorea. Beharko du.

“Axiren gaixotasunaren garapenari diot beldurra; niri berarekiko gertatuko zaidanari, alegia, maitasunak iraungo didan honi denari eusteko; haren elbarritasunari; gertatuko zaigunari; Axi horrela gelditzeari; nire buruari diot beldurra”.

Isildu egin da.

“Ez dakit ahal izango dudan honekin guztiarekin”.

“Beti daukazu Asier uzteko aukera. Bikoteak -harreman guztiak dira baldintzatuak eta baldintzazkoak- hartu eta utzi egiten dira gure nahi, interes eta sentimenduen arabera. Erresidentzia batean sar dezakezu, edo familiarekin utzi”.

Joseba durduzaturik gelditu da. Utzi? Axi utzi? Utzi? Aukerak berak harri eta lur laga du eta, aldi berean hasierako durduzaren azpitik jabaldura bide egiten hasi da xendra baten modura; ze ihesbidea seinalatze hutsak, amore eman ez izana nabarmendurik, harrotu egin du bere burua, nahiz eta hondoan jakin Guillermoren hitzek ageriko egindako “noiznahi utz

dezaket” hori aukera ezinezko baten arrastoa baino ez dela.

“Bai, utz dezaket, baina ez dut nahi. Ezingo nuke. Zergatik jakitearekin nahikoa izango nuke. Zergatik niri?... Guri?” zuzendu du gero. “Niretako zergatiak garrantzitsuak dira. Zergatiak erantzun ondoren errazago egiten zait gauzak onartzea”.

“Eta zergatik uste duzu gertatu zaizuela hau dena?”.

Eta orduan Joseba galdurik sentitu da, arrazoiak, sentimenduak, gorputz aldarteak, giharren tenkak, bularreko hersturak, estomagoko larritasunak etxafuegoak balira bezala zarata eta zalaparta eginik zorabiatuak.

Eta negarrez hasi da, espantuka hasieran, zotinka gero, mara-mara azkenean. Lotsatu egin du norbaiten aurrean horrela aritzeak, babesak jaitsita, Guillermo enpatiaren kartolak jaso eta urruntzen nabaritu duen bitartean, haren ofizioaren dohain litekeena elkartasun eza iruditu zaiola.

Baina ezin izan du gelditu. Axirena gertatu zenetik haxe da negar egiten duen lehen aldia. Baretasuna gero.

“Esadazu. Zenbat aldiz sentitzen duzu antsia ala larritasuna, zenbat aldiz akordatzen zara gertatu zai-zuenarekin ordu batean?”.

Josebari lekuz kanpoko iruditu zaio galdera, baina erantzuten saiatu da, hala ere.

“Hasieran etengabe. Obsesio bat zen libre izaten nituen tarteetan. Ez dira hainbeste. Baina gero Axi ‘terapia’ -badaki hitza ez dela egokia- egiten hasi dene-tik obsesioa indarra galtzen hasi da. Berrogei? Halako zerbait. Oso nekaturik nago gauza bera pentsatzeaz”.

“Bueno, demagun berrogei aldiz. Eta demagun ‘minak’ -alegia, larritasunak, antsiak- irauten dizula hamabost segundo, berdin seiehun segundo. Zati hi-rurogei minutu, berdin, hamar minutu”.

Guillermok egundoko aurkikuntza egin izan balu bezala so egin badio ere, Josebak ez dio esan nahi duena ulertu.

“Hamar minutu. Hamar minutu, eta zer”.

“Ez duzu ikusten... badauzkazu beste berrogeita hamar minutu ongi egoteko. Edo hobe esanda, hobeki zaudenak. Pentsatu ideia horretan. Ordua dugu. Bada-kizu nor den C.S. Lewis?”.

Josebak baiezkoa egin dio itzultzen hasia den Miren Akerretaren *Dolutan* filmaren aurkezpen fitxara-ko testua gogora ekarriz.

“Zera dio Lewisek *A grief observed* liburuan: mise-riaren zati bat, horrela esan badaiteke, mixeriaren itzala edo isla da: ez bakarrik sufritu egiten duzula bai-zik eta sufritu egiten duzula pentsatzen ari zarela. Ez dut egun amaiezina minetan bizi, baizik eta bizi dut egun bakoitza minetan biziko naizela pentsatzen”. Itzulpena libre samarra da baina sufritzen ari garela pentsatzeak sufrimendua eragiten duela esan nahi du. Utzi sufritzen ari zarela pentsatzeari. Orainean bizi. Kafea prestatzen ari bazara, kafea prestatzen izan burua; txiza egiten ari bazara, txorrota, zakila, ko-muna baino ez ikusi; negar egin behar baduzu, nega-rretan urtu. Ez pentsatu. Bizi orainean”.

Eta altxatu egin da.

Josebak harri eta lur jaitsi ditu eskailerak.

“Tipo hau ergela da” pentsatu du atariko atea ixten duela. Izorra dadila, ez dio aitortu astebete zera-matela hitzik egin gabe, Axiren atarian haserretu zire-lako.

Telefonoa hartu du. Begori hots egin dio. Soinua-ren arabera atzerrian dago. Gero Landerri. Ezer ez.

Gero Txatori. Ezer ez. Abandonatua sentitu da Maya kalearen erdian, zuhaitzen enborren artean.

Kaskoak jantzi ditu. Carmane: *Fado Siempre*. Ezkerretara: Carlos Illa. Leonard Cohen: *Alexandra's leaving*. Handik behera, Taxonar kalea, EITBko egoitzaren Eraikin Adimentsuak. Paquita la del Barrio: *Ni tú ni yo*. Handik ezkerretara Santa Maria la Real, auzo txikia. Nick Cave: *Hallelujah*. Itzulera, Seminarioaren atzetik. Purcellen *Cold Song* Klaus Nomiren bertsioan. Media Luna parkea, Arga behean duela; Chavela Vargas: *Te estaré esperando...* Anariren *Habiak...* Labrit ondoko zubitik barna. Ruper Ordorikaren *Berandu dabilta...* etxea. Etxea-edo.

“**Utzi** niri” esan zion Axik Josebari, pintatzeko brotxa, arrabola eta abarrak goiko pisuaren tranpalean uzten zituen bitartean.

Txirrinaren soinu metalikoaren ondoren urratsak entzun zituzten. Josebak ipurdia ukitu zion Axiri, hark zartako batekin eskua aldenarazi zion. Bi izatearen sekretua, pentsatu zuen Axik, eta pentsatu ahala Josebari esaldia gustatu egingo zitzaiola deliberatu zuen, nahiz eta orduantxe ezin esan, urrats batzuk aditu ziztuztelako atearen beste aldean. Josebak Axi oharkabean tentetzen nabaritu zuen eta tentetu egin zen bera ere.

Berrogei urte inguruko andere zahar bat zuten aurrean. Ilea atzera, begi mesfidatiekin haiengana so.

“Pisua ikustera gatoz” bota zuten batera.

Joseba poztu egin zen augurio ona iruditu zitzaiolakoz.

Andreak aldendu eta sartzen utzi zituen. Pisu zaharra zen; aspaldiko altzariz betea; pintura kolore higatuek ezin argi eginik, iluna suertatu zitzaien; zoko usaina zerion, itxituran bizi izandako norbaiten aztar-

na nabaritzea iruditu zitzaion Josebari; sukaldea zen dezenteena, veluxeko argia norbaitek trebeki eginda-ko armairuen gainean erortzen zela.

“25.000 pezetatan orduan” egin zion erronka Axik, bi gelak ikusi ondoren korridorean barna egongelara hurbiltzen ari zela.

Andreak, horrelakoetan zaildua, ezezkoa egin zion Axiri, Josebari batere erreparatu gabe, ohartu baitzen lehenengoa zela burua.

“30.000 adostu genuen telefonoz” bota zion lehor.

“Bai, baina pisua ikusi ondoren ezin da 30.000 pe-zeta eskatu”.

Andrea Axiren egonarriarekin harritzen zen bitartean, Josebak Axiri erreparatu zion, ez zekien berariaz ala egiatan leihotik so zegoela, zerura begira edo ageri ziren teilatuen ikusmiran edo eguzkiak teiletan errainua nola egiten zuen ederretsiz; ez zekien baina ohartu zen andrearen deliberoaren sendotasunari arrakalak ageri zitzaizkiola.

“30.000 da prezioa”.

Josebak Axik burua leihotik nola aldentzen zuen ikusi zuen eta begiak ñarrotuz zera esaten entzun zion: “Gehiegi da, badakizu”.

Andreak baiezko arin bat egin zuen. Ez zuten kopurua berriz ere ahoskatu behar izan 25.000 zela jakiteko.

“Bihar ekarriko dizkizugu” bota zion Josebak Axiren begirada bilatu eta ezin aurkituari luzetsita zaputza egiten zitzaiola; Axik biei erreparatu gabea leihotik so jarraitzen zuen.

Andrea ate bokalera gerturatu zen haien atezuan paratuz.

“Geldi gaitezke?” ausartu zen Joseba.

Bigarren aldiz bilatu zituen Josebak Axiren begiak, etxe jabeari egindako galderarekin lagunduko ziolakoa aurretik adostuta bezala goiko tranpaletik pintatzeko gauzak jaitsi eta berehala hasteko, baina Axi ez zegoen han, edo han ez egotearenak egiten ari zen, leihotik hodeien joan-etorri mantsoari mira aritzea andrearen borondatea pitzatzeko estrategia. Eguzki egiten zuen.

Joseba zaputzu egin zen bigarren aldiz eta esandakoa uxatu nahi izan zuen esku keinu faun batekin. Andreak, bere nahiak berehala ulerturik, kanpoko atea zabaldu zuen eskailera buru ilun eta estua bistan utziz. Josebak esanen zuen gorputza makurtu eta

guzti egin zuela zertxobait, haien irteerari halako ohore baldar bat egiteko.

Axiren ondotik pasatu zen haserrea hobe nabari zezan.

“Gelditu egingo gara” bota zuen deblauki Axik leihotik aldenduz. “Bai, gelditu egingo gara. Horrela zer behar dugun ikusiko dugu, eta zer bota dezakegun. Nahi duguna bota dezakegula esan duzu, ez?”.

Joseba ate bokaletik apartatu eta hormaren kontra bermatu zen, ikuskizunaz miratzera bailihoan. Ikuskizuna, Axi norbaitekin eztabaidatzen, elkarrekin zermatzaten sei hilabete ingurutan bakanagatik zein sutze gehiegizkoagatik ikuskizunago.

“Baina...” hasi zen andrea, “baina nik ezin dut zuekin egon, joan beharra daukat”.

Axik, gerturatu, eta eskua eskaini zion.

Andreak zalantzak utzi eta amore eman zuen giltzak laxatuz. Soinu lehor bat egin zuten Axiren eskuetan erortzean. Andreak atea zabaldu eta kasu handiz itxi zuen. Axik erabat bere baitaratua zirudien Josebaren garaitza irribarre zabalari itsu, andrea aienaturiko ateari begira.

“Nola lortu duzu?”.

Orduan itzuli zen Axi, aurpegia keinurik gabe, huts, beste nonbait balego bezala. Josebak pentsatu zuen Axirendako sedukzioa ez zela jolas ironikoa, baizik eta egiaz izate osoa beharrera paratzen zuen jokoa non emaitzak berebiziko garrantzia baitzuen.

“Erraza izan da”.

“Beti lortzen duzu nahi duzuna jendearengandik. Beharbada duzun ahots horregatik da. Ni ere horrela engainatu ninduzun”.

Orduan bai, orduan Axik irribarre zabala eskaini zion Josebari, eskua harturik bere hankartera eraman bitartean.

“Honekin engainatu zintudan, txotxolo”.

Josebak ihes egin zion komentarioari.

“Esan nizun urdinez horiz baino hobe izango zela” esan zuen Axik algaraka ate bokalera lasterka abiatzen zela. Josebak barrezka jarraitu zion eta biak goiko tranpalera igo ziren zalapartaka. Plastikoak hedatu zituzten lurrean eta pintura potoak gaineen jarri, eta brotxa eta arrabola. Boteak ireki ahala Josebak pentsatu zuen berak nahiago zuela egongelarako horia eta logelarako zuria, baina Axik irabazi egin zion, orduan ere, egongela urdinez pintatzeko konbentzitu baitzuen. Bueno, berdin da.

“Korridore bukaerakoa gure logela” bota zuen Josebak ahotsari sendotasuna erantsi nahian.

“Ongi” adostu zuen Axik sorbaldak jasoz berdin zitzaiola adieraziz.

Joseba harritu egin zuen Axiren baiezkoak, Axik baiezkoak Joseba harritzen zuela ohartzen zen bitartean.

Axik berehala erantzi zuen arropa eta galtzontzillotan gelditu zen. Pintura urdina nahasten hasi zen. Zeharka Josebari so egin zionean, oraindik hormaren kontra bermaturik berari begira, harrotu egin zen, umeak nola, bai baitzekien une hartantxe haren miraren zio eta jopuntu zela, aldi berean; eta joan-etorriko bidaia horretan Joseba ere katramilaturik zegoela beraren moduan, objektua eta subjektua nor zen ez bereizteraino.

“Benga, jarri zu ere galtzontzillotan, horrela ez dugu arroparik zikinduko!”.

Josebak galtzak kendu zituen, elastikoa, kamiseta, eta barruko kamiseta tirantedunetan gelditu zen.

“Kendu kamiseta ere, gizona!” barre egin zion Axik.

Josebari berriz ere poza eta beldurra egin zitzaion Axik ahuldadeak nabaritu zizkiolako zegoeneko.

Kamiseta erantzi zuen lotsaz edo.

Axik eguzki errainua iragan eta hurbildu egin zitzaion; eztarriraino sartu zion mingaina. Gero arrabola pintura urdin argian sartu eta tanta zeriola lehendabiziko zastakoa egin zuen horman, pintura larukara hingatuan nabarmentzen zela.

“Et, et” bota zion Josebak “lehendabiziko karrozero zintarekin estali beharko ditugu errodapiesak eta ate markoak, ez? Ohartu naiz” gehitu zuen Axiren ahuldadea identifikatzeaz harro “zu beti zoaz herioak harturik zure burutazioen atzetik!”.

“Bai” onartu zion Axik peto-petoan Josebak ahuldadetarako harturikoa dohainetarako joz. “Zu zinen nire nahia eta hemen gaude!”.

Josebak kamiseta erantzi zuen. Han agertu zitzaizkion Axiri gorputz luzexka, ilajea petxu goian, titiburu arreak, hankartea, erdi handiturik, hanka sendoak.

“Earra zaude-eta!”.

Karrozero zintak paratzen hasi zen Joseba errodapiesetan Axik atzetik egunkari orriak itsasten zizkien bitartean.

“Uste duzu susmatu duela?” galdetu zuen Josebak.

“Zer susmatu?”, Axik.

“Badakizu, bikotea garena?”.

“A, baina bikotea gara orduan?”.

“Ez izan txorralaire. Uste duzu susmatu duela?”.

“Eta zer inporta zaizu? Ez gaitu horregatik botako, pagatzen diogun bitartean. Proba dezagun bikotea ote garen”.

Axik eskua uzkira bota zion Josebari. Gero mingaina sartu zion bertan.

“Eta badakit pentsatu duzula sofa izkina horretan paratzea” murduskatu zuen ipurmasailen artetik.

“Nola dakizu?” galdetu zion Josebak barrezka, kiliak eta plazerak egongela higatua eguzkiaren errainua balitz bezala argitzen zuela.

“Eta hor mahai bat, eta harantzago lanpara eta...”.

Axik susmatzen zuen Josebari estonagarria eta amorragarria egiten zitzaiola berak hark pentsatzen zuena asmatzea, baina hori zen maitasuna, ez?, beste ikustea.

“Nola jakiten duzu zer ari naizen pentsatzen?” galdetu zion Josebak galtzontzilloa igo, bizkarra hormaren kontra bermatu eta burua laztantzen ziola Axiri.

Josebari beldurgarria eta aldi berean kitzikagarria egiten baitzitzaion Axiren bereak igartzeko abilitadea;

beldurgarria larru hutsik babesgabe uzten zuelakoz; kitzikagarria abildadeak, Joseba zuelako desioaren objektu. Gehiegizko lilura, aitortu zuen bere artean, Txatoren gogoeta buruan: “Nobioak desagertu egiten dira, ahizpek iraun”.

“Nola intuizio femeninoa!?” barre egin zion Axik.

“Nik zu zertan aritzen zaren ez dut jakiten?” erantzun zion Josebak tonu serioagoan.

“Nik ez daukat ezer barnean!” barre egin zuen atzera berriz Axik.

Josebak musu eman zion. Axik musua itzuli zion. Igual izan zitzaizkien karrozero zinta, arrabolak, pintura urdina...

“Ni joan eginen naiz”.

Axiren ondoan etzanda zegoen Joseba, beso gainean bermaturik. Josebak Axiren profila zuen aurrean: sudur handia, begi marroiak, kaskamotza, kokots aterea. Zeharka so egin zuen hitzek eraginik ote zuten atezuan. Axik pentsatu zuen ez zuela gogorik homosexualitatea deritzon horri buruz aritzeko. EHGA? Nork nahi zuen jakin zergatik zen... hitzaren bila aritu zen, batetik bestera. Nork zekien zergatik gustatzen zitzaizkion gizonak? Bat zen eta kito. Eta gainera bera ez da, bera ez zen ezer.

“Eta zu etortzea nahi dut”.

“Ni ez noa inora”, Axi besoaren gainean bermatu zen, ordura arteko jarrera lasaia utzi eta erabat aztoraturik.

“Lasai”.

“Ze lasai eta zer ostia. Ni ez noa!”.

Axik, barrunbeak bolbolka, jauzi egin zuen ohan-tzetik, eta galtzontzilloak janzten hasi zen beso bat horman bermaturik. Bi hankak zango zuloetatik sartu zituenean brausteko batez sartu zuen buztana. Gero potroak egokitu zituen hankak pixka bat zabalduz.

“Baina zergatik jartzen zara horrela? Ezin duzu ezetz beste modu batez esan! Esan ez duzula joan nahi eta kito, haserretu gabe”.

“Kaka puta” danbateko batez itxi zuen Axik pisu zaharreko komuneko atea.

Zergatik joan behar zuen berak marikoien bilera batera? Zergatik? Politika? Ez zen nahiko zeukatenarekin? Joseba beti ari zen politika eta sexualitatea eta txorrada horiekin. Ez zen nahiko haien artean ongi egotearekin.

Nahiko ez.

Joseba agertu zitzaion komunean eta besarkatu egin zuen.

“Ez haserretu. Benga, gaur bakarrik... ez bazaizu gustatzen ez itzuli. Txato eta egonen dira. Eta Juanillo eta Oskar. Aber zein fasetan dabiltzan. Adiskidetze ala etsaitze fasean. Txatok arrazoi du, Etika Marika bat idazten hasi beharko genuke”.

“Etika Marika. Falta zitzaiguna!”.

Txato... marikoi hori.

Josebak ordenadore aurrean eserarazi du Lander, Miren Akerreta zuzendari, Lander bera eta Axi gidoigile eta laguntzaile izan zituen *Dolutan* filmaren prentsarako fitxaren eskema eta oharra gainbegira ditzan.

“Baina seguru ongi dagoela” esan du Landerrek.

“Egin ahal duzuna” esan dio Josebak eskumuturreko igeltsua seinalatzen diola, “ni jarriko naiz gero teklatuan. Bitartean, Axi altxatuko dut. Dena dela, nola egin duzu?” galdetu du Josebak, Axiren kezka-edo erantzunaren espera langelatik alde egiten duela.

Eguraldi ona dator; eta gero bazkaltzera aterako dira, beharbada, Queertyra.

Landerrek Josebak paratu dion pantailan zehar egin du saguari ezkerreko eskuarekin sakatuz.

“*Dolutan* filmak Euskal Gatazkaren biktimek doluak nola egiten dituzten azaldu nahi du, gizartean egin beharreko doluaren ispilu eta bide. Miren Akerretak Lokarri erakundearen eskutik filmaturiko dokumental honetan biktimei eskaini zaie protagonismo osoa”.

Altxatu eta langelatik atera da Lander. Sukaldean ari dira Axi eta Joseba. Axik txakurtxo bat bezala jarraitzen dio Josebari sukalde txikian zehar ontzi eta gosarikoen bila, hozkailutik katiluen armairura, sutatik harrikora, nahiz eta, sukaldearen txikiagatik, espazio arteko desplazamenduak baino areago, urrats txiki eta mugimendu asmoak baino ez izan. Gero eta antz handiagoa dutela pentsatu du, gaztelerazko “dos que duermen...” gogoan.

Bihotzekoarena gertatu aurretik Axirekin izandako elkarrizketa haren oroitzapena uxatzeko, bakardadeak pisatu egiten dio. Gustatu zaion azken aurreko ligeaz akordatu da; badaki, ilusio gehiegi jartzen du gizonengan, horixe da Begok esaten diona, eta lehenago Axik, nork eta Axik, 19 urte pasa gizon berarekin daramatzanak. Zein erraza: “Bikotea bizitzaren beste alderdi bat baino ez da”. Telefonoz ligatzeko aplikazio batean ezagutu zuen. Auskalo, Bender edo Grindr, edo Scruff edo... Ohikoa.

Hola

Hola

Zer moduz?

Ondo

Erantzun zion euskarazegin ohi zuen moduan eta handik h gabeko bizkaieraz hasi zitzaion, ohikeriatan. Astebetera-edo harrigarriki zera bota zion:

Aizu, lagun, bihar Antxorasera etorri nahi duzu?

Antxoras? Ez dakit zer den, baina ondo

Ordu pare bat edo hartu zituen mundakarrak erantzuteko, Landerren desesperaziorako.

Barkatu, lagun, ezin dut segitu

Gezurra esango zuen zaputza egin zitzaiola ukaturko balu, bazekien, horrenbeste azkarra bazen, handik ez zegoela gehiegi esperatzerik.

Lasai

Ikerketa antropologiko bat egiten ari naiz: zer daukazu, bikotea? Armairuan zaude? Jolasean ari zara?

jijijij

Bikotea daukat. Barkatu

Barkamena eskatzen zuen bat. Harrigarria toki hartan.

Lasai. Benga ondo bizi

Eta handik ordubetera edo:

Baina gera gaitezke zeozer hartzeko

Eta ezetz esan beharrean, baiezkoa eman zion, eta han agertu zen, Laidan, udazkeneko arratsalde batean. Furgonetatik jaitsi ahala gustatu zitzaion Ezker

Abertzalearen manifestazio bateko argazki batetik aterea zirudien gizon bizardun hura.

Josebak burua altxatu du.

“Hemen zaude?! Nahi duzu kafe bat?”.

Axik ere burua altxatu du. Begi galduak argitu zaizkio.

Bikoteko buruzagia izandakoa bigarrenko. Ze pentsatuko luke bere burua ikusiko balu? Ez luke onartuko, nahiago izango zuen hilik egon, seguru dago, horrenbeste ezagutzen du aspaldiko adiskidea.

“Lander”, egin du garrasi Axik, “zer egiten duzu hemen?”.

Axik hurbiltzekoa egin duenean, mahai ondoko silla bota du zarata handiz. Harriturik gelditu da istriputxoaren ondorioei begira, gertatutakoa ezin ulerturik, kausa eta ondorio legearen jarraitasuna harrigarria balitzaio bezala. Lander hautsiapur hurbildu da jasotzera. Gero besarkatu egin du. Badaramatzate bi hilabete elkarrekin egon gabe. Gosaltzera eseri dira. Josebak arretaz zerbitzatu du kafea, esnea; egonarri gabetia eta, aldi berean, maittetasuna adierazten duen keinu batez paratu dio Axiri ogi xigortuaren platera aurrean. Landerri bururatu zaio Joseba zaintzaz nazkatzeko -nekatzen zuzendu du bere burua- hasia dela,

eta ez zaio harritu, lan nekeza baita, hainbat bezerori -gaixori? beti egiten du zalantza bere bulegora “gur-dia hustera” etortzen direnei nola deitu- gertatu mo- duan, zaindu eta aldi berean erdi-joan den horren gai- neko dolua egitea.

Erdi-dolua? Dolu-erdia? Galdetzekotan egon da, baina pentsatu du hobe dela gerorako uztea, ordena- gailuan, oharren aurrean errazago erabakiko dute bata ala bestea den.

“Zer egiten duzu hemen?!” galdetu du Axik, “ez zaude Bilbon?”.

Landerri psikologo tresnak apurtu zaizkio.

“Lehenago ere ikusi duzu, Axi. Lan bat egitera eto- rri da, orain jarriko gara”.

“Nik lehenago ikusi?! Nik ez dut lehenago ikusi!” bota du Axik biribil.

Josebak eta Landerrek elkarri begiratu diote.

“Bai, lehenago ikusi duzu. Axi, bihotzekoak jo zizun eta gauzak ahazten zaizkizu” ebatzi dio Josebak Landerri sadismoaren aztarnak dituela iruditu zaion tonu batez, zeina zaintzaileengan behin baino gehia- gotan ikusia baitu, askok eta askok, haien bizitza utzi- ta, halako fraidetasunera edo mojasunera (gehiago mojasun, gehienak andreak baitira edo marikitak)

kondenatuak izanaren kobrantza moduan-edo gaixoa-ri pagarazten diote.

“Bihotzekoak?!” harritu da garrasika. Axik ez du Axi ematen. “Niri ez dit bihotzekoak jo” egin dio arrastu Landerri, Joseba eroturik dagoela adierazten duen irribarre eta ahots tonuz.

“Bueno, Axi, guk bulegoan lan pixka bat egin behar dugu, eta zaude hemen. Nahi duzunean joan bulegora”.

Etxeko animalia bezain bezaturik gelditu da sukaldean, haiek korridorean barna egin duten bitartean.

“Birpentsa daiteke gizakia bestearen zaurgarritasunaren kontingentziaren argitara? Aska gaitzake gure zaurgarritasun ezintasunaren ilusiotik? Halako birpentsatzeak gida gaitzake benetako elkartasuneko lotura transnazonaletara eta komunitate global batera, zaurgarritasun borrokazkoetara baino? Horrela bukatzen du Nouri Gana aztertzaileak bere liburua, *Signifying Loss: Towards a Poetics of Narrative Mourning*.

“Eraiki daiteke gizartea dolutik, aipu horretan adierazi bezala? Lan teorikoa aspaldi egiten hasia dago. Beharbada gehien landu duena Judith Butler filosofo amerikarra da, zeina, generoaren azterketatik abiatutik, doluak komunitatea sortzeko izan dezakeen

balore eraikitzailetik iraganik -gay komunitateak hie-saz hildakoei dolu egitean sortu zen komunitate zen-tzua iraganbide- gizakiok gizaki izateko 'bestearen beharra norainokoa den aztertzen saiatzen den, bestearen rik gabe gure gizatasuna ez dela gizatasuna irado-kiz".

"Ez da trinkoegia?" galdetu dio Josebak.

"Bai, baina hainbat gauza ezin dira bestela esan. Filmaren fitxarako sarrera moduan ongi dago. Filmaren ondoko tailerretarako ahoz azaldu, eta kito".

"Dolu egitea traizio ekintza da, bestea, hildakoa, joandakoa, atzean utzi nahi baita, gure baitatik erauzi. Freudek doluari balio terapeutikoa aitortzen dio, galdutako objektutik, biktimen ahaide eta adiskide horiek, energia erauzi eta beste nonbait paratzen baitugu. Azken finean dolu egitea da hildakoei adios esatea eta bizitzarekin aurrera jarraitzea. Adios horrek eragin dezake barkamena eta barkamenaren bidez borraroa eta biktima gizarte proiektu berean uztartzea? Film honen helburua baiezkota erakutsi eta bide horretan beste harri txintzar bat gehitzea da.

"Subjektu traumatikoa -biktimaren ahaide eta lagunak, biktimak haiek ere- ordura arteko bizitza baldintzak suntsiturik, hildako bizidun bilakatzen da

beste bizitza bat eraiki arte. Ordura arteko bizi baldintzek ez diote balio, eta zentzu horretan bere bizitza bukatu zaion biziduna bilakatzen da, zonbi bat”.

“Zer iruditzen zaizu azken esaldi hori? Ideia berriz errepikatzen da baina iruditu zitzaidan merezi zuela ‘ordura arteko bizi baldintzak’ deseginik gelditzen direla azpimarratzea, nahiz eta erredundantea izan”.

Landerrek pantailara ñarrotu ditu begiak. Ongi iruditzen zaiola otu zaio gogoak mundakarrarengana ihes egiten diola. Gero Durangoko bikotea etorri zaio gogora. Haiekin izan duen txakur-saioa.

“Beraz, balia dezakegu ‘zonbitasun’ hori gizartea sendatu eta bizi baldintza justuagoak sortzeko?”.

“Zuk uste duzu marikitok gure maskulinitatearen dolutan aritzen garela etengabe?” bota dio deblauki Landerrek.

“E? Zer darabilzu buruan?”.

“Ez, testua irakurtzean, ez dakit zergatik, bururatu zait, izan dudan rollo batengatik; istorio bat izan dut mundakar batekin eta... armairuan dagoenez... heteroizatetik, denok hetero garen neurrian, marika garen arte, gu ere zonbiak gara, gure ‘bizi baldintzak’ sortu arte” bota dio Landerrek.

“Has zaitez hasieratik”, erantzun dio Josebak, “ez dizut oso ongi ulertzen”.

Eta mundakarraren istorioa kontatzen hasi zaio.

“Eta agertu nintzen Laidako hondartzara. Bikoteaz galdetu nion eta ez dit hau botatzen ba: ‘Reimsko da’; ‘Eta zer daramazue, denbora asko?’, nik; ‘Ez, hiru hilabete; 12 egun egon gara elkarrekin’. Harriturik. Gero Antxorasera joatea proposatu zidan, Mundaka parean dagoen kala zoragarri batera. Bidean, furgone-tan, bere ipar-forro beltzaren azpitik kamiseta zuri bat ageri zuela, ez zait hasten ba kontatzen zalantzak di-tuela Reimskoarekin, urruti dagoela, eta hemengo norbait beharko lukeela. Klaro, ni, ilusioak egin eta egin. ‘Baina zu maiteminduta zaude?’, nik. ‘Oso natu-rala da han dena, bere familiarekin harremana-eta’; ‘A!’, nik. ‘Ni, gainera, armairuan nago’, hark; ‘A!’, ne-rauk, atzera berriz”.

Josebak hori dena nora doan pentsatu du bere bai-tan. Bera da gaizki dagoena, eta Landerren nobio be-harra hutsaren hurrengo da gertatu zaionaren, zaien-a-ren, zuzendu du, aldean.

“Jaitsi ginen eta, niri zer bururatuko eta bainatzea. Han paratu nintzen galtzontzillotan, eta haitzetan nin-

doala, irrist; mina hartu nuen eskumuturrean, baina ez nuen garrasi marikita txikiena ere bota!”.

“Horrela egin duzu!?” galdetu dio barrezka igeltsua seinalatzen diola.

Biak hasi dira karkailaka, ezin eutsiz.

“Zer pasatzen da?”. Axi agertu zaie ate-bokalean.

Josebari harridura egin zaio, eta gero poza; sofan eserita utzi eta bere kabuz altxatzen den lehenengo aldia da. Lehenengo aldia. Braust batean jaso eta besarkatu egin du bien harridurarako.

“Bere kabuz altxatzen den lehen aldia da” azaldu dio Landerri. Eta gero: “Zure kabuz altxatzen zaren lehen aldia da”.

Axik ez du ezer ulertzen. Berria egiten zaio langela hau, ordenadorea, liburuak...

“Badakizu nola izorratu duen eskumuturra, Axi?! Tipo baten aurrean matxitoarena egiteagatik. Ia berrogeita hamar urterekin!”.

Axik ere barre egin du, barre galdua, baina barre.

“Beno, atera naiz uretatik, eskumuturrean min, baina ez gehiegi. Badakizue nolakoak diren zaintira-tuak. Hasieran ezer ez, baina gero... Kontua da gertatu zela gertatu behar zuena, harik eta inguruetara begira hasi zen arte. ‘Zer pasatzen da?’, nik; ‘Reimsera-

ko istorio hori, ezin dut', berak. Han geunden biok, galtzontzillotan, zakilak oraindik zut, itsasoaren aurrean, eta nik eskumuturra minetan hasia. Etxera etorri nintzenerako mezua nuen. 'Zoragarria izan da zu ezagutzea'. Berriz gelditzeko eskatu nionean, zera erantzun zidan, nirekin larrua jo izanak erakutsi ziola Reimskoarekin nahi zuela. To".

Biak geratu zaizkio so, Axi ere bai, eta horrela begiraturik esan daiteke ez zaiola ezer gertatzen.

Josebari istorioak grazia egin dio; grazia egiten dio Landerren nobio behar horrek eragindako minak, baina berea makurragoa da; hor dago istripu ondoko Axi, sillan eserita, ordenadore pantailari adi dagoelakoak eginez.

"Orain txakurtasunetan nabil. Jarrai dezagun, bestela ez dugu bukatuko".

"Film hau Elisabeth Kübler-Ross psikiatrak zehazturiko dolu aldien arabera antolaturik dago: ukazioa, haserrea, negoziazioa, depresioa eta onarpena.

"1. Ukazioa: gure biktimek errealitatea ukatzeko estrategiak kontatzen dizkigute, trauma ukatzeko eragindako ahalegin guztiak: pentsamendu magikotik hasi eta ukazioa bera arte: hildakoaren arropa ez bota,

hildakoarekin hitz egin, janaria gorde harendako eta abar.

"2. Haserrea: gure protagonistek azaltzen dute ailegatzen dela une bat non ukazioarekin ezin aurrera jarraituz haserretzen baitira. Hiltzaileekin, hildakoarekin, gizartearekin, norbere buruarekin. Haserreak bi iturri ditu, batetik heriotza ezin ekidin izanak halako porrot zentzua, eta bestetik, ahaide edo lagun bat galtzean gertatzen den erregresio esperientzia: gure protagonistetako batek dioten moduan 'umea zara eta inguruan jendea dagoen toki batean zaudete ama eta biok; halako batean begiak jaso eta zure ama ez dago bertan; antsia nabari duzu, panikoa. Ama itzultzean maitasuna beharrean, haserrea baino ez duzu borbor-ka'.

"3. Negoziazioa: dolu egileak onartzeaz du gertatu dena, eta orduan bere burua edo ingurukoak hobentzen hasten da: hura egin bagenu!?! Eta beste hura? Eta ez balitz autora hurbildu? Abisatu banio. Nolabait ere, bizitza, Jainkoa edo dena delakoarekin negoziatzen da hildakoaren joana.

"4. Depresioa: Freudek zioen depresioa eta malenkoniaren arteko desberdintasuna zera dela: malenkonian, munduak hutsa ematen du, depresioan, aldiz,

norberak ematen du hutsik. Ziur aski fase honetan dolua depresio bilakatzen da: mundua hutsak norbere baitako hutsa islatzen du. Ezerk ez du zentzurik, dolu egileak ez du bizitzeko gogorik, ez du ezer egiteko gogorik. Baina nolabait dolua egiteko beharrezko fasea da, ziur aski hauxe da, hala ere, gehien irauten duena; dolu egileari luze -luzeegi- egiten zaio, nolerebait ezin baitu eguneroko bizitza egiteko indarrik bildu. Baina, aldi berean, tristura sakon horrek dolu egilea bere baitara bihurtzen du, eta horrela pixkanaka errealitatearekiko doitzea egin dezake”.

“Oso ongi dago, Joseba” zoriundu du Landerrek, “oso ongi”.

Joseba poztu egin da, azken boladan kontzentratzea kostatzen zaio. “Ni ere, uste dut, zu bezala, dolutan nagoela”.

Galdera ikurra marraztu zaio Josebari aurpegian, Axiren aurpegiko galdera ikur iraunkorraren ispilu.

“Bai, uste dut *nobio bat aurkitzeko aukerari* adios esaten ari naizela. Jode, ez dakizu, larrua jotzea oso erraza da, baina harantzaxeago joatea ezinezkoa. Zoroz beteta daude aplikazioak. Eta, gainera, aplikazioek armairura itzularazi gaituzte, jada ez da beharrezkoa ateratzea, gure garaietan bezala -aitona bat

ematen dut-; Mundakako horrek hori esan zidan, *zer-tarako armairutik atera?*, 50 urterekin, klaro. Eta, azkenean, armairutik ateratako marika liberatu batek enbarazu egiten dio armairu bati, emakume liberatu batek gizon heterosexual bati enbarazu egiten dion modu berean”.

“Utzi heterosexualak alde batera, horiek bai dau dela eroturik. Gogoratu Etika Marikaren ezdakitzenbargarren puntua: marikitoi heteroen normek ez digute balio. Sortu beste batzuk eta ez utzi haien normen arabera epai zaitzaten” laburtu dio Txatoren ahotsa gogoan. “Azken finean, Lander, nobio beharra gizarte heteroak sortutako beharra da”.

Etortzen ikusi du, eta Axi etortzen ikusten zueneko gogoratu dio; eta, gero, Lander ez da Axi, oldarra, eta, segur aski -psikologo profesioa gida-, haserrea eta frustrazioa fauntzen dakienez... zera erantzun du: “Beno, igual da, sortuko da norbait. Segi dezagun. Nola erredaktatu duzu *Onarpena*-rena?” bota du xalo-xalo, ia haserre arrasto barik.

“Zalantzan egon naiz. Lehenago dolua zer den definitzerakoan Lewisen testu bat sartu nuen baina gero nahasgarria iruditu zitzaidanez, ezabatu egin nuen. Eta horregatik edo, *Onarpena* haren testu batekin bu-

katzea erabaki nuen. Testua jasoegi gelditzeko arriskua daukagu”.

“Hobe” erantzun du Landerrek. “Irakurri, faborez!”.

Eta Joseba, aspaldiko partez bere lanaz harro, irakurtzen hasi zaio: “5. Onarpena: C.S. Lewis: ‘Ezin dut ukatu zentzu batean hobe sentitzen naizela eta horrekin batera lotsaren antzeko zer edo zer dator, eta zorigaitza maitatu eta bultzatzeko eta luzatzeko beharra. Seguru nago H.ri ez litzaiokeela ongi irudituko. Ergel bat ez izateko esango lidake. Eta halaxe esango lidake Jainkoak. Zer dago horren atzean? Neurri batean, banitatea. Geure buruei frogatu nahi diegu maila handiko maitaleak garela, heroi tragikoak; ez dolu egiileen armadako jende arrunta garela, saia eta saia, lan nekeza ahalik eta hobekien aurrera eramanez. Baina hori ez da azalpen guztia. Uste dut nahasmena ere baidela. Benetan ez dugu atsekabea, lehendabiziko aienetan luzatu nahi: inork ezingo luke’. Azkenean onartu egiten da hildakoa hilik dagoela. Askotan halako lasaitasun bat sortzen da eta aldi berean halako errua, hildakoa joan dela onartzeagatik.

“Hori horrela film hau euskal gizarteari egindako proposamena da: dolua egin beharra dago, eta, aurre-

tik, izan, baditugu aitzindariak, film honetako protagonista: Felisa Dorado, Josu Erreparatz, Iñigo Etxeberria, Patricia Jurado, Maria Jesus Plateado”.

“Ez dakit Lewisen horrek funtzionatzen duen; beharbada, orain arte erabili gabeko erreferentziak daude, Joy Greshman andreari egindakoa eta”.

“Bai, arrazoi duzu” Josebak, arrazoia ematean nagiak hartzen duela. “Bukatuko dut. Aterako gara paseatzera, bermuta eta bazkaldu. Quertyn?”.

Geldo jaitsi dituzte eskailerak, geldo abiatu dira Jaurautan barna, geldo egin dute Santo Domingon gora, Udaletxeko plazaraino, eta, handik, Gaztelu enparantzara, Axi atzetik dutela. Geldo abiatu dira Nafarroa Behereko etorbidean barna. Geldo jiratu eta hartu dute San Nikolasen zehar taberna ireki berrien artean.

Josebak arnasa hartu du, ardailatzen ari zaion aldatzea areago uhertu ez dadin. Geldo. Eta putz egin ahotik. Guillermok aholkatu bezala, egiten ari denari erreparatu. Ezer ez gehiagori. Psikologo hori... probokatzen...

“Oso ongi geldituko da testua. Aber Miren animatzen den esperientzia kontatzera”.

“Miren Akerreta?”.

Josebak atzera begiratu du. Hortxe dator horrenbeste maite izan duen gorputz hori, Axi.

“Ez dut irudikatzen Miren bere aitarekiko esperientzia kontatzen. Gertatu zitzaiena-eta. Badakizu lesbiana nolakoa diren” bota du, azken esaldia burlati izan nahi baina indar edo konbentzimendu gutxiegiagatik airean ahuleria baten moduan gelditzen dela.

“Hombre, aita horrela... Baina zer gertatu zitzaien ba?”.

Josebak atzera so egin du. Istripua gertatu zenetik ibiltzera ateratzen diren aldiro Axi atzean gelditzen zaio, ez berak abiadura handiegia hartzen duelakoz -geldotasun masterra egiten ari dela pentsatu du noizbait- baizik eta Axi, atzean gelditzen delako, bien arteko denborak bat ez baletoz bezala, eta neurologo andreari galdetu ondoren sorbalden altxatze bat baino ez zuen jaso. Saiatu da haren martxari egokitzen, arnasa hartuz, hanken mugimenduetan kontzentratuz, urratsa Axiren urratsari lotzen, baina lortu ahala Axik atzean gelditzekoa egiten du, eta gelditu egiten da oraindik aztertu ez duen auskaloko zein mekanismo-rengatik, trikimailua ezin baita izan, trikimailuak asmo edo norabide edo helburu bat behar baitu, eta azkenean hilabeteetan Axik ez du hitz horien arrastorik.

“Ezin dizut esan. Axiri kontatu zion, baina ez aita-tzeko agindu. Niri kontatzeko baimena baino ez zuen lortu... badakizu nolakoak diren lesbianak eta intimitatea”.

Bigarrengean, adarjotzea pentsatu eta ahoskatu duen segurtasun ezagatik kontrakoa lortu du Landerren gogoan, irribarrea barik halako zaputx antzeko bat.

“Zenbat jolasten duzun topikoekin!”.

Joseba haserreare hartu du lehendabizi. Dirudienez adiskidantzak -Axiren adiskideak hainbeste urteren ondoren bere adiskideak ere badira- fideltasunak banatzeko orduan jatorrira jotzen du, maitasunak bezala, bestalde, hasierako hura errepasatu eta, berriz ere, fundazioaren oinarriak berregitera. Axirengandik banandu izan balitz, galdetu dio bere buruari, Landerrek eta Begok bere adiskideak izaten jarraituko zuten? Eta, dena galdetzera, kasu egingo zuen Axik bera, berak kasu egiten duen moduan? Haserreare. Ezezkoa erabaki du. Eta haserreare areago hartu du. Atzerantz egin du, Axirengana bezala, baina helburua ez da Axi bere urratsei lotzea, baizik eta Landerrengandik aldentzea.

Psikologoak agindutako ariketa egiten saiatu da, Axirekin urratsak bat egiten saiatu bitartean. Haserre-tik urrundu, gogotik aldendu eta bere burua behatu, so egin, aztertu emozio hori bizitzen. “Budistakeriak” bota zion psikologoak, “baina funtzionatzen dute”.

Haserrea aienatu egin zaio. Urratsa urratsari lotu-rik egin dute Udaletxeko plazan barna Landerren biz-karrari begira. Hau da bere bizitza. Urrats hauek, Axi-ren ondoan.

“Ni hetero puta horien kontra egon naiz urteetan. Begira zer gizarte sortu diguten! Baina orain marikiten kontra nago, ergel bilakatu gaituzte! Arropan eta apli-kazioetan baino ez dugu pentsatzen!” ahoskatu du Landerrek Joseba bere baitatik ateraraziz.

“Abandonatu egin nauzue!” bota dio erantzun mo-duan. “Begoñak behintzat bai. Behin etorri da azkene-ko zazpi hilabeteetan”.

Esaldia haien erdian erortzearekin bat damutu da Joseba akusazioaren biribiltasunaz.

“Lana, badakizu. Asko deitzen dizu, gainera” de-senkusatu da Lander. “Dizugu” gehitu du.

Biribiltasuna ez doa bizitzarekin; bizitzak ertzak, fi-txak, firfilak ditu... Axi bezala... ze... hitzaren bila aritu da gogoan nahiz eta ederki jakin hitza horixe dela, go-

goaren aurreko geletan duen horixe... gogoan ezartzen ausartzen ez den horixe... sikiera horixe gertatu balitz... bera ez litzateke orain dagoen ataka honetan egongo... loturik... preso. Izuikarak hartu du lehendabiziko aldiz gogoeta hura egin izanagatik. Axirengandik apartatu eta Landerren figura bilatu du aurrean, jangelako mahaien eta horma zurien artean, hondorantz. Maite dituela aitorrarazi dio bere buruari.

“Zu hor, Axi”, seinalatu dio hormaren kontrako aulkia.

Axi durduzaturik gelditu da sillari begira, agindua entenditu ez balu bezala.

“Ez dut nahi!” garrasi egin du jangela guztian aditzeko moduan.

Joseba eta Landerren gogoek nora ezean egin dute haizeak altxaturiko paperen moduan. Eta gero Josebak -irribarrea ezpainetan- hormaren kontrako sillarantz jo du.

“Lehendabiziko aldia da!”.

Axi eta Lander eseri egin dira.

“Zeren lehendabiziko aldia da?” galdetu dute biek batera.

“Bihotzekoak jo zizunetik lehendabiziko aldia da kontra egiten didazuna” zizakatu die, “nonbait gaur lehendabiziko aldien eguna da”.

Ez entenditu bisaia dute.

“Bihotzekoa gertatu zitzaizunetik gaur da lehendabiziko aldia kontra egiten didazuna”.

“Bihotzekoa!? Nori?” garrasi egin du Axik.

“Zuri, Axi. Bihotzekoak jo zizun eta oroimena galdu duzu”.

“Nik!? Hori ez da egia”.

“Bai, oroimena galdu zenuen. Koman egon zinen hamabost egun duela zortzi hilabete”.

Baina neurologoaren esanetatik badaki Axik gertaturikoa ez badu onartzen, hobe dela bere horretan uztea, hura haserretu gabe, lar ekiteak kontrako eragina lortuko balu bezala.

“Ni?!”.

“Berriz!” pentsatu du Josebak.

Arnasa hartu du, psikologoak esan bezala. Utzi egin dio. Gaur lehendabiziko aldien eguna da. Seguru pixkanaka berera itzuliko dela Axi.

“Bego” esan du, badaki ez duela sartzen ari den lohietan sartu behar baina aurrera egin du, “uste dut ez dela egon behar duen tokian egon. Hasieran, Axi

erietxean egon zenean-eta hurbil nabaritu nuen, baina gero... desagertu bezala egin da. Egia da deitzen didala, Kultura Sustatzeko Zuzendaritza aitzakia egiten dituen lan bidaia horietatik –Renotik deitu zidan aurrekoan euskara, gaztelera eta ingelesa nahasten dituen hizkera horretan...– baina...” zalantza egin du esatera doana esatea komeni ote den “baina benetako adiskidantzagatik baino gehiago da espedientea betetzeagatik”.

Azkeneko hitzetan duen haserre guztia paratzen duela ohartu dela Lander ohartu da bera.

“Zuk...”.

Joseba atezuan jarri da Lander esatera doanarekiko, bai baitaki luma alde batera utzi eta tonu profesional hori hartzen duenean, gustuko izango ez duen zerbait esango diola, nolabait adiskide bati egia bat esateko arriskua –adiskidantza akaba daiteke– aholku profesionalez mozorroturik, deuseztatuz.

“Zu... dolutan zaude! Ez dakit ohartu zaren”.

“Bai, bai esan didazu behin baino gehiagotan. Baina zure guruak, nire psikologoak ez du gehiegi sinesten dolutan; eta, bestalde, Axi hemen dago”.

“Seguru asko zurea makurragoa da: dolu erdia egiten ari zarela” igo du ahotsaren tonua Landerrek.

“Dolu erdia?”.

“Bai, Axiren oroimenaren dolua egiten ari zara, Axi, gainontzeko Axi, hor dagoen bitartean”. “Eta bizi-modu batena” gehitu du gero Landerrek.

“Ez naiz enteratzen. Zergatik ari zarete nitaz hizketan nik jakin gabe?”.

Kamareroa etorri da erabaki duten galdetzera. Eta ez dute erabakia.

“Barregarria izan da mundakarraren istorioa” ihes egin dio Josebak darabilten elkarrizketari.

Aurpegira so egin dio.

“Nekatuta nago, Joseba. Mundu hau zoroz beterik dago. Eta denok nahi dugu larrua jotzea baino zerbait gehiago baina... ez gara ausartzen esaten. Kaka zaharra! Gure garaietatik maitasunari, konpromisoari, bikote harremanei buruz dugun ikusteko moldea aldatzen ari da. Erruz. Bueno bikotea ikusteko moldea eta jendea, ze orain aplikazioetatik arazorik gabe defendatzen dira komentario arrazistak, lumaren kontrakoak, zaharfoboak. Gainera orain armairutik atera beharrik ez dagoenez, haragia etxera etortzen zaizu zure armairutasuna arriskuan paratu gabe; marika liberatuok emakume feministen estatusa hartzen ari gara, gizonak izutzen ditugu”.

Nekatua ematen duela ohartzeak atzenarazi egin du Joseba, berearekin nahikoa eta gehiegi du. Nahikoa eta gehiegi. Abandonatu egin dute. Axiri so egin dio. Ematen du arretaz jarraitzen ari dela Lander eta bere arteko elkarrizketa.

“Zuk gutxienez bera daukazu! Zer moduz zabil-tza?”.

Errabia oldeak hartu du baina Guillermo etorri zaio gogora. Arnas egin; arnas egin; arnas egin; hemen egon; zure baitakotik urrundu. Ez dio ezer kontatuko, Landerri kontatzeak arraso biluzik sentiaraziko baitu.

“Gaitz erdi! Eta lehen aipatu duzun txakurrarena egiten ari zinen kontu hori?” egin du ihes.

“Bueno”, erantzun du Landerrek eskuineko esku igeltsaturiko hatzak laztantzen dituen bitartean, “ez dakit, Durangoko bikote bat da; eta jolasa da”.

“Jolasa da?” egin du bere artean Landerrek Axik bere zalantzaz usteko zuenaz dilindan. “Axirena ere jolasa ote zen?”.

Gogoeta uxatzeko ardo koparen bila ezkerreko besoa luzatzean, bota egin du. Ardo azpil odolokara hedatu da mantel zuriaren gainean, gero eta barreiatua-go.

“Azkenak!” bota zuen Txatok.

Josebak denda batzuk ikusi zituen baserriaren atzeko belardian. Sartu zirenean Eduard ari zen hizketan, FAGCKoa (Front d’Alliberament Gai de Catalunya), gai ordena azaltzen. Eztabaida hartatik aterako omen zen COFLHEEK (Confederación de Frentes de Liberación Homosexual del Estado Español) aurrera eramango zuen ibilbidea. Martxan zeuden kanpainen balorazioa. Erasoak. Galdera-erantzunak.

Josebak bat-batean konprenitu zuen nondik zetorren Txatoren janzteko manera. Tipoak alkandora koa-drodunetik hasi eta kamiseta nabarretara zihoazen, ia bi genero osatzeraino; batetik, koadrozko alkandorak, bakeroak, eta kolore bakarreko elastiko eta goikoak, askotan bibote eta bizarrekin horniturik; bestetik, kolore nabarreko jendea, galtza multikoloreak, elastiko gorri-beltzak, more asko, kolore fuerteak. Emakume-koloreak, ausartu zen pentsatzera Joseba, berehala damutzeko. Txatok askotan esaten baitzion ez zela nahikoa marika, ez zuela nahikoa luma eta beharbada beste modu batez jantzi beharko lukeela. Dena dela,

ingurura so egitean, ohartu zen Iruñekoek, berak salbu, bazutela berdintsu jantzita agerrarazten zituen halako ukitu bat: jantzien nabarrak morera jo, eta molde berak eginak balitu bezala. Harro eta lotsatuta sentitu zen aldi berean desberdina eta berdina izateagatik.

Batzar handia irudikatu bazuen ere, hogeita hamar lagun inguru baino ez ziren izango. Sartu zirenerako denak eserita zeuden mendi aterpe ukitua eman nahi izan zioten baserrian. Mahaiak zeuden hantemenka paraturik, haiek bezalako taldeek jan zezaten. Aretoaren lau hormetan aulki korrituak zeuden, bizkarreko harberarekin. Denbora zeramaten halako eztabaida sorgor eta lurpeko batekin COFLHEEko talde guztiek. Zeharka ateratzen zen, hitz erdika, ziztada iraingarrietan batzuetan; areago nafar eta bizkaitarren artean; Txoko Landara zerbitzatzera joaten zirenetan eta. Josebak entzunak zituen eztabaidak, eta bazekien La Radical Gai-k eta FAGCKoek Nafarroakoen alde egiten zutela.

Besarkadak, musuak, algarak. Pedro de Cadi, Eduard, Raisa, Txato, Oskar, Javitxu... Dena zalaparta Markel-La Markeliñe bilbotarraren desesperaziorako.

Joseba aparte egon zen, bitan edo ez zituen ikusi, Bilbon izan zuten bilera batean, baina ez zen nahikoa adiskide Txato, Oskar, Juanillo eta Javitxu bezala haiekin musuka hasteko. Ez zuen nahi gainera, ezpainetan musuka aritu behar etengabeak halako higuin bat eragiten baitzion, Txatok behin baino gehiagotan armairutasuntzat jotzen zuena. “Ez bazina armairuan egongo, ezpainetan musu emateari ez zenioke erreparorik paratuko”. Halakoetan, Joseba, ergel baten moduan gelditzen zen bere baitakoa husturik, sentimenduak igarri beharrean, artean nor den eta zer nahi duen ez dakien haur bat bailitzan; eta susmatzen zuen, han ere, lehenago AEK inguruko bere kuadrillan bezala, norberaren izaerari bezainbat amore eman behar zitzaio- la taldeko partaide izateko pagatu beharreko zergari; alegia, estetikoki eta etikoki zer zen egoki erabakitzea taldearen eskuetan utzi beharra zegoela.

“Kenneth!” garrasi egin zuen Txatok, mutil perilladun sendo bat besarkatuz. “Etorri zara azkenean?!”.

“Bai” erantzun zuen mutilak gaztelera ingeles doinuz.

Non entzun zuen izen hori lehenago? Ez zen akordatzen baina bazekien nonbait entzunda zuela.

“Eseri, mesedez, hasi egin behar dugu-eta” esan zuen Markel-La Markeliñek.

Txatok-eta, entzunagatik, zutik jarraitu zuten, batzuk-batzuk besarkaturik.

“Nafarrok, jesarri!” oihu egin zuen Markelek. “Arratsalde on. Ongi etorri denok!” agur egin zuen euskaraz eta gaztelera. Markelek gai ordena laburtu zuen nahiz eta Eduardek lehendik laburtua izan. Lehendabizi, aurreko bilerako akta onartuko zuten. Bigarren, 92 kanpainan egindakoa azalduko zuten taldeek, apostasiaren aldeko kanpaina eztabaidatuko zuten. Eta gero “hemen egoteko arrazoiarekin hasiko gara. Hiru txosten daude, bat La Radical Gai-rena: *Marikas e identidad*. Bigarrena, Nafarroako EHGArena: *Identidad marika-Identitate marika*. Eta hirugarrena, Bilboko EHGArena: *La liberacion gay y la revolución*. Eta azkenik hiesaren kanpaina aitatu dugu azkar, Madrileko aurreko bileran nahikoa eztabaidatu genuen-eta”.

Markel zenbat zeuden kontatzen hasi zen orduan: 28.

“Klaro, argi zegoen. 28” ebatzi zuen Eduardek, gaztelera katalan doinuz.

La Radical Gaiko Pedro de Cadi altxatu zen eta 92 urteko *fastoen* kontra egindako ekintzak aletzen hasi

zen. Bartzelonan izan zirela FAGC eta La Radi hitzaldi bat ematen; jende asko egon zela. “Bilerak izan ditugu 500. urteurrenaren kontrako taldeekin. Ekintza gehienak udan izan dira eta. Sevillan ia-ia jo egin gintuzten. Elastikoak arrakasta handia izan du” gehitu zuen, 92 Ez 69 Bai kamiseta seinalatzen zuela. “Gure ideia izan zen eta arrakasta izan du”.

Gero Markelek Apostasiaren Aldeko eta Soldadus-karen Kontrako kanpainetakoak aletu zituen.

Lau taldetan banatuko ziren, zazpina.

Batzuk areto hartan gelditu ziren, besteak areto erraldoira abiatu ziren; katedral batenak ematen zuen sabai altuak, leiho gorak, harberazko hormak, solibo ilunak.

Josebak aulki-mahai batzuk zituen aurrean. Esanen luke ez zirela bertakoak, nonbaitetik ekarriak bai-zik, eskolakoak izateko itxura baitzuten. Hurbildu ahala txikiegiak zirela ohartu zen, berarendako behintzat. Markel-La Markeliñe atzetik zetorren, hizketan atertu barik. Itzuli zenean hantxe agertu zitzaizkion seiak, nabar baina aldi berean kolorge, egin gabearen forma lausoetan, bere baitakoaren ispilu. Horregatik harritu zuen zeinen zehatz ageri zitzaion Pedro de Cadiren nortasuna ez eze gorputzaren forma, azala eta

inguratzen zuen airearen arteko muga. Josebak ez zekien Pedroren eta errealitatearen arteko muga zorrotz hura nondik zegoen eraikita, esanen luke, barnetik kanpora eta ez alderantziz, hark errealitatea zegoenera indarrez bulkatu balu bezala; eta esanen luke luma-gatik zela, manera eme eta espantuzko haiek objektuari forma ematen lagundurik, norbera errealitatearen jainko sortzaile bihurtzen zutela; hala ere, Txatok luma mugak norbera sortzeko baino bazterrak iraultzeko baliatzeak desorekatu egin zion argudioa, Txato oso Txato baitzen, Erriberakoa. Bera, aldiz, etsi zuen, munduaren eta norberaren arteko mugak garbi ez ziztuen zera bat zen, “armairutasuna” zio, entzun zuen Txatoren pepitogrillo ahotsa bere baitan.

Eseri eta egokitu zitzaizkion eztabaida kideei so egin zien: Pedro de Cadi; Markel, ez zen La Markeliñe pentsatzera ausartu; La Radiko mutil gazte bat, Toño, ze majoa; behin edo beste hitz egindako mutil oiar-tzuar bat, Jon, iturgina, uste zuenez; Bilboko EHGAMEKO mutil txikitxo, gizentxo, antiojodun bat, Lander; eza-gutzen ez zuen beste bat...

Eta burua altxatu zuenean hantxe ikusi zuen areto erraldoia zeharkatzen Kenneth: kaskamotz, bizar errubio. Leiho goretatik argi izpi batek ile urrekararen gai-

nean distira egitean, Josebari zerbait asaldagarria iru-
ditu zitzaion, ez zuen jakinen esaten zertan, ez zuen
jakinen esaten nola, ez zuen jakinen zer, baina zerbait
iragan zen bere baitatik. Eta halako batean ardailak
harturik Axi han egotea desiratu zuen. Egun argiko
ametsetan galdu zen noraezean, bere gogoak gora
egiten zuela leihoetaraino, muga gandutuak lausotu
eta airearekin nahasirik gora eta gora. Pedro de Cadik
mugak horren zehatz-argiak izanik, beharbada ezin
zuen berak bezala gora egin eta etorkizun zoriontsu
bat ez bada atseginago bat asmatu. Oinaztura bezala
iragan zitzaion gogotik heterosexuala izateko desira
eta oinazturaren atzetik ostotsa nola Txatoren irribar-
rea, eta barre algara “intentatzak, intentatzak ba!
Heterosexuala? Erdiak ergelak dira-eta!”.

Izuak hartu zuen, EHGA Nafarroako inor ez zegoe-
nez, berak defendatu beharko zituen haien proposa-
menak. Beno, berez Txatorenak ziren. Eta berak itzuli
baino ez zituen egin, alferrik itzuli ere. Gogoan joan-
etorrietan katramilatu zitzaionez izerditan hasi zen,
zer esango zuen pentsatzen.

Kenneth. Halako deserosotasun urduri bat eragin
zion. Eta barne-barnean zergatik jakin bazekien ere,
ez zen ausartu zerabilena garunaren eremu konszien-

teetara ekartzen, ekarritakoak eraginen zionaren bel-
dur.

Ondoan eseri zitzaion, atzerritar hezi eta herabe bati zegokiokeenaz bestela, baimena ahoz eskatu beharrean gorputzarekin berarekin aulki korrituan tokia eginez. Harritu egin zuen, ia ezagutzen ez bazuen ere, bestelakoa irudikatzen zuelako, bere modukoagoa, ahulagoa, ziurtasun gutxiagokoa, “armairuagoa” entzun zuen Txatoren ahotsa.

La Markeliñe ez zen haiek bezain azkar eseri. Prozedurari buruz mintzatzen hasi zenean zutik zegoen eta goitik behera so egiten zien, sermoia botatzen ari-tuko balitz bezala. “Hiru txosten daude: EHGAM Nafarroa, EHGAM Bilbo... bueno, Bizkaia, eta FAGC Bartzelona. Irakurrita dituzue, baina komeniko litzateke norbaitek bakoitzaren laburpen arin bat egitea”.

Josebari iruditu zitzaion garaia zuela esertzeko, baina Markel ez zen eseri. Imintzio teatral batez hartu zuen areto itzela, espazio hutsa, denen buruak eta nortasunak.

“Joseba, zeuk egingo duzu Nafarroakoaren defentsa?”.

Ez zen ausartu baietz esaten, buru makurtze batekin nahikoa izan zen.

“FAGC...”.

“Guk... nik...”. Eduard altua zen. Luma zerion baina azkarra zen; pentsatze hutsarekin damutu zen esaldiaz Txatoren ahots tatarra gogora ekarri gabe, “luma dario baina azkarra da!”.

Eduard eta Joseba izanak ziren behin baino gehiagotan elkarrekin, Bartzelonatik Iruñera hitzaldi bat ematera etorri zenean LKik antolaturiko jardunaldi batera, eta Joseba bere herabetasunetik harekin adiskide izaten saiatuagatik Eduardek ezezkoa ematen zion. Ez ezezko argi bat, ez ahoskatu gabeko ezezko nabarmen bat, ez, baizik eta taldean egotean aintzat ez hartzearen ezezkoa. Bazekien noiz desterratu zuen Eduardek mapatik. Txato eta bera -EHGAMEko lehendabiziko bileraren ondoren izan zen- A la Cargatik goizeko lauretan, etxera beharrean ligatzeko asmoz-edo, Takonerara joan eta jipoitu zituztenean gertatutakoa-rengatik. Hurrengo astelehenean bildu eta egin zituzten salaketa haien artean -Nafarroako Parlamentuko Giza Eskubideen Batzordean egon ziren, besteak beste- Euskalerria Irratitik hots egin zioten elkarrizketa baterako; eta Josebak ez zekien nola, ez zekien zergatik, AEK-ko lankideekin konpartitzen zuen pisu hartan zegoen Eduard, eta irratitik deitu ziotenean ezagut

ez zezaten aurikularrean painelua paratzen ikusi zue-
nean bota zion begiradan jakin zuen Eduardendako
hutsaren hurrengo bilakatu zela, ezezkeria bat.

“Bilbotarrok hasiko gara”. Eta Markelek banan-
banan aletu zituen beren txostenaren nondik norako-
ak: “Denok gara bisexualak, gizarte patriarkalaren as-
katasun ezak behartzen gaitu homosexual ala hetero-
sexual izatera. Beraz, ez gaude identitatearen alde.
Beste mugimenduekin batera egin behar dugu aurre-
ra, denok askatuko gara elkarrekin, ezin gatzazkio
identitate bati lotu. Euskal Herriarekin batera askatu
behar dugu denok ere”. Markelen ahotsa erabakiga-
rriago bihurtu zen jardunean aurrera egin ahala,
ideiak izendatzen zituen neurrian borobiltasuna hartu-
rik ia objektu bihurtzen zirela, eta, hala, ematen zuen
askapena mahai gainean ageri zela, inguratzen zituen
harria baino sendoago, edo identitate zehatz gabe bi-
sexuala identitate sendo, zurrun eta azal latzekoa bi-
lakatua zela. Usaina ere paratu zien, Kennethen gor-
putz izerdituaren usain min antz baina aldi berean
atsegina estaltzeraino. Markel-La Markeliñek errealita-
teak sortzen zituen.

“Nola frogatzen duzue bisexualak garela?”. Harri handi bat bezala erori zen Eduarden galdera mahai gainean, azentu katalanak arrasto bat uzten zuela.

“Freudek denok bisexualak ginela erabakita utzi zuen. Beraz zergatik mugatu behar ditugu geure buruak sexu bakarrera, noiz eta gizarte kapitalistak eta patriarkalak murriztera eta erreprimitzera jotzen duenean”. Errime mintzatu zen Markel, urteetan egositako pentsamendua balitz bezala. “Beraz, askapen mugimenduaren zeregina askapena bermatzea beharko luke izan, ez mugatzea, eta orduan geure buruak gay gisa zedarritzea murriztea litzateke”.

Josebari egin zitzaion Txato hemen balego dagoe-neko aulkian ezin sosegaturik egongo litzatekeela, eta urduritasuna areto itzeleko airez betea lukeela, tximak eta ezinegona alde batetik bestera mugiturik. Eduard-ek, aldiz, zurruntasunari eusten zion, eta beharbada, egin zuen Josebak, zurruntasun hura gizalege katalanaren egonarria baino ez zen, euskaldunok munduan egoteko manieraz oso bestelakoa, eufemismo bat erabiltzeagatik, lasaiagoa, zuhurragoa, seguruagoa, espantu gutxiagokoa.

“Gainera ezin ditugu gainontzeko mugimenduak –emakumeak, ekologia, auzo mugimenduak– bazter

utzi..., gure identitate bat osatuko bagenu mugimendu horietatik aparte ibiliko ginateke. Hau da”, Markelen gaztelera ederra iruditu zitzaion Josebari, “bi errealitate bananduko lirateke, alde batetik, marikak, zuek esaten duzuen bezala, eta bestetik, gainontzeko jende heterosexuala. Bueno”, zuzendu zuen, “bere burua heterosexualtzat duena, baina bisexuala dena”.

Eduarden aurpegian irribarrea marraztu zela iruditu zitzaion Josebari. “Baina orduan zergatik izendatzen duzu zuen burua gay?”. Eta EHGAM akronimoaren hitzak ahoskatzen hasi zen banan-banan: Euskal Herriko Gay Mugimendua.

Markelek Lander Bilbokoaren laguntza bilatu zuen; gaztea zen, eta ziur aski bileretan berak egiten zuena egiten zuen, segikeria, alegia, buruzagiak esandakoari jarraitu itsu-itsuan, areago, buruzagia adiskide bilakaturik, adiskide ez bazen parranda eta gizonetan aritzeko kide, kontra egitea ezinezko suertatzen zenean.

“Badakit nora zoazen...”.

Ez omen zitzaion egokia iruditzen sexualitatea identitate “kartzela” batean atzipetzea, preso bat baltitz bezala, horrek azkenean norberaren burua muga-tzea ekarriko zuelakoz, ez bakarrik gay jende bezala baizik eta, baita ere, iraultzaile bezala. “Gainera, kon-

frontaziora eramán gaitzake”, gehitu zuen Lander gazteak, “beste mugimendu askatzaileekin orain aliantza estrategikoa behar dugunean. Gu gay gara, baina bisexualak izatea da helburua”.

Markel-La Markeliñe argudioaren irmotasunaz seguru zegoenez, garailearen keinu olinpiko batez esan zuen: “Ez dezagun eztabaida aurreratu. Aurkeztu beste bi txostenak, Iruñeak eta FAGCK, eta eztabaidatu-ko dugu gero”. “Marika izateaz mintzo diren horiek!” bota zuen igartzen zaila zen zerbaiten kutsuz, mespretxua?, amorru itoa?, samina?, urguilua?, pentsatu zuen Josebak. Ez zuen jakinen, baina halako zerbait iruditu zitzaion; esanen luke, ez zela bera izan ohartu zen bakarra, nahiz eta oharkabez edo ezjakintasunez identifikatzen jakin ez. Iruditu zitzaion, beharbada, Bilboko guztiak zeudela haserre haien txostenarekin. Harritu zen Oskarrek, Ezker Abertzalekoa izanik, nola onartu zuen identitatearen aldeko txostena, Ezker Abertzalearen lerro ofizialak, gauza hauetaz kezkatzen zen neurrian –gutxi– Bilbokoen lerroa jarraitzen baitzuen, alegia, Markel-La Markeliñeren lerroa.

“Nor ausartuko da?”.

Eduard hasi zen: “Guri berdin zaigu marika hitza, gay hitza edo dena delakoa. Baina guretzat oso ga-

rrantzitsua da izen baten inguruan identitatea sortzea. Identitatea -errepikatu zuen, besteei begiratu zarte teatral bat eginez, zeina zio Josebari bururatu baitzitzaion buruzagiek, zela Txatok, zela Markelek, zela Pedro de Cadik, zela Eduardek, antzerkiaren teknikan sakondurik sendotzen zutela boterea-, identitatea sortu behar dugu. Txostenean identitate hori zertan den zehazteko proposamena egin dugu FAGCN”.

Oso egoki mintzo zen telebistako esatari baten moduan, ez Axi -ahots lodi belusezkoarekin zerbaitez konbentzitu nahi zuenean- bezain ongi, hala ere.

Zirena izanik -gizonak gustatzen zitzaizkien gizonak-, horrek ekartzen zuen arbuioari kontra egin beharko litzaiokeela. Identitate hori gizarteari kontra egiteko erabili beharko litzatekeela, identitate horren bidez gizarte justuago bat eraikitzen saiatzeko; baina horretarako marikoiak zer ziren -hitz hori erabili zuen- zehaztu beharko litzatekeela. “Guk ere asko eztabaiatu dugu horretaz, eta orain dugu aukera Ameriketara eta Frantzia aurrera eramaten ari diren borrokekin bat egiteko” argudiatu zuen.

“Zuen txanda, Joseba”.

“Bueno... gu...” zezel egin zuen, bere buruaren oharre itzelak hartzen zuen bitartean, oraintxe ber-

tan urduritasunaren urduritasunez nor zen, non zegoen, nolakoa zen, zein izan ziren haurtzaroko gorabeherak, aurrean agertu zitzaizkion eragozpen. “Bueno... gu... orokorrean konforme gaude FAGCren proposamenarekin”. “Uste dugu ez dela nahikoa”, harriturik zegoen bi hitz baino gehiago josi zituelakoz, “denok bisexualak izatea, eta besteekin batera joatea. Guk identitatea eraiki behar dugu”; ongi zetozkion orain txostenak itzultzen eman zituen orduak, nahiz eta horrek berak areago erakutsi profesionaltasuna ezen ez barneko sentimendua, “ez gara bisexualak, gu marikak gara; gizarteak baztertu egiten gaitu, eta bazterketa hori erabili behar dugu gizarteari kontra egiteko. Eta hori egiteko, premiazkoa da identitatea”.

Orduan agertu zitzaien areto erraldoiaren beste aldean Txato, txinbilin-txanbalan, ileorde gorrixka dantzari.

Josebak galdetu zion bere buruari zergatik zen horren izutia, beste arlo batzuetan ausartago zen, lanean-eta. Onartu behar zuen, Axirekin ibiltze hutsak ausartago egin bazuen ere, hari beldurraren ahulda-dea erakutsi izanak nagusigoa eman ziola Axiri eta babesgabeago egin bera.

Txato zutik gelditu zen, besoa Kennethen gainean bermaturik. Josebari otu zitzaion, Txato eta Kenneth larrua joak zirela ordurako. Eta horrek mina egin zion. Hamalau begi zituen gainean. Eta profesionala jalgi zitzaion plazara: “Esan bezala, marika hitza proposatzen dugu ezkerretik, antikapitalismotik, marikoitasunetik identitate harro eta erasokorra sortzeko”. Itzulpenetik gogoratzen zituen hitzak.

Isiltasuna egin zen. Txatok ongi ikasitako umeari bezala begiratzen zion, losintxez.

“Eta abertzalea?” galdetu zuen Markelek.

Joseba berehala ohartu zen izenondo hura ahantzi zitzaiola; barkamenik ez zuen, EHGA Nafarroako bilera istilutsuaren ondoren. Oskarrek indar egin zuen identitatea zertan zetzan definitu behar zeneko paragrafoan aipa zedin. “Ez gara ba abertzaleak” galdetu zion Txatori Iruñeko gaztelera doinuko euskara txantrear hartan: “Ez gara ba abertzaleak?”. Txatok “Ni ere euskalduna naiz” erantzun zion Tuterako euskara baztandartuan, zeinera dena delakoagatik –askotan itxura eta piuragatik– euskaldun izatea zalantzan jartzen ziotenean jotzen baitzuen, zenbat eta itxiagoan hobe. “*Erran dautzut, neroni ere euskalduna naiz*”. Orduan abertzale hitza ere agertu behar zuela laburtu zuen

Oskarrek, eta hala idatzi zuen Juanillok, egun hartako idazkariak. Josebak, hala ere, halako susmo mesfidatia nabaritu zuen hitzarekiko, ez luke jakinen esaten Bilbokoak ere abertzale agertzen zirelako, edo *urkikoek* Txato, Juanillo, Javitxu- oraindik hitz horren ingurukoak erabaki barik zituztelako, edo besterik gabe *abertzale* hitz hutsak ez zuelako Nafarroako errealitate ugaria jasotzen.

“Eta abertzalea” esan zuten Josebak eta Txatok, batera eta euskaraz.

Barre egin zuten besteek.

“Hombre, ez jarri horrela!” egin zituen haserretu plantak Pedro de Cadik. “Hobe horrela aitatu: *gay identitatea estaturik gabeko nazioen alde dago*. Nola-koak zareten!”.

“Ze ongi esana, neni!” egin zion arrapostu Txatok barreka. Horixe zela esan nahi zutena, eta halaxe paratuta zegoela Nafarroakoen txostenean.

“Baina, Txato, zer egiten duzu zuk hemen?” bota zion Markel-La Markeliñek. “Zure taldea bestea da!”.

“Ai, nena... nolakoa zaren!”. Etorritako bidetik alde egiten hasi zen. Bat-batean galdor gorrixka zastako batean itzuli zen. “Ahaztu egin zait... paperaren eta boligrafoaren bila etorri naiz. Ez baitaukagu”.

Berriz ere barre egin zuten denek. Eta Txatok, zazpi lagun begira ari zitzaizkiolako harroturik, areto nagusia iragan zuen txinbili-txanbala pasarelan balego bezala ileorde gorrixkari -bere berezko ilearen pareko, bestalde- dantza eraginez.

“Ella es la más” seinalatu zuen Pedro de Cadik.

Txatok eskua aldakan paratu eta “entzun dizut” bota zuen garrasika, eztabaida kideei atzera barre eraginik.

“Eten desegoki horren ondoren..., eta alferrika-koa”, identitatea kartzela bezalakoa zela laburbildu nahi izan zuen Markelek berriz ere; azken finean homosexual guztiak ez zirela berdinak, ez estilo berekoak, ez maila sozial berekoak, eta identitateak horiek guztiak berdindu egingo lituzkeela, eta horrela bi klastetako homosexualak egin: lehen mailakoak, identitadedunak; bigarrenkoak, gabekoak.

Argudioaren zorrotzak hitzik gabe utzi zituela irudititu zitzaion Josebari, edo bera behintzat hitzik gabe utzi zuen; izan ere, Txatok sortutako txostenaren ahulezia horixe baitzen: gay identitatea beharko lukeen hori gizonak gustatzearen ezaugarriaz gain ez zuela beste ezerk betetzen; eta hala onartu behar zuen, garun zolan aitortzera ausartzen ez bazen ere, asko-

txo iruditu zitzaiola itzultzen ari zen unetik bertatik pelukera -ihes egindako femeninoak ardaila eragin zion- ikasi gabeko batek egina izateko.

Pedro de Cadik erantzun zion, identitatea ez zela ezaugarrietan oinarritzen. “Denok talde berekoak garelako kontzientzia da identitatea. Horren ondorioz homosexual guztiek berdinak irudi lezaketela, alegia, berdin jantzi, berdin portatu, berdin hitz egiten dutela, baina hori identitate horren adierazpidea litzateke, taldetasun horren partaide zarela erakusteko ikurra, baina hori ez litzateke berez etorri behar; denok gara espainiarrak, baina ez gara berdin portatzen” bukatu zuen.

Azkenekoa harria bezala erori zela ohartzean atzera egiten saiatu zen Pedro de Cadi. Josebari lehorrera ezin ailegaturik zebilen igerilariaren modura agertu zitzaion, arnasestuka, burua uretatik gora mantentzeko beharturik. Esanen luke, haren estutasunari denek -La Markeliñek barne- erreparatu ziotenez, ez entzunarena egin ziotela.

Amerikako Estatu Batuetan eta Ingalaterran homosexualak identitateak sortutako taldetasun hori bazutela erantsi zuen Eduardek.

Toño agertu zen aretoaren sarreran. “Bukatu duzue? Berandutzen ari zaigu”.

Baiezkoa egin zuen Markelek gainontzekoei kontsulta egin gabe. Eta altxatzen hasi zen inguruko en harridura bisaiei kasurik egin barik.

“Unibertsaltasuna beti zerbaitez beterik dagoen nolakotasun negatiboa da”. Hegel bota zuen Eduardek hitzetik hortzera.

Norbaitek zer edo zer esateko esperoan gelditu zen, baina batzuk konprenitu ez zutelako, beste batzuk Markel-La Markeliñek autoritate naturalez altxatzera bultzatu zituelako, Pedro de Cadiri esaldia zentzugabea bihurtu zitzaiolako, mahaia utzi zuten denek eta aterantz abiatu ziren.

Josebak erreparatu zion Kenneth oraindik eserita zegoela. Atzera egin zuen. Eskua sorbaldan paratu zionean, giharrek bakarrik izan zezaketen gogortasun beratzak zartakoa eragin zion besoan gora. Desiorako prestatu zen, eta ailegatu zitzaionean, ez zuen jakinen esaten non egin zion habia, garunean ala gorputzean edo bien artean, armairutasunagatik oraindik gauzatu gabe zuen zubi nahi horretan.

Kenneth altxatu egin zen. Lehendabiziko aldiz -kamiseta estu samarra zeramalako agian- erreparatu

zion Josebak aurpegiz behekoari, alegia, gihar, kirio, azalez egindako zera horri, zeina maiz aurpegiera amultsu, zorrotz edo zurrun batek estalarazten baitu. Sendoa zen, forma ederra zuten bular aldean bi hegala bezala hedaturiko giharrek, besondoetako deltoideek marrazturiko mendiek eta bularrak gerrirantz egitean atonduriko lerroek. Zermina nabaritu zuen, ez zekien zerbaiten nostalgia ote, edo izan ez zuen baina gero-ra izan zezakeen zerbaiten mina. Erabaki bat hartu zuen, nahiz eta zertan zen oso ongi entenditu ez, Kennethen gorputzaren eta bere gorputzaren artean zegoela esanen zukeen.

Besteak areto handiaren atletik desagertzean, sorbalda gainetik bota zion eskua eta lepoa erakarri zion bere bularrerantz, indartsu eta aldi berean samur. Usaina nabaritu zion, irudikatu legezen mina, baina eztiukitu batekin. Petxuko ilaje errubioa irudikatu zuen une batez, eta ileen artean gorderiko atxon poltsak, esku batek edo ezpain batzuek ukitzean lehertzeko prest.

“Ohartuko zinen gustuko zaitudala” bota zion ingeles doinuko gazteleran.

Joseba isilik gelditu zen.

“Ok. Ongi dago. Nonbait ere, aldrebes, ez”.

Kennethek zartako bat jaso bezala laxatu zuen eta aretoan barna hasi zen aterantz. Giharrek tenkatuago ziruditen, ipurdiak dantza egiten zion bakeroetan, gerrian bildutako alkandora koadrozkoa txinbili-txanbala zebilkion bizkarra mugitzean. Bazuen Iruñeko sexshoppean erositako film porno amerikar bateko aktoreen antza; eta hemengoongandik desberdina ematen zuen, ez janzkeragatik –koadrozko alkandoradunen taldean zegokeen–, baizik eta, pentsatu zuen Josebak, jarrera ozarregiagatik, gizontasunaren erakustaldiak ia berezkoa ematen zuelakoz, nahiz eta, arreta nahikoa paraturik, zerbait bilatua, eraikia, osatua izan. Txatoren emetasunaren ifrentzu.

“Espera... Nobioa dut”.

“Eta... zer axola dio horrek? Politika eta identitatea ohetik hasten dira”.

Josebak konprenitu bazuen ere, ez zuela konprenitu agindu zion bere buruari. Areto erdian gelditu ziren biak ala biak, sabai-leihoaren pean; Kenneth bitan banatzen zuen argiak, atzeko alde ez-argituaren mugaitzala kaskamotzean ageri zitzaion, gorputza bitan zatituz, lege moral baten antzera, ona eta gaizkia bezala, pentsatu zuen Josebak, eta orduan gorputz osoa ar-

gitara erakarri zuenean, Joseba, oharkabean, itzaletara atzeratu zen.

Josebak besoak zabaldu zituen ezintasun keinuan. Edo zalantzazkoan, edo malmutz. Abegia izan zitekeen, baina adiskidantzazkoa besterik izan ez zitekeen kolpetxo bat eman zionean sorbaldan, biak elkarrekin abiatu ziren bilera aretorantz, eta Josebak Axirekin sentitutakoa sentitu zuen, elkarrekin oinez ibiltzean, pausoek bat egiten zutela, halako erritmo doituari, batasunaren bidean.

Denak eserita zeuden sartu zirenerako. Josebak berehala erreparatu zion Txatoren begirada galdetzailerari, eta ez ikusiarena egin bazion ere, bazekien zerbaitez ohartu zela; Txatok, beldurra ematen zion pentsatzeak, berak baino gehiago baitzekien bere buruaz azken boladan; eta, hala, gidatua baino areago zuzendua sentitzen zen, ezen susmatzen baitzuen jada ez zela joandako bi urteko Joseba Aldaz hura -armairumari bat- baizik eta eskola erantzi ondoren Axirekiko -zalantza egin zuen- atxikimenduz osaturiko tropoi-lua. Atxikimendua. "Ergela", botako zion Txatok, "zerbait gehiago ere bazara! Norbait behar armairutik ateratzeko, notejode!". Atxikimendua, errieta egin zion bere buruari, ausartu gauzei berezko izena ematera:

M. A. I. T. A. S. U. N. A. Beharbada, Nafarroako EHGAMEko guztien artean, Oskar litzateke Axirekiko sentitzen zuen oldarrari izen hori ematen ausartuko zen bakarra, Oskarrek Juanilloekin zituen gorabehera sasien-gatik maitasunaren objektua -hartu eta utzi zebiltzan umeak kukuka bezala, eta haien harremana areago zen sufrimendu errenta, beste ezer baino- zalantza dantzan izaten zuelako-edo, ederki entenditu zuen sentimenduaren izaera eta izendatzeko lotsa galdu zuen. Txatok aldiz “ergelkeriak” esanen zion, “maitasuna? zure burua erabat onartutakoan... orduan... txorradak”.

Haien ondoan eseri zirenean, Txato, Oskar, Juanillo -biak ala biak ondo-ondoan-, Eduard eta Pedro de Cadi zituzten aurrean, hankak gurutzaturik denak, harik eta Markelek seinalatu -“a ze marika kuadrilla!”-, barre algara egin eta deslotu zituzten arte, gizonezko jarrera gizontsuagoa hartuz, erdi adarjotze erdi benetako; hankak zabaldu zituen baten batek, erpurua petrinatik zintzilik, eskuak hankartearen egiten zituen zimurrak ukitzen zituela besteren batek.

“Hori, hori, gizonago” oihukatu zuen Markelek haien artera.

Kennethek bizkarraren beheko partean, ipurdi ma-sailek osatu errearen hasieran, eskua paratu zio-nean, arminaz gain lotura sekretua nabaritu zuen Jo-sebak. Bien arteko intimitate denendako ezkutu eta, aldi berean, ia publikoak, erakunde sekretu bereko partaideen anaitasun sendoa sentiarazi zion, eta gero, traizionatzen ari zelako segurantzia izerdi hotza era-gin. Axi. Geroago etorriko zen. Besapetik erori zitzaion tanta kamisetaren zimurretan barna. Beldurra eta irri-karen arteko zerbait. Edo beldurragatik irrika zen zer-bait zela esan zitekeen.

“Gizonago”, altxatu zen Txato, “gizonago ez, ma-rikago, marikago!”.

Eskuekin keinu fauna egin zuen, aretoaren arreta erakartzeko aktore iaio batek eginen lukeenaren mo-dukhoa. Eta Josebak ez zekien nola, baina erdietsi egin zuen, nahiz eta -behin baino gehiagotan ito zuen go-goeta- nahiz eta pelukero hutsa izan, ikasketarik ga-beko tuterar arlotea. Klasista, alaen klasista! Bere bu-ruaz lotsatu zen Kennethi galtzek eta kamisetak age-rian uzten zioten tarte baliaturik erpurua ipurdi erre-kan sartu zionean. Ez zegoen kontraesanik gogoeta-ren eta ekintzen artean, jaiotzen ari zitzaion natura berri haren -ez luke jakinen nola izendatu- eta artean

izan zenaren -tropoilu noragabea- arteko kontraesanak ahultzen ari zitzaizkion.

Epela zegoen, haragia bakarrik egon zitekeen moduan, 36-37 gradu arteko hura gauzen ordenan beste ezerk izaterik ez balu bezala.

Mutiko euskaldun txintxo, herabe eta isilaren izaerak -“armairumari” Txatorenez- eskua Kennethen gorputzetik apartarazi zion. Istiluak usaindu zituen, sudurra ukitzekoa eginez erpurua zuloetara gerturatu zue-nean. Izerdia. Eta beharbada gantzaren atxon urruna, eta kakaren aire bat, dilindan. Axiri ipurdia ere bazela konbentzitzea zenbat kostatu zitzaion akordatu zen. Batzuetan, hasieran batez ere, desioak -bi zakil tente-tan more eta gorri ageri zen desio hark- ezin zuenez bi gorputzen arteko aurkikuntza eta esperimentazioan bide egin -bere ipurdia aldiz hasieratik izan zen Axiren jolastoki- bat-batekotasun eta azkarkeriaz bukatzen zuten, bakoitzak bereari eraginez, hartzen zituen irrika hartaz lehenbailehen libratu nahi balute bezala.

“Ez dakit merezi duen talde txikietan aipatutakoa eztabaidatzea. Zuzenean bozkatu egingo dugu”.

“Ez dugu bozkatuko, hauek jardunaldiak dira; hau ez da COFLHEE”.

Denek ulertu zuten Markelen zehaztapena, nahiz eta Txato bezalako batzuek, gehiengoa alde zutela susmaturik, nahiago luketen huraxe erabaki-tokia izatea.

“Bai, hau ez da erabaki-tokia, baina hemen ezta-baidaturikoak pisua du”.

“Joera internazionalak markatzeaz gain”, Eduardek.

Barre egin zuten denek.

Eta orduan Markel ghettoaren kontra hasi zen. Marika hitzak identitatea ezarri nahi duen neurrian –“nik ez dut nire burua marikatzat, esaterako” zehaztu zuen– identitate horren barnean sartzen ez zirenak, “lumarik ez dutenek” gehitu zuen gero, “ez daukate lekurik”. Identitateak ziur aski ghettoa indartu zuela, erantsi zuen gero. “Eta badakigu ghettoa nolakoa den, negozioak, itxitura, giro lizuna –Txatok eta Eduardek irribarre egin zuten hitzaren airera–, eta iruditzen zait gay mugimenduak ez duela iluntasunik behar, baizik eta kanpora, argi-argitara ateratzea”.

Pedro de Cadi altxatu egin zen mintzatzeko. Identitateak ghettoa indartzen zuelako arrazoia hutsala zela argudiatu zuen. “Segur aski, ondorioa homofobiak berak sortua da, iruditzen baitzaigu gure artean

biltzen bagara gizarte heterosexistaren arbuioa, are gehiago gorrotoa, jasoko dugula. Bat”, pausa teatrala egin zuen, “daukagun eztabaida hau bera ghettoa egon delakoz sortu da, homosexualak, bueno marikak, elkarrekin bildu direlako taberna, plaza eta saunetan; bi, heterosexualengan pentsatu behar ote dugu beti? Garaia da gure kabuz pentsatzen hasteko. Popatik hartzera heterosexualak”.

“Ez, gustatu egingo zaie-eta!” bota zuen norbaitek.

Denek barre egin bazuten ere, Pedroren suharta-suna dilindan gelditu zen, argudioen borobilaren pean susma zitekeen harrotasunezko jarrera kiribil bat bezala dantzan.

“Hori” bota zuen Txatok, ezin isildurik. “Marikak” gehitu zuen.

Markelek arrapostu egin zion: “Ezin dugu iraultza egitera bakarrik joan. Bakarrik, galduta gaude; nik aldamenean nahi nituzke gainontzeko taldeak: feministak, antimilitaristak –zergatik egiten ditugu, bestela, kanpaina antimilitaristak–; zergatik mugatu behar dugu desioa, zergatik bakarrik gizonak. Gay mugimendua identitatearen bidetik segituz gero irla isolatu bat

bihurtuko da, eta bakardadera kondenatuko ditugure buruak, eta...”.

Orduan hitzetik hortzera “ergel bat zara!” entzuzen. Batzartu guztiek so egin zuten hitzen iturriaren bila. “Ergel bat zara!” berretsi zuen Juanillok, Josebaren ustearen kontra, Txato egina baitzuen garrasiaren iturri.

Oharkabean berriz ere Kennethen ipurdi errekarajoan zitzaion eskua, ez zekien ezarri zen girotik ihes egiteko bide bilotsu ala ardailarekin burutzeko sostengu, azken boladako bere nortasuneko kinkaren eguneroko ogi. Zergatik behar zuen eskura haragi puska bat -gizon haragi puska bat zehaztu zion bere buruari duela urte eta erdi horrelakorik aitatza ere ausartuko ez litzatekeela jakinik- inguruan istilu usain hutsa aditzearekin. Zartakoz jota bezala lekutu zuen eskua Axiren izena gogora etortzeaz bat. Deseroso nabari zuen bere burua, ezin eutsiriko bizioa izan eta erorialdian errudun sentitzen zenaren antzean. Traizioa. Identitatea eraikitzeko betebeharrak hartzen zituztenean gaitzat, Axik -hura haizezkoagoa zen, desiren mendeago zegoen, eta zentzu horretan zuzena eta egin beharrekotik urrunagoa- zergatik egin behar ziren horrelakoak gogoz kontrara galdetzen zion beti,

politika ez bailitzateke nahikoa arrazoi ohean beste norbait sartzeko; Josebak, aldiz, desiraren iraultze eta eraldatze etengabeaz argudiatzen zion, teorikoki beti teorikoki, bien artekoa beste modu batez eraiki beharra azpimarratuz.

Pentsamendu horiek bultzaturik, eskua berriz ere ipurdi errekarara eraman zuen, Axirekin hizketatzera deliberaturik.

Oskar zurturik zegoen Juanilloren ondoan; Txato, bisaia zurrunaren atzean, pozik; eta Eduard eta Pedro de Cadi, ez zuen jakinen esaten.

Juanillo pasatu egin zen, baina, hala ere, La Marke-liñe iraindu zutelakoz, bozkarioa ez, baina halako pox ximur bat nabaritu zuen, besteen gaitz aspaldi esperatuak eragindako pox errudun hura.

Markel mutu zegoen, norbaitek defendatuko zuen zain. Isiltasunak luzexko jo zuen. Josebak hatza behe-rago sartu zuen Kennethen errekan. Hark so egin zion, lehendabizi irribarretsu, gero begietara, tinko; tinkoe-gi, Txato ohartu eginen zen, hainbeste. Pikutara Txato! Axirekin hizketatzeko deliberoa sendotu zitzaion, eta ezustean poxa poz bihurtu zitzaion, dena, baita zerabilten istilua ere, ongi zegoelakoz, ipurdi bilo haietan, Kennethez gain Axi ere bazegoelakoz.

Santi altxatu egin zen. Ia bi metro, gizenkerak zintzilik, izugarrizko luma.

“Neskak... neskak... ezin dugu horrela segitu. Ni giputza naiz, eta ez dugu erakunderik; horregatik gaude hemen Inaxi, Mikaela eta neroni. Iraindu ez, Juanita. Gainera uste dut...”. Eta hartan luzatu zen: ez zutela erabaki behar, eztabaida baino ez zela, gero erakundeek beren erabakiak hartuko zituztela, eta COFLHEEK hemengo eztabaida kontuan harturik erabakiko zuela zer bultzatu, “eta hala ere erakunde bakoitza autonomia da!”. Esku erraldoien mugimendu eme batekin mintzaldia bukatu zuenean txalo zaparrada jaso zuen.

“Uste dut Estatu espainiarrean atzean geldituko ginatekeela ez bagara identitatearen rolloan sartzen” bota zuen Eduardek. “Bueno hemen dugu... amerikar bat”. Eta Kennethi begiratu zion.

Josebak bere gorputz adarren bat-bateko kontzientzia harturik, arakatu behar izan zuen non zuen bakoitza eta batez ere non zuen ezkerreko eskua. Hantxe agertu zitzaion, bere, izterraren gainean, esku ahurra goraka, hatzak barnerantz, erpurua eta txikerra puntetan elkar ukitzen zutela, gorriturik, izerditzen hasia, Kennethen izerdi eta gantzaren usain gazien lurrune-

tan bildurik. Baina ez zuen egin. So gelditu zitzaion, Kennethen gorputzaren mugimenduak nabaritu zituela.

“Iruditzen bazaizue itxiko dugu eztabaidarena eta hiesaren kanpainaren harira egindakoa bildu, eta gure gonbidatuak San Frantziskon eta Act Upen gertatzen ari dena laburbildurik, bilera utziko dugu. Bazkaldu eta dena atondu behar da arratsalderako”.

Pedro de Cadik egin zuen ekintza eta hitzaldien laburpena: La Radical Gaik ateratako fanzineko azalak pizturiko eztabaida -penetrazio bat ageri zen eta “Así es la vida” leloa azpian-; Madrilen eta Bilbon gobernuaren eta osasun sistemaren utzikeriaren kontra egiten ari ziren hitzaldiak; gizartean seropositiboek sufritzen zuten estigmatizazioaren kontrako kanpaina; Osasun Ministerioaren aurrean egindako karteladak... “Denok ere badakizkizuen ekintzak. Nik nahiago dut jakin Ameriketara zer gertatzen ari den”.

Kenneth altxatu egin zen. Eta esan zuen, iruditzen zitzaiola hemengo gobernuak hobe tratatzen zituztela gaixoak; beharbada gaixotasunak indar handiagoz jo zuela Ameriketara, eta AEBetan bazter utzi zituztela, gizarte heterosexualarekin zerikusirik ez balu bezala -esaterako tratamendu esperimentaletan ez zutela

emakumerik onartzen-. “Bigarren mailako amerikar moduan tratatu gaituzte; eta jendea hiltzen eta hiltzen ari da”.

Josebari errebelazioa egin zitzaion: “Kenneth seropositiboa da!”. Hortxe koska. Gero beldurra, eta atzerakoa. Seropositiboa, seropositiboa, seropositiboa. Beldurrak hartu zuen. Amildegia egin zen beraren eta ordura arteko gantz usain gozodun gorputz haren tartean. Beldurra. Beldurra tren baten modura, aurrera eta aurrera, txistu eta txistu.

“Badakit beharbada hau ez dela leku egokia atzo alegatu zitzaidan eskutitz bat irakurtzeko, baina ezta-baida pizteko interesgarri izan daiteke. Nola portatu den Bush Administrazioa gourdunekin eta zein kasu gutxi egin dion orain arte izurriteari”. Abuztuaren 19an Errepublikarren Konbentzioan irakurritako diskurtso bat omen zen, irakurri barik laburtu egingo zuena. “Mintzaldia Mary Fisher kongresistarena da. Familia aberats eta errepublikano batetik dator, eta Partidu Errepublikarraren Konbentzioan gourduna dela aitortu du eta Bushen Administrazioari azaldu dio hiesa ez dela gay edo beltzen kontua. Nonbait telebistan eman dute, hunkigarria izan omen da eta idatzi didan adiskidea jota dago”.

“Errepublikarren Konbentzio batean?” galdetu du Eduardek.

“Hies zurrumurrua du izenburua. Eta egia da balore errepublikano horiek guztiak ageri direla: familia, askatasuna, gupida... Bush loriatzen du gainera, baina horrela beharbada Act Upekook lortu ez duguna lortuko du, hiesa agenda politikoan sartzea; izan ere, diskurtsoan azaltzen du hiesa ez dela gayon kontua bakarrik, eta bere seropositibotasuna aitortzen dio munduari”.

Txatok ez zekien zer pentsatu: alde batetik, ez zen ausartzen Kennethek iradokitakoari kontra egiten; eta bestetik, susmoa zuen AEBetako Alderdi Errepublikarrari hiesaren kontrako borrokan zerbait egin zuela aitortzea iruzurra zela.

“Baina nor da putaxka hori. Gure etika lapurtu digu!” egin zuen garrasi Txatok.

Kennethek sorbaldak altxatu zituen. “Esan dizue-dan bezala, duela egun batzuk gertatu da eta adiskide batek bidali zidan argitaraturikoa...”.

Josebari iruditu zitzaion Kennethek, kanpotarra izanik, izkin egin nahi ziola eztabaidan bete-betean sartzeari.

“Niri, aldiz, ez zait horren gaizki iruditzen” egin zuen arrapostu Juanillok, “azken finean GIBdunei laguntzeko balioko die. Ni ez naiz inoiz izan AEBetan baina iruditzen zait andre horren diskurtsoak... gainera aberatsa izango da seguru...”. Juanillok Kennethen baiezkua bilatu zuen. “Andre horren diskurtsoak mila-ka sentsibilizazio kanpaina baino gehiago balio du. Hobe geundeke hemen pukoek...”.

“Eta pukoek” egin zuen garrasi Markelek.

“Eta pukoek horrelako bat egingo balute”.

“Baina... Bush loriatzen duela esan du Kennethen. Denok dakigu AEBetako Gobernuak ez duela ezer egin oraintsu arte. Bai, estigmatizatu. Eta Act Up ez balitz izan berdintsu egongo ginatekeen”.

“Gainera” aurreratu zitzaion Txato, Markelekin ados egon beharrak sumindurik, “Act Up-ek egindako borrokaz jabetu eta indarra kentzen dio. Familia, umeak... Etika Marikaren kontra doa”.

“Bai, konturatzen naiz” gehitu zuen Markelek, “GIB-dun guztiak anai-arrebak direla eta... berriketak. Ez da egia, ez da gauza bera seropositibo aberatsa ala seropositibo pobrea izatea”.

Txato ohartu zen arrazoi ezberdinengatik zeudela kontra Markel eta bera. Markel, hark agindu bezala, kla-

seen rolloarengatik; eta bera, homosexualitatea arma gisa erabiltzea hutsala bihurtzen zuelako diskurtso puta hark.

“Bai, baina berdin hiltzen dira pobreak zein aberatsak” esan zuen Kennethek. “Baina neurri batean, andre horrek errepublikarren aurrean hori dena esateak adierazten du hiesa gizartearen arazoa dela”.

“Nik ezin dut eraman” pontifikatu zuen Markelek, “Seguru familia, eta balore errepublikar fatxa horiek guztiak aipatzen dituela”.

“Denok ez gara ba heterosexualak!” aurpegiratu zion Txatok, “familia daukagulako gara bisexualak”.

Izorra dadila pentsatu zuen Josebak pentsatu zuela Txatok. Ez zuen gustuko Markel lubakiaren alde berean izatea.

“Gainera, Kenneth, zer gertatzen da orain arteko hildako guztiekin?” galdetu zuen Eduardek. “Jende askok lagunak eta bikotekideak galdu eta ezin izan dute haien hiletetan izan, ez diete onartu dolu egitea, eta asko andre hau bezalako jendea izan da. Horiek ukatu diete marikei behar bezala lurperatzea”.

Negarrez esnatu da. Iruñean ohiko diren egun hotzetako argi klaroa txapitularen leihotik barna sartzen da lurrean lauki larri bat eginez. Txikitatik iruditu zaizkio eguzkiak horma eta zoruetan egindako errainuak beste mundu -hobeago- baten seinale, norbaitek, handik esperantzari eusteko, argi ikurren bidez komunikatu nahiko balu bezala. Malkoen artetik so egin dio. Gaur ez da prometagarria. Eta gero tristura sakon, goibel, are nare batek hartu du. Deslaitasuna. Axi berrakatu du adakerari ihes egiteko, gorputz gizontzen baina aldi berean ahultzen hasi berritako honen kontsolamendua “ugaztunaren” kontsolamendua delakoa gogoan erabiliz, ezen Axiren baitan ez baita Axi, baik eta bakarrik -gogorra egiten zaion pentsatzea bera- Axi ugaztuna, izerdi, usain eta epeltasun; ez ekinik, ez elkartasunik, ez kidetasunik, ez... oroimenik, zer den, non dagoen, nola den, haien bizitza nola eraiki duten jakiteko. Nori eta haiei gertatu behar, nonbait ez dago munduan inor gehiago bihotzekoak eman eta oroimena galtzeko. Landerrek ere ihes egin zuen -susmatu zion itzulpena eta testu atontzea bukatu ondo-

ren Quertytik atera eta emandako paseoan sartu zitzaion kakalarria-. “Lotua nago, Durangon”. Tarteak harritu zuen. Non egongo zen bestela. Eta gero begia keinatu zion, marikiten artean lotuak gizon batekin, edo birekin, kasu horretan bezala, lotua, eta segur aski larrua jotzeko, adierazi nahi zuelako konplizitate keinua eginez. Lagunei kasu egin beharrean, txakurra-rena egiten zien bikotearekin lotuta egongo zen, hori baitzen Landerren azken “performance queerra” zeina gaizki bukatuko baitzen, ziurtatu zion bere buruari erruak hartzen zuela, ze Landerrek txakurrarena egiten zien bikotearena ez zen hirukote bat, baizik eta bikote bat eta kanpotik ailegaturiko hirugarren deslaiden arteko harremana, arrisku eta adoretzetan desberdin, mila aldiz babestuago baitzeuden bikoteko ki-deak ezen ez Lander, nobio bila desesperatuki zebilen hirugarren deslaia. Lasterka atera zen, zerabilten bizi-modu geldoari -gauzek kamera geldo antzean iragaten ziren haien aurretik- hitzik gabea jasangaitza irizti, eta herioak harturik. Paseotxo bat proposatu zion eta paseotxo izan zen, Nabarrerian gora egin, eta Frantziako Ateraino, eta handik ezker harturik Santo Domingora atera eta Jarautara berriz ere. “Joan beha-

rra dot". "Barkatu" gero. Eta barkatu esan izanak salatu zuen.

"Adiskideek abandonatu egin naute". Usteaz kontra Pilar koinata-edo izan da hor dagoena, lagunkoi, arretatsu, Lekunberri Aranatzan bazkari eta afariak antolatzen. Hura izan da Axi astebururen batean edo bestean zaintzeko bere burua eskaini duen bakarra. Nork esango zuen? Anaiaren marikismoa erabat onartu ez, eta orain portatzen ari da.

Psikologoarengandik ikasita doluaren ezaugarrietako bat munduari errua botatzea dela baldin badaki ere, iruditzen zaio adiskideek abandonatu egin dutela. Bestela ez da ulertzen Begoñaren urruntzea, edo Landerren aurreko eguneko bat-bateko ihes egitea. Eta Txato, hor beti, baina inoiz ez laguntzeko moduan ileapaindegi biek in lanez josita, Iruñea-Bilbo-Iruñea, eta enegarreneneko nobioarekin. Min egiten dio. Kaiola batean sartu balute -balituzte- bezala sentitzen da; hor daude biak, giltzapeturik adiskideek inguruan ez erreparatuarena egiten dieten bitartean. Eta min egiten du. Itzela. Arrasoan dago. Bai, badaki, iragango zaio sentsazioa, bere baitan bizi den haur deslaia besarkatu, maitatu, losindu, laztandu eta babestuz, baina, orain, min egiten dio.

“Zergatik guri, Axi?”. Indarrez besarkatu du Axiren gorputza, ez esnatzeko tentuz, hala ere... “Eta horrela gelditzen bazara?” egin dio galdera ozenki. Atezuan gelditu da etorriko ez den Axiren erantzunaren zain. Nahiz eta batzuetan uste izan Axik -antzinako Axik- nola esan... esatera ere ez da ausartzen, telepatiaren antzeko zerbaitez benetan erantzuten diela haren galderei. Oraindik ez du esnatuko, beta behar du beretako, egunari kara emateko, antolatzeko, une batez bada ere bere gauzetan pentsatzeko. Ironikoa iruditu zaio esamoldea: “Bere gauzak”, badira zortzi hilabete ez duela bere gauzarik.

Altxatzera behartu du bere burua. Egun ederra dator. Igandea. Istripua, eufemismo ederra, gertatu denetik nahiago izaten ditu dudarik gabe astegun buruzuriak asteburuak baino, asteburuetan ematen baitu egiten duenaz gain, lanetik eszedentzia hartu -beharrik bien artean zer edo zer aurrezturik duten, eta Pilik, Axiren legezko tutoreak, bere eskuetan utzi duen haren dirua- eta Axi zaindu, Padre Ligeti zentro-ra eraman, eskuarteak darabiltzan itzulpenak egin, paseatu, Axiri ariketak egiten lagundu. Ai baina aste-buruak! Eredu mortuen moduan hedatzen zaizkio aurrean; larunbat goizak etxea garbitzeko erabiltzen

ditu, eta, psikologoak agindu moduan, gogoeten tornado moduko ardaila urduria baretzeko arnasarekin bat eginik, zereginetan kontzentratzen saiatzen bada ere, ez du lortzen hustasun sentsazioa jabaltzea, munduak zentzurik gabea ematen du. Urteetan arreta deitu diona, sukaldeko leihotik ageri diren ondoko teilen distira, errainu eta argietan dakarren egunaren eitea igartzea ez zaio orain -psikologoaren errealitatea zentzuz zamatzeko ahalegin ariketak gorabehera- huskeria bat baino iruditzen, noiz eta -Axik barre egin eta burutik kenarazi zion- teilei egunero argazki bana egiteko delibero gauzatu gabeko hura ongi etorriko litzaiokeenean.

Altxatu egin da. Zenbat denbora iragan da? Zortzi hilabete eta zazpi egun. Egongela-sukaldera sartu denean musika aparatura jo du. Ez du edirik bilatu behar izan, badaki zer dagoen barnean, aurreko egunean entzun duena, eta aurrekoan eta aurrekoan eta aurrekoan, obsesio bilakaturiko hori, Anari, Ruper, Leonard Cohen, Klaus Nomi, Nacho Vegas, Camane, Chavela Vargas... ez soilik gustuko dituelako, baizik eta letrak entzutearen entzutez obsesio bilakaturik, gertatu eta gertatuko zaien oldozte tematia ordezkatzeko zuelakoz; *Cruz de olvido* kantari, esaterako, Axi eta Axireki-

ko kezka txalupa batean paraturik urruntzearen metafora bilakatzen du, horrela eramangarriago -zerbait esatearren- egiten duelakoz, nahiz eta Guillermo psikologoak zehaztu bezala kanteak eragiten dioten ederreste malenkoniatsuak batere onik ez egin. Eta zer? Azken finean, obsesioa bizitzeko beste modu bat baino ez da, eta obsesioa -onartzen du- uxatzeko zerbait bada ere, lehenagoko Axirekin jarraitzen laguntzen dio, 40 volteko indar elektrikoa duen muin masa horrekin.

Cruz de olvidoren gitarren lehendabiziko akordeak jotzen hasi direnean, negarrez hasi da. Gero badaki: “Bi homosexual bota zituzten arrazoi komertzialak zirela medio”. Kafea prestatu. “As someone long prepared for this to happen, / Go firmly to the window. Drink it in. / Exquisite music”. Kafetera hartu. “Ni tú ni yo, ni yo ni tú / Queremos que se contamine / Este amor que sin permiso / Durará hasta que termine / Ni tú ni yo / Estamos pa' los modales / Que requiere el protocolo / De las páginas sociales / Ni tú ni yo, ni yo ni tú”. Ireki. “Far unfit to bear the bitter cold, / I can scarcely move or draw my breath? / Let me, let me freeze again to death”. Begoña hijaputa bat bezala portatzen ari da. “Eu sei que esperas por mim / Como sempre,

como dantes / Nos braços da madrugada / Eu sei que em nós não há fim, / Somos eternos amantes, / Que não amaram mais nada". Lander, antzeko. "Y te vas, y te vas, y te vas, dices que hoy sí te vas, pero sigues conmigo". Txato da hor dagoen bakarra. Bueno, egon, ez dago baina bere ezegotea egotea bezalakoa da. "Todo fue por ti. La barca en que me iré, lleva una cruz de olvido. Lleva una cruz de amor, y en esa cruz me moriré de hastío".

Leihotik so egin du. Teiletan eguzki datorrela igartzeak poztu beharrean haserretu egin du. Eguzkia jainko tirano baten modukoa egin zaio, bai baitirudi udaberriaren hasiera honetan eguzkiak alaitasuna bainoago zoriontasuna agintzen duela, eta bera -beraiek- ez da zoriontsu, orain behintzat, eta ikusi beharko da aurrera, neurologo andrearen iragarpenak gorabehera. Hala ere, aurrekoan irakurritako esaldiak kontsolamendu apur bat ekarri dio opari baten modura: "Zoriontasuna udaleku bat bezalakoa da". Izorra daitezela, pentsatu du, zoriontsu diren horiek guztiak. Begoña eta Lander barne.

Ezin izan du egiten ari denean kontzentratu saiatu arren. Zerbaitek huts egiten du, Landerren bat-bateko alde egiteak, Begoren... hitzaren bila aritu da... utzike-

riak, Axi zaintzen aurrean dituen ordu luzeek -ez du Lekunberri Aranatzera Pilirenera bazkaltzera joan nahi izan, ez ditu lekunberritarren aurpegi gupidazkoak jasan nahi- edo betetzeko dauzkan errutinek. Ez dute maite, Landerrek eta Begok ez dute -dituzte- maite, bestela bertan egongo ziren; Miren Akerretak maite ditu, baina... bainaren baten bila aritu da, baina ez da nahikoa etortzen, jaio berri duten umeagatik, segur aski. Miren Akerretaren figurak lasaitu egin du, lagunak ez izanagatik, Axiren adiskide-lankidea da, hura ere trauma bat bizitua, eta, ondorioz, bizitzeko baldintzak birsortu arte zonbi bat izatera kondenaturikoa, beraiek bezala. Eta pentsatzen jarrita, Euskal Herria bezala, oroimena galdurik, amnesian, amnesia konpondu arte, zonbi moduan bizitzera behartua.

Gosaria prestatu ondoren mahaian eseri da leihotik teilatuei begira. Guillermok gertatzen ari zitzaionarekiko dramatikoegi aritzen zela iradoki ondoren, “bizitza injustua da” esaldi zoragarriarekin hasi eta “gauzak, gertakariak berezkoak dira eta berezkoa dute gertatzea, askotan guk pentsatukoaren kontrara, guk desiratutakoaz bestela gertatzen dira, eta gertatutako horren zergatia ulertzeari ekitea indarra galtzea baino ez da, indarrak galtzea” azaldu zion gauzen barrun-

beak ongi konprenitu dituenaren garaitza ukituko tonuaz. Barrunbeak ulertzea zergatiez galdetzea ez balitz bezala, pentsatu zuen Josebak, Guillermok oroimenari buruzko hainbat artikulu eta liburu gomendatzen zizkion bitartean; haien artean, *Forever today* (Betiko gaur) Clive Wearing musikariaren egoeraren inguruan Deborah andreak idatzitako liburua. “Ezagutzen dut kasua”, erantzun zion Guillermori. Axiri gertaturikoa patuaren irribarre ironiko bat zela aipatzera ausartu gabe, bai baitzekien psikologoaren arrapostua, patua eta horrelako gure gaindiko gainidea eta gainizakiak ergelkeriak zirelakoaz gainera, borondatearen eraginkortasuna antzutzen zutela arrazoituko ziola. Mahai gaineen duen Deborah Wearingen liburua hartu, eta aurrekoan azpimarraturikora itzuli da, irakurri ahala buruz ingelesetik itzuliz: “Kalte iraunkorra garunean tokiaren eta sakoneraren arabera da. Kaltea barreiatua denean, oxigeno gabeziagatik, esaterako, zelulak eremu zabalean hiltzen dira halako efektu puntillistikoa eragiten duelarik, hainbat funtzio deseginez; kalte barreiatuak emozioen eta nortasunaren kamustea dakar”. Hor ere tupust egin du kafesnari zurrupa egin bitartean, “emozioen kamustea”k zer esan nahi ote duen galdetu dio bere buruari “eta maiz disozia-

atzeko joera izaten du. Kaltea ez denean horren handia -alegia, garunaren eremu mugatua kaltetu denean eta lesioa zehatza eta sakona denean-, arazoak bes-telakoak dira, segun eta zein eremu kaltetu den eta zein geratu den kaltetu gabe. Istripu baten ondorioz buruak zerbait jotzen duenean, garunak kaskezurra-ren kontra jotzen du, lehendabizi aurreko eremuak, gero atzekoak. Beste batzuetan kaltea garun enborra bihurritu delako izaten da. Entzefalitisean garuna bu-rezurrraren kontra estutzen da eta kalte eragiten du edo aldeetan edo lobulu tenporaletan. Huts egite mentala hainbat arrazoiengatik izan daiteke: adibi-dez, oroimena bezalako funtzioak aurrera eramateko garun egitura zehatzean gertaturiko kalteagatik, pro-zesu horretan beharrezkoa den sare neuronalean ger-taturiko kalteagatik, edo sistema horretan transmisio sinaptikoan gertaturiko kalteagatik”.

Orriak pasatu ditu urduri, aurreko egunean azpi-marratutakoa aletuz. “Mundu guztiari bezala, irudi-tzen zitzaidan garun kaltearen ondoren izango zela ‘bigarren biltegi’ bat, trebatu ondoren ‘galdutako’ ere-muen funtzioez jabetuko zena. Horretan egon nintzen bolada batean. Eta nahiz eta kaltea garunaren zein eremutan izan zen eta horrek ekarriko zituen ondorio-

ak ezagutu ez, espero nuen medikuek argituko zidate-
la zer gertatuko zen handik aurrera. Jabeturik nengo-
en erantzunak geldo etorriko zirela, baina medikuek
aukera paxo bat emango zidatelako segurantzia
nuen”.

Gero jaso zituen gutunen errebasoa egiten du De-
borah Wearingek. Batzuek aloe vera gomendatzen
zioten, beste batzuek fede bidezko sendatzea, bes-
teek axeri-buztan infusioa...

Zenbat zoro dagoen munduan! Braust batean baz-
tertu du liburua. Guillermok esango du nahi duena,
baina jakiteak lagundu egiten du, berari behintzat bai,
nahiz eta gero, pentsatu, suminez, “azalpen guztiak
gorabehera” Axi baino ez gelditu, Axi eta igande eguz-
kitsu luze bat, eguzkia promesa beharrean salatari.

Halako batean neurologoak erakutsitako Reyren
Irudi Konplexuaren Testarekin akordatu da. Luze egin
zaizkio ordenagailuaren izekiera eta Windowsen ha-
siera.

Reyren Irudi Konplexuaren Testa tekleatu du. Han-
txe agertu zaizkio marrazkia hiruki, lauki, erronbo, gu-
rutze, giza aurpegia gogoratzen duen zirkulu eta aba-
rrekin. Inprimatu egin du.

Axi altxatzea erabaki du. Gelara joan da zirt-zarteko zerbait erabaki duen deliberoarekin. Tapakiak kendu dizkio.

Axik begiak ireki ditu. Ohartua da denok ere esnatzean galduta izaten bagara ere, Axi oraindik galdutago izaten dela, bere buruari zer kontaturik izan eta horrela egunero berrasmatzerik ez balu bezala. Ukondoen gainean altxatu da, agontzetik oso ohikoa duen keinu; horrelakoetan iruditzen zaio ez dela ezer pasatu, betiko Axi dela, bularra burgoi, goiz-goizetik takoka ohikoa duen erdi eztabaida erdi adarjotze eremu horretatik zeina harengana sedukziotzat joagatik beste batengan harrokeriatzat jotzen baitzuen.

Axi, bere hartan gelditu da, ukondoetan bermaturik, veluxaren argi pean.

“Altxa zaitez, Axi!”.

Eta Axi berehala altxatu da. Eta hark agindu gabe arropa hartu du ohantze ondoko sillatik eta janzten hasi da, Josebaren harridurarako, lehendabiziko aldia baita hori egiten duena. Bat-batean lehenago, altxatzean, tirano irudituriko eguzkia zerbait prometagarri azaldu zaio; eta *beharbada* guztiak esperantza. Goitik so egin dio. Arretaz eta geldi; bakarrik ari da janzten;

banan-banan lotu ditu alkandoraren botoiak, eta, gero galtzen bila hasi da.

Josebak jauzi egin du sillara haien bila.

“Hartuko ditut nik” errieta egin dio Axik.

Joseba pozez zoratzzen dago: “Gosaria prestatzera noa. Moldatuko zara bakarrik?”.

Axik, ohean eserita eta sabai-leihoko eguzki izpiez argiturik, haserre antzean so egin dio: “Zergatik ez naiz moldatuko ba?”.

Anosognosia etorri zaio Josebari gogora, baina bere horretan uztea erabaki du.

Arretaz itxi du atea eta ogi xerrak egin eta xigortzen hasi da arreta egiten duen mugimenduetan paratuz. Kikara hartu, kafea bota, esnea berotu mikrouhin labea... baina bozkarioak ez dio uzten, ez daki zergatik baina susmoa du zerbait gertatu zaiola Axiri, aurre-rakuntzaren bat, eta arropa bere kabuz janzte da seinalea.

Gosaldu eta testa atera dio Axiri mahai gainera.

“Axi, kopiatuko didazu hau paper honetan?”.

Axik durduzaturik so egin dio, gehienetan bezala.

Teilatueta so egin du Josebak, Axiren begiradak haren begiradari jarraitzen dion bitartean.

“Nora begira zaude?”.

Dramatikoa eta adar jotzailea izatea erabaki du, beharbada...

“Esperantzari!”.

“Zertarako esperantza?”.

Harritu egin da hizkuntzaren zehaztasunarekin.

Botako dio, botako dionez: “Zu sendatzeko esperantzari begira nago”.

“Ni? Ni ez nago gaizki”.

“Axi, bihotzekoak jo zizun... eta oroimena galdu duzu”.

Une batzuetako harridura eta gero ukazioa etorriko dela badaki. Oroimen laburra galdu duela onartu izan balu sikiera!

Axi zalantzan gelditu da. Hark ere burua jiratu eta teilatuetara so egin du. Eguzkia ikusi du, teila umelak, Josebaren etxea, elkarrekin alokatu zuten etxe hura, eta gero bere burua nonbaitera ailegatu nahian lasterka, eta irudi batzuk, baina inguruko ispiluetan ageri ez direnak. Eta gero Deustuko Erribera, Euskalduna zubia iragan berritan, eta gero...

Urduri altxatu da.

“Bihotzekoak?”.

Joseba zoratzen paratu da, lehendabiziko aldia da hori esan ondoren galdera egiten duena. Seguru asko

dena konponduko da, eta pixkanaka oroimena berreskuratuko du.

“Bai Deustuko Erriberan, Zorrotzaurre bidean korrika zindoazen eta bihotzekoak jo zizun, eta oroimena galdu zenuen”.

Beldurra egin zaio begietan.

“Bihotzekoak?” galdetu du berriz ere.

“Bai, bihotzekoak?” gehitu du tinko Josebak.

“Ez, niri ez dit bihotzekoak jo!”.

Haserretu egin da. Bat-batean dena nahasi zaio. Zapatilla gorri batzuk iragan zaizkio paretik, gero zangoak atzetik, sirenak, Bilbo etorri zaio gogora, eta gero sirenak berriz ere, sirenak trostan, Deustuko Erribera, txikitan joaten zirenekoa, EITBko egoitza berria, Miren Akerreta, zapatillak, heldu behar duen toki bat, baina ezin du iritsi. Antsia. Sirenak.

“Niri ez zidan bihotzekoak jo!”.

Eta negarrez hasi da. Mugitzeko gogoia egin zaio, baina ezin du mugitu. Negarra baino ezin du egin.

“Niri ez zidan bihotzekoak jo!”.

Zergatik esaten dio hori Josebak?

Zapatillak agertu dira gero berriz ere, galopan. Eta gero argia itzali balute bezala izan da.

Hantxe daude Joseba eta bera. Badago antsia eragiten dion zerbait baina ez daki. Kafe kikara hutsik. Josebak hartuko du ze berak ez... Eguzkia egiten du. Badauka ezinegon arrasto bat, zerbait gertatu eta gogoratuko ez balu bezala, ibili eta atzean utzitako basabide batera itzuli nahi eta ezinak sortuko liokeenaren antzekoa. Horregatik ari da negarrez. Josebak zerbait esan dio baina ez daki zer.

Negarrez jarraitu du, leihotik sartzen den argiak azpian harturik beste mundu batera garraiatu izan balu bezala, lurretik altxatua. Zer egiten zuen bertan?

Josebak amore eman du. Ez du behartu nahi baina astelehenean deituko du Padre Ligeti zentrora eta neurologo andrearekin hitz egingo du Axiren aurrerakuntzaz. "Aurrerakuntza da benetan?" galdetu dio bere buruari. Baietz erantzutea beste erremediorik ez du eriden.

Zalantza egin du testa pasatu ala ez. Zartako batez aldenarazi du burutik emaitza interpretatzeko gai ote deneko zalantza.

"Tori, Axi. Begira!". Eta marrazkia erakutsi dio.

Axi so gelditu zaio. Ronboak, nola deitzen dira hiru... hiru... alde dituzten gauza horiek... hirukiak, eta

lau dituztenak... eta... zaldiak iragan diren berriz ere.
Zer gertatzen ari zaio?

Zer gertatzen ari zaio? Zer gertatzen ari zaio? Zer gertatzen ari zaio?

“Kopia ezazu marrazki hau hemen”.

Josebaren eskutik boligrafoa hartu eta txintxo-txintxo hasi da kopiatzen. Normala ote da Reyren Figura Konplexuaren marrazkiari eskuineko erronbotik ekitea?; ez daki Padre Ligeti zentroan eginarazi diotenean berdin egin duen, ez daki ezkertia izateak eragin dion. Axi geldo-geldo marrazkia kopiatzen hasi da. Josebari nekeza, oso nekeza, egiten zaio Axiren geldotasunera ohitzea, eta, beharbada horixe da gehien urduritzen duena, ez desesperatzeko arnasa hartze ariketak egiteraino; beno, hori eta zeukaten bizitza galdu izana, eta Axiren zerbait, oroimena bakarrik ez den zerbait di-da batean aienatu izana; azaltzen jarrita neurologo andreak entenditu ez zion zerbait hori (“Badago oroimenaz harantz”, aitatu zion, “galdutako zerbait; bera, bera ez balitz bezala da”; “Jakina” erantzun zion, “oroimenak egiten gaitu” pazientzia gutxirekin); eta hartara, ekintza guztiak dira Lekunberri inguruan dagoen Beriain mendia igotzea bezala, aldapa gora egiten zaion zerbait.

Egiten ari denari gogoaren zolan zentzurik ikusten ez badio ere, txukun egingo dituela erabaki du. Hiru..., hiru..., hiru... hitza ez datorkio... hirukiak marraztu ditu gero boligrafoarekin gehiegi ez zapaltzen saiatuz.

Lauki... lauki... lauki... barneko hiru..., hiru... Gurutzeak. Behekoak. Bukatu duenean Joseba bilatu du. Ez du aurkitzen nahiz eta zerbaitek adierazi -bere burua arraro dago, bere burua ez balitz bezala edota bere burua etengabeko joan-etorrian dabilkion bisitaria balitz bezala- atzean duela, harri... harri... harri... -hitzak ez datozkio burura- harrikoa egitearen soinuek.

Joseba itzuli egin da. Hortxe dago, Reyren testaren eta kopiaren aurrean, isilik, xor, leihotik begiratzeko gauzeza. Galdua dago, oroimenak huts egin, eta gogoak, edo buruak, edo garunak, edo hipokanpoak, edo neuronek, edo sinapsiek, edo falta zaion Axiren zati horrek huts egin dio eta galdua dago. Joseba izugarrizko haserreak hartu du Axiren kontra. Zertara joan zen lasterka egitera kolesterola begiratu gabe? Zergatik bilatu zuen haserrea? -ze haserrea bilatu zuen urtemuga egunean, seguru dago-. Haserreak mareak bezala atzera egitean, ordean, tristura paisaia hits bat gelditu zaio, dena nahasita, eta halako akidura pisu bat, pott eginda uzten duena.

Eseri eta Axik egindako marrazkia tolestu du arretaz. Gero eta arretatsuagoa bilakatzen ari da, gauzetan buru-belarri aritzeko ariketa psikologikoaren eraginez.

“Axi, begiratu marrazki honi”. Reyren figura marrazkia erakutsi dio. “Begiratu arretaz. Buruz ikasi behar duzu, xehetasunei erreparatu. Gero estali eta buruz marraztu behar duzu”.

“Zertarako da tontakeria hau?”.

Egon da bihotzekoarena botatzeko atzera berriz, baina damuturik, irribarrea baino ez dio eskaini, batzuetan –eta azken boladan gutxitan– funtzionatu dion irribarre konkistatzailea.

Axik marrazkiari so egin dio, arretaz. Sirenak. Sirenak. Eta argiak. Eta zapatilla gorriak. Mugitu egiten zaio marrazkia. Erronbo, laukizuzen, hiru... hirukiak dantza egiten diote begi aurrean. Ez du ulertzen zergatik egin behar duen hori baina Josebarengatik bada... dena dela, ez zaio gustatzen Josebak agintzea, Josebak ezin dio agindu. Zer gertatzen ari zaio? Zergatik dago Iruñean Bilbon barik?

Josebak marrazkia ezkutatu dio, boligrafoa eskaini eta “Orain, buruz kopiatu behar duzu marrazkia paper

honetan". Papera paratu dio mahai gainean. "Benga, ea akordatzen zaren marrazkiaz".

"Ez naiz akordatuko ba" bota dio Axik, Joseba potindu duen harrokeria ukitu batekin.

Ikusitakoa marrazten paratu da. Eskuinetako erronboa egiten hasi da Josebak sorbalda gainetik begiratzen dion bitartean.

"Ez begiratu. Ez daukazu ezer egitekorik?" bota dio haserre.

Joseba eskuko trapua hartu eta sukalde gaina garbitzen hasi da. Gero ohea egitera abiatu da. Beharrik ez duten diru arazorik, nahiz eta oraindik konpontzeke izan Axiri geldituko zaion pentsioaren kontua Gizarte Segurantzarekin. Abokatuari ere deitu beharra dio gauzak nola doazen jakiteko, "absolutua" bakarrik ematen badiete "elbarritasun handia" eskatzeko epaitegira jotzeko aholkua eman diolako. Logela estreमतzen aritu da, gogoa husten saiatzen, baina urduritasun moduan azaltzen zaion poz batek galarazi egiten dio ahalegina. Eta gero etxean igogailua paratzeko debekua dago, eta gero dirua, eta gero adiskideen traizioa, eta errabia, eta psikologoa, eta... haien bizimodu mila puskatan zatitua. Ohean eseri da eta eskuetan bildu du burua. "Baina gaur egun handia duk" ai-

torrarazi dio bere buruari, “nabarmen egin dik aurre-ra”.

Bukatu duenean sukalde-egongelara jo du. Hantxe dago, sor, leihoko izpipean. “Zer pentsatuko du?”. Haren gogoeten sigi-saga irudikatuagatik, poz ardailatsuak eta ekinak ez diote nahiko oldozten utzi Axiren barne paisaiaren ezaugarriak marrazteko. Berea bezalakoa ote da?; alegia, *Doludan* filmaren aurkezpen fitxan azkenean sartuko ez duen C.S. Lewisen testuan azaldutakoa bezalakoa?: “Bailara luze eta haizetsu baten modukoa da. Bihurgune bakoitzak beste paisaia bat agerrarazten du. Eta ohartzen gara bihurgune guztietan ez dela beste paisaia bat. Alderantziz, harri-garria kontrakoa da, milia batzuk lehenago atzean utzi duzun paisaia ageri zaizu aurrean. Eta orduan galde-tzen diozu zure buruari bailara lubaki zirkularra den. Baina ez da. Badira errepikatzen diren zatiak, baina sekuentzia ez da errepikatzen”. Ohartzen ote zen Axi gertatu zitzaionaz, zitzaienaz?

Mahaira hurbildu denean, Axik marrazkiaren laurdena-edo ez du marraztua. Eskuinetako erronboa, haren segidan dagoen hirukia, zirkulua hiru puntuekin, gurutze etzana laukiari lotuta, beste gurutzea, solte. Kanpoko elementu guztiak falta ditu marrazkiak.

Ardailan jo du egongelako armairura, Padre Ligeti zentroan egindako testaren emaitzen fotokopiak, kostata lortu dituenak, ateratzera. Karpeta zabaldu eta hantxe agertu zaio, Axiren duela hilabeteko marrazkia: erronboa, zirkulua eta gurutzea baino ez dira ageri, bakoitza zenbait alde.

Besarkatu egin du. “Ongi jarriko zara!”.

Begori deitzeko gogoa egin zaio, baina Txatoren telefono mugikorra markatu du. Inor ez. Beste bat huts egiten diona.

Bilera zalapartan bukatu eta hornidura aferak konpontzen emandako orduetan urduri nabaritu zuen Josebak bere burua, ustekabekoa etortzen ikusi eta aldi berean desiratu eta ekidin nahiak sorturiko urduritasuna.

Kalera atera zen Kenneth eta besteengandik urrun, ustekabeen harrapatu eta arropak nahasi-tro-poiluan kalera atontzera jotzen duenaren larritasunez. Eskua kaskotik pasatu eta zerura so egin zuen. Goizeko eguzkia lainotu egin zuen, berunezkoa zirudien zeruak; eta haiei eguraldi ona izatea komeni zitzaien, uda mineko eguraldi zoragarri horietako bat, Axi transparentziaz jalgiz ekarriko ziona. Axi. Ordura arteko urduritasuna korromio moduko zerbait bihurtu zitzaion; digestio txar baten antzeko; Axirekiko harremana lehen aldiz tripetako arazo batekin alderatzearen alde komikoak ez zion irribarrerik eragin.

Zarata entzun zuen. Kuadrilla bilbotar bat zeto-rran, furgoneta batetik azken trasteak jaisten. Musika mahaia zirudien, platoak, kableak, eta disko sorta bat zekartzan mutil beltzaran txiki batek. Orain artean

erreparatu gabea zen, non egon da sartuta mutil hori, zeinak brausteko azkar batez Axi zein Kenneth kendu baitzizkion burutik? Diskoak besapean harturik baserri erraldoian barneratzen ikusi zituen, mutiko beltzaran txikia, eta atzetik, azkenera, mutiko beltzaran txikiaren ipurdi txikia, esandakoa bukatutzat jo eta tarte batera datorren koda baten antzera. Traizioaren itzala nabaritu zuen bigarren aldiz; bi traizionatu zituen oraingoan: Kenneth eta Axi; edo hobe esanda, Axi eta Kenneth. Txatok esango lioke, behin baino gehiagotan entzun zion, marikak, marika izateagatik beragatik, berez direla puta, hiru, lau, bost gizon gustatzen zaizkiela aldi berean, eta berez direla infidel, ez ordea desleial, Etika Marikaren hirugarren puntuak dioen moduan, “hamaikarekin jo dezakezu larrua, baina maitatu, bakarra; eta bi maite badituzu, biek jakin behar dute, egia baita etikaren lehendabiziko puntua”. Josebak irribarre egiten zion, azalpenean –edo Txatoren beraren izaeran– egon zitekeen hiperboleak gauzak izan daitezkeenaz harantzago zuen kutsu probokatzaileari erreparaturik.

Barna sartu zen eta areto nagusian egon ziren aulkiak eta mahaiak mugitzen hasi zen, ordura arte bileraren areto izan zena jangela bilakatu behar baitzuten. Ez

zen lan zaila, dena den. Markel-La Markeliñe Eduardi esaten ari zitzaionarengatik jakin zuen baserria batez ere udalekuetarako erabiltzen zela, eta maiatz-ekaina parean izaten zutela beteen. Erraza egin zitzaion umeak batera eta bestera irudikatzea. Bere haurtzarora baino askoz errazagoa, haurtzarora zaila egiten baitzitzaion, susmatu bai baina bere buruari aitortu nahi ez zizkion arrazoiengatik, zeinak artean Axiri baino ez baitzizkion iradoki nahi izan, lantokian Begoñarekin izandako eztabaida batek hasitako sokaren segida. Sarrionandiaren haurtzaroaren gaineko eztabaida batekin hasi ziren, Muñoz Eugi tartean zutela, Begoña Sarrionandiaren gaineko tesia egitea pentsatzen ari baitzen, eta Begoñak eta Muñoz Eugik izaten zuten topikorako joera zio -ez zen akordatzeko-, zera esan zuen: “Haurtzarora da gure paradisia”, Sarriionandiak berak esandako adagioa, topiko bat. Eta etxerako bidean, Sariotik Jarautarako bidean zeuzkan 45 minutuetan, Iruñeko kaleetan barna, urdaila hutsik zuela, bere nortasunari buruzko errebelazio moduan agertu zitzaion haurtzaroko konturik batere ez gogortzearen arrazoia. Zentsura bat, urteetan bere buruaren eraikinean zimendu oker bat zegoelakoari ez erreparatua eginik, okerra ikusi bai, baina konpontzeko gai

ez zela ohartu zen, konponketek eraikina bertan behe-
ra ekar zezaketelakoz. “Zergatik zara horren konplika-
tua?” galdetu zion Axik errebelazioa azaldu ondoren.
Durduzaturik gelditu zen. “Horren konplikatu?!”, de-
silusio batek hartu zuen Axirekiko; bera betikoan erori
zen, pixka bat apartatu, eta bere baitan bildu, eta
egun batzuetan Josebaren munduan barneratu. “Zer-
gatik zara horren konplikatu?!”. Axi oinarrizkoagoa
zen, eta haurtzaro zoriontsua izan omen zuen, eta
Axik ez zuen arazorik ikusten berak ikusten zituen to-
kian.

Auto pare bat ailegatu zirela entzun zuen aulki eta
mahaien zarataren gainetik.

“Neska, hire senarra” entzun zuen Txato, kuzkur-
turik aulki bat lurrian uzten ari zela. “Ipurdia horrela
paratuta, zeren bila ari haiz?” entzutera deliberaturik,
tartexka kostatu zitzaion Txatoren ahotsa isildu zela
ohartzea. Burua altxatu zuenean Txato areto erral-
doiaren sarreran zegoen, irribarreka.

“Azkar ba...” presatu zuen. Txatok batzuetan Axi-
ren kontra egiten baitzuen, eta besteetan, aldi hartan
bezala, alde.

Arnasa hartu bitartean Kennethen bila egin zuten begiek. Aulkiak eta mahaiak mugitzen ari zirenen artean ez zuten jo.

Mesfidati jaitsi zen Axi autotik bidean pilatu zitzaizkion gogoeten eraginez; kostata eman zioten jai, sartutako aparteko ordu guztiak haizatu behar izan zituen, eta azkenera, Miren Akerreta nagusiak eman zion jai, ez zekien nola esan, maite zuelako, edo gus-tuko zuelako, edo merezi zuelako, hasi zenetik jo eta su lanean aritu zelako, edo, gogoeta josebakorra bazen ere bururatu egin zitzaion autoan, Miren Akerretak susmatu zuelako berari, bera... homosexuala-edo zela, edo gizonak gustatzen zitzaizkiola, eta, Josebak iradoki bezala, Miren Akerreta kamioizalea izateak sindikatu berekoak egiten zituelako. Bai, mesfidantza. "Zergatik etorri behar izan dute Gayakanpadara. Zer egiten dute haiek hemen, zertarako etorri dira, eta batez ere, zer egiten du Josebak lanean opor eguna hartu eta txorradez hizketan goiz-goizetik?".

Ez zuen zentzurik, eta damututa zegoen. Galduta nabaritu zuen bere burua, eta galduta egoten zene-tan, urduri; ez zuen ulertzen Josebaren EHGAEN aritze-ko beharra, eta zeuzkan asmo haiek, eta batzuetan esaten zituen hitz potolo haiek, Iraultza Marika eta.

Euskaldun izatearekin nahiko ez balitz bezala. Mesfidati egon zen aipatu zionetik, “jornada batzuk, gero Gayakanpada”; jornada entzun zuenean, berehala jakin zuen handik istilua etorriko zitzaiola, eta ezezko borobila eman zion; ez zekien, ordea, zergatik eman zion barikutik igandera arteko tartean baiezkoa. Josebak ez zela ezer politikoa izango konbentzituko zuelako, eta hortik sortuko zelako gerora izan zuten eztabaida sutsu hura, zeina gogotik uxatzen saiatzen baldin bazen ere, noizean behin etortzen zitzaion. Beharbada horrexegatik zegoen bertan, hanka sartu izanak ahuldadea erantsi ziolako bere jarrerari: “Euskalduntasuna ez bezala, homosexualitatea ez da politikoa”. Edo horrelako zerbait. Edozein kasutan nahikoa Josebak lau ideia lotu eta jardunaldi haiek homosexualitatea politiko egiten hasteko zirela erantzuteko, mundua “marika izatetik” –erantsi zuen– begiratzen hasteko. “Eta zer da hori?” galdetu zion, eta Joseba ez zen gauza izan mundua marika izatetik begiratzeak zer esan nahi zuen adierazteko. Txorradak. Gainera, iruditzen zitzaion zenbat eta EHGAmen gehiago aritu, orduan eta luma gehiago hartzen ari zela Joseba. Eta ez zitzaion gustatzen. “Mundua euskaldun izatetik –beno, euskaldun, vasco edo dena delako– begira daiteke,

baina marika izatetik begiratzea, zer da? Mundu guztiak gay izan behar duela? Homosexualen artean bakarrik izan beharko lituzketela harremanak?”.

Josebak luma handiagoa zuela iruditu zitzaion baserri itzeleko atletik ateratzen ikusi zuenean. Ikusten zuen aldiro ez bezala, oraingoan ez zitzaion hura berea, ondasuna, jabetza zelakoa egin buruan.

“Hartzarena” bota zion, erdi bidetik.

“Bai” irribarre egin zion Axik.

Bere baitakoaren kontrara-edo indartsu besarkatu zuen, Josebak adar jotze pribatuan “hartzarena” baitaiaturiko besarkada. Joseba beso sendoen tartetik askatzen saiatu zenean tinkoago eutsi zion harik eta hark -ezagutzen zuen eta bazekien ez zitzaiola lot zezaten gustuko- inarrosi eta keinu leun baina sendo batez baztertu zuen arte.

Elkarri begira gelditu ziren. Irribarreka. Axik pentsatu zuen bazegoela gizon harengana erakartzen zuen irrika indartsu bat, ezin zion uko egin, dexentetan beste baten eskuetan egotearen ahuldadeak amorrua eragiten bazion ere. Joseba oharturik zegoen horretaz, eta, bere buruari onartu behar izan zion amorrua ia, horregatik zegoen han.

Txato sortu zen atetik agurrak builan, “Kaixo, neska!”. Hurbildu ahala ezpainak eskaini zizkion musu emateko, nabarmenago keinuak Axi nardatzen zuela susmaturik. Ondoan gelditu zitzaien, aurpegia gorantz Axiren muturrari ezpainak eskainiz, indarrak emaitza emango zuela zekienaren segurantziaz. Amore eman zuen Axik azkenean, eta pixka bat makurturik, musu arin bat eman zion gogo txarrez.

Hiru auto zetozen bide estuan aurrera. Abiadura-ren motelak adierazten zuen ez zutela bidea ezagutzen. Banan-banan aparkatu zuten, bi Opel Corsa eta Peugeot 205 beltz bat.

“Hemen da Gayakanpada?” galdetu zuen auto bateko gidari kamiseta itsatsidun gihartsuak.

“Nena, galdetzea ere” bota zion Txatok barrezka, Nafarroako Erriberako azentuaz. Algara egin zuten denek.

“Madrildarrak gara; bueno, gu. Hauek, Valentzia-koak. Galduta geundenean topo egin dugu”.

Eguzkiak kukuka egin zuen halako batean.

“Eguzkiak ere irribarre egiten du zuen etorrerarekin” bota zien Txatok.

Sartzeko agindu zien, Pedro de Cadi-eta barnean zeudela. Zakutoak eta motxilak atera zituzten maleta-

tegitik. Talde nabarra egiten zutela pentsatu zuen Axik, mutil gihartsu pare bat, ilaje harroz eta mallaz jantzitako beste pare bat, txintxo antzean jantzitakoa, alkandora koadrodunak...

Hirurak bakarrik gelditu zirenean Axik pentsatu zuen batzuetan hiru zirela, eta hiru gehiegi zirela, Txatoren puska handiegia zutela haien bizitzan, nolabait esatearren.

Elkarri so egin zioten. Ez zuen Josebarengan kideko begiradarik ikusi eta ernegatu egin zen. Josebaren eskua bizkarretik botata sartu zen baserrian logelen bila.

Literaz beteriko hiru areto handien artean txikiena aukeratu-ez aukeratu ibili ziren harik eta Axik galdetu arte: "Baina kanpoan jar daitezke dendak, ez?".

"A bai! Jarriko dugu kanpoan? Nahiago duzu?".

"Bai, intimitate gehiago izango dugu. Ez dugu Txato inguruan izango". Eta Txatori buruzko eztabaida antzu bezain ergeletik ihes egin nahian zera esan zuen: "Mirenek berria atontzeko eskatu dit, saiatuko dela Donostiara bidali eta Teleberrian sar dezaten".

"Zer?".

"Hau! Zer izango da bestela?".

“Gayakanpada Euskal Telebistan eta Irratian? Ez dut uste”.

“Bueno, ikusiko dugu. Mirenek esan dit saiatuko dela. Ez duzue nahi, ala?”.

Baiezkoa egin zion Josebak.

“Baina ez komentatu ezer. Beharbada ez dute-eta nahi izango”.

“Bai, homosexualitatea ez dago modan”.

“Erredakzioan zurrumurrua zabaldu da, eta aita mehatxatua ote daukan”.

“Noren aita? Mirenena? Joder!”.

Bietako bati ere ez zitzaion bururatu esateko beste ezer, eta denda jartzera abiatu ziren. Di-da batean jarri zuten Axi gauzarik modernoena edukitzeko zuen antsiak erosarazirikoa. Eta barnean sartu zituzten motxilak. Josebak zapatak kendu zituen, eta Axiren atze-
ra-aurrera gelditurik, eserarazi eta musu eman zion. Biak etzan ziren zakuen gainean barrezka, zergatik jakin gabe. Patilletan pasatu zion mingaina Axik, beti egiten zion. Ilea usaindu zuen Axik, koipe eta gatz usaina, eta, beharbada, keru min baten aztarnak, atzean, atxona garunaren zokoetara ailegatzean. Josebak zakila ukitu zion galtzen gainetik. Saiatu zen bako-
roen botoi ugariak askatzen, baina esku dorpeek

ezin zuten, Josebak kontzentrazioa galdu zuen. Eguzki lauki batek ehunean jo eta barnea argitzen zuen. Axik patillak utzi eta botoiak lasatu ondoren, ia jauzika atera zen zakilerantz erakarri zuen Josebaren burua. Josebak ahoratu egin zuen. Han aritu zen tarte batez, Axik begiak eguzki laukian iltzaturik zituen birtartean. Oraindik ez ziren plazerak senaz ahaztera eramaten zaituen une horretan. Beharbada, azkeneko boladan ez zuten horrelakorik lortzen, lana edo bete-beharren zamak eraginda, akaso; edo elkarren gorpuzkeretara ohitzeak, zeinak plazeraren berezkotasuna atzendu eta eraikitzeko zerbait bilakatzen baitzuten: areago mailaz maila eta geruzaz geruza osatu beharreko eraikin baten moduko zerbait, ezen ez pasioaren indarrez braust batean sorturiko haragizko gauza. Josebari nahigabea egin zitzaion, eta Axiren zakila utzirik, bera ere ahoz gora etzan zen, eskua Axiren buruan pausatua.

“Gauerako utziko dugu” bota zuen, lasaitu ezinezko urduritasunez.

“Bale” erantzun zion Axik, eta hanken eta bizkarren gainean bermaturik ipurdia altxatu eta zastako batez igo zituen galtzak gerriraino. Zila geratu zitzaion agerian, Josebari gustatzen zitzaizkion ilexka beltzak,

bilo. Bien eskuek egin zuten topo Axiren zilean. Bate-na bestearenganako keinu, bestearena, bere burua ezagutzeko imintzio. Josebak eskutik heldu zion.

Harritu egiten zuen azken boladan zeinen itzuli-mitzuli gutxi ematen zizkien Axik gauzei. Hala, ba ongi; bestela, ba ederki. Orain bezala. Kezkatu egiten zuen Joseba, zeinak uste baitzuen, nahiz eta bere bu-ruari aitortzen ausartu ez, eta aitortuez gero, inondik inora ametitu ez, gauzen garrantzia sortzen duten kezka-aren arabera dela.

“Zein da plana?”, Axik.

“Bazkaldu duzu?”.

“Autoan jan dut zeozer”.

“Ba jendea sortzen hasiko da. Seietan ongi etorri ekitaldi bat egingo da, gero bederatzietan afaria, eta ondoren dantza”. Eguzki lauki azulari so gelditu zen, gogoa borborka. “Nahi duzu larrua jotzea?”.

Axi ustekabea harrapatu zuen galderak. Ez al zuten ba ezezkoa erabaki?

“Ondo da” erantzun zuen Axik.

Berehala ohartu zen esandakoa anbigua zela, baiezkua izan zitekeela, edo ezezkoa, baina ez zuen gogorik argitzen hasteko. Ezezkoa erabaki zuten, argi zeukan.

“Ondo da? Zer, bai ala ez?” galdetu zion Josebak, erresumina nabari zitzaiola ahotsean.

“Ez dugu ba ezetz erabaki? Batzuetan...”.

Amorrazioarengatik igotako ahotsaren bolumenaren gainetik kremaileraren zarrasta entzun zuten. Biek egin zuten zeuden egoeraren azterketa azkarra, hutsen harrapaturiko batek eginen lukeen moduan. “Homofobia” pentsatu zuen Josebak, hemen zakilak kanpoan balituzte ere, haragi gorri eta zutituaren lotsa baino ez litzatekeela izan beharko erabakiz, eta, ez homofobiak beharturiko errua. Gogoetok Axiri kontatzeak eragingo liokeen ironia ia segurua garunaren atzeko eszenatokitik iragan zitzaion.

“Putakume bat”.

Biak batera altxatu, eta eserita gelditu zirenean, Oskarren beso gihartsua ikusi zuten sartzen. Gero burua, patilla-biboteak, sorbaldak, bular oparoa.

Axik ukondoarekin jo zuen Joseba. Oskar malkotan zetorren.

“Putakume bat. La Radicaleko errubio batekin harrapatu dut gure dendan larrua jotzen, oraintxe bertan”. *Oraintxe* gehitu zuen, orduantxe gertatu izanak berebiziko garrantzia balu bezala. Josebak eta Axik elkarri begiratu zioten, bata bestearengan kontsolamen-

du hitzen baten bila edo, besteari gertaturikoa haiei sekula santan gertatuko ez zitzaielako pozten zirela ezin onartuz, hala ere.

“Konponduko duzue” Josebak bota ahala, Axiri erdeinuzkoa egin zitzaion Josebak batzuetan leku komun eta hitz arruntetara jotzeko zuen joera.

“Bolada txarra daramagu. Atzo bertan izugarrikoa izan genuen. Ni Ezker Abertzalekoa omen naizeenez, ez omen nago Nafarroako ponentzien alde. Eta beste batzuekin larrua jo nahi ez dudanez, Bilboko ponentzien alde nagoela aurpegiratu zidan. Eta nik ez dut beste batzuekin larrua jo nahi, ni harekin nago maiteminduta. Eta hark jotzea ere ez dut nahi. Kaka puta!”.

Axik berehala irudikatu zuen Juanillo nagusikeriaz esaldi haiek ahoratzen.

“Bueno, badakizu... gauzak horrelakoak dira... igual bikotea eramateko modua planteatu beharko zenuketete” esan ahala, iltze baten moduan nabaritu zuen lepagainean Axiren begirada Josebak. Ate irekitik berraren usaina sartu zitzaion; promesa bat egin zitzaion Josebari, ez zekien zerena, ordea.

“Hori ez da kontua” bota zuen Axik, “zergatik aldatu behar dute bikotea eramateko modua, ez badu nahi?”.

Oskar atezuan zegoen, gorputz lerdena zurrun eserita bien artean, haiengan irtenbideren bat topatzeko antsiaz.

“Hori ere egia da, baina Juanillok beste modu batera eraman nahi duela argi dago, ez?”, Josebak.

Oskar isilik gelditu zen. Sendotasunak, gizontasuna azpimarratu barik, haur deslaiaren itxura areagotu baizik ez zion egiten, gorputz handi eta gihartsuaren indarra berez malkoek errenditzeko sortua balitz bezala, ahulak indartsua bantzutzeagatik, ahulago.

“Ez dugu hitz egin. Berak esaten du beste gauza batzuk bizi nahi dituela eta nik ere egiteko beste gauza batzuk. Baina nik ez dut nahi”.

“Utzi”, Axik.

Oskarrek ez ulertuarena egin zuen. Istant batean Oskarrek kilometroak, munduak, unibertsoak egin zituen urrutira.

“Utzi?”.

Ez zuen ulertzen, Juanillorengandik alde egiteko aukera ez zitzaiolako garunaren mapan ageri, ez moji moduan, ez ihes senda moduan, ez kolore moduan,

beharbada, elkarrekin zeramatzaten bi urteetako ohiturek etorkizun oro kolonizatu zutelako..

“Bai, utzi!”, Axik.

Oskar noraezean nabaritu zuten, hitzek esanahirik ez balute bezala, soinuen mezu dezifragaitzean inbuluzkan.

Buruari eragin zion mugimenduan ezin antzeman izan zuten baiezkoa edo ezezkoa edo, besterik gabe, entzun zuelakoa baieztatzeko keinua zen. Begiak beterik zituen.

Axi Josebari esatea egokitzen zitzaion kontsola-mendu hitz batzuen espera gelditu zen, ez Oskar haren adiskideago zela uste zuelako, baizik eta adostu gabeko itunean horrelakoak Josebaren ardura bilakatu zirelako haien arteko bikotean. Baina Josebak eutsi egin zion isiltasunari. Suspirio egin eta altxatzen hasi zen Oskar. Josebak eskutik heldu zion.

“Zer egingo duzu?”.

Bizkarrak altxatu zituen.

“Lasai”.

Baiezko keinua eginez desagertu zen dendatik eguzkitara. Denda barnean igarri egiten zen zerua oskarbi zegoela, zuela ordubeteko laino kirikariak faundu egin zirela.

Elkarri so egin zioten, bakoitza beretik, Oskarrendako erantzunen baten bila.

Joseba gizajoka hasi zitzaionean –asko sufritzen ari zela, eta ez zuela merezi eta Juanillo oso gaizki portatzen ari zela–, “Bere errua da” moztu zion Axik, Joseba ahoan lau hortz utzita. Joseba ez zen ausartu pentsatzera haien artean horrelakorik gertatuz gero, jarre-
ra berdina izango ote lukeen Axik, orduan ere “bere errua da” esango ote lukeen; zurrunago nabaritu zuen azken boladan, bien artean lortzen ari ziren orekak –oreka eta asperduraren hasiera batera zihoazela onartu behar zuen– Axi malguago egin beharrean go-
tortzera eraman izan balu bezala. Beharbada, ezagut-
zen ari zen Axi zurrun hura –besteen ahuldadeak kon-
prenitu eta onartzeko ezintasunak harritzen zuen gehien– hor egon zen beti, eta orduan, elkarren aurki-
kuntza bukatzeaz zegoela –gorputzen azken zimur, zulo eta zirrikitu arakatuak zituzten jada, ezer galdetu aurretik bestearen kilika tokiak bazekizkiten–, hasi zen agertzen norberaren eitea.

“Zuk erraz ikusten dituzu kontuak: utzi!”.

“Ez badago pozik, eta argi dago ez dagoela, hobe-
rena uztea, zuen bikotea eta politika nahasteko kontu

horietan sartu beharrean. Eta Juanillo... bueno, Juanillok berea egiten du”.

“Bai, hura bikote berria osatu nahian ari da, beste bizitzeko modu bat, heterosexualek agindutakoaz bestela”.

“Bale. Eta orain Etika Marika aipatuko didazu!”.

Axi gotortu egin zen. Urduri paratzen zuen hainbatetan izan zuten elkarrizketa ergelak. Marika. Politika. Bikote berriak. Baina hala ere asteburua pozik iragaterako deliberoa egin zuen, eta patilletara eraman zuen eskua.

“Goazen kanpora!”.

Dendatik eguzkitara atera zirenean Oskar ikusi zuten baserri erraldoian sartzen. Basoari erreparatu zioten, itxia zen, pinuak ageri ziren baso zeharrean, gorago berde desberdinek uhin maiztasuneko erritmo antzeko bat markatzen zuten landaretzan. Eta harantzago, harkaitz batzuk.

Axik eskuin aldera so egin zuenean Juanillo ikusi zuen dendatik ateratzen. Ez zitzaion gustatzen horrelakoak erabiltzea baina Txatok esanen zukeena etorri zitzaion gogora: “Hara, larrualdiaren ondoren zeinen erlaxatua dagoen!”.

Juanillok ikusi zituenean agurtu egin zituen eskuak altxatuz. Gero esku horrekin berarekin heldu zuen La Radicaleko mutila eta baserrirantz abiatu ziren. Joseba -beti bezala beste zer baitetan, pentsatu zuen Axik-, ohartu ez zenez, ia jauzika hasi zen begi eremuan sartu eta nor ziren erreparatu zuenean. Espantuka itzuli zen, horixe zen gutxien gustatzen zitzaiona, espantuka aritzen zela, eta zuen hiperbolerako joera. Seinalatu egin zizkion. Axik irribarre egin zuen bere baitarako. Josebak berriz ere seinalatu egin zizkion. Axik baiezkoa egin zion gogo gehiegirik gabe.

“Ikusi dituzu?”.

“Agurtu egin gaitu, Joseba. Ateratzean” gehitu zuen gero.

Joseba isilik gelditu zen, hortik jarraituz gero, sasi-tara zihoala susmaturik. “Ez zara ezertaz enteratzen” esango zion, eta hortik sortuko zen istilua, eta asteburu hartan bakea behar zuten. Bakea, azken boladan gehiegi eztabaidatzen zutelakoz.

“Kontua da ez dela zintzoa”.

“Nor ez da zintzoa? Oskar?”.

“Juanillo ez da zintzoa. Txatok esan zidan hasieratik oheratzen dela beste batzuekin. Eta Oskarrek ia harrapatu zuen batean, erabaki omen zuen esatea. Ni

seguru nago Txatok behartuko zuela, ez dakit ba, horrela ezin ibili dela esanez edo”.

“Hara... bikote modu berriak eta Etika Marika! Baina zergatik ezin da horrela ibili?” bota zion Axik ironiaz, jakinaren gainean izanik besteei gezurra esatea –betidaniko klasiko bat *bestea* zure bikotekidea de-nean– ongi ez zegoela, baina, aldi berean, Joseba zirikatzeko gogoak eraginik, Juanilloren portaeraren zintzotasun gabeziak zalantzan.

“Horrela aritzeak heterosexualak bezala aritzea esan nahi du” ebatzi zuen Josebak, artean botatakoa ustez benetako arrazoia izateaz gainera ergelkerien zakuan ere sar zitekeelako susmoak beharturik, lehorregi.

“Hara!”, Axik ezin izan zion karkailari eutsi, “hara, hara, hara! Buztan arintasunak definitzen duen taldea, alegia, kristo guztiak kristo guztiarekin jotzen du larrua, eta, orain, batek gezurra esan duelako espantuka?”.

“Kontua ez da zenbatekin jotzen duzun larrua. Zenbati esaten diogun gezurra baizik”.

“Bai, bai, konprenitu dut. Eta batek, ez egia eta ez gezurra, ez badu nahi bere bikotekideak beste batzuekin larrua jotzerik, zer? Oskar, porejemplo”.

“Ba... saiatu aldatzen...”.

Josebak bazekien eremu arriskutsuan sartzen ari zela, eta askotan gertatzen zitzaion bezala, argudioen antolatzean, arrazoen indartzean hark baino indar gehiago zuela baldin bazekien ere, galdu egiten zituen eztabaidak nahiko lukeena atzendu eta Axiren moduak gero eta gehiago sendotuz, bikote bat ez baitzen bakarrik maitasunaren guda zelaia, ikuspegi klasikoak azaldu bezala, baizik eta bertan bizitzeko eraikin bat osatzen joatea; gelen ordenamendua erabaki behar zen, dekorazioa, janariak, bertako bizimoduaren usadio eta ohituren arteza moldatu eta legeztatu behar zen bikotekidearendako, baina, batez ere norberarendako. Eta Josebak bazekien, zela Axiren oldarrarengatik, zela bere tartekako koldarkeriagatik, zela bakeagatik dezentetan gelak eta altzariak, usadioak eta ohiturak besteak proposaturikoak -are beharturikoak- izateak zilegitasun arazoak sortzen zizkiola; eta gero, Axiren durduzarako, desgaraiz, eraikinaren formari, dekorazioari eta ohiturei buruzko zalantzak azalarazten ziren, “Axi abantaila hartzen ari” zitzaiolako akusazio inplizitua airean.

“Zergatik aldatu behar du Oskarrek? Zergatik ez Juanillok?”.

Josebak ez zuen elkarriketak aurrera egitea nahi. Eguzkia eta ongi pasa zezaten nahi zuen. Ez zitzaion axola Juanilloren eta Oskarren istorio zikin hura.

“Eta zergatik ez elkarrekin ibiltzeari utzi?”.

“Hori ere ez litzaizueke ondo irudituko!”.

“Litzaizueke...?”.

“Ai” bota zuen Axik. Eta gero Joseba besarkatzeko gogoia egin bazitzaion ere, masailak heldu, eta *Ai* errepikatzearekin konformatu zen, guraren eta egin zue-naren arteko tartea errepresioak eragina zelako Jose-baren balizko oharmenari muzin eginik.

Baserriak eta inguruak inurritegia ziruditen zebilen jende kopuruagatik, guztiak atzera-aurrera, ardaila-tsu; halako indar ekin bat nabari zen, ia uki zitekeen giro lodia, usnaturik, erotikoa ere dei zitekeena; jertse eta kazadorak kendu zituzten batzuek, eta tirantedun kamisetetan ageri ziren. Berdin egin zuen Axik, beroa nabariturik; Joseba, uzkurtu egin zela erreparatzean areago bulartu zen baso berdearen kontra, etorri iza-naz pozik, dena ongi, oso ongi zegoela erabakita.

Baserrira sartu zirenean tarte bat behar izan zuten begiak ilunpeetara ohitzeko. Ixkina batean, oholtza txiki eta baxu bat paratzen ari zitzaizkien Iruñekoak.

“Gure mutilak!” bota zuen Txatok.

Gure eta mutilak hitzek berritu egin zioten Axiri behin baino gehiagotan Josebari esandakoa, Iruñeko EHGAMEkoek kuadrilla bat, kuadrilla itxia, bezala funtzionatzen zutela, asko ibili ez arren dezente ezagutzen zituen Pili arrebaren Lekunberriko kuadrillaren antzera; eta, Josebak hasieran hala ikusi nahi ez bazuen ere, denborarekin onartzen hasia zen; Lekunberrikoan, Joseba beraren hitzak ziren, sorbaldan emandako txaplaren pareko ziren ezpainetako musu behartu eta nazkagarri haiek; han zakarkeria -kuadrilla barmeko estatusaren erakusgarri- eta adar jotze iraingarriak zirena, leuntasuna eta neskaka eta *nenaka* ari-tzea zen hemen; baina taldea osatzeko modu berdinak ziren, azken finean: atxikimenduak erabatekoa izan behar zuen. Axik bazekien Txatok bazekiela hori, horrenbeste azkarra bazela, baina ez zuen ametitu nahi.

Oholtza jartzen laguntzen hasi ziren haiek ere. Nahikoa lan izan zuten. Axi ohartu zen Josebak zeharka kasu egiten ziola Oskarri. Lan eta lan ari zen lanak bere baitakotik salbatuko balu bezala. Juanillo ez zen ageri, ez areto nagusian ez bilera egin zuten aretoan. Torloju batzuen bila hara abiatu zenean Kenneth ikusi zuen Lander bilbotarrarekin. Zeloan antzeko zerbaitek

hartu zuen, baina uxatu egin zituen berehala Axitasunean gordez, alegia, bera eta Axi elkarrekin zeudeneko besarkada amultsuan.

“Oso mutil guapoa ezagutu dut” bota zion Axiri, dardara nabariezin bat ahotsean.

“A bai?”.

“Ezetz asmatu?”.

Axik begirada hedatu zuen areto erraldoian barna. Eta berehala jo zuen itua: perilla, giharrak, kamiseta tiranteduna, koadrozko alkandora gerrian loturik, atzeritar itxura.

Begiez seinalatu zuen Axik bekainak pixka bat altxatuz. “Oso ongi ezagutzen zaitut”.

Axik horren azkar asmatu izanak Josebari, uzkurra eragiteaz gain, zeloak mugitu zizkion.

Bere buruari galdetzera zertara doan Bilbora igande arratsalde batean Axi, Lekunberrin, arrebarenean utzita, larrua jo beharra duela aitortu beharko lioke bere buruari, erantzunaren azkarrak egia itxura salatuko ez balu; izan ere, ez doa larrua jotzera, edo ez doa larrua jotzera bakarrik, gero eta gehiagotan basitzen -ia lohia ematen du, dena zikintzen- duen bakardadea garbitzeko asmotan doa. Horretara doa, bakardadea garbi badaiteke, behintzat. Horretara doala badaki, baina ez dio bere buruari aitortzen uzten, bera ez baitago bakarrik, Axi du. Edo Axiren zati bat behintzat, egin du gogoeta, sarkasmora bidean.

Vista Alegre -hara ze izena- zezen plazako parking estali gabeen aparkatu eta Zabalburu plazako galerietan sartu da. Nori bururatuko zitzaion ustez modernitatearen ikur izan beharko lukeen espazio narras hau diseinatzea? Egiturak, gora eta behera egiten duten eskailerek, espazioaren hustasunak, aulkirik ez ego-teak, zorua estaltzen duen gomak, ez-leku bihurtzen dute, bizitzak alde egin eta hustutako eskola dirudien tokia. “Eta non eta hor behar guk marikitok! Bizitza

gaixo bihurtzen den gune horretan; segur aski populatu ahal dugun espazio bakarra”.

Eskailerek nora eramaten duten zalantza sortzen dionez, plazara jaitsi eta galerian barna jotzea erabaki du. Aurrean agertu zaizkio ate itxia eta kartela: EGO. Oraingoan ez doa inor aurrean, lepoak jasota, bizkarrak zertxobait uzkurtuta espia nobela batean bezala gaiztakeria bat egitera; zehatzago erreparatuz gero, ordea, erraza da ohartzea batzuengan espia emate hori tokiak berak eransten duela, dekoratuak izaera eginda; beste batzuengan –armairuratuak, andreekin ezkonduak– ekintzak berak, saunara ezkutuan joateak, zamatzen die sorbalda. Txirrina jo eta kirrink batek adierazi dio atea bultzatzeko unea.

15 euro pagatu eta barna sartu da. “Zenbakia” galdetu dio zerbitzari hegoamerikarrak. “45”.

Txaska egin dute txankletek mostradore gainean paratu dituenengan. Takillaren giltza eskura eman dio. 120 zenbakia. Beti egiten du zalantza 120ak izango ote diren bertan baina badaki ausazkoa dela, behar bada 120 atzotik –larunbat gaua–iragandakoen kopurua izan daitekeela. Nahiz eta takilletan inor ez ageri, lotsatu egin da bertan aldatzeagatik; ez da sekula ohituko horrelakoetara; Axi irudikatu du barrezka. Arropa

arretaz bildu du, Axi Axi ez denetik garaturiko bigarren naturak eraginda -arnasa hartu, gauzetan bost zentzumenak paratu, hemenean bizi, haren geldotasun ikaragarriira ohitu-.

Ispilurik ezean -hor barnean badago bat baino gehiago- bere burua irudikatu du: papar izandako bularra jada erortzen hasia gorabehera, gantz batzuk gerriaren bueltan gorabehera, ongi dagoela erabaki du, nahiz eta bere baitako bere buruaren irudian -besteek konbentzitu behar izan dute kontrakoaz- emakumeendako erakargarriago izan gizonendako baino. Txato irudikatu du irribarrez. “Hara zer queerra zauden egina!”. Lotsak hartzen du horrelakoetan, adinaren kontuak behar dute, gero eta deserosoago sentitzen baita bere gorputzarekin. Gora eta behera aritu da toallarekin gerri buelta disimulatzeke neurri egokia doitzen.

Txankletak sartu eta dutxetako korridorean abiatu da. Horrelakoetara bakarrik etorria da beti, Axi barik, hark, kontratu hura sinatu zutenetik, gaur bertan ikusi duen eta gainbehera datorren Lekunberriko hotel-jate-txe hartan, ez baitzuen nahi izan “horrelakorik elkarrekin egitea” nahiz eta bera saiatu, hasieran bukaeran baino areago. Saunan egondako aldietan, edo Iruñeko

Zimitorioan egondako anitzetan, larrua jotzea baino ez zen, halaxe adierazten zien zera bukatu ondoren telefonoa eskatzen ziotenei: “Nik badut etxean nahi dudana” erantzuten zien harrotasuna ahotsean, bere burua haiek baino goragotzat jotz, Axik eta Josebak, Josebak eta Axik sorturiko bikote berezia haiek ez zuten zerbait zelako; haiek, galtzak oraindik erabat lotu gabe, zakil erori berria galtzontzilloetan sartzen zuten haiek bakarrik zeudelako, miseria sexualaren -Txatok barrezka egingo zion lehendabiziko, eta errieta gero-eremu hartan zebiltzalako. Bakarrik. Bakarrik, bera orain bezala. Hala ere, bera ez da bakarrik, berak erreku-peratuko, erreku-peratzen ari den Axi bat du.

Horrek poztu egin du. Dena konponduko da, eta Landerrek, bakarrik daramatzan urteek bulkatuta, berriz ere iradokiko dio behin baino gehiagotan iradokia, alegia, neurri batean amarrua dela ligatzera joatea, dela sauna, dela Zimitorio, dela aplikazio informatiko, bera babesturik dagoelako, “ni ez bezala” bukatuko du. Txatori kontatu zionean, Txatok prima donna bisai-a paratu zuen, begiak gora egin eta espantuz “milaka larru joagatik beti izan da eta izango da moja xamarra, beharbada, moja delako jotzen du horrenbeste larru, horrenbesterekin; eta gure Etika Marikaren ara-

bera, 'Marika ezin da moja bat izan' bota zion, gero gai batetik bestera jauzi egiteko duen abilidadeari jarraituz, 'eta zer moduz zu zure senarrarekin?', edo 'nire nobio kubatarrak...''.

Bai, benetan egon da gorago? Une batez bururatu zaio Axi ez dela itzuliko Axi zenekotara, eta orduan gogoan dabilkion erabakia hartu beharko du, eta behingoan bukatu. Zastako batez uxatu du gogoeta eta korridorean barna abiatu da.

Gustatu zaion tipo bat dago sauna lehorra eta bainu turkiarra bereizten dituen korridorearen pareko horman; gihartsu eta iletsu, baina ez du begiradaz ere jo albotik iragan denean. Korridore nagusian barnertu da. Jende dezente dabil, hogeita hamar-berrogei inguru horretakoak gehienak. Zahar sentitu da, eta lehenago txitxi iruditurikoa, gantz tripota erraldoia egin zaio orduan. Aulkian eseri da bular eta toallen segidari jarraiki. Denbora batera, sedukzioaren dantza -dorpea, nabariegia, aldakorra, zirt-zartekoa- irakurtzeko gai izan da. Kaskamotz tatuatuak bular oparoko bizardunarekin nahi duenez hondoko kabinetara jarraitu dio bitan-edo, baina bizardunak ez du argi, eta berriz ere, aurreko korridoreetara itzuli zaio; jarrera txulesko-ko berrogeitaka urteko batek -nola izan dateke bat ho-

rrren burgoi horren gorputz mehearekin- bere burua-
ren ustezko begiradak botatzen dizkie ingurutik iraga-
ten direnei, norbaiten kitzikagarri, seguru; gazte hego-
amerikar batek -tatuaje bat darama bizkarrean-, bi-
zardun ilajedun potoloari jarraitu, eta biak kabinan
sartu dira. Altxatu eta kabinen korridorean barneratu
da; ez da entzuten beste batzuetan bezala, azantza
eta larrua jotzeko mugimenduek eragindako kolpe ho-
tsik, aldiz, isilik dago dena, eliza batean bezala; ofi-
ziantetako batzuk kabinetan daude atea zabalik, to-
allaren gainean biluzik, batzuk-batzuk ipurdia eskai-
niz, beste batzuk zutik hankarteak ukituz; baina eskain-
tza gehiegizkoak -orduan erreparatu dio hondoko ko-
rridoreak jendez gainezka daudela- aukeratzea zaildu
eta, ezinezko bihur dezakeelako urduritasuna nabaritu
du airean; eta horrelakoetan, badaki, jendea, bera bai
behintzat, larru hutsik atera daitekeela, grazia egin
dio “esku hutsik” esamoldetik eratorri duen buruta-
zioa. Axi ezagutu zuenean, Artxanda jendez beterik
izan balitz, beharbada ez zuten larrurik joko “gustuko-
ago bat etor zitekeelakoan”. Amodioa hori da, aukera-
tzea, eta aukera gehiegizkoak zapuztu egiten du auke-
ra bera.

Gela ilunerantz jotzea erabaki du. Korridoreetatik abiatu da gorputz ia biluzien artetik iraganez. Hurrengo korridorera sartu denean, ezaguna egin zaion silueta bat agertu zaio. Hurbildu ahala irribarre egin dio, eta hara... Oskar, mirakulu antza, batetik bestera agertzen zaiona, zaiena, erabaki du.

“Hara!”.

“Hara!”.

Irribarre egin diote elkarri eta bizkarrean txapalak eman ondoren besarkatu direnean, Joseba ohartu da ia biluzik daudela, eta lotsatu egin da; lasaitu egin da, hala ere, ematen baitu Oskarrek ez diola erreparatu ere egin. Bere buruari oihu egin dio, oraindik marika askatu gabea delakoz.

“Zer moduz?”.

“Ongi hemen, bueltaxka, badakizu igande arratsaldea eta bakarrik...”.

Zeharka begiratu dio, eta erabaki, denbora pasatua bada ere, Oskarrek hantxe dituela giharrek, oraindik tenk.

“Zer moduz, Sevillatik Bilbora egokitzen?”.

“Ongi” erantzun du Oskarrek.

Larritasuna nabari zaie biei ala biei, inguruan dauzkaten gizonen aukerak berak elkarrizketa haren

zentzua deuseztaturik, denbora galtzearen kontzien-
tzia areagotu eta esan dezaketen guztia hutsaltzen
duela.

“Gero nahi baduzu... elkar gaitezke?” Josebak
esan eta gaizki ulertua sor dezake; hobe, geroz, “Gero
nahi baduzu... zerbait har dezakegu?”; baina, badaki,
saunan norbera bere kaxa aritzen dela, gorputzek eta
zirriek markaturiko erritmora eta, zentzu horretan, el-
karrekin hiruko bat egiteko bere proposamenari Axik
ukoarekin erantzun zion ukoa -argi utzi zion San Fran-
tziskokoaren ondoren sinaturiko itunak- arrazoizkoa
izan zela.

Oskarrek korridorean aurrera egin du alde egitean
bizkarra laztantzen diola. Eta, orduan ohartu da, bat-
batean, beti izan duela gustuko baina ez duela inoiz
jakin Oskarrekiko duen abegikortasun ireki horren
arrazoia haren gorputzarekiko erakargarritasuna dela
(“Bai, bai” aitaturiko zion Axik inguruan izan balu,
“baina behar zintuenean bizkarra eman zenion he-
mengo kazetaritzan asmatutako distantziakidetasuna
deitzen den kontzeptua aitzakia”), zeina, eboluzioaren
milurteko garapenari jarraiki, aldakaren aurreratze ñi-
miñoan nabari baita, edo besoen igurzte ezustezkoan,

edo ninien handitzean, hau da, ekaitz kimiko itzelak eragindako aldaketa txikietan.

Gizonak bere ingurutik iragaten badira ere, ez du inor gustukorik aurkitzen eta badaki, gainera, airean dabilen larridurak ia ezinezko egingo duela zerbait gustuko lortzea desioaren atzentzearen atzentzez.

Gela ilun handian sartu da. Ez da ia ezer ikusten. Gorputz samalda sumatu du Erdiko ohe-koltxonetaren gainean. Eskua sartu du eta zakil bat ukitu. Badaki ez dela hura nahi duena, badaki gerora damutuko dela, badaki... -ergela da gogoeta horrenbeste urte ondoren- Axi traizionatzen ari dela, “Aukera ezazu norbait, eta jo ezazu larrua harekin fundamentuz, mele horretan sartu beharrean” esaten irudikatu du. Gutxi iraun du korritu denerako, baina gorputzen katetik askatu eta dutxarantz jo duenean onartu behar izan du une batez bada ere, ahaztu egin duela Axi eta gertatzen ari zaiona -zaiona-; ahaztu azkeneko zortzi hilabeteak; ahaztu bere burua, ahaztu gero eta tenkorrago iltzatzen ari zaion deliberoa.

Takilletara bidean taberna paretik iragaterakoan Oskar ikusi du barran, bakarrik.

Irribarre egin dio hurbildu ahala.

“Zer? Egin dituzu egin beharrekoak?”.

Joseba lotsatu egin da. Baiezko arin bat egin dio, eta gero eskua altxatu du airean tabernatik harantzakoa mundu urrun bat bilakatu eta aienatu nahiko balu bezala.

“Eta zuk?”.

“Ez nuen gogorik. Etxean bakarrik nengoelako etorri naiz. Behin hemen ohartu naiz ez dudala larrua jotzeko gogorik”.

Marika batek berez nonahi -bereziki han- beti larrua jotzeko ustezko betebeharrari traizioa eginagatikoa desenkusa tonua susmatzea iruditu zaio Josebari.

“Dena ez da sexua”.

Gorritu egin da leku komunaz eta berehala galdetu dio:

“Zer moduz zabiltza?”.

“Hainbestean. Nire bikotekidea... bueno, kontatu nizuen hura... bikotekide ohiak... buruaz beste egin du eta...”.

“Baina nola?”.

“Gaixorik zegoen. Esan nizuen. Baina ez dut horretaz hitz egin nahi”.

“Eta zuek? Segitzen duzu oraindik Asierrekin?”.

Ez daki ezer! Nola jakingo du ez baitute harreman sozialak deitzen diren horien artean eremu komunik.

Egon da, hark bezala, ez *dut horretaz hitz egin nahi* esateko, bere burua bridatu eta barnera begiratu eusteko, Axi Axi zenekotan bezala portatzeko; ezer esan ez, eta beharbadako haien arteko erakargarritasunari bide emateko, baina banan-banan -batere utzi gabe- aletu dizkio gupidarik gabe istripua, gerokoak, neurologoa, tristura, errabia, haserrea, dolua, nora eza, lana uztea... Dena. Iruñeko Udalak ukatu dien igo-gailuaren baimena barne. Mendeku arrastoak nabaritu ditu.

Bozgorailuetatik Benito Lertxundiren kanta bat zetorren. Eta handik gutxira La Markeliñeren ahotsa entzun zen, “Kaixo ongi etorri lehendabiziko Gayakan-padara”. Jendea, egiten ari zena utzirik, zutitu, eta zegoen tokian gelditu zen; estatua baso bat ematen zutela pentsatu zuen Josebak; batzuk bere baitara bildu ziren, beste batzuek gora begiratzen zuten, beste batzuek euskararen arrarotasuna dezifratu nahi zuten. “Espero dugu aurtengo hau ongi ateratzea eta urteetan errepikatzea. Ongi etorri, beraz, askatasun -hitza azpimarratu zuen bolumenak gora eginda- espazio honetara”. Ez dago esan beharrik jarrera homofobo guztiak tokiz kanpo daudela hemen. Gay jendeok ghetotik kanpo harreman normalizatuak izateko sortu dugu. Lehendabiziko urtea izateko jende dezente etorri da, gehienak gizonak, hala ere”. Axik aretoan zeuden neska bakanak bilatu zituen: kamioiak. Miren Akerreta adiskide eta erredaktore burua etorri zitzaion go-gora; hemen egon beharko zuen. Esan gabeen elkar ulertu zuten biek, Mirenek Axi gizonekin oheratzen zela; Axik Miren neska batekin hasi berrian zebilela,

hango nabarmenkeria haiek guztiak gabe. Ingurura so egin zuen, berriz ere, Mirenek albistegietarako eskatu zion badaezpadako kronika hari nondik helduko..

Markel mintza-ederregia zen, euskara joriegia eta dotoregia erabiltzen zuen.

Gero, esandako guztia bota zuen berriz ere. Asko gustatzen zitzaion bere burua entzutea, mikrofono batetik bazen, hainbat areago.

Gaztelera ere dotorea zuen ordea, hiztegi zehatza, egoki esaldi orotan, euskaldunek zuten hitz zakuak erabiltzeko joeraz bestela. “Askatasun eremua”, “Gu, EHGA Bizkaia”, “Espero dugu...”, “Ongi pasa baina batez ere izan aske!”. “Eta marika iraultzailueeeaaakkkk!” garrasi egin zuen norbaitek. Josebak apustu eginen zuen Txato izan zela, baina Txato ezkerretara zegoen eta garrasia eskuinetatik etorri zen.

Afaltzeko esertzeko orduan ailegatu zenean, Josebak uste izan zuen Axi ohartu egingo zela Kennethen inguruan eserarazi nahi zuela, eta zalantza egin zuen non eseri; eta erabaki zuenerako, Axi bere erabakia- ren esperoan zegoen Josebaren asmoez oharturik, Kenneth Txatorekin eserita zegoen, Pedro de Cadi eta Eduardekin batera. Bazekien suarekin jolasean ari zela, baina jakiteak kitzikatu egiten zuen, Kennethen

gorputz lerdenak baino areago, edo Axirekin partekatzek sortu irudi lizunak baino areago desira bere baitara bihurturik, desirak berak kitzikatzen zuen gehien. Baina jada ez zuten tokirik.

Bazter gelditu ziren. Axik ezezagun bat zeukan aurrean, ezkerretarantz Cadizko ezdakitzer; haren ezkerretara, Eduard, eta harantzago Txato, eta gero Kenneth. Eta harantzago, Oskar. Eskura, hitz egiteko moduan, Juanillo eta haren La Radical Gaiko amorantea. “Hala amorantea! Behin larrua jo eta amorantea!” entzun zuen Axi bere baitan.

Axik eskertu egin zion Josebari berak egingo ez zuena egin izana. Mutil atzerritarrarengana ailegatu zenean “nire nobioa... Asier; Kenneth, San Frantzisko-koa”.

Axi lasaitu egin zuen Kennethek Cadizko mutiko harekin zerabilen dena delako hizketa tarteko -apustu eginen luke homosexualitatea zela, nola ez?- eskua eman eta bekain altxatze arin batekin konformatu eta berera segitu izanak. Bazekien orduan Josebari belarrira hurbildu eta “zer, ez dizu kasurik egiten?” botako balio, hura, faltan harrapaturik, urduritu eta izerditan hasiko zela; areago begiratzearekin bakarrik lortuko zuen gogoak agintzen ziona egitea, neurri batean ze-

loak jota baitzegoen, ez Josebak Kenneth gustuko zue-lako -nabarmentzeraino nabari zitzaion eta berari ere gustatu egiten zitzaion bizar errubio eta bizkar zabal haiekin- baizik eta Josebak alde egin ziolakoz.

Afaria ez zen bizitu. Pedrok eta Kennethek haien artean segitu zuten hizketan, Txatok Eduardekin jardun zuen, Lander bilbotarra mutu zegoen eta Axiren ezkerrekoak bere ezkerretakoen eremura lerratu ziren. Biak ala biak gelditu ziren aurrez aurre, nahiz eta bata bestearen alboan izan; eta ez zeukaten zertaz hitz egin, ez baitzeukan zentzurik han etxeko arazoez mintzatzeak, edo familiaz, edo lanaz, edo ohiko beste gai batez.

“Zer moduz lana?” itaundu zion Josebak, galderaren azpian ironia erantsiz.

“Ondo”.

Eta han utzi zuen Axik, hobe isilik ergelkeriatan aritzea baino.

Baina, une baten ondoren nahiz eta interes gehiegirik ez izan bota zuen: “Zer moduz joan da bilera? Konpondu dituzue munduko homosexualen bizitzak?”.

“Homosexualon”, arrapostu egin zion Josebak gogobetarik Axiren komentarioa afariaren mekanismoa koipeztatzeko modua zela jakinik.

Joseba zaputzak hartu zuen, gogoaren zolan -go-goak bihotzaren moduan zola izateraz, jakina- esperantza handiak zituen asteburu hartarako, ez zekien, Axirekin errutina bihurtzen ari zitzaion harremanaren hegaka haste bat edo, eta zola-zolan azkeneko bi hila-betean ernetzen joan zitzaion desira lauso bat, denborarekin zehazten Kennethen gorputzean gauzatu zena. Ikustearekin bat gustatu zitzaion, berehala ohar-tu baino areago nabaritu zuelako gorputzak hari ere bera gustatu zitzaiola, desioa ispiluarekin indarturik nartzisismo ariketan barneratuz.

Axik susmatzen zuen zergatik zegoen Joseba zaputzurik, eta horrek errabia eragin zion lehendabizi, berarekin ez zuelako nahikoa -libertitu egin behar zuen, ondo pasatu, gay-politikan (sic) aritu, noiz eta zuela urtebete berarekin nahikoa baino gehiago zue-nean-; gero, ordea, Josebari zer gertatzen zitzaion igartzeak nagusitasun epel bat eragin zion, lehen amodio bidez esku ahurrean txori baten moduan harrapaturik zuen Joseba hura, nortasunaren ezagutzak zemaion iragartzeko abilitadearekin harrapatua baitzuen. Sorbaldatik pasatu zion besoa horregatik, oraindik ere berea zela aldarrikatzeko.

Areto nagusian musika paratu zuten. Jendeak bat-batean elkarri so egin zion, ustekabeen harrapaturik, zer egin ez zekiela. Altxatzen hasi zenean Markelen ahotsa entzun zuten bozgorailuetatik: “Mesedez, altxatu baino lehen mahaiak bildu behar dira, bukatzen duzuenean etorri denok areto nagusira, festa hasteko sorpresa dugu-eta! Mesedez”.

Pedro de Cadik gazteleraz “Ai ze matraka bi hizkuntzekin!” bota zuenean isiltasun deserosoa egin zen.

“Bi hizkuntzen asunto hau nahiko matrakosoa da” desenkusatu zen, ingurukoen elkartasuna jasoko ez zuela jakinda.

Josebak uste izan zuen orduan Axik uste zuela Txatok zer edo zer esan beharko ziola Pedro de Cadi-ri. Eta berak ere hala uste zuen, Txatok bere gaytasunaren gainetik euskalduntasuna paratu beharko zuela, eta zerbait adierazi.

“Nena, hemen bi hizkuntza mintzatzen dira” bota zion Eduard katalanak.

“Barkatu, ez naiz oso egoki aritu”.

Gauzak biltzen hasi zirenean bajillaren txintxin soinuak zigarroen ke eta ahotsen zarataren artetik oihartzun egiten zuten harrizko hormetan, eszena guztiari

soinu parentesi bat ezarri. Zarata ia zurrumurru bilakatu zen, eta gero ia isiltasun, jende guztia egiten ari zenean buru-belarri. Orduan ozenagoa egin zen oihartzuna. Josebari iruditu zitzaion txintxinek bizi hartu eta gora egiten zutela ia Bachen Mi minorreko Mezakoruko bihurtzeraino. Irreal sentitu zen eta Axi ukitu behar izan zuen materiaren mailara jaisteko. Orduan ohartu zen Kenneth ere haien ondoan ari zela gauzak gurdi handitan biltzen. Goizeko gantza eta izerdi usaina egin zitzaion gogoan, baina, sudur mintzak behartzean, tabako eta janari hondakinen usain nahasiak baino ez zituen aditu. Irribarre egin zion Axi ohartuko ez zelakoan. Ez zekien zergatik sentitzen zen horren errudun. Ez ziren inoiz mintzatu haien artekoak nola izan behar zuen. Gauzak etorri bezala -Txato entzun zuen belarrian xuxurloa: "Erakutsi dizkiguten bezala"- etorri ziren, mintzatu gabe ulertu zuten bien artekoa zela harremana, eta ezin zela beste inor sartu; Josebak ametitu behar zuen ordura arte ez zuela beharrik izan, ez zen inorekin oheratu, eta, bazekien Axi ere ez zela inorekin oheratu. Pentsatu ahala erridikulu samarra iruditu zitzaion segurantzak hura. Elkarrekin bizitzeak ez zuen bat aratz egiten, Txato, berriz ere, oraingoan irribarre maltzurra ezpainenetan. Haien ingu-

rukhoa bukatu zutenean ardailan abiatu ziren areto nagusirantz. Axik erreparatu zion mutil atzerritarra haiekin zetorrela. Areto nagusira ailegatu, eta, eszenatoki-ko argi ahul bat izan ezik, dena ikusi zuenean zarata ozena zurrumurru bihurtu zuen jendeak. Zurrumurrua isildurik, arreta egin zen. Bitartekoak exkaxak ziren, mikrofono bat zegoen erdian, boa gorri bat zintzilik zuela eta, Axik begiak ezker-eskuin mugitu zituen, bozgorailu exkax batzuk. Hirurogeiren bat izango ziren, eta, bataren eztula, bestearen xuxurloa, beste-teen zurrumurrua nekeza egingo zitzaien denen belarrietaraino ailegatzea. Bizkar aldetik mugimendua sumatu zuten eta itzuli egin ziren. Kenneth zuten atzean. Eta atzeagotik hiru zetozen. Peluka gorri luze bat ageri zen jendearen buruen gainetik. Hurbildu ahala emakumez jantzita zetozela ohartu ziren. Txato egin zuen lehendabizikoa: soineko beltza zeraman, larruzko lepoko zuria eta buruan peluka zuri luzea, lepoaldean lepokoarekin nahasten zitzaiona. Dantzan zetorren besoak zabalik jendea bere baitan hartu nahiko balu bezala. Atzetik, Eduard iruditu zitzaion Axiri, peluka errubio bat eta gona motza. Ondotik pasatu zenean zuztarrak egin zitzaizkien hanka meheak. Eta ondoren al-

tuena, ezagutzen ez zuen mutil bat orain arte erreparatu gabea.

“Nor da?” galdetu zion Josebari.

“Santi Altxu. Erreteriarra”.

Altua eta gizona. Bizarra zeukan. Peluka gorria, ia gerriraino erortzen zitzaion. Gorputzaren bolumen handia lepo atzean loturik zeraman halako ehun nabar batek estaltzen zion batere graziarik gabe; izter margulak ageri ziren soinekoa izan nahi zuen oihal zarpail haren azpitik eta, gorputz erraldoi haren bukaeran, eszenatokira igotzean erreparatu zion, zapata takoidun gorriak.

“Gabon” hurbildu zen Santi Altxu mikrofonora.

“Gabon” erantzun zuen jendeak.

Besoak mugitu zituen, erakuslea gora, eta bozgorailuetatik halako musikaska bat ailegatu zen, gitarra akustikoa, flauta, bateria antzeko bat.

Hirurak hasi ziren koreografia egiten –besoak altxa, gero jaitsi, gero aldakei eragin batera eta bestera Giorgio Aresuren taldeko dantzariak bailiran– ahoa- rekin bozgorailuetatik zetorrenaren kantatzeko itxurak egiten.

Tenía un novio en Alsasua,

ella vivía en Tolosa.
No se veían gran cosa
por culpa de la distancia.
Pero como no faltaba amor,
ni el descuento de familia numerosa,
metió sus trapitos en una bolsa
y se fue a coger el tranvía,
un buen día, qué alegría...

Axik letrari baino atzeko afixei erreparatu zien. Ba-tean “Ezbai jardunaldiak / Jornadas de debate. COFLHEE. EL COLOR ROSA DE LA LUCHA” ageri zen idatzita gizon gazte baten irudiaz lagundurik. Txano antzeko bat zeraman, belarritako borobil handiak eta hiruki arrosa kopetaren erdian.

Musika azkarrago eta jostariagoa bihurtu zen.

Alegria, Ikaztegieta,
Itsasondo, Legorreta,
Ordizia, Beasain, Beasain apeadero.
Ormaiztegi, Gabiria,
Zumarraga, Legazpia,
Brinkola

Hirurek jauzi egin zuten melodiak kio egiten zuen bitartean Brin-ko-la.

Zegama y Alsasua.

Ondoko afixak “Faxismoaren aurka” zioen, eta nazi batzuen argazkiaren azpian Hiruki arrosa batek esbastika bat txikitzen zuen.

Y en la plaza se citaban,
se veían y se miraban.
Y a la hora de la verdad
no hacían nada de nada.
Siempre en el mismo tranvía,
andén primero, segunda vía,
siempre el mismo maquinista,
siempre el mismo interventor,
que de ella se enamoró.
Y le dejaba fumar,
y asomarse por la ventanilla,
descender del tren en marcha,
poner los pies en la silla.
Y con billete de segunda
le dejaba viajar en primera.

Y al final le montó un piso
en el coche litera.

Beste afixa batean “Bórrate” paratzen zuen. “La iglesia justifica la pena de muerte y la guerra. La iglesia llama a la discriminacion de las personas por su condición homosexual. Bórrate”.

Alegria, Ikaztegieta,
Itsasondo, Legorreta,
Ordizia, Beasain, Beasain apeadero.
Ormaiztegi, Gabiria,
Zumarraga, Legazpia,
Brinkola

Berriz ere jauzi egin zuten denak jauzi egitera animatuz besoekin.

Zegama y Alsasua.
Como en muchas otras canciones
aquí también hay moraleja:

Eskuekin gauzei neurria adierazteko keinua egin zuten.

Más vale tener un novio en la Renfe
que un novio de vía estrecha.

Leloak aurrera egin zuen: Alegria, Ikaztegieta, Itsasondo. Legorreta... Brinkola ailegatzean -ikusleek bazekitenez- jauzi egin zuten. Txalo eta txistuekin bukatu zen ikuskizuna. Txatok mikrofonora hurbildu, eta garrasi egin zuen:” Orain, nenas, ongi pasa. Bihar ak-tuazio gehiago”.

Besoa sorbalda gainera bota zion Axiri Josebak. “No al 92 sí al 69” paratzen zuen beste afixa batek. Harritu egiten zuen haren giharren mardulak, zerbait gogorra eta aldi berean biguna ukitzea bezalakoa zen, eta ez zen bakarrik giharren mardulari buruzko zerbait, ez, beste zerbait zen. Behin Txatok esan zion bezala: “Bai, gihar tonua baino ez da hori. Batzuek, zure Axik bezala, handia dute, beste batzuek, zuk eta biok esaterako, txikia”. Eta titira bota zion eskua gero, eta giharra atximurraren indarrera zeinen erraz berazten zen nabaritzean ez zitzaion gustatu. Ardailak hartu zuen, eta batzuetan gauza ezezagunek, edo besterik gabe, ustekabekoek sortzen zioten eremu nabar horretan topatu zuen bere burua.

Axik irribarre egin zion tren bidaiariak nola jaisten ziren begiratzen zuten bitartean. Santi Altxu takoiekin jaisteko nola moldatzen zen zain zegoen, eroriko zen esperantza aitorrezinak gogoia losintzen ziola. Epel nabari zuen Josebaren besoa sorbaldan. Oraindik ere izugarri gustatzen zitzaizkion Josebaren eskuak; etzanda zegoela zakila hartu eta, txandaka, eragiten ziotenean indartsu eta erraldoi iruditzen zitzaizkion; haiek begiratzeko propio burua altxatzen zuen. Ez zuen esanen esku-lana egindako batenak zirenik, baina ez eta eskuekin boligrafoa hartu baino egiten ez zuen batenak ere.

Eskua Axiren sorbaldan zuela sorbaldan beste esku bat nabaritu zuenean, berehala jakin zuen Josebak norena zen eta zer nahi zuen. Eta, hortik aurrera zer egin behar zuen jakitearekin bat, gogo zurrunbiloa gelditu egin zitzaion, gauzak luzaroan esperatu eta prest dagoenaren lasaitasuna egin zitzaiola.

Eskuinetara so egin zuen. Hantxe, bera baino baxuago, perilla errubioa, koadrozko alkandora irekia eta kamiseta zuriaren peko gihar sendoak, begiak ilunpetan, eskua, aukeran txikiegia. Irribarre egin zioten elkarri.

Josebak, arestiko bakea birrindurik, oinak mugitu zituen orekaren bat bilatu nahian. Ez, ez eta ez. Zuela segundo batzuk ziurra eta egiteko modukoa zirudiena, ezinezkoa bilakaturik honezkero. Kennethek eskua kendu zionean sorbaldatik, Joseba nahigabeak hartu zuen. Baina zergatik ez? Ez zuten ba beste mundu bat sortu behar? Zer haiei heterosexualen arau ergelak? Kennethen eskua sorbaldara itzultzea desiratu zuen, eta animalia baten moduan bertan gera zedin, mugimendu txikien bidez haren bizitza aditzera emanaz.

Atzetik pasatzen nabaritu zuen. Sorbalda ukitu zion jende askoren artean bide egiteko ukitu moduan. Axiren ezkerretara jarri zen eta besoa bota zion sorbalden gainetik. Axik zeharka begiratu zion, eta irribarre egin. Bazekien zer gertatzen ari zen. Ezezko erraldoi bat sortu zitzaion. Zergatik? Baina aldi berean, halako berotasun batek hartu zion hankarteia, odola hara zihoakiola irudikatu zuen "Faxismoaren aurka" irakurri bitartean. Santi Altxu trinkilin-trankalan hurbildu zen oholtza ertzera, airean paratu zuen hanka bat, zapata gorria ikusi zion Axik, eta halako batean beste hankak oker egin zion. Burua begi bistatik desagertu zitzaion. Axi mugitu egin zen pixka bat erori ote zen ikusteko. Lurrera ailegatu baino lehen lerrokoek hartu zuten

bere pisutasun guztian. Barrez lehertzeaz zegoen bi mutilen besoetan, Txato inguruan zuela. Biren bi beso zituela sorbaldan nabaritzeak odolaren jario burrunbaria azkartu zion. Biren bi beso.

Kenneth kanpo aldera hasi zen jendearen artetik. Elkarri begiratu zioten Josebak eta Axik. Haren atzetik hasi ziren.

Aretoaren atarira ailegatu zirenean bizkarra ukitu zion Josebak Axiri.

“Seguru zaude?” galdetu zion atzera itzuli zenean.

“Zuk hala nahi baduzu!”.

“Ez da nik nahi izatea ala ez. Zuk nahi izan behar duzu”.

Axik ez zuen baiezkorik esan, buru keinu arin bat egitearekin konformatu zen.

Joseba beldurrak hartu zuen. GIB. Hiesa. Axiri esan beharko zion, baina noiz? “Orain ez, desdeluego”.

Julio Llamazaresen *La lentitud de los bueyes* poema liburuaren tituluarekin akordatzen hasia da azken hila-beteetan, haren bizimodua, haien bizimodua hobe, istripu ondoko ardaila eta abiadura jabaldurik, geldotasunean, idien geldotasunean, eroria delako, hainbeste, psikologoak agindu ariketa atergabeak behar izaten baititu gogoia eta gorputzaren arteko desegokitzeari eusteko.

Geldo jaitsi ditu eskailerak, geldo hartu dute Santo Domingon gora, geldo iragan dute Udaletxeko plaza, geldo egin dute La Jacoba igarobidean barna, geldo iragan dute Gaztelu enparantza hutsik arratsaldean.

“Axi, ez nekien monumentu honen aurkezpen prentsaurrekoan egon zinela”.

Axik estatua multzoari so egin dio. “Zergatik gaude Iruñean?” galdetu dio bere buruari. Ez du ezer han, hutsik dago bere burua eta hori berdin zaio. Halako burrunba bat nabaritu du. Eta, gero, ezer ez. Bartzuetan itzali egin dutela ematen du.

“Bai. Zer urtetan gaude Joseba?”.

Joseba ez du galderak harritu, baizik eta galdera egiterakoan bere izena ahoskatu izanak. Joseba. Ez dago seguru Axiren ustezko aurrerapenen arrastoa ote den, baina baiezkoa iruditu zaio, ez Axi ez delako bere izenaz akordatzten baizik eta ahoskatu izanak non eta zertan dagoen adierazten duelakoz.

“2013ko uztailaren 23a da, Axi, asteartea. Eta nonbait hemen bizi zinenean, 1992 urtean eskultura honen muste ekitaldian egon zinen”.

“Paradoja dinamismo congelado!” bota du Axik, ia alai, gazteleraz.

Joseba barrez hasi da Axiren poza nabariturik.

“Zer esan nahi du horrek, Axi?”.

Axik sorbaldak jaso ditu, eta duela hilabeteko Axi hura egin zaio Josebari, azken egunetan baino askoz galduago.

“Zer esan nahi du, Axi, noiz entzun zenuen? Aurkezpenean?” bota dio.

Axik atzera egin du brontzezko oinarrian bermatzeraino.

“Ez dakit”.

Jakin du ez jakitea gaizki dagoela. Akatsen bat egiten ari dela. Sirenak entzun ditu eta haien bila mugitu

ditu begiak arakatzaille, baina ez dago sirenarik. Zer gertatzen zaio, zergatik ezin du gogoratu. Sirenak.

Aurrean du Joseba; bisaia mudatua du.

“Ez zara akordatzen?”.

Eta sirenekin, argiak, eta argiekin... gizon bat pren... nola esaten da? kazetariak, bera, kazetaria zelakoz, prentsaurreko batean gizon bat... zinego... nola esan zinegotzia zen... eta hori esan zuen.

“Bai”.

Eta halako batean bere baitatik sortuta besotik heldu du Axik Joseba.

Besotik heldu dit. Besotik heldu dit. Besotik heldu dit. Berez sortuta besotik heldu dit.

“Besotik heldu didazu?!”.

Axik pentsatu du Joseba ergela dela, zergatik ez diot ba besotik helduko, nire nobioa da.

“Dinamismo congelado. Paradoxa bat. Gizon batek esan zuen eta Miren argazkilariak barre egiten zuen”.

“Eta noiz izan zen hori, Axi?”.

Joseba ergeldurik dago, horrelako galderak...

“Hemen lanean egon nintzenean. Uste dut 92an izan zela”.

Josebak besarkatu egin du eta, zergatik jakin gabe, eskerrak eman dizkio brontzezko eskultura mul-

tzoari. Zezenei, lasterka doazenei, baita zinegotzi baten aurpegia brontzezko mutil eroriari ere; eta pentsatu du gertatu zaion guztiarekin Erroma garaiko hiritar greziarra ematen duela, jainko guztiei –dena delakoei– errezo eta gur egiten diela badaezpada ere, salba dezaten dagoen ataka horretatik; ekar dezatela Axi bere baitara. Horregatik ikusi du begi berriz eskultura, Egeo itsasoaren ertzeko eskultura-aldare baten moduan, non jainkoei derrigorrezko sakrifizioen ondoren errukitsuak izateko eskatzen baitzaie.

Gora egin dute Carlos III.a etorbidean Maia kaleraingo. Batzuetan psikologo eta arnas eta budismo eta bere baitan egote horren guztiaren ezdeuskeriak gorabehera, nekeza egiten zaio aurrera egiteko adorea biltzea; Axi prestatu eta non utzirik ez duela, harekin lruñeko kaleetan aurrera egin ahal izatea. Axi. Ez oneratzera, horrela oroimen arazo latzekin gelditzera, Axik nahiago lukeela hil eta zentzu horretan...

Guillermok berak ireki du atea. Txirrina jo aurretik paratuko duen harridura imintzioa igarri izanak, halako nagusitasun plazerñoa eragin dio Josebari, eta jakin du, egun horretan kontra egingo diola, irabazi egin beharko dituela psikologoak kobratzen dizkion 32 euroak, zeinak, dena esatera, ez zaizkion garesti, aurretik

biek aurrezturiko diruaren babesak kontuan izanik. Babesa, Pilik -oraingoz tutore ofiziala, ongibidean epai-leak bien arteko harremana izan badela onartu eta bera tutore egin arte-, ongi portatu, eta ez diolako arazorik paratu. Ezkonduak behar zuten, baina ametitua beharra du bikote hartan Axik esandakoa egin izan dela beti.

“Axi, ez nuen non utzi”.

Guillermok eskua eskaini dionean, Axik eskua hartu dio eta eutsi, burua jiraturik Josebaren begirada erantzulea bilatzen duen bitartean.

“Guillermo da, nire psikologoa”.

“Psikologoarengana joaten zara? Zer gertatzen zaizu?”.

Josebak Axi-lotsa izan du. Guillermori begiratu dio ezkaratzera sartzean, auzo lotsaren arrastorik-edo aurkitzen duen psikologoaren bisaian, baina zurruntasunaren erdian halako irribarre abegikor bat baino ez da ageri.

“Axi, eseri hor, berehala bukatuko dugu eta”.

Liburuz inguraturiko gelan sartu eta aurrez aurre eseri dira.

“Bueno, nola joan dira hamabost egun hauek?”.

Josebak ez du jakin nondik hasi.

“Ongi egongo da hor kanpoan?”.

Guillermok baiezeko arin bat egin dio. Beste baiezeko arin batekin erantzun dio Josebak.

“Ez zaitez kezkatu. Zerbait egingo balu entzungo genuke”.

Nagiak hartu du. Zer egiten du han? Zer zentzu du norbaiti galdutakoaren istorio atondu eta apailatua paratzeak noiz eta ematen duenean Axik ez duela aurrera egingo, eta, azkenean gogoan erabili behar duen ideia hori ia-ia haragitu zaionean.

“Zer darabilzu gogoan?” galdetu dio gaztelera dotorean.

Joseba ez da ausartu esatera, dela etikaren eremua barreiatzen duelako, dela maitasunaren lege zorrotzak hausten dituelako, dela iruditzen zaiolako bere burua gehiegi erakusten duela; ironikoa, beldurra, psikologoarengana horretaraxe joaten baita, bere burua erakutsi eta konpontzera.

“Gauzak beste modu batez izan balira sikiera!”.

“Nola gustatuko zitzaizun izatea?”.

“Iruditzen zait azken boladatxo honetan Axik aurrera egin duela; askoz inizatiba gehiago dauka, eta oroimena luzatzen ari zaiola... iruditzen zait”.

“Zer esan nahi duzu, orduan, *sikiera* horrekin? Axiri bihotzekoak eman ez balio zuen bizitzarekin jarraituko zenuketela”.

Josebak ausarta izatea erabaki du.

“Nahiago nuen hil balitz!”.

Esan du, behingoan.

“Eta uste dut hari ere aukera eman balitzaio, nahiago lukeela”.

Isiltasuna. Leihoa. Zuhaitzen kukulak, bertantxe, beiradura zeharkatu eta barna egin nahian. Ez du ihes egiteko begirada handik hedatu nahi.

“Arruntez, nolakoa den jakinda”.

“Zer sentitzen duzu? Noiztik daukazu sentimendu hori? Zein indar du?”.

Hiru galderek oskolean sarrarazi dute Joseba. Izan ere, behin edo bitan baino ez zaiola bururatu pentsatu du hasieran, baina gero onartu behar izan dio bere buruari Sarriren poema hartan bezala ura ibaiaren azpitik doala, oharkabean, isilik, ezkutuan...

Axik, gainera, argi adierazi zion, San Frantziskoko *hiesdun* hark pasatu zituenak pasatzea baino nahiago zuela hil. Josebak bere burua madarikatu du kuxin lako gogoeta, zeinak deliberoa hartzea erraztuko baitio, Guillermorekin partekatu izanagatik.

“Ez da ezer. Ez dut horretaz hitz egin nahi”.

Ohartu da Guillermo noraezean ari dela, hitzen bila, bere psikologo autoritateari eragindako hozka berdindu nahian.

“Zerorrek ikusiko duzu, baina honaino etorri eta gauzen benetakotasunera ez bazara jaisten dirua eta denbora alferrikaltzen ari zara” bota dio Josebari, “uste dut gainera ongi etorriko litzaizukeela buruan darabilzun sentimendu hori –sentimenduak gorputzetik gogora egiten duten korronte elektrikoak dira– onartu eta lantzea”.

“Nik ez dut Axi hil nahi” oihu egin du.

Orduan kukulu berde eta hautsez estalitakoetan galdu du begirada, zertan ari den bere buruari galdezka.

“Jakina ez duzula hil nahi. Baina, esan, zuhaurrek esan duzu nahiago zenukeela hilik balego”.

“Bai, eta halaxe gertatu balitz hobe” egin dio erronka Josebak, gauzak gainditzeko ohiko moduari jarraiki. “Berak ere nolakoa den ezagututa halaxe nahiko zuen”.

Joseba ohartu da biak ere ohartu direla berak erabilitako orainaldiak seinalatzen duen hutsuneaz, edo zuloaz, edo dena delako azalgaitz horretaz.

“Zer sortzen zaizu hori pentsatzen duzunean?”.

Josebaren kartolak ireki egin dira.

“Ez zait ezer sortzen. Hari begiratzen diodanean –hortxe egongo da eserita, bere baitaratua, bere baitan ezer ez duela (behin baino gehiagotan aipatu dit hutsik dagoela barrutik)– eta gure egoera gordin-gordin agertzen zaidanean etortzen zait ideia hori gogorra, eta jakinda nolakoa zen, zein gutxi gustatzen zitzaiion gaixorik egotea eta...”.

“Zure burua aske agertzen zaizu?”.

Harrapatu du; Joseba, bere ohituren kontrara ametitutu eta aurre egin beharrean, isildu egin da bere buruari ere harrigarria egin zaion nerabearen jarreraz.

Eta, bai, azken boladan bere burua aske agertzen zaio, Axiren geldotasun pisua garraiatu beharrik gabe, dolutan, minez, bakarrik, baina aurrerantz bide mal-kartsuan zehar, eta bukaeran kukulu berde batzuk, eta gero zelaia, eta gero...

“Ez dakit zergatik etortzen naizen hona”.

“Zergatik badakizu. Zertarako galdetu beharko zenioke zeure buruari” bota dio Guillermok, zorrotz.

Josebak sutu aldian aurrera egitea erabaki du. Jada ez du ikusten...

“Zuk New Agea, budismo pixka bat, kontsolamendua, onartzea besterik ez duzu eskaintzen. Zuk zer dakizu 20 urteren ondoren zure bikotekidea horrela gelditzeari buruz. Onarpena!, notejode! Hortxe zaude, butaka horretan eserita, lagundu beharrean, epaitzen. Bai, batzuetan hilik egotea nahiko nuke, baina onarpena... zuk eskaintzen didazun onarpen budista ergel hori ez da nahikoa, nik erantzunak behar ditut”.

Arnasa hartu du eta Guillermoren harri lako bisaia-ri so egin ondoren “erantzunak” hitza errepikatu du.

Biak gelditu dira isilik, handik aurrerakoa nola bukatuko den susmatu barik. Josebak pentsatu du Guillermok beharko duela iaioa gauza horietan, Landerrek hitzetik hortzera erabiltzen duen gatazken konpontzeko bidean, “conflict resolution” zorioneko horretan.

“Nik ez dizut onarpena bakarrik eskaintzen, baina onarpena da duzun aukera bakarra. Eta zure buruan gertatzen ari direnak ere onartu behar dituzu. Bada urtebete pasatxo Asierri hori gertatu zaiola, eta ezin duzu borrokan segitu”.

“Urtebete eta bi hilabete, gaur” moztu dio Josebak.

“Horixe, igual du. Onartzen dut oraindik dolutan ari zarela, baina jakin ezazu, eta nire betebeharrak profe-

sionalari ezin diot muzin egin, onarpena baino ez zai-
zula geratzen. Egoerarena, eta zure baitan sentitzen
duzunarena, gauzak -erabil dezagun eufemismo bat
nahi baduzu- bestela gertatu balirako sentimendua
barne. Ez dago besterik. Eta lehenago esan nizun be-
zala, ezin baduzu, beti daukazu Axi uzteko aukera.
Erresidentzia batean sar dezakezu, esaterako”.

“Bai, horren jakinaren gainean nago” gezurra esan
dio, “baina ez dut nahi”.

“Gainera ongi jarriko da!”.

“Eta ez bada jartzen?”.

Guillermoren galdera azpi jokoa iruditu zaio.

“Jarriko da”.

“Jarriko da” errepikatu du.

“Uste dut utzi egin beharko genukeela” bota dio.

Sutu aldia iragana zaio eta halako lasaitasun hotz
bat nabari du, beharrezkoa egiteak eta pentsatzen ari
dena egiteak ematen diona.

“Ez dakit gaurkoz”, sadismo ukitua nabari du bere
baitan, “ala betiko, abisatuko dizut”.

Altxatu egin da eta bekoz beko so egin dio Guiller-
mori, baina itxitura bat baino ez du antzeman psikolo-
goarengan.

Atea zabaldu duenean oinetara agertu zaizkio al-dizkariak; *Lecturas, Hola, Muy Interesante, Psicología hoy, Diario de Navarra...* Agerkarien arrastoari jarraitu dio Axiren hanketaraino. Gora egin du haren galtza bakeroetan gora. Zangosagararak, sikatzen hasiak honezkero; izterrak, hankarte hila, bularra; Axi eta ironia ez balira oximorona, esango luke irribarre ironikoa ageri zaiola ezpainetan.

Egon da “zer egin duzu?” galdetzekotan; egon da zaintzaileari dagokion ardura harturik errieta egitekotan, baina plazer gaixo batek hartu du, eta Axi besotik heldu, eta agerkariak zapalduz, kanpora atera dira ezkerretara so egin eta Guillermo oraindik silloian eserita ageri dela. Seguru ez zaiola horrelakorik inoiz gertatu.

Bada zentzurik honetan guztian, hementxe, Axirekin geldo, oso geldo, jaisten ari den lehendabiziko pisuko eskaileretan behera berriz borborka dabilkion herraz gain? Hasia da bere burua ezagutzen ataka horietan; badaki gero barealdia ez ezik tristura etorriko dela eta histasun batek oro tindatuko duela.

Kalera atera dira. Kukuluak urrutiago daude. Telefonoa hartu du. Luzea egin zaio San Juan auzoraino, Txatoren ileapaindegiraino joatea, gurutzebidea kan-

poko geldotasunaren eta bere baitako sualdiaren artekoa batzen saiatzea.

Markatu eta berehala erantzun dio Txatok beste aldetik.

“Ez, ez goaz. Ezin dut. Haserre nago. Ezin izango dut honekin, Txato. Batzuetan uste dut erotu egingo naizela. Bihar goizean... Axi Padre Ligeti klinikan dagoen bitartean”.

Ez die kasu gehiegirik egin Txatoren lasaitasun hitzei. Axik irribarre ironiatsu antzeko bat du. Gaur, beharbada, aurrerakuntzen eguna da; eta hala ez bada... beharbada erabakia gauzatu beharko luke; azken finean, bizitzea bizitzeagatik... Gogoeta laztandu du, kuxin baten moduan. “Izorra dadila” pentsatu du, bihotzekoa gertatu zenean Guillermori haserre zeudela aitortu ez diolako gaur ere.

“Zer esan dizu?”.

“Joanen zaigula bila aireportura”.

“Zer moduz dago?”.

“Ongi”.

“Ongi? Oso ongi? Ongi, beste barik? Ala gaixorik?”.

“Zergatik egon behar du gaixorik?”.

Axik bere baitakoa pol-polean nabaritu zuen. Bazekien, eta Josebak bazekiela bazekien, gero borborra ailegatuko zela, eta gero, irakin aldia, haserreak gainezka eginez.

Izan zena izan zela zuela urte eta bederatzi hilabete inguruko hura, ustekabeen harrapatu zuela onartzeaz gainera, kitzikagarria egin zitzaiola aitortu beharko lioke bere buruari eta, neurri batean, asaldagarria, segurantza gabezia sortzen ziolako, eta Joseba ere borrokan ikusten zuelako bere buruarekin, bien artekoa gabeziak eragindako oreka berri hari ezin egokiturik; Gayakanpadaren ondoren elkarrekin, artean *elkar* hiru zirela, iragandako aste eta erdi hura pasatuta, behin Kennethek alde eginda, azaleratu zuen Josebak bidenabarrean bezala –ezagutzen zituen Josebak

egiten zizkion *bidenabarrean* haiek-, “Kennethek hiesa dauka. Beno, seropositiboa da”. Seropositiboa! Denetatik egin zuten-eta Orduñako baserri hartako gau hartan hasi eta Kenneth Sondikako aireportura eramán aurretiko azken zera hura arte. Kondoiarekin, zorionez! Hura izan zen hoberena, urte eta bederatzi hilabete pasatu ondoren oraindik gogoratzen zuen larrualdi hura. Elkarrekiko akabantzan zeudelako adakera sena zorroztu zien eta basago ariarazi zituen. Aireporturako joakera zein etorrera tristeak izan ziren, eta Bilbora bizitzera etortzeko asmoa erabili zuen. Bai, kostatu egin zitzairen antzinako oreka hartara itzultzea; bolada batean hutsa nabaritu zuen, ez propio Kennethena, baizik eta bizi izan zuten harena, edo lehendik zutenarena, edo besterik gabe ohiturak, errepikatzearen saturazioz, eragiten zuen hutsa. Eta hustasun hartan topo egin behar izan zuten elkarrekin, hartara, elkarrekin bi zirela. Hasieran, akordatu zen, gezak iruditzen zitzaizkion ordura arte balekotzat, edo kilikagarritzat jo zituen larrualdiak, edo elkarriketak, edo besterik gabe egoterak, gero, zorionez, joan ziren berriz ere bata besteari ohitzen. Atzera berriz Axi eta Joseba izaten; ordena horretan, egin zion txantxa bere buruari.

“Hiesa daukalakoz?!” bota zuen Axik. “Utziko dugu. Badakizu gaizki egin zenuela. Esan nizun asko harritu ninduela ez esan izanak”.

Joseba errudun sentitu zen atzera berriz, gertatu zenetik gaia mahairatu zen aldiro bezala, Axik -normahik esan beharko luke beharbada- gaitasun handia baitzuen, handiegia beharbada, bera errudun sentiarazteko.

“Bai, hobe. Gose zara?” bota zuen Josebak antsia ahotsean, zerabiltenetik ihes egin nahia ezin ezkutatuz.

“Ez. Taberna batean bazkaldu dugu”.

“Zer moduz bilera?”.

“Ondo. Bilboko lanpostu kopurua handituko dute. Bi erredaktore lanpostu aterako dituzte interino, gero igual oposiziotara ateratzeko. Euskadi Irratian eta Radio Euskadin aritzeko. Irail aldera”.

Bidaia luzea zuten aurretik, Bilbotik Frankfurtera, handik New Yorkera, han aireportu inguruan lo egin, eta, gero, San Frantziskora.

Eguzkiak jotako jarlekuetan eseri ziren. Joseba eskutik heltzen saiatu zenean ihes egin zion Axik. Baze-kien ez zitzaiola gustatzen, zertara zetorren hura orduan?

Irribarre egin zion Josebak, adarra jotzen ari zitzaiola aditzera eman nahian, gustatu ez izanagatik beragatik egin ziola eskua hartzeko keinua.

Azken finean, jakin bai baina besteak arrazoia zuela ez onartzeko modu bat zen, azken hitza esateko modua.

Aspaldi ikusi gabekoak sortu zalantza egin zitzaion Josebari gorputz trageduna hurbiltzen ikusi zuenean. Jaka beltz estuaren azpitik ageri ziren giharrak areago nabari zitezkeen poltsaren uhal gurutzatuak egiten zizkion zimurretan. Josebak berehala jakin zuen ikusi zituela, eta susmatu zuen ezikusiarena egin ziela, eta egokia ez bazen ere, eroso egin zitzaion.

Ukondoa sartu zion Axiri ijaretan, "Oskar" esan zion ahopeka buruarekin aurrerantz seinalatuz.

Hantxe agertu zitzaion, txiki; ez zeraman patillarik eta azken aldiz ikusi zuteneko orrazkera hura, atzean luze eta aurrean motz, kaskamotz moztua zuen. Trajearen azpitik besoetako bizepsa nabari zitzaiola miretsi zuen Axik, Oskar miretsirik Kenneth laztanduz.

"Ezikusiarena eginen digu" bota zuen Josebak, berriez ere ahopean.

Axik bekainak jaso zizkion.

“Uste dut minduta dagoela. Txatok esan dit behin ikusi zuela Bilboko Kaskoan eta ezikusiaarena egin ziola”.

Axik, atzera berriz, aretora so egin zuen. Oskar hurbiltzen ari zitzaien eguzkiak zoru distiratsuan marrazturiko laukien artetik, halako ametsezko figura baten eitea zuela.

“Ez nau harritzen!”.

“Nola?”.

“Ez nauela harritzen. Bizkarra eman zenioten. Denok egin zenuten Juanilloren alde”.

“Ez da hala” argudiatu zuen Josebak, zeharka Oskarren etorrera zaintzen zuela. “Eta hala bada, zuk ere ez duzu haren alde gehiegi egin”.

Axi haserrearekin hartu zuen oldean.

“Ni ez naiz inoiz EHGAMEkoa izan. Nik ez dut ezer ikustekorik izan zuen...”, hitzaren bila aritu zen, “zuen txorradetan”.

“Txorradak?!”.
Axi

Josebak batzuetan –gero eta maizago, ametitu beharra zuen– ez zuen Axiren arrazonamendua ulertzen, itxitura, arrazoiek errealitatearen analisiari bainoago barne aldarteari erantzuten baitzioten, eta, gero eta ohartuago zegoen, jeno biziari aldakortasuna erantsi

behar zitzaion. Ongi zegoenean, ongi, gaizki zegoenean, gaizki.

“Zuk ere bazenuen deitzea. Nik gainera deitu nion pare bat aldiz eta saiatsu nintzen gelditzen”.

“Joseba, ametitu behar duzu bizkarra eman zeniotela eta Juanilloren alde egin zenutela banandu zirenean”.

Eta bat-batean Josebak entenditu zuen Axik erabateko arrazoia ez bazuen ere, Oskar baztertua sentituko zela, bikotea modu ez-adiskidetsuan eteteak harreman-ezak hutsik utzitako tokian kokarazi zituela lagun eta adiskideak zirt ala zart aukeratzera behartuz. Baina -erabaki zuen Josebak- bera ez zen mugitu, Oskar izan zen taldera etortzeari utzi eta lekutu zena, eta, neurri batean, Juanilloren bikotea eramateko modua konprenitu ez zuena; Juanillok ez zion gezurrik esan, bueno, Txatorenez hasieran bai, baina gero biek adosturiko zera bat izan zen.

Ohartu zirenerako Oskar iragana zen aretotik. Biek so egin zuten haren bila baina desagertua zitzaien, eta une batez uste izan zuten benetan ez zutela ikusi, eguzkitik jalgitako agerpen moduko bat izan zela. Josebak atzerantz itzuli zuen burua atzeko jarlekuetan zegoelakoan, baina ez zegoen.

“Ez duzu jakingo ez ikusiarena egin dizun” bota zion Axik, burloso.

“Egin digun” azpimarratu nahi izan zion Josebak, baina pertsona aldaketa indarrrik gabe gelditu zen airean, erdipurdiko gauza baten moduan.

Axik ez zion erantzun, erabaki baitzuen ez zuela atzera berriz ere horrekin aritzea merezi. Barregarria iruditzen zitzaion bikoteak osatzeari buruzko horren mutxoasmoko iritziak zituen jendeak gero horrelako jarrerak izatea, nahiz eta ez jakin oso ongi *horrelakok* zer esan nahi zuen. Oskar eta Juanillo EHGAmdarrak baino ez ziren. Eta Oskar desagertu bat, beste barik.

Bere buruari galdetu balio zer sentitu zuen areto-
ra atera, eta lehenengo bistadizoan ez ikustean, zapu-
tza erantzun beharko zuen, etorri ez zelako susmoari
noriaz gehitu baitzitzaion. Baina bigarren eskaner
aldian, han zuten, espera. Berotasuna egin zitzaion,
eta halako poz oparo bat, Axi eta Kenneth hartzen zi-
tuen. Ez zuten Axik eta biek asko hitz egin gertatu
zenari buruz; gerozkioz saiatu ziren ohera besteren
bat ekartzen, baina egin zuten bitan-edo ez zitzaien
ongi atera. Azkenekoa batez ere, Takonerara propio jo-
anda jasotako mutil gazte bat, etxera, Jarautako pisu-
ra ailegatu -harrigarria egin zitzaien biei Lekunberri

Aranatzekin zer edo zer ikusteko zeukala jakitea-, ur basoa eskaini eta ohera sartu zutenean, ez zuten jakin harekin zer egin; betidanik haragian txertaturiko jakintza -Kennethekin ikasi gabeen jario zitzaiena- ahaztua izan balute bezala izan zen; eta dorpe aritu ziren, hura egiten zuten lehendabiziko aldia izan balitz bezala, eta ez zuten topo egin. Korritu ere, presaka eta beharturik korritu ziren, lehendabizi mutila, gero Axi eta gero bera, bakoitzak bereari eraginez, plazer derrigortuari -derrigortua, harako bidea hasirik bidea utzi eta helburuari uko egitea haragiaren kontrakoa zelakobukaera ezdeusa emanek. Kennethekin aste eta erdi hartan desberdina izan zen: hasierako gorputz-adar gehiegizko haiek ordenatzen joan ziren, eskuak non jarri ikasten, lehentasunak aurkitzen, binaka baten zuloak arakatzen, banaka bata bestearen gorputza limurtzen, eta batez ere, hiru izaten. Kennethek lotsa galarazi zien, batak bestea beste norbaiten eskuetan, menpean, nagusigoan ikusi eta naturaltzat jotzen. Baina, batez ere, bien artekoa, Axi eta Josebaren artekoa, nahierara sortu, eraiki eta osa zezaketela sinetsarazi zien aste eta erdi hartan, nahiz eta gero, lastima, beharbada, nahierara sortu, eraiki eta osatze hura... nola esanen luke... hutsean ez bazen bai exkax geldit-

tu, biak bakarrik saiatu zirenean lortutako emaitzak frogatu. Eskuaren keinu faun batez uxatu zuen gerora Axi eta bere artekoari, beharbada, “indarra” ahitzen joan zitzaiola, beste “lurralde” batzuk -Txatorena zen hitza- bisitatu izanak norberaren lurraldearen txikitasunaz errepararazi balitu bezala. “Lurraldeak!? Lurralde asko zagon, neska!” esan zion Txatok, azken maitasun zapuzketaz hizketan ari zitzaiola, Josebak, lan itxurak eginez, Axi eta bere arteko harremanean zer-bait aldatzen ari zelako susmoa iradoki zionean. “Zer ari da aldatzen? Nena, zu beti horren esoterika!” bota zion. Eta Josebak ezin esan izan zion ez zekiena. Kenneth eta Takoneratik ekarritako mutil lekunberritarra -beno, Lekunberrirekin zerikusia zuena- aitatu zionean bota zuen Txatok hura, “lurraldeak!, guhaurren buruak konkistatzekoak dira”. Haren esaldi deszifra ezinezko bat, erdi pelukeriarako edertasun produktuen publizitate-lelo, erdi COFLHEEko bileretan ikasitako gay mugimenduaren kontsigna, bien artean landu zuten Etika Marikaren ezdakitzenbagarren puntua.

Gorputz topor sendoa gihartsuagoa, bizarra errubioagoa, bisaia -esoterika etorri zitzaion gogora- itzal arrasto batek zarrasten ziola. Irribarre egin zienean, ordea, itzala faundu egin zen.

Lehendabizi Joseba besarkatu zuela ikusirik, nekez aitortu zion Axik bere buruari jelosiaren antzeko batek hartu zuela. Gorputz txiki eta sendoaren giharrek Joseba behetik nola besarkatzen zuten begira gelditu zen, deseroso, bere txanda noiz ailegatuko zain, eta ez zekien zergatik, besteren begiradapean, nahiz eta jakin inor ez zeukatela so.

Kennethen gorputzak Joseba utzi eta beregana itzuli zenean aisatu egin zen. Beso sendoak nabaritu zituen bere bizkarraren kontra, Josebak zeharka begiratzen zion bitartean.

Joseba samurtu egin zuen besarkadak. Ederra iruditutako zitzaion gorputz haien bat egitea, ederra besterik gabe, edo ederra nahiko, edo ederra, asko eta gehiegi. Axik, ezusteko batean, Kennethen kokotsa hartu eta ezpainenetan musu eman zionean, zorua mugitzea egin zitzaion une batez, baina, berehala itzuli zen bere baitara, garunaren hondoan Axiren ausardiarekin alderaturik bere ausardia eza deitoratuz.

“Zer moduz bidaia?” galdetu zien, bokal itxiak ezin irekiz.

“Ongi” erantzun zuten biak batera.

“Ongi” gehitu zuen gero Josebak.

Trenera bideratu zituen. Josebak BA-BART irakurri zuenean, egon zen iruzkinen bat egiteko, baina Axiren erreakzioaren beldur-edo, isildu egin zen. Ez zion bere buruari aitortu nahi, baina azken boladan ez zituen bururatzen zitzaizkion hainbat gauza egiten Axiren gaitzespenaren -batzuetan ageriko, besteetan ezin ezkutatu, besteetan ezkutatu eta, askotan, onartu behar zuen, bere irudipenekoaren- beldur.

Aireportua atzean utzi eta ortzian zintzilikaturiko hariak ziruditen autopisten azpitik iragan ziren. Eta gero etxe sailak agertu ziren, behe antzean, trenak ere ortzitik zintzilikaturik ematen zuen. Kennethek irribarre egiten zien, baina biak ere sekulako akitze batek hartu zituen eta Kenneth ikustearen pozak ezin izan zuen munduaren beste muturrean egoteak sortzen zien arrotasuna gainditu. Josebak norbaiti irakurri zion, nekaturik gaudenean omen garela *guen*, nekeak zer garenaren hesi guztiak eraisten baititu. Ez zuen lo-gurarik, ordea.

Josebak leihotik so egin zuen, Kennethetikoa neurri batean Axiren esku utziz; oso nekeza, ia ezinezkoa, egiten zitzaion akiduraren kontra borroka egitea, ezin izaten zuen bere burua gainditu, eta amore ematen zuen, Axi ernegatzen zuen utzikeriara lerratuz.

Une batean dena igual izan zitzaion, San Frantziskon egotea, Axi eta Kenneth ondoan izatea, leihotik ageritzen etxe ordenatuen saila, susmatu arren zenbatera egon zitekeen jakiterik ez zegoen itsasoa, oporrak, haien gainean egindako egun argiko ametsak, eszena-tokiak, eta baita aste hura gogoan irudikatu zituen lar-rualdiak, kidetasunak, laguntasunak ere

Begiak itxirik entzun zituen.

Hogeita hamar minututan bertan zirela esaten ari zitzaion Kenneth Axiri eta hark baiezkoa egin zion,, areago gizalegetsu ezen ez interesatu.

Eguerdi aldera esnatu ziren, Kenneth unibertsita-tetik itzuleran sukaldean atzera-aurrera entzun zute-nean. Gosaria prestatua zien, irribarrea ahoan.

Joseba galtzak eta kamiseta jantzita zegoen, baina Axi ohi bezala galtzontzillo hutsean agertu zen egon-gela-sukaldean. Seguru aski, onartu behar zuen Jose-bak, haren gorputzarekiko berezko segurantz a hura zen Axirengandik gehien erakartzen zuena, gorputza bera bainoago, gorputzari batzuetan gustuko ez zi-tuen akatsak aurkitzen baitzizkion, deltoide eza, esa-terako, edo ile gabezia.

Zentzu horretan, Kennethen gorpuzkera areago zen bere gustukoa, topor antzekoa, sendoa, besondo nabarmenduak, eta ilajea petxuan.

Hala ere, Axik aurpegitik makarrak kentzeko egin zuen keinu ezusteko batek adiskidetu zuen Joseba haren gorputzarekin, eta bat-batean halako alaitasun bat jabetu zitzaion. Kenneth lepotik heldu eta Axirenganaino eramana raziz biak besarkarazi zituen eta, gero, berak bota zizkien besoak gainetik. Mingainek bat egin zuten. Hatsa zuela iruditu zitzaionean atzera egin zuen une batez. Axiren eta Kennethen mingainek elkar ukitzen zuten, Kennethek Josebaren ipurmasailan zuen eskua, Axirena Kennethen hankartekoan zebilen, Josebaren eskuak Axiren eta Kennethen ipurdi erretenetan zebiltzan. Gayakanpada aurreko bilera hartan leku berean izan zuenekoan gelditu zitzaion usainaz akordatu zen. Ia erreparatu gabea eramana zituen ezkerreko hatzak sudurretara. Mintzak zorroztu zitzaizkion. Axirena baino minxeago.

“Breakfast is ready...” aitzinatu nahi izan zuen Kennethek, baina Axiri irrikaren potintze oldarkorrez aho hura irensteko gogoia egin zitzaion, eta kokotsetik heldurik mingaina sartu zion erdi keinuan sor erdi Joseba ikusleari egindako ikuskizun.

Eta bat-batean anabasa zirudiena ordenatu egin zen. Txandak hasi ziren, zirkuluak osatu, jarrera alda-
ketak, gorputz atalen azterketa, giharren guritasuna-
ren dastatzea, eman eta hartzea, mingainen joan-eto-
rria. Bukatu zutenean sofa aurreko alfonbran gelditu
ziren besarkaturik, kondoi erabiliak bazterretan, Ken-
nethek, zubi bat bezala erdian, biak lepotik helduta zi-
tuela. Hirurak sabaiari so. Josebak Kennethen sabela-
ren gainetik Axiren eskua bilatu zuen. Ongi ezagutzen
zuen: erpuruko marka ñimiñoa, eraztunaren -guraso-
en aliantza- hotz metalikoa nahiz eta eskua bero
egon. Heldu egin zion. Beharbada bien arteko intimi-
tate keinua bilatu zuela pentsatu zuen eta, beharba-
da, Axik intimitatea bilatzen zuela jakin izan balu hura
zertara zetorren itaunduko liokeela. Ez zuen, ba, pen-
tsatu zuen Axik, Kenneth bilatu intimitate hura
“beste” intimitate bat izan zedin. Ez zuen entenditzen
batzuetan, eta ez entenditzeak ernegatu egiten zuen,
haren zalantzak besteei erakutsi behar hura, si-es-
noka aritze hura.

Egongela argian eserarazi zituen. Eguzkia sartzen
zen leiho handietatik.

“Goi aldea... Lainoa” azaldu zien. Missionen mikro-
klima zegoela, seguru aski Castron, han goian, lainoa

izango zela eguerdira arte. Galduta zeuden, entzuten zuten, baina bazirudien lilurak ez ziela ikusten uzten. Axik aurrean zuten etxebizitza-eraikin pintatuari erreparatu zion: paper loredunez bildua zirudien, eta solairu bakoitzean motiboak –loreak beraiek, hostoak, konposizioa– aldatzen ez baziren ere, koloreak goraka aldatzen zihoazen sotilki urdinetatik hasi eta gorrixketaraino. Emaitzak mundu nabar erraldoia ematen zuen, puntu erdiko arkudun leihoen ordenak aireratzea galarrazten ziola.

22. kalean zegoen artista etxe batekoek egin omen zuten.

“Papera da?” galdetu zuen Axik, zehaztasuna zio.

Kennethek ez zekiela erantzun zuen. Ez zuela uste, hilabeteak eman zituztela egiten eta pintura zela iruditzen zitzaiola. Bera Espainian... isildu egin zen hori esan ahala... bueno, European ibili zen urtean egin zutela; handik etorri eta egina topatu omen zuen. Orduan ez zela bertan bizi, baizik eta hiru kale harantza-go.

“Hil zen lagun batekin bizi nintzen”.

Irribarre egin zioten baina ez zuten ulertu zer esan nahi zuen.

“Lagun batekin bizi nintzen. Hil egin zen”.

Isilik jarraitu zuten. Josebak zerbait esateko tenta-
zioari eutsi zion, uneagatik edo Axiren erreakzioaren
beldur, ez zuen egin, hala ere.

“Aids”.

Aitortzak ustekabeen harrapatu zuenez, Axiri dra-
matikoegia iruditu zitzaion, batzuetan Josebak bila-
tzen zuen gehiegizko dramatismo jendaurreko estona-
garriaren pareko, espantu larregiagatik berehala ne-
kagarri.

Josebak ez zion behar zenean kontatu. Eta orduan
Kennethek, haren pentsamendua irakurri balu bezala,
azaldu zuen Espainian, bueno, Euskal Herrian zegoe-
nean ez zuela hiesaz pentsatu nahi, ihesean joan zela,
91. urtea oso gogorra izan zela, hiru lagun hil zitzaiz-
kiola, etsita zegoela. Sabatikoa hartzeko aukera izan
zuela eta hartu egin zuela. Fresnon egon zela guraso-
ekin, amonarekin (orduan hil zen, Elizondokoa). Oso
gogorra izan zela azpimarratu zuen: “A tough time”.

Axiri itzuli zitzaion gero... esan behar ziola seropo-
sitiboa zela, baina, konprenitzeko, nekaturik zegoela
esateaz, eta ez esateaz, seropositiboa izateaz... ur-
teak zeramatzala...

Hitz egiteari utzi zion. Hirurek so egin zioten kale
eguzkitsuari; etxe lorez paperezatuak kontsolamendu

antzeko bat zirudien, bizitzaren nabarraren analogia. Josebak loreen urdinari erreparatu zion eguzkiak jota-ko eta leihoen kosketan itzalpean hartutako urdinaren nabarkara desberdinei, eta bizitza horrelako xehetasun ñimiñoetan erabakitzen zela ahoskatuko zuen, Axik salatuko liokeen dramatismoarekiko joerak isilarazi ez balu.

Axiri, aldiz, Kennethen aitortzak on egin zion, zitu-
tuen irudipenak uxarazi zizkion-eta.

“Nahi duzuenerako nago. Egun pare batez lan egin beharra dut, baina gero erakutsiko dizuet S.F. Zer egin nahi duzue?”.

Biek so egin zioten elkarri, bi baino ez izateaz harriturik une batez. Ideiarik ez. Hiria bisitatu. Alcatraz. Gaez atera. Giroa ikusi.

Orduan Kennethek esan zien larunbatean lagun baten hileta –“a kind of” bota zien, han egindakoaz bestela hasi zitzaien hizkuntza nahasketan– bat zuela eta joan zitezkeela. “Ez dira gauza oso alaiak”.

Elkarrekin eginak zituzten hiru egunetan halako ordena bat sortu zitzaien. Bazekiten zein hurrenkera-
tan eseri; mahaiaren inguruan izterrek ustekabeen elkar ukitzean ez zitzaien atzerako zartakoaren ondo-
ren gorputzaren ukitzeak eraginiko ezerosotasun lla-

bur hura sortzen; besoak bata bestearen sorbaldetan paratzeak urduritu barik, beste besoa hirugarrenaren sorbaldetan paratzera bulkatzen zituenean, ematen zuen gorputzen epeltasunak batetik bestera egiten zuela bide argindar harien artezaz; edota, gauean, elkarrekin lo egitea egokitu zitzaizenean, ohearen aurreko lehendabiziko noraeza zeinen azkar gainditu zuten Kenneth erdian paratu eta ijiili-ajalaka, musuka, zirrika, arropak, kamisetek, galtzek, galtzontzilloek hegaka hormak eta altzariak joz lurrera egiten zuten bitartean; edo goizean, esnatu berritan, beso, hanka, bular, ipurmasail ugaritasun hartan bakoitzak bere bidea zeinen aise topatu zuten.

Gosaria prestatzerakoan ere ematen zuen urteak zeramatzatela elkarrekin bizitzen, Axik eta Josebak senak aginduta -Txatok barre egingo lioke esamoldeari, marikitek ez dutela senik, eta izatekotan gizonen gorputzekikoa dutela argudiatzeaz gain, sena hitzaren gipuzkoar-bizkaitartasuna eta heteronormatibitatea salatuz- berehala ikasi baitzuten non zegoen kafea, non zekaleak, non marmelada, non azukrea, non kati-luak, egoeraren eta lekuaren arrotasuna erabat gainditurik.

*Downtown*ean eman zuten eguna. Union Squaren, La Marina auzotik paseatzen, Chinatowneko kale nabar eta abartsuetan, eta, jakina, zubi famatua ikus-tera hurbildu ziren.

“Urteak daramatzat hona etorri gabe. Uste dut amarekin etorri nintzela atzena. Autoz bai, pasatu naiz” esan zien Kennethek.

Joseba eta Axik ez zuten dudarik izan eta zubian aurrera hasi ziren trafikoaren zarata izugarriaren artean. Soinuak halako irrealtasun kutsua eransten zion paisaiari; haiek ziren turista bakarrak. Behean itsasoa ageri zen. Zubiak dardara egiten zuen haize kirri eta trafikoaren burrunbaren pean.

Kennethek eskuina seinalatu zien. Alcatraz irakurri zioten ezpainetan entzun bainoago. Eskuinetara begiratu zuten. Badia ixten zuten bi muturretatik harantz, halako malkor bat ageri zen, urrutiegi ongi ikusteko. Alcatraz. Kartzela. Ez zien ezer esan.

“Joan nahi duzue?”.

Elkarri begiratu zioten. Eta gero Kennethi: “Ez dut uste. I don’t think so”.

Eta urrutiago Berkeley. Itzuli eta zubiaren muturre-ra ailegatu zirenean, egitura sustengatzen zuten kableen lagin batera eramán zituen. Kable gorriaren bar-

neko kable-osagaiak ageri ziren. Argazkirako jarri zituen Kennethek Axik eta Joseba.

“Hirurok” bota zuen Axik. Inguruan zebilen asiar itxurako bati eskatu zion Kennethek argazkia egiteko. Josebari bururatu zitzaion itzuleran, argazkia errebelatu eta begiratzean, tristuraren antzeko bat sartuko zitzaiola, denbora iraganaren min antzeko bat.

Kenneth batzuetan xor eta beste batzuetan haien artean nabaritzen zuen Josebak. Gehiago ezagutu izan balu galdetuko zion zer gertatzen zitzaion, edo, askotan egiten zuen bezala –Bernardo Atxagari entzun zion esapidea Iruñean eman zuen hitzaldi batean–, “Sareak botako zituen” eta sareek, menturaz, Kennethen errotiko tristura ekarriko zioten, beharbada beldur ezkutu bat, altxor baten moduan oso barnean gordea, zaindua ia. Bat-batean geroa ikusteko halako bihozka da bat izan zuen, eta orduan iruditu zitzaion ikusi zuela lehendabiziko aldiz Kenneth, ikusi x-izpien sorraio hotzarekin, odola zainetan zuri, eta birusak pikosta beltzez, eta gero... ez zen hitzarekin ausartu. Eta galdetu zion bere buruari Axik halako klartasunez ikusi ote zuen behin ere. Kenneth eta GIBA, eta haren ondorio guztiak. “Ondorio”, hitz-falta denak azaltzeko.

Oinez abiatu ziren.

“I will take you through the Golden Gate Park. Pixka bat aldendu behar dugu baina...”.

Eskuinetara Golde Gate zubiaren inguruko parkea, eskuinetara etxe sailak. Lyon street irakurri zuen Axik. Presidio Avenue gero. Geary Boulevard etorbide zabal bat. Zerbait hartzea proposatu zuen Kennethek, baina ezezkoa egin zioten. Pozik zihoazen oinez, eguzkiaren pean, “ia beren buruez ahaztuta”. Eraikinak zoragarriak ziren, estilo amerikarrekoak asko, lorategiak aurrean, fatxadak hainbat kolorez margoturik. Trafiko gutxi zebilen. Masonic Avenue. Fulton Street. “Han... there is Folsom Street”, izugarrizko festak egiten zirela gehitu zien Kennethek, hiriaren erdigunea seinaltatzen ziela. Eman zuen urrutiko zerbait zela, airean dirlindan, urruti, tokiz eta denboraz.

“Orain ez?” galdetu zuten.

Kennethek azaldu zien bera etorri zenean, 79. urtean, izugarrizko festak izaten zirela, baina gero, batez ere 84tik aurrera denak gertatzen ari zenaz jabetzen hasi zirenean, mundu guztia beldurtzen hasi zela. 82an saunak itxi zituzten, gero ireki zituzten, baina gero berriz ere itxi. Josebari iruditu zitzaion Axi urduritu egin zuela gaiak, eta beregana hurbildurik

laztan antzeko bat egin zion, Kenneth bat-batekotasunaz ohartzen zela.

“What’s up?”.

“Ezer ez” erantzun zion Axik, Joseba haserre begiratzen zuela.

Istant batean jabetu zen kalearen zarata haietaz, eta hautsi egin zitzaien ia ordubeteko paseoan sortu zuten dantza moduko armonia.

“Sentitzen zara...”.

Axik hitzaren bila nabaritu zuen. Orduantxe akabatu egingo luke Joseba. Zer daki horrek bere ezerosotasunez.

“Ezeroso?”.

Erronka bota zion aurpegia pixka bat altxatzen zuela.

“Ez” erantzun zion. “Josebaren gauzak dira. Bera da ezeroso dagoena”.

Golden Gate parkearen ertz batean zeuden; zuhaitzen artean parkeko sarrera, bide asfaltatua, etorbide baten modura abegi eginez. Ezeroso. Hori zen hitza, “incómodo”, “awkward”.

Josebak bere burua madarikatu zuen, ez zegokion tokian sartzeagatik. Axik Kennethen hiesarekin arazotak izateraz, konpon zitzala berak.

"I was disappointed because he hid me that you were..." zuzendu du, "HIV positive".

"I did not hide you anything".

"You did".

Kennethengana itzuli zituzten bisaia epaile baten bila. Epailea, orde, epaiaren zioa zen.

Kenneth isilune baten ondoren barrezka hasi zen.

"Ez du garrantzirik. Ergelkeriak dira. Esan, ez esan".

Bere baitara itzuli zen. Zuhaitzak zituzten atzean, harendako propio paraturiko dekoratu antzeko bat. Txikiago ematen zuela pentsatu zuen Axi.

"Thousands are dying. Pila bat. Eta nik ez dut hil nahi".

Besarkaturik utzi zituen ohean Axi eta Kenneth, bere buruari Axirekin kontuz ibiltzea ohartarazten ziola. Etxe loredunari begira egon zitzaion galtzontzi-illo eta kamisetatan. Sofa aurreko mahaiaren gaineko San Frantziskoko mapari erreparatu zion. Hiria aztertzen hasi zenean kafea hartzeko gogo egin zitzaion. Altxatu eta kafetera izeki, kafea aurkitu, iragazgailuan paratu, kafea tantaka hasi zenean so egin; bukatuta-koan katiluan bota, esnea gehitu eta mapa aztertzerarenera eseri zen, bakarrik egoteko paradak pozturik. Hiri ma-

paren lerro, azpil eta koloreak aztertu zituen. Mapak argazkiak zituen. Hight-Ashbury auzoko kolore bizi eta desberdinez margotutako etxe sailak Bilboko Irala auzoko etxe saila ekarri zion gogora, estiloagatik, aldapagatik, miradoreengatik, kutsu viktoriarrengatik; argazkiko etxe saila, ordea, koloretsua zen, Iralakoa ez bezala, halako beigekara zikin eta larri batez lausotuturik. Erdiguneko Financial Districteko argazkiek eman zioten arreta: San Frantziskoko ikur bilakaturiko etxe-orratz puntaduna -Transamerica Pyramid-, ondoko bestea; gorago San Francisco Public Library. Castro: leku mitikoa, Txatok betidanik amestu zuen tokia. Josebak aitortu behar izan zion bere buruari mapan -gay mapak bat zela ohartu zen, bertan leku turistikoek gain gaytasunarekin lotutako tokiak ageri baitziren, tabernak, erakundeen egoitzak, ekitaldi eta festen datak- ez zuela berak amesturikoa bezain handia ematen. SOMA (South Market), nonbait leitua zuen, hainbat tokitan arriskutsu. Etxea bilatu zuen, etxe hitza pentsatu izanaz harritzen zela. 21. kalearen eta Valencia kalearen arteko gurutzea. Burua altxatu zuen mapatik. Hurrupada eman zion kafesnari begiak fatxada koloretzuan pausatzen zituena. Loreak urdinkararik gorrixketara. Bizipozak hartu zuen. Mapara itzuli zen bertatik

bizitzarekiko jakintza jasotzera doanaren lehiakortasun eta afanez. Folsom Street, Kennethek urrunera seinalatu zien kalea. Egonak ziren Golden Gate Parkeko ertzetik urrutiago zegoen beren etxetik baino, eta, hartara, etxetik hiru kale hutsetara zegoenez, harrigarria egin zitzaion Kennethek kalea horren urrutitik seinalatu izana. Pentsatu zuen, beharbada, Kennethendako dena urruti zegoela.

Gelan azantzak entzun zituenean zeloek hartu zuten. Eutsi egin zion lasterka Axi eta Kenneth ohean ari zirenera joateko irrikari. 22. kalea, Mission, Capp, S Van Ness Ave, Shotwell, Folsom, Treat Avenue, Harrison, Alabama; Axik eta Kennethek algara egin zuten. Haien gorputz biluziak etorri zitzaizkion gogora. Seguru buztanak zut zituztela, eta jolasean ari zirela. Ez zuen zeloek janda agertu nahi. Hasieran sufrikario egin zitzaionari -arrapaladan pasatzen zitzaizkion ka-leak begien aurretik- plazer gaixoa topatu zion: bere burua bazterturik agertu zitzaion, San Frantziskoko ka-leetan alderrai. Florida kalea, Byant. Axik eta Kennet-hek eskutik helduta beregandik ihes egiten zuten bi-tartean. York, Hampshire. Bazekien masokismorantz zihoala: euria ari zuen eta urruntzen ikusi zituen, Cas-tro bidean aldapan gora, eskutik helduta bera nega-

rretan urtzen zen bitartean. Braust batez utzi zuen katiletua mahaiaren gainean. Potrero Avenue, Potrero Avenue egin zuen oihu korridorean zehar.

“Wait for me!” garrasi egin zien, ohera jauzi egiten zuten bitartean. Algaraz hartu zuten.

Axi Jarautako etxeko eskaileretatik behera bideratu, garajea sarrarazi eta eserarazi ondoren arretaz bete du maletatokia. Autoan sartu eta eseri denean neurologo andreak gomendaturiko TED hitzaldiaren grabaketa sartu du CD irakurgailuan. Ez hobetzera, egin beharrekoa egingo du baina lehendabizi...

“Berriz ere zure oroimenari buruzko hitzaldia entzungo dugu, Axi; aber zeozer ikasten dugun!”. Eta botoiari sakatu dio. Leun aireratu dira Vivian Sara neurologo britainiarraren hitzak bozgorailuetatik autobiderakoa egiten duten bitartean.

“Zer gogoratzen dugu? Nola funtzionatzen du oroimenak? Zein da oroimenaren euskarri biologikoa eta emozionala? Oroimenak ez du bakarrik oroiturikoa gordetzen, oroiturikoarekin loturiko sentimendu, emozio eta egoerak ere gordetzen ditu. Are gehiago, gogoratzen dugun aldiro une horretan gertatzen ari zaigunarekin lotzen dugu gogoraturikoa oroitzapena etengabe berreginez eta aldatuz”.

Gogoak aurreko egunean Begoñak hots egin zion unera egin dio hegan. Ausaz ailegatu zela egunkarira

azaldu zionean haren begirada ironikoa irudikatu zuen, nahiz eta istripua gertatu zenetik Begoñaren ironia ironiatxoa baino ez izan, bai baitzekien bera ez zegoela txorrada askotarako.

“Huffington Post-eko tarota orduan?” bota zion Begoñak.

Ze ostia! Sorginarengana joateak etorkizuna argituko dio. Hark dena du aldeko. Gasteizen ari da lanean Kultura Sustatzeko zuzendari, egunero itzultzen da Bilbora, eta emakumeek ohi duten naturaltasunez amore emana dio, 47 urterekin, bere hitzetan “amodioa deitzen diogun zera absurdo horri”, Cruz Marirena gogotan pentsatu du Josebak. Inoiz esatera ausartu ez bazaio ere Kultura Sustatzeko zuzendari izatearen bote-reak –zein idazle itzuli, zein film promozionatu, zein bertsolarirekin haserretu, nora bideratu diruak eta nola, nori agindu infernua, nor igo zerura–, kilika egiten dio gizon batek sekula eginen ez dion moduan, Begoñaren baitan dominatrix bat baitago gordeta, larru eta zigor, eta horregatik, bakarrik dominatrix bat egon daitekeen moduan egon izan da grinaturik eta engantxaturik sufriarazi baino egiten ez zion gizon ezkonduarekin. Baina azkeneko urteetan, Cruz Marirekin ha-

mabost urteko aldikako harremana utzi ondotik askatua dirudi, lasaitua, eta lanean buru-belarri.

Axi isil-isil doa cdaren marmarraren magalean aterpeturik. “...Eta gaur egun bi oroimen mota desberdintzen dira, hau da, lehendabizikoa, epe motzeko oroimena; bigarrena epe luzekoa. Gainera, hainbat adituk uste du bat zein bestea gordetzeko sistemak desberdinak direla, alegia, garunaren baliabide, egitura eta zirkuitu neuronal desberdinak erabiltzen ditugula. Epe motzeko oroimena ohar koaderno baten antzekoa da, une batez gordetzen ditugu bertako oroitzapenak”, entzun da Vivian Sara neurologoaren ahotsa autoko airean.

“Kartak aukeratu eta karta bakoitzaren arabera etorkizuna esaten dizu” argudiatu ziola akordatu da Joseba.

“*Aurresan* izango da” entzun zuen Begoña aurikularretik.

“Bai, *aurresan*”. Eta bera ere botatzera zihoanaren absurdoaz jabeturik ironia eransten saiatu zen hitzei. “Maitaleak agertu zaizkit. Maitasuna agertuko omen zait, ustekabea”.

“Nor da?” galdetu zuen orduan Axik.

Josebak aurikularra estali eta “Begoña” erantzun zion. Josebak uste izan zuen Axik beharbada telefonoa eskatuko ziola eta Begoñarekin mintzatzen saiatuko zela, gabon esango ziola-edo, baina Axik baiezko keinu bat egin eta telebistara itzuli zituen begiak. Duela hilabete pare bateko Axi huraxe beraxe du ondoan, Axi sor hau, bere baitako gogoetara bildua emanagatik, hustasuna baino adierazi ezin duen Axi hauxe, Iruñeko bideberri desertuak ispilu egiten diola.

“Baina ze da, programa bat, orrialde bat?” galdetu zion Begok.

“Esan dizut, *Huffington Post* egunkariaren halako programatxo bat, sakatu eta tarota esaten dizu Ema-kume eder bat agertuko omen zait bizitzan; adiskidantza egingo omen dugu, eta beharbada amodio istorio bat ere bai”, uste du erantzun ziola.

“Beste maitasun istorio bat?” galdetu zion Begoñaren ahots urrunak, “zuk Axi ez daukazu ba?”.

Bazekien arrazoirik gabe zihoala haserretzera baina hala ere ezin izan zion eutsi.

“Zer esan nahi duzu, ezin dudala beste bikote bat osatu? Hau utzi eta beste bikote bat?”.

Akordatu da berehala ohartu zela Begoña harri eta zur zegoela baina harridurak berak eta injustua iza-

tearen plazerak bultzaturik eutsi egin zion argudio tenkorrari, ordaina eman nahian Begoñari, bizitzari, munduari. Gainera Axi askatzeko deliberoa hartua dauka, zer ostia.

Orain, gogoratzean, plazera, nahita injustua izatearen plazera, berritu zaio leihotik so egitean aldiriak atzean utzi, eta Iruñerriko zabalunea begien bistan duela.

“...Epe motzeko oroimenaren mota bati lan-oroimena deitzen zaio, hau da, lan oroimena ataza bat aurrera eramateko beharrezko informazioa beharrezkoa dugun denboran gordetzeaz arduratzen da. Informazio hori kortexeko hainbat eremutan gordetzen da; eremu horiek atazak irauten duen bitartean izaten dira aktibo. Gero itzali, halaxe esan dezakegu, egiten dira eta gordetako informazioa desagertu egiten da.. Esate baterako, ataza-jarduera hori ustekabeen ete-tean, oroitzapen hori ezabatu egiten da berehala. Halaber, kortexeko hainbat eremuk ekintzak programatu eta informazioa sortu ahala egokitze ahalmena dute. Oso garrantzitsua da ezagutza-funtzio hori arazoitze eta munduaren errepresentaziorako. Izan ere, epe laburreko oroimena -lan oroimena barne- ez da epe luzeko oroimenaren halako *aurrekari* bat; badira

epe motzeko oroimenean arazoak dituzten gaixoak, zeinek ez baitute galdu epe luzeko oroimenak grabatzeko ahalmena. Epe luzeko oroimenek beste eremu eta bide batzuk hartzen dituzte, eta urteak ugari ere behar izaten dituzte gogoan betiko gelditzeko, horrela hitz egin badaiteke”.

“Ez dut esan nahi izan beste bikotekiderik ezin duzula hartu...” bota zion Begoñak telefonoaren beste aldetik.

“...Nik Axi edozein unetan utz dezaket; ez dut utziko maite dudalako oraindik, baina esan dit psikologoak, Padre Ligeti erietxean ere esan didate... ez daukat hari loturik bizi beharrik, aukeratu egin nuen, duela 19 urtetik gora egiten du jada, baina nahi dudanean utz dezaket”.

“Nik ere utz zaitzaket zu, notejode!” garrasi egin zion Axik.

Begoña irudikatu zuen. Seguru ez zekiela zer egin telefonoarekin, hura zenarekin.

Aurikularra estali zuen eskuarekin. “Adarra jotzen ari naiz, maitea!”. Eta laztandu egin zuen. Axik mortu so egin zion esandakoa ahazturik.

“Epe luzeko bi oroimen mota daude: inplizitua eta esplizitua.

"Oroimen inplizituak zerbait ikasi denean ikasitako hori berritzeko beharrezko informazioa eskuragarri paratzea du funtzio; hala ere, informazio hori ez da kontzientea.

"Esplizituak, aldiz, bi alderdi hartzen ditu: oroimen semantikoa, ezagutza eta egitate orokorreari dagokiena; eta gertakarien oroimena, zeina norberaren gertakariez osaturik baitago. Esaterako, ez dakit ba... Rothkoren koadro laranja hori MOMAN dagoela gogoratzean oroimen semantikoa erabiltzen ari gara, aldiz, gurekin zegoen pertsonak paratu zuen harridura, gaizki ulertu bisaia, adarjotze aurpegia, eta gerok nabaritu genuena, eta arte modernoari buruz egin genituen komentarioak -zer arte modernoak ulertzeko modernoak izan beharra dago, ez?-".

Vivian Sarak eten luzea egin du publikoaren irriak esperatuz baina jendeak ez du barre egin eta txistena ezean gelditu da.

"Komentario horiek gogoratzeko gertakarien oroimena erabiltzen da. Oroimena, beraz, hainbat sistema ezberdinez osaturik dago; eta baldintza normaletan sistema horiek estuki egiten dute lan elkarrekin: gertakari bakoitzaren oroimena alderdi ezberdinez osaturik dago. Hala garunaren eremu desberdinak informa-

zioaren alderdi bakoitzarekin aritzen dira, eta ezagutza modu ezberdinekin gogoratzen dute, baina gero oroimen osoa gogoratzeko eremu desberdin horiek konektatu egiten dira”.

“Bueno, utz dezagun -gogoratu du laburtu ziola modu desatseguinean-. Kontua da gero Tarotean Dama Andrea atera zaidala. Emakume bat garrantzitsua bilakatuko da nire bizitzan. Uzten badiot, nonbait, gain hartuko dit. Haren eraginarekiko oreka bilatzea omen da kontua. Eta azkenik, Indarra. Adorea, energia, indarraren karta. Beharko dut. Zer iruditzen zaizu?”.

Begoña neurtzen nabaritu zuen, arestiko haserrealdiaren txingarra baretu ote zen neurtzen.

“Bilbon kartak botatzen dituen sorgin bat dago eta harengana joango naiz”.

Akordatu da erronkaz bota ziola, zerbait aurpegi-ratzen arituko balitzaio bezala, bestearen iritzi beharbada arbuiozkoari, edo zalantzazkoari osatzeko ere leku utzi gabe.

“Ondo” entzun zuenean sutu aldiak hartu zuen atzera.

“Ondo” hori zen esan zion bakarra, “ondo”. Ez, Begoñari zegokiona zera zen: “Zertan ari zara ergelkeriatan?” edo “you are fooling yourself!” edo “nobela ba-

tean ageri da halako pertsonaia bat..." edo "Lakuan ere badago horrelako txorradetan sinesten duen lankide bat" edo "film batean ageri da horrelakoren bat" edo "ez zaitut ulertzen". "Ondo". Besterik ez. Beti iruditzen zaio suge bat, gauzak erdizka esanda beste erdiaren anbiguitasunari etekina ateratzen dakien horietakoa dela, bai bizitza pertsonalean -behin baino ez zuten urte haietan guztietan Axirekin Begoñaz hitz egin, batez ere, Axik nahi izan ez zuelakoz- bai bizitza profesionalean, non sugearen sigi-sagak eginez bukatu baitu Kultura Sustatzeko Zuzendaritza.

Damutu egin zitzaion pentsatutakoa. Nondik datorkio gorroto hau guztia? Begoña nahiz eta Axiren adiskideago izan, bere adiskide mina ere bada; askotan gainera aldarrikatu gabeko hirukotea izan dira, gehiagotan Axi eta Begoña gehi Joseba; baina beste batzuetan Begoña eta Joseba gehi Axi; eta dexentetan Axi eta Joseba gehi bikotearen aringarria: Begoña. Injustua izaten ari da. Injustua, hori da hitza, injustua aurreko eguneko telefono elkarrizketan, injustua orain, bolantea eskutan gogoratzearekin gorrotoa berritu zaiola.

"Ez didazu ezer gehiago esango?" leundu zitzaion.

"Zer esango dizut, my friend?"

Gorroto du noiznahi ingelesezko esaldiak botatzeko ohitura nazkantea.

“Muñoz Eugik gomendatu dit. Bera joana omen da, zuk subentzioa ukatu diozun film proiektuaren etorkizuna iragartzeko. Lotsarik gabe aitortu dit”.

“Ezin beste bat izan: Muñoz Eugi. Nik ez diot horri subentziorik ukatu. Beste batzuek erabakitzen dituzte gauza horiek. Baina utz dezagun. Esango didazu”.

Hemen, orain, hemen orain, Landerrek eta Guiller-mok esaten dioten moduan. Josebak leihoko paisaiari erreparatu dio. Batzuetan Axi ondoan dagoela ere ahazteak beldurtu egiten du. Kapsula batean doa, doaz, Sakanako paisaia urdin-berdexka ikusi aurretik intuitzen hasiak oroimenaren deskribapenen metafora egiten duela. 20 kilometrotan-edo Lekunberrira aile-gatuko dira, eta gero atzean utziko dute.

“Gaur egun ez da uste oroimena endoneuronala denik -alegia neuronaren baitan, barnean gertatzen den zerbait-, ez eta badenik ere halako kode kimiko bat, oroimen molekula bat-edo. Neurona bat sare itzel bateko partaide da eta hainbat saretan parte hartzen du eta sareek hainbat eremutan parte hartzen dute. Hortaz, oroimena neurona sareen jarduera aldaerak baino ez dira, eta horrela oroitzapen bakoitzari sare

horretan konektaturiko jarduera espazio-tenporal bakar eta propioa dagokio. Oroitzapen batean, beraz, pentsa ezazue nahi duzuen oroitzapenetan, gertaturiko unean gertatu ziren konexio neuronalek osaturiko sarea berregiten duzue gogoratzen duzuen aldiro, eta, berriro gordetzen konexio sare hori gogoratzean uneari erantsitako emozio eta sentimenduekin. Beraz, zuek bizitzako oroitzapenak gogoratzen dituzuen aldiro aldatu egiten dira, edertu asko; itsustu, beste asko”.

Orduan, Axik, oroimen anterogradoaren galerarekin, istripu aurretik gogoratzen dituenak ez ditu berri- turik gordetzen baizik eta gertatu zirenean, edo azke- nekoz gogoratu zituenean gorde zituen moduan? Eta, bestalde -ezinegonak eragin dio gogoetak- ezin du oroimen luzeak oroimen laburra, Axik faltan duena, or- dezkatu, eta horrela hilik dituen hipokanpoko -hori konprenitu zion behintzat Carmen neurologo andreari- neuronen gabezia beste sistema eta zirkuitu batzue- kin ordezkatu?

Lekunberriko eliz dorrearen boladun pilarexkak agertu zaizkio maldan behera egin duenean. Bertan egongo da Pili, koinata-edo; eta haren lagunak: Hara- kin, eta handiturik daukan seme Down sindromeduna; haren andre ohia, Estibalitz; eta osaba Jose, bizirik da-

goen aitaren senide bakarra. Lekunberri, herri hori, pentsatu du aitarekin izan zuen harreman gatazka-tsuak gogoia iluntzen diola.

“Beraz hartu nahi duzuen gertakaria, demagun, Rothkoren koadro horren ondoan” jarraitu du neurobiologo britainiarrak, “norbait *maite zaitut* esaten ari zaizuen lehenengo aldia, esaterako”. Orduan, hor zaudete, koadro abstraktuz inguraturik, areto hutsean, aurrean zuen maiteak, belaunikaturik, “maite zaitut” dioela. Horren hunkitzen zaituzte aitorpenak, esperimentzia hori gordetzen hasten da. Sentitzen duzuen milioika neurona sinapsi dira, deskarga elektrikoez osatuak, eta sinapsi horiek sare bat osatzen dute.

Eutsi pixka bat orain. Eutsi, norbait “maite zaitut” esaten ari zaizue. Zuen garunean atzera-aurrera, gora-behera, joan-etorrian dabiltza azetilkolina, dopamina, azido gama-aminobutirikoa, norepinedrina, serotoninina, oxitozina, neurofisina 1, neurofisina 2, neurofisina 3, enkefalina, sekretina, basopresina, tiramina, histamina, melatonina, glutamatoa eta abar. Horixe dantza eta dantza. Neurona auresinaptikoak neurotransmisore horiek askatu, espazio sinaptikoan proteinekin lotu, eta elektrikoki kargatzen direnez, neurona postsinaptikoa eta kanpoko espazio intersinaptiko-

aren artean gertatzen den karga elektrikoaren desberdintasunak eragiten du neurona postsinaptikoaren mintzako kanalak ireki eta inpultso elektrikoa neuronan barneratu eta hurrengo neuronarantz abiatzea.

Maite zaitut. Asko hunkitu zaituzte aitorpen horrek eta, asko hunkitu zaituztenez, milioika sinapsi kopuru jakin eta zehatz horrek badauka sendotzeko aukera; beharbada desagertu egingo da, izan ere, maite zaitut esan dizuen hori, bizitza modernoan gertatzen den moduan, hurrengo egunean zuen bizitzatik desagertu, eta bere “maite zaitut” horren esperientziaren milaka sinapsiz osaturiko inpultso elektriko horrek indarra galduko du eta ez duzue gogoratuko; edo zuen maitalearen alde egiteak bihotza hautsiko dizue eta konexio sare hori irmotzen joango da eta oroitzapen bilakatzeko, aldiro-aldiro, glutamatoa egotziko duzue espazio sinaptikora, glutamatoa proteinekin elkartuko da, neurona postsinaptikoaren mintza irekiko da, inpultso elektrikoa iragango da neurona barnera eta horrela milioika eta milioika aldiz oroitzapena osatzen duen sarea osatuko duzue, hara, oroitzapena!; eta berriz ere gorde egingo duzue gogoratzearen uneko emozio eta sentimenduarekin uztarturik. Edo eman dezagun maitasun istorio batzuk ongi bukatzen direla, berdin

egingo duzue, baina, “maite zaitut” hori glutamatoarekin lotzeaz gain –oroimena izan dadin beharrezkoa da– dopaminarekin lotuko duzue, edo oxitozinarekin”.

Josebari Oskar etorri zaio gogora, edo Bego eta Cruz Mariren istorio kiribil nahasia. Eta gero berea, dopamina eta oxitozinez blai, istripuak eragindako serotoninaren maila baxuagatik eta neuronadrenalinagatik ez balitz. Beno, beharbada hemendik aurrera berdin izango da, gauzak ez badira zuzentzen deliberoa hartua dagoelakoz.

Zergatik ez du gogoratzen Axik? Hizlariak ez du azaltzen, eta interesa gorabehera ez daki zergatik gomendatu zion TED hitzaldi hori Axiren neurologoak.

Oroimena hori bada, gogoratu aldiko noizbait gertaturiko inpultso elektrikoa birsortzea, aitatu behar dio Landerri ez baitu aipatzen *Dolutan* filmaren prentsarako txostena erredaktatzeko eman zizkion ideia multzoan. “Egoera traumatiko batean hildako baten dolua egitean, orduan” jarraitu du Vivian Sarak, “egoera eta galdutakoa gogoratzen den aldiro, oroitzapena traumak eragindako bestelako emozio eta sentimenduekin gordetzean datza gakoa, horrela traumaren trauma gutxituz. Dolua, azken finean, hildakoaren gabeziak eragindako mina beste modu batez gordetzea da.

Dolua oroimen arazo bat da, eta ez uste izaten den moduan, denborak oroitzapena ezabatzen duelako, baizik eta gordetzen den bakoitzean gordetzeko unea inguratzen duten emozio ez-traumatikoez atxikirik birgordetzen delako. Nonbait, halaxe uste dute adituek –ez dago esan beharrik, ni ez naiz aditua–. Vivian Sarak adarjotzearen irria itxoin du une batez, baina gero aurrera jarraitu du entzuleei esandakoaren grazia neurtzeko denborarik eman gabe, eta, beharbada horregatik, berandu baina irriak entzun ditu Josebak. Bilbo hiria zuloan ageri da. Nola egin ditu Lekunberri Aranaztik honainoko kilometroak gidatzen ari dela ohartu gabe? Axiri ere erreparatu gabe? Egun berunkararen argietara. Auto ilara batek Miraflores bidean asteburu askotan gertaturikoa ekarri dio gogora, sarrera honetan bertan hainbatetan gelditu eta atrapatuta sentitu denekoa, Axi ikustera etortzen zen aldie-tan.

“Axi, ongi zaude?”.

Ez dio erantzun. Zeharka erreparatu dio Josebari. Zer gertatu zaio? Urtebetean, hura gertatu zenetik, errabia eman dio eufemismoak, hura, istripua, bihotzekoa, hitz batean putada galant hura, kabroikeria hura, bizitza injustua deneko kontzientzia hartze bat-

bateko hura, bizimodua etabizitza erabat arrotzu zaio. Bere lagunak, esaterako Bego, Lander, Txato, hortxe daude, bixi-bixi. Axi berrogei urte zahartu da, ez istripua gertatu zaionetik -ez zaizkio zimurrak egin, aurpegia leun-leuna du, ez zaizkio hazpegiak sortu, edo sudurra zorrotzu-. Ez daki non irakurriari -berrogeiak arte gorputzak eusten dio buruari, berrogeietatik aurrera buruak gorputzari- egiazkoa irizten hasi zaio Joseba; eta Axi ez dela osatuko jabetu denetik halako ahulezia bat nabaritzen dio, gazteegi etorritako zahartzaroren aztarna moduko bat.

Zenbat zahartu den galdetu du bere artean. Erretrovisorea bilatu du eta aurpegia ukitu du edadearen aztarnak eskuaz nabaritzeko.

“Beraz itzul gaitezen hasierara: Zer gogoratzen dugu? Esan beharko genuke gogoratzea gogoratzen dugula une bateko sare neuronala etengabe berreginez.. Eta hor gure kontzientziari erreferentzia egin beharko genioke. Ramachandran neurologoarentzat kontzientzia sortuko da hominizazio garaian, non hainbat garun-egiturak garatutako irudikapen sentsozialak metairudikapen bilakatuko baitira, alegia, irudikapen sentsozial hutsak ekoitzi beharrean garunak irudikapen horien irudikapenak sortu zituen, oroimenak oroi-

tzapenen oroitzapenak sortzen dituen moduan. Horrek pentsamendu sinbolikoa sortuko du, eta hortik lengoaia eta abar. Beraz, kontzientzia, oroimena barne, irudikapen baten irudikapena da. Gainera, irudikapen horrek 40 Hzko iraupena du alegia, aktibitate elektrikoaren zikloa 40 aldiz errepikatzen da segundo-ko. Demagun paseatzen ari garela, aktibitate elektrikoaren zikloak jarraituko luke etengabe, baina, halako batean txakur baten zaunka entzuten dugu. Arriskua! Zikloa berriz hasiko da, orduan. Zaunka bakarra. Ez dago arriskurik. Has dezagun paseoaz gozatzeko 40 Hzko zikloa. Norbaitek maite zaituzte, bizitza ederra da”.

Axi Landerrekin utzi ondoren La Peña auzora abiatu da Urazurrutia kalean barna. Andrea euskalduna da; esoterikoegia; oihal horiz estalitako mahai kamilla batean eserarazi ondoren bota dizkio kartak; errezelak ilunak dira eta dena dago argitzaletan, estereotipatu ki magiazkoa ematen duen eszenatokian: belusezko sofa, alfonbra iluna, egurrezko zorua, sutondoa kandelak piztuz betea; itxura emango zukeela pentsatu du La Peñako hirurogeiko hamarkadako pisu arrunt eta itsusi bat izan ez balitz.

Nahi duenean kontzentratzeko eskatu dio. Eta gero ezker ala eskuin aukeratzeko. Eta ezker aukeratu ahala gogora etorri zaio ehgamekoekin Bilbora zerbitzatzerantz etorri zireneko batean Txoko Landan inork ez zuela lurra lehortu nahi -oso berandu zen eta mongiak jan zituzten- eta zenbakitara jokatu zuten. Txatok -orduak ez zuen hainbeste ezagutzen- berehala igarritzen bukaeran biak gelditu zirenean bakoitia aukeratu zuela, eta hiru esan eta asmatu zuen. Durduzaturik aritu zen zorua fregatzen besteek zerbeza bana eskuan, atarian itxoiten zuten bitartean. Nola asmatu zuen? Baina batez ere nola jakin zezakeen Txatok berak ordura arte jakin ez zuen zerbait, alegia, bakoitien zaleago dela bikoitiena baino? Bakoitiak berdin ezkerra, ezkerra berdin aldrebesa.

Bere ondoko bati zerbait larria gertatu zaiola esanez hasi da Paqui. "Istripu bat" gehitu du bokaletan zezelka eginez. "Grabea. Eta orain zuk kargu egin behar duzu. Eta nekeza egiten ari zaizu. Zure... ahaidea", zalantza egin du, "ahaidea da, ezta?... Pixkanaka-pixkanaka hobetuko da, berera itzuli arte".

Josebari zenbat denboran galdetzekoa egin zaio baina iruditu zaio pagatutakoak ez dituela epeak bermatzen, kobratuko dion dirua -berrogei euro- horren-

beste xehetasunekin igartzeko nahikoa ez balitz bezala.

Gero kartetan igarri ezin den zerbait –“Gizakume bat ematen du” gehitu du, “baina beharbada emakumea da”– badela aitatu dio, etorkizunean gertatzear dagoen zerbait baina iraganetik datorrena.

Joseba azken boladan gertaturikoak arakatzen saiatu bada ere ezin du Axiren istripuaz harantz ezer irudikatu, gogoan egun malaparteko hartan gertaturikoan katramilaturik baitauka.

“Aurreak erakusten du atzea nola dantzatu” bota dio, Josebaren harridurarako, amak erabiltzen zuen erranairua oihalez estalitako mahai gainera ekarriz.

Josebak galdetu dio zer esan nahi duen horrek, eta Paquik erantzun dio ez dakiela, badakiela iraganean gertaturiko zerbaitek etorkizuna “ilunduko deutsula”; sorbaldak jaso ditu Paquik eta karten interpretazioa ez dela zehatza eta batzuetan ez dela jakiten kartek zer dioten, “baina kartek diñotena diñote, bestela da geuk ezin esana”.

Josebak zalantza egin du berriz ere Axiri buruzkoa galdetzea matraka izango ote den baina prezioa egin zaio gogoan, eta oraingoan baiezkoa erabaki du: “Eta orduan nire ahaidea osatuko da?”.

Paquik baiezko keinua egin dio, eta baietz erantzun dio, pixkanaka osatuko dela, baina Josebari irudituz zaio oraingoan ez duela arestiko ziurtasuna eta sendotasuna erakutsi “bai” horretan, zalantza arrasto bat igar daitekeela azkeneko “i”an, baiezkoa ahoskatzea baiezkoa sinesteko prozesuaren baitakoa balitz bezala, “ia-ia ekintza performatibo baten moduan”.

“Bai-bai”.

Eta hirugarren aldian entzun duenean Joseba lasaiago gelditu da, Paquik kartak bildu, kutxa batean sartu eta so gelditu zaionean.

“Dena konponduko da”. Isiltasuna, ia tarte teatral bat. Errezel ilunak, argitzalak, mahai kamillaren oiha, Paqui bera, kanpoan emakume arrunta emanen lukeena, pitonisa bihurturik.

La Peñako parketik Zazpi Kaleetara hartu duenean etorkizuna idatzita nola egon daitekeen pentsatu du. Idatzita baldin badago leku gutxi dago kontingentziarendako, eta patua noizbait botarik, hura betetzea baino ez da gelditzen. Orduan Paqui bezalakoez badute patuaren mamira ailegatu, arakatu eta ikusteko modurik. Pentsatu ahala txorrada galanta irudituz zaio norbaitek –unibertsoaren jaunak– ororen ibilbidea idatzia izatea... ez dago lekurik borrokarako –borrokak

beti du helburu bat- borroka bera ez bada, edo atzetik eragindako herra baten ondorio; nahiago du kontingentzia, etorkizun irekia izatea, eta hainbat gauza ez gertatzeko orainean hainbat neurri hartzea. Hartu zituen neurriak Axik? Ez. Esan zion behin baino gehiagotan gehiago zaindu behar zuela kolesterolari neurrian eusteko, eta Axik barre egiten zion. Elkarrekin haserre hiltzea ere, ez zen patu kontu bat baizik eta aspaldixotik zekarten giro gogogabetuaren ondorio. Hala kontingentziaren kontra pelea egin daiteke, eta ekidin ezin bada, bezatu. Eta gainera, kontzientzia eta oroimena berritzearen berritzea baldin badira nola asma daiteke patua? “Ez da egia” aditu du bere baitan. Paquiren ahotsez, nahiz eta gero Begorena dela iruditu. Bego. La Lista. Adiskidantza ke seinaleen jolasa baino ez da. Nahi duenean utz zezakeen Axi baina ez du utziko, baizik eta azken froga ez badu gainditzeko, askatuko. Ez du utziko, ez du gibelik. Baina beste irtenbidea, beharbada. Paquik agindu dio hobetu egingo dela Axi.

Aldapan gora gidatu zituen Kennethek 24. kaletik zehar. Gero behera egin zuten Castro Theatererraino. Art Deco estiloko eraikinaren aurrean jende samalda zegoen.

“Hi, Kenneth” agurtu zituen mutil bizardun lodikote batek. Besarkatu eta musu eman zioten ezpainenan elkarri. Axi zapuztu egin zuen Iruñean bezala izateak: gay mugimendu guztiak musuka aritzera kondenaturik al zeuden!? Zergatik musuak? Galdetu zion bere buruari, Joseba eta Kennethi galdetzera ezin ausaturik.

Kenneth haiengana itzuli zen.

“Some friends from Spain... ok... from the Basque Country”.

“Sorry?”.

“A part of Spain”.

“All right, Basque. I didn’t understand you”.

“Dereck” aurkeztu zuen bere burua. Txato bat baltiz bezala musuka hastera zihoala, Josebak, Axiren mizkinkeriaz oharturik, eskua eskaini zion atzeritartasunaren aitzakiaz baliaturik. 7. kaleko US Health and

Human Services Department-eko bulegoetara joatea zela asmoa. Rufusek errautsak eramango zituela, eta bildutakoak atzetik joango zirela. Asteleheneko Act Upeko bileran hori erabaki zela, Rufusek “Tomek hileta politikoa nahi izango zuela bota zuenean”. Bidentabarrean Rufus ere nahiko gaixorik zegoela gehitu zuen. Eztabaida izan zuten nora joan errautsak haizatzera, baina azkenean horixe erabaki omen zen, ez zen hala ere lekurik garrantzitsuena, baina...

Kenneth bilerara joan ez izanaz desenkusatu zen lana aitatuz eta Axi eta Joseba seinalatuz.

“Ez nuen gogorik” aitortu zien, Dereck beste alde-
ra itzuli zenean.

Berrogeita hamar bat izanen ziren, gizonak asko, emakumeak hainbat; lesbianak ematen zuten batzuek, beste batzuek, ordean, emakume arrunt. Pentsatu ahala agertu zitzaion Txato -horren urrutia- “arrunta” hitzarekin jolasean barre eta barre. “Arrunta” pentsatu zuen emakume batzuk eme ematen zutelako, gona, ile luze, makillaje eta guzti, eta Euskal Herriko lesbianek oso bestelako. Gizonek, aldiz, batzuek ez zuten gay ematen. Lauzpabost motorzale agertu zitzaizkion leatherrez jantzita. Kennethek, nonbait, bekainetan harridura keinua ikusirik, “Tom was into leat-

her” laburtu zuen. Han 75. urte inguruan ezagutu zutela elkar, bera baino nagusiagoa zela, eta amorante egin zirela hasiera-hasieratik, istorio garrantzitsua izango ez zelako jakitun garai ederrak bota zituztela, algarak, azantzak eta pozak. Eta gerora naturaltasunez, mahaigaineratu gabe, amorante izateari utzi eta adiskide bilakatu zirela, batetik besterako zeharkaldia soilik bi gayk egin zezaketen moduan ibiliz; beno, bi gayk edo bi lesbianak, edozein modutan biren arteko istorioa eraikitzeko eredurik gabeko bik. Bi “queerre” orduantxe esaten hasi ziren bezala.

“Queer?” galdetu zuen Axik, harriturik.

“Bai, your *marika* as long as I understood” bota zuen, Josebari baiezkoa eskatuz.

Josebak baiezkoa egin zion. “Bai, zu egon ez zinen jardunaldi haietan *marika* erabaki zen”.

“Eta Tom hau...” tentatu zuen Josebak, Kennethi jarraitzeko eskatuz.

Ezer ez. Horretan bukatu zela afera. Gero Tomek Rufus ezagutu zuela, potoa zeramana. Eta elkarrekin bizitzen jarri zirela harik eta 82-83. urteetan dena lehertzen hasi zen arte.

Market Streeten beherantz hasi zirenean –Rufus gidari jendearengandik pixka bat aurreratua– kande-

lak piztu zituzten batzuek. Gero pankarta zetorren: SILENCE=DEATH. Josebak irudia ikusi zuen lehendabiziko aldiaz akordatu zen, Txoko Landara lanera joan zen aldi hartan hondo beltza, hiruki arrosa, eta letra zuriz osaturiko irudia oso ahaltsua egin zitzaion. Gero, ikusiaren ikusiz, indarra galtzen joan zen, baina ziur aski jende arruntarendako -hortxe berriz ere izenondoa-oraindik ere kartel asaldagarria zen. Pankartak ezkerretan oihal gorri-berde bat zeraman itsatsirik, *Quilt Project*-erako oihala! harritu zitzaion Kenneth, Dereck bilatzen zuen bitartean. "Quilt Project!" seinalatu zion. Algara egin zuten eta barrezka hasi ziren biak ala biak ergel antzean. Hiesak jota hildako bakoitzeko zapi bat egin eta oihal erraldoi bat osatzen joatea zela Quilt Project delakoa. 88an Etxe Zuriaren aurrean paratu omen zituzten eta hildako guztien izenak esan. "Mourning" esan zion Kennethek. "How do you say mourning in Basque and Spanish?". Axik eta Josebak elkarren artekoa bilatu zuten. "Dolua egin, estar de duelo" bota zuen Axik, "ez dago aditzik" esan zion gaztele-raz. "Quilt project dolua egiteko modu bat da", baina nazkatuta zeudela doluz, eta borroka egitea zutela helburu, laburtu zuen urruntasuna irudikarazten zuen tonuan. "Nekaturik nago" bota zuen gero etsi antzean.

ACT UP, FIGHT BACK entzun zen. WE LOVE YOU TOM! YOU, BASTARD! Batzuek, Kennethek haien artean, barre egin zuten.

SILENCE IS DEATH, ACT UP, FIGHT BACK, FIGHT AIDS egin zuen garrasi beste norbaitek, baina isiltzeko aginduzion jendeak.

“Isiltasuna” esan zien Kennethek.

Ez ulertuaren keinua egin zioten.

“We must remain quiet!”.

Axik pentsatu zuen kronika egin beharko balu jendearen seriotasuna azpimarratuko lukeela jende kopuru, itxura edo kandelen distiraren gainetik. Kennethek azaldu zien eztabaida izan zela Act Upeko azken bileran hileta isila izan behar ote zuen. Beste hileta batzuk ahaideek antolatu eta pribatuak zirenez, ez zegoela eztabaidarik, baina Tomek hileta politikoa nahi zuenez, uste izan zutela, “just a few, me among them”, haserrea eta *anger*-a erakusteko parada izan behar zuela, eta geroz, garrasiak beharrezkoak zirela, but there is no... anger... nola esaten da *anger* euskaraz?”.

“Errabia” erantzun zion Josebak.

“Haserrea ere esaten da” arrapostu egin zion Axik, Josebarenari puntua jartzera balihoa bezala.

“Never mind, there is no anger anymore. Just despair...”. “Disdain” gehitu zuen gero. “But Refusek...” dilindan utzi zuen esaldia. “People are dying. There is no cure. Nekaturik gaude”.

Eta orduan ohartu zen Joseba beharbada euskaldunen diskrezio malapartekoagatik, beharbada axolagabeziagatik, beharbada, dardara egin zioten hanke une batean, Axik hiesari egin nahi zion ez ikusiarengatik, beharbada kutsatzeko beldurragatik, ez ziotela Kennethi galdetu haren osasunari buruz, zeramatza ten hamar egunetan begiratu nahi ez zuten zulo beltz baten modukoa izan zela; nahiz eta gero larrua jotzeko orduan, beldurak erabat desagertu; bereak behintzat, eta esango luke Axirenak ere bai. Eta Axik zuen errua, hiesarekiko, eta oro har edozein gaixotasunekiko beldurra bere maskulinitatearen arrakalatzat jotzen zuenez, nahiago zuen ez ikusiarena egitea.

Market Street un plazatik iragan ziren. Eraikin zuri beharko luketenak griskaraturik ageri ziren arratsaldearen argitara. Iluntzen hasi zuen. Kandelek eramailen aurpegien atal irtenak argitzen zituzten besteak itzaletan utzirik. Hiletak ez zuen mundu honetakoa ematen. Axik, kazetaritza izpiritua akuilu, “who was

that Tom” galdetu zion Kenneth pixka bat atzeratua-
rengana gorputza jiratzuz.

“What, that?”.

“Tom, nor zen Tom?” bota zion, ezinegon arrasto-
ak ahotsean, beharbada, deseroso zitzaion gaiaz gal-
detzera ausartu eta eragozpenak ageri zirelako.

Kennethek adiskidea zela berritu zuen. “What
else?” ahoskatu zion bere buruari desgogora. Josebari
iruditu zitzaion ez zuela horretaz mintzatu nahi, galde-
rak hazka egiten zuela zaurian.

“Nahi ez baduzu ez esan” bota zion Axik, boikotea-
tzen ari zela pentsa zezakeelakoaz ezaxola.

Zer esan ez zekiela gelditu zen une batean. Festak
antolatzeko enpresa txiki bat zuela; ama kolonbiarra;
hamabi bat urte egin zituztela elkarrekin; 86. urtearen
bukaera arte -urtebete pasa- itxoin zuela testa egite-
ra joateko; “Zertarako” esaten omen zuen, “jakin nahi
dut *fucking* birus hori badudan ala ez, ez dago senda-
biderik eta”; Rufusek konbentzitu zuela. “I still remem-
ber the day they told me”; afaltzera gonbidatu zutela
Castroko Liberty Streeteko etxe dotorera -“as long as
I was younger I was staying in a less, let’s say, wealthy
apartment”- eta irribarre batekin esan ziola Tomek Ru-
fusen begiradapean, “we are going to die” eta gero

gehitu zuela etxetik zekien gaztelera kolonbiarrean: “Vamos a morir, amigo, we are positive”, seguru zegoen, aurretik prestaturiko hitz jokoa baliatuz, Tom horrelakoa baitzen, *fag* tipikoa, nortasuna espantu hiperbolikoan -zeina norberaren gaineko ironia baitzen- oinarriturik zuen. Ez zuen ulertu, nahiz eta behin baino gehiagotan entzun “I am positive” hori, zeinak *gibduna naiz, erabat seguru nago eta baikorra* naiz esan nahi zuen, ez baitzitzaion otutzen zer baikortasun zuen gibduna izateak. Rukula entsalada jaten ari ziren. Artean gogoan zuen landarearen zapore metaliko antzekoa eta mantel morearen gainean bigarrengo zituzten burritoak. Koilara-sardexken txintxina entzun zen. Ez ziela sinetsi gehitu zuen Kennethek. Eta barre egin zuela, eta ergela sentitu zela. Axi adi-adi zegoela ohartu zen Joseba, bere baitan une hura ezin irudikatuturik. Jendea gaixotzen ari zela haien inguruan, “euliak bezala hasi ziren erortzen”. Eta S.F.n leunago izan arren, *gay community*-a handia baitzen, hedabide, jende arrunt eta gobernutik eraso homofoboak izugarriak ziren praktikan homosexualitatea eta hiesa berdinduz. “They tried to pass Laroche bill”, hiesdunak berrogeialdian jartzeko; saunak itxi zituzten; politiko federalak haien kontra hasi omen ziren bizi desorde-

natua zeramatelakoan. Dreadful. Ez zegoela sendatzeko esperantzarik, baina aldi berean bazegoela elkartasun handia, orain ez bezala, “there is no hope”, ezta elkartasunik ere. Hiletak eta kandlekin egiten zirela -gaubeilak- eta gero hasi zirela dolua errabia bihurtzen. Act Up sortu zen garaian.

Josebak harantzaxeagoko mutil bati erreparatu zion, koadrozko alkandoraren pean Kennethek bezala giharrak oso garaturik bazituen ere, aurpegia zimeldua ageri zitzaion, eritasun larri eta luze baten ondorengo aztarna urrunak nabari zitzaizkion, bisaiaren berezko ezaugarri; eri ez, baina eri izandakoa betiko.

Dereck hurbildu zitzaien barrezka. “*I hate the fucking quilt too* is written behind”. Barre egin zuten biek. WE LOVE YOU TOM egin zuen garrasi Dereckek.

Neska gazte ile motz bat hurbildu zitzaien gero. Lesbiana behar zuela pentsatu zuen Josebak itxurak baino areago egoerak behartuta, izan ere, Lekunberriko nesken antzera jantzita bazihoan ere -kamiseta handia, larruzko kazadora kremaileraduna, margorik ez, galtza beltzak, zapata bajuak- haiek ez ziren lesbianak, baizik eta emakume “liberatuak” edo.

“You old bastard!”.

Eta Kennethen lepotik zintzilikatu zen. Kennethek musu eman zion ezpainetan eta besarkaturik jarraitu zuten une batean.

Aurkezpenak egin zituen: “Fran. Joseba, Axi”.

Franen begietan iragan zen distira eta ezpainetako keinu ia nabariez in batez, haien artean zerabiltena bazekiela ohartu zenean, halako zirri bat egin zitzaion Axiri sabeletik hankarterakoan. Kennethi eskua sorbaldan paratzean berotasunak gora egin zion. Deltoide ederra zuen, berea ez bezalakoa. Franek, haien arteko intimitateaz oharturik, atzera egin zuen. Haiek, ordea, pentsatu zuen Josebak gertatzen ari zena konprenitu baino areago sentituz, bi ziren orain, Axi eta Kenneth. Zergatik kostatzen zitzaion horrenbeste partekatzea Axiri, ezin zuen beste besoa bere gainera ere bota? Jeloskor sentitu zen bigarren aldiz S.F.n zegoenetik. Bere buruari galdetu zion berdin sentitu ote zen Axi eta berdin sentitu ote zen Kenneth.

Fran Act Up/San Franciscon zerabiltenaren gainean hasi zitzaion Kennethi besotik helduta. Emakumea eta hiesaren artekoak, saio klinikoetan emakumeak onartzeko kanpaina abiaraziko zutela Act Up Now-rekin batera, eta haiek ere ari zirela Act Up/Golden Gate bezala tratamenduari erreparatzen,

eta azken boladan ez zela asko egon Tomekin, eta ea zer moduz zegoen Rufus, eta...

Kennethen irribarrea makurtu zion, esatera ausartzen ez zenaren ordezkio-edo. Gero, desenkusa moduan, buruko ilea nahasi zion eskuarekin, eta besoa sorbaldatik botarik “I am just sad” egin zion arrapostu. “Sad” laburtu zuen gero. Fran isildu egin zen, eta Joseba ohartu zen Kennethen egoeraz, azkeneko egunetan izandako algaren azpian sumatzen zuen joran behartu hari, benetakoa izanagatik, zalantzaren dardara nabari zitzaion, zerion poza, ez zekien nola esan, mututua balego bezala, edo gorra, edo dorpea, edo besterik gabe, desegokia, aldrebasa zela. Axiri begiratu zion entenditu zuena partekatzeko baina Axi hiletari so zihoan, begiak eskanerrak bezala dena artxibatzeko. Jantziak; batzuen mehetasuna, matrailezurrei itsatsitako haragia, haragirik ezean begi handiegiak, handiegiagatik eta gertatzen ari zitzaienarengatik harri eginik ziruditenak; beste batzuen itxura osasuntsua, oldarra.

3. kalera jiraturik berehala agertu zitzaien iluntzeko argitara bloke osoa hartzen zuen eraikin zurixka: estilo neoklasiko amerikarra, fatxadako harberak lerro horizontalak egiten zituen. Beheko leiho handiek

puntu erdiko arkuak zituzten, lerroak eginez arkuarekiko perpendikularki. Goiko leihoak karratuak ziren. Eraikinak, handiegia izan gabe nagusitasuna adierazten zuen, areago ilundu ahala itzal baten eitea ari baitzen hartzen, ertzen muga lausotuek irmotasuna areagotzen ziotela. Lasaiago zihoazen orain, trafikoa ez baitzen Market Streeten bezainbestekoa. Atarira ailegatu zirenean erdi puntuko arkuaren barnean enmarkaturiko dintelari erreparatu zion Axik. Kronika batean ondo geldituko zen eraikinaren erraldoitasuna -ez zen egia baina kronikari kontrastea eta sinesgarritasuna emango lioke Goliat eta David efektua azpimarratzeko- eta manifestarien kopuru txiki xamarra. Ateari bizkarra emanez paratu ziren Rufus eta segizioko hasierakoak. SILENCE=DEAD zioen pankartak. Ezkerretara quilt-a zegoen, lehen Dereckek aipaturiko leloa, *I hate the fucking quilt too*, irudikatu zuen Josebak oihalaren ifrentzuan.

“Hori”, seinalatu zien Kennethek, “Avran Filkenstein da, SILENCE=DEATH sortu zuena”.

Baiezkoa egin zioten inpentsan, Rufusen eta gertatzera zihoanaren erraldoitasunak arreta eman baitzien. Josebari bururatu zitzaionean Kennethek ez zuela ematen oso hunkitua, arreta segizioaren burutik

aldendu eta zeharka aztertzen hasi zen. Hunkitzearen arabera baldin bazen Tomekiko adiskidantza, ez ziren horren adiskide. Pentsatu ahala damutu zitzaion. Segur aski -eta hori pentsatzean askotan gertatu zitzaion moduan bere buruaren usteko iruditu zitzaion bere burua- dolua egina izango zuen, adio esana Tomi, negarrak urtuak, eta aurrean zuen hura azken muturra, gorputz bati adio esateko modua baino ez zen izango. Dolu erdia, erdi dolua, doluaren azken hondarrak.

“Tom was gone about a year ago. Europatik etorri nintzenean”.

ADCEZ (Aids dementia complex) hil zela; Euskal Herriatik etorri zenerako Tomek arazoak zituela mugitzeko, oroimena galtzen hasi zela, jendea ez zuela ezagutzen, orduak ematen zituela txoritegietan, batzuetan balantzaka. “Oso latza” laburtu zuen, Joseba izenondoaren egokitasunaz zurtuta utziz.

“Latza: tough” bota zuen Josebak, ergel sentitzearekin batera Axiren arreta segizio burutik aldenaraziz. Pentsatu zuen magikoa zela, egiten zituen laburpen ergel haietako bat bota ahala bertan zegoen Axi, inki-sizio begirada gainean, baina oraingoan, Axik ez zuen

ezer esan, Josebak esandakoa aditu bai baina testuiguruan jartzeko gauza izan ez zelako.

“Hiesak eragindako eromen modu batez hil omen da Tom”.

“Niri horrelako zerbait gertatzen bazait, hil nazazu. Nazazue” atera zitzaion Axiri.

“We have gone through too much”. Eta beteta zegoela, ezin zuela horrelako gehiago jasan.

Franek sorbaldatik heldu zion, Kennethen dolu tonuaren kontsolagarri.

Rufusek paper bat atera zuen poltsikotik eta ezer esan gabe zera irakurtzen hasi zen: “Living with AIDS is living through... Hiesarekin bizitzea lubakietan daudenendako bakarrik gertatzen ari den guda batean egoitea bezala da. Bonba bat lehertzen den aldiro, ingurura begiratu eta beste lagunen bat galdu duzula ohartzzen zara. Baina inor gehiago ez da ohartzten –ez zaie haiei gertatzen ari– eta hortxe dabilta kalean gu lokamuts batean gabiltzan bitartean. Zuk bakarrik entzun ditzakezu hiltzen ari den jendearen garrasiak eta laguntza eskaerak... guda garaia baino makurragoa da, guda garaian jendea partekaturiko esperientzian baturik dagoelako. Honek, aldiz, ez gaitu batzen, banan-

tzen baizik: hiesdunak eta horien alde borrokan ari direnak besteengandik, hiesik ez daukatenengandik”.

“Vito Ruso” ahoskatu zuen Kennethek hortz artean.

“Vito Ruso” esan zuen Rufusek ozenki, burua altxatuz jendeari begiratzuz.

ACT UP! FIGHT BACK! FIGHT AIDS!; ACT UP! FIGHT BACK! FIGHT AIDS!; ACT UP! FIGHT BACK! FIGHT AIDS! Jendea gero eta ozenago hasi zen garrasika. Aurpegiek gero eta haserreago ematen zuten, azantzek beraiek haien errabia laxarazi balute bezala. Josebak pentsatu zuen azantzek aterpe antzeko bat osatu zutela, atzean zituzten kale, trafiko, jende eta begiradetatik gordetzen zituen babes moduko bat.

Kenneth ere hasi zen haiekin batera garrasika. Aurpegi etsia mudaturik, errabiak hartua ematen zuen, hondoan ageri zuen tristura antzeko hura, zeinaz, Joseba seguru zegoen, Axi ez baitzen jabetu ere egin, aienaturik. Axik keinuei erreparatu zien, bakarra zegoen, Euskal Herrian ez bezala, ezker besoa altxaturik, zeruari egiten zioten garrasi batzuek, besteek erdi puntuko arkuan bildutako ate buru neoklasikoari. ACT UP! FIGHT AIDS!

Horrelako asko egongo ziren azken urteetan hemen. Hiletak, segizioak edo manifestazioak, ez zuen jakin nola deitu. Eta horrelako askotara etorria izanen zen Kenneth. Bat-batean Axiri huts-hutsean agertu zitzaion Kenneth, gauzak gutxitan agertzen diren moduan, hustasunean eta osotasunean eta sakontasunean, eta brausteko batez ulertu zuen haren min guztia, haren hiltzeko beldurra, haren gaixotzeko laborria, haren desesperazioa, eta desesperaziotik eraikitako haserrea. Horregatik ez zuen nahi izan Euskal Herrian hiesaz mintzatu, ihesean zebilelako eta seguru aski ahortzi egin nahi zuelako. Hanka puntetan garunaren hondo-hondotik iragan zitzaion erru apurrari ez erreparatuarena eginik, erabateko ulermenak, eta mundua analisiaren bidez beharrean egina- ren oldeaz interpretatzeko joerak eragotzi zion orain arte -Joseba zeukan orain buruan baina eragozpen modura- Kennethen bizitzaren, nola esango zuen, eitea, norabidea, mapa... kronika, erabaki zuen, entenditu ez izanaz bere buruari kargu hartzea. Kennet- hi begiratu zion. Franekin sorbaldatik loturik zegoen, garrasika. ACT UP! FIGHT BACK! Indar oldar batek hartu zuen hura ere, eta garrasika hasi zen, Josebaren mili- tante senaren harriidurarako. Ze ostia! ACT UP! FIGHT

BACK! Bizkarra ukitu zion, giharrak nabaritu zizkion kazadora bakeroa jaso eta kamisetaren gainetik lehen-dabiziko aldiz ukitu balu bezala. Bat-batean enbarazu egiten zion Franen besoak bere besoaren ondoan, ez zuen emakume beso hura bere besotik hurbil nabaritu nahi, baina batez ere, berak bakarrik sentitu nahi zuen Kennethen bizkarreko giharren gogortasun leuna. Eskua ipurdi hasierako errekarra jaitsi zuen, eta koxisa laztandu zion, Kennethekiko konexioa nabari zuela. Bazekien hura ere oharturik zegoela, erpurua erreka-tik behera jaitsi eta ipurmasailen guritasunean barna uzki zuloa laztandu zion. Kennethek ez nabarituarena eginagatik, bazekien bazekiela. Fran eta Kenneth garrasika ari ziren. Joseba hurbildu eta besoa sorbaldara bota zionean ez zitzaion gustatu eta Kennethengana-ko bizkar jiratze nabariezina egin zuen. Zertara zeto-rreren Joseba!? Eta orduan ohartu zen berarendako ba-karrik desio zuela Kenneth, galaraziko zuen inor gabe.

Joseba mindu egin zen bigarren aldiz Axiri parteka-tzea kostatzen zitzaiolakoz, Kennethekin ari zenean ez zuelako bera bilatzen, berak egiten zuen moduan. "Beno... hik ere...", eta COFLHEEK antolaturiko jardunal-di haietan Kennethen ipurdi errekarren gantz usaina

egin zitzaion, gertatu zen garaitik eta lekutik horren urrun.

Avran Filkenstein hasi zen mintzatzen. Gobernuak hamar urte eman zituela hiesaren krisiari kara eman gabe, orduan hasi zela, baina ez zela nahikoa, borrokan segitu behar zutela, eta, oraindik, eskuinak homofobia hedatzen segitzen zuela, eta bazekiela desesperazioa zabaltzen ari zela, batez ere GIB-positiboen artean, baina eutsi egin behar zitzaiola. "I rather prefer to keep my friendship with Tom Macleran to me, if you don't mind".

Jendearen artetik danbor baten kolpea entzun zen. Rufus US Health and Human Services Department-aren eraikin ilunera hurbildu zen eta eskailerak igo zituen. Kale argien fokuak eta kandelen argiak baino ez zituzten ikusten bildutakoek atzeko trafiko eta zaratei ezaxola. Eskuan zeraman potoa ireki eta errautsak bota zituen kristal eta egurrezko atearen kontra. Atean behera egin zuten lurreraino errautsetako batzuek, kristalezko kuarteroien egurrezko markoetan gelditu ziren besteak. Eta halako batean Lekunberrin horren maite zituzten mexikar corrido baten musika hasi zen. Gitarra, soinua eta danborra.

Este es el amor, amor
el amor que me divierte.
Cuando estoy en la parranda
no me acuerdo de la muerte.

Ez zen corrido bat baizik eta karibeko musika horietako bat. Ez luke jakinen nongoa. Eta halako batean ergela iruditu zitzaion bere burua. Jakina, Kolonbiakoa, Tomek ama Kolonbiakoa baitzuen.

Por arri corre el agua,
por debajo piedrecita
desde lejos se conoce
la mujer que es señorita.

Este es el amor, amor
el amor maldito sea
el amor tiene la culpa
que yo en trabajo me vea.

La quisiera conseguir
pa ponerle una querella
la muerte me busca a mí
yo le tengo miedo a ella.

Este es el amor, amor
el amor que me divierte.
Cuando estoy en la parranda
no me acuerdo de la muerte.

Kennethek ez zuen Rufus eta Tomen etxeko hileta ondoko bilera-festara joan nahi izan. "I can't stand another good-bye party anymore. Let's go home. We can try some pizza from downstairs".

Baiezkoa egin zioten Fran, Axi eta Josebak. Abia-tzera zihoazela Dereck batu zitzaien. Etxera zihoazela argitu zion Kennethek, pizza batzuk jatera, ezin zuela festara joan, ezin zuela. Dereckek baiezkoa egin zion buruarekin. "Do you want to join us?". "Wait a minute".

Dereck Rufusenganaino gerturatu eta besarkatu egin zuen. Rufusek burua altxatzean Kenneth ikusi eta eskua jaso zuen, eta gero elkar ikusiko zutelako keinua egin zioten. Kennethek buruari ezetz eragin zion. Eta beranduago zioen keinuarekin erantzun zion. Rufusek ulertu zuela egin zion arrapostu irribarre batez.

"Let`s take Folsom. I want to show them the leather area".

Eta Folsomen gora egin zuten Castroz gainera gaytasunaren -gaytasun leatherraren hasiera tokia, hain zuzen- eremu kolonizatu litzatekeen hartan gora.

“Here is Folsom Street” esan zuen Dereckek. Leat-herrek eta fetitxistek festa bat egiten zutela. Hemen ibiltzen zela Foucault batzuetan, “it is said”.

Elkarri so egin zioten Foucault nor zen jakin ez, eta errudun sentitu beharko liratekeen galdezka. Kenneth ohartu eta “Foucault the french philosopher. He was gay. And he died of the disease”.

Dereckek “The disease is AIDS, of course” bota zuen hostasunez.

Axik eta Josebak Kenneth atzean gelditzen nabari-tu zuten. Eta gero zizaka hasi zen Derecken kontra, “Of course, the disease is AIDS”, eta bularra harroturik erronka egin zion esateko zer esan nahi zuen harekin, jakina hiesa zela gaixotasuna, berak ongi zekien, baina nazkaturik zegoela horrenbeste gaixotasunekin, horrenbeste heriotzarekin, ez hartzeko hari kargurik... “because you even are” eta gelditu egin zen.

“Boys, boys” egin zuen bitarteko Franek. “Come on, make amends, please”. Bostak Folsomen zeuden gelditurik, hamabigarren kalearen parean. “Come boys!”.

Herabe hurbildu ziren bata bestearen ondora. Eta besarkatu egin ziren. Josebari arraroa egin zitzaion, ez zuen jakingo zer esaten, baina eztabaida hori gehiagotan izan zutelako adakera izan zuen; tonuagatik, edo Franek Kenneth azantzaka hasi zenean egindako keinuagatik. Halaxe agindu zion senak, bere ustez horren garatua zuenak. Besarkatzeko moduan, ez zekien, adiskidetzeak horren azkar egin izanak, ez zekien...

Etxe ingurura ailegatzen ari zirenean, ezkerretara hartu zuten, 21ean. Zortzi bat kantxa izango ziren, bata bestearen ondotik, denak hesiturik. Kantxez harantzago ume jolastoki bat, txirristak arrosakara ageri ziren kalefokuen argitara; banakako etxeak ziren, bizpahiru pisutakoak, apartamentutan bananduak, seguru aski. Aurrera egin zuten, Valencia kaleraino. Eta han, ia etxe azpian, atari batetik desagertu zen Kenneth. Zain egon ziren, deseroso, Dereck eta Franekin. Axik pentsatu zuen Euskal Herrian ez zirela kalean egongo, egonean, elkarri ezer esan gabe, ezezagunak izatea oraindik zailago eginez.

Kenneth pizza batzuekin jaitsi zen.

“But we were going to buy!” bota zuen Josebak.

Keinu faun batez uxatu zuen Kennethek pizzak pagatzearena. 326621. zenbakia. Etxera igo ziren. Aurreko fatxadako lore margotuak igarri baino ezin ziren egin. “Alde horretatik”, pentsatu zuen Josebak, “salbazio gutxi”.

Zerbait arraroa nabari zen giroan, halako tentsio askatu gabeko bat, kirrinka egiten zuen zerbait zarata temati baten moduan. Axi ere arraro ikusi zuen, eta atezuan paratu zen, hark ironikoki esango lukeen moduan, “Bere sen emearen espera”. Zerbait gertatzear zegoen, beharbada, Derecken eta Kennethen haserre aparraldi harengatik edo... kostatu egin zitzaion gogotan aurrera egitea.

Axi non zebilen ez zekielakoz.

Nabaria zen bai Dereckek bai Franek bazutela gauzak non ziren eta nola jarri adierazten zuen ezagutza, di-da batean -Kenneth komunean zegoen bitartean-atondu baitzuten mahaia.

“Speedy people” egin zuen irribarre Kennethek, egongela-sukaldean sartu zenean.

Mantel loreduna fatxada loredunaren isla zela pentsatu zuen Josebak, eguna luzatzeko ahalegina, nahiz eta susmatu ondoan zituenek egun hura bukatzeko gogoia izan, bazutela. Pizza jatera eseri ziren. Axiri ez

zitzaizkion beste munduko ezer irudituz, ez, behintzat, jatetxe beharrean leku berezi batean erosiak izateko.

“Sorry Dereck... I can't take it anymore. I think that if somebody else dies I'll go crazy”.

Dereckek besarkatu egin zuen. Eta gero Fran lotu zitzaien, eta horrela egon ziren tarte batean; Axi eta Joseba, gonbidatu gabeko ikuskizun intimoegia ikustera beharturikoen lotsak harturik, fatxada loredunaren kontsolamendua bilatu eta erdietsi ezinik.

Besarkadaren ondoren animatuago ziruditen, zerbait mugarria paratu eta hesitu izan balute bezala. Ematen zuen mina hor zegoela baina bezaturik, animalia etxekotu baten moduan. Gabriel Arestiren infernuri ez dagoelako hartaz akordatu zen Axi, erreportaje baterako ikasi zuen esaldia ekarriz. Gabriel Aresti, Bilbo. Herrimin apur batek hartu zuen.

Orduantxe ohartu zen Axi, kronika batean zehaztasuna agindu, bazela zerbait berezia Franen gainean, nahiz eta lesbiana bat eman -herri edo baserriko emakume arrunta esango luke- bazegoela gakoan sartzen ez zen zerbait bere emakume izatearekiko, behar bada, belusezko ahots tonuaren sakontasuna, edo kei-nuetan halako berezko -Txato eta Joseba entzun zituen barrezka- artasun bat; ez zuen, ordea, izenik jarri

ahal izan, izendatzekoa urrutiegi zegoelakoz eskura zitu-
tuen izenetatik.

“I am a female to male” bota zion Franek, gogoe-
ta irakurri balio bezala.

Axiri bere buruaren zorroztasunaz zoriontzea gala-
razi egin zion aitorpenak, ez baitzuen ulertzen norbe-
ra nor zen eta zertan zen aritu behar hura. Kristo guz-
tiak “mundu honetan” -Josebarengandik hasi, Kennet-
hengandik pasa eta Txatoganaino- aitortu behar zuen
zerbait zela: edo gay; edo marika; edo emakumetik gi-
zonerako bidean doan... hitzaren bila aritu zen... gizo-
na, azaldu zion bere buruari; edo hiesa duela; edo...

“Kontua da” gehitu zuen Kennethek haiendako,
“Act Up bitan banandu zela duela bi urte-edo, eta han-
dik aurrera batzuk tratamenduaz kezkatzen hasi zire-
la eta besteak, *the rebels*, hiesaren inguruan sortu
ziren arazo sozialez”.

“And you and me were divided” bukatu zuen De-
reckek.

“I am tired of beeing sick and of knowing I am
going to die!”.

Harria bezala erori zen baieztapena.

“Beste aitorpen bat. Hildakoena oraingoan” pentsatu zuen Axik, lehengoko haserrea hedatzen zitzaio-
la.

“Drugs into the bodies. There will be a cure. You will see!”.

Axi damutu egin zen haserreaz eta berriz ere Kenneth agertu zitzaion bere hustasunean, deslai, hiltze-
ar. Besarkatu egingo luke baina ez ausartzeaz gainera, deseroso sentituko litzateke, euskalduntasune-
tik hara beharturiko izaki baten modura.

Komunera altxatu zen, nahigabeaz bezala Kenneth-
hi sorbalda ukitzen ziola. Duda egin zuen, hala ere, hura ohartu ote zen. Bazen zerbait bere baitan, oso ongi nondik zetorren ez zekien poz orokor bat, gauzen formak zorroztu eta koloreak biziagotu egiten zituen oldar baten moduko bat.

Kenneth-ek ezin zuen orain hil. Ez zuen hori pentsatu ere egin behar. Han zegoen bera... Ez zuen nahi izan aurrera egin. Komuneko azulejo nabarrei errepara-
tu zien txiza egiten zuen bitartean. Horrela dekoratu beharko lukete Iruñeko pisua, baina alokaturik zute-
nez... Ez zuen argi Josebarekin pisu bat erosi nahi ote zuen, hark behin baino gehiagotan eskatu bezala. Urruti egin zitzaion bere orduko bizitza, Iruñea, ETBko

berriak, Bilbo bera ere. Bilbo. Pentsamendua laztandu zuen txakur baten modura.

Egongela-sukaldera itzuli zenean Kenneth eta Joseba EHGAmen izandako eztabaida laburtzen ari zitzaizkien beste biei, haiek Act Upen izandako eztabaida bera zela erantzuten zuten bitartean. Franek transexualitateari buruz galdetu zuenean, Joseba hitzik gabe gelditu zela ikusirik poztu egin zen une batean; horren azkarra gauza horietarako eta erantzunik ez. Ez zuten transexualik ezagutzen, zorionez, eta EHGAmen, nahiz eta modernoarenak egin, ez zebilen transexualik.

Dereckek, gero, Euskal Herriko auziaz galdetu zuen. Eta orduan hasi zen Axi distira egin nahian euskaldunei buruz hizketan Josebaren lotsarako, izan ere, “the oldest language in Europe”, “nobody knows where it comes from”, ETA eta abar eta abar. Elkarriketa itzaltzen joan zen eta Franek joan beharra zeukala esan, altxatu eta agur esan zien. “I’ll see you tomorrow”.

Oherako ordua ailegatu zenean argi gelditu zen Kenneth ez zihoala haiekin oheratzera, sotilki, baina finko, gonbidatuen gelan –han zituzten maletak eta han jantzi ziren aste hartan– oheratuko zirela iradoki

bainoago agindu zien ia hitz gabeen, zakartzat ere har zitekeen keinu batez.

Laurek egin zuten estropezu komunean hortzak garbitzeko unean, bat noiz sartu eta atera ezin asmatu-rik. Joseba zurturik zegoen, bat-batean entenditu baitzuen Dereck eta Kennethen artean bazegoela zer- bait, eta horrek zaputza eragin zion.

Axi eta biak zerbait falta zitzaielako adakerarekin o- hantzeratu zirenean arrotz bi bezala egon ziren sa- baiari begira. Urduri nabari zuen Axi aldean, eta urdu- ri zegoen bera ere, mintzatzea egokitzen zitzaiola ja- kinaren gainean, berak bere buruari sortutako ardura bat gainean hartzen ari zela zioela bere artean, gogo- aren beste zati batek ardura hura ez zela berea -area- go ardura ere ez zela- iradokitzen zion bitartean.

“Planteatu izan balute laurok oheratuko ginen” bota zuen Josebak mantapetik besoak ateratzen zi- tuen bitartean Axiren gorputza ez ukitzeko tentuz.

“Bai, eta manifestazio osoa ere bai, notejode!” egin zion arrapostu Axik.

“Aizu, nirekin ez haserretu. Nik berarekin oheratu nahi nuen azken egun hauetan bezala”.

“Horra modernitatea eta bikote berriak” ebatzi zuen Axik, burua jiratzen zuen bitartean.

Zer gertatzen ari zitzaion? Haserreak erre egiten zion bularra. Kennethekiko sumina nabari zuen. Zertara etorri ziren haraino? Zer gertatzen ari zitzaion? Ez zuen bere burua ulertzen. Enbarazu egiten zion ondolan zuen gorputzak berak ere. Joseba zen. Bai. Eta zer? Hori dena Josebari kasu egiteagatik.

Telefonoaren txirrinak esnatu zituen goizeko laurak aldera. Oin hotsak zituzten korridorean barna eta ahots xuxurlo bat. Eta gero oin hotsa berriz ere. Haien gelara hurbiltzen.

“Zuentzat da” bota zuen, “norbait espainolez”.

Axik jauzi egin zuen ohetik. Kenneth pixka bat apartatu zenean atetik pasa egiteko, hotza nabaritu zuen.

“Zer ordu da?” galdetu zuen Josebak, ahotsa loditurik.

“Goizeko laurak” erantzun zuen Kennethek.

Joseba ere altxatu egin zen. Kamiseta sartu zuen buru gainetik eta Kennethen paretik iragan zen imintziorik gabe.

Axi telefonoan zegoen jada, harridura aurpegia, begiak irtetear.

“Gaur?”.

“Obran!”.

Axi galtzontzillotan zegoen. Kenneth sumatzen zuen atzean. Faundua zirudien astebete hartan izan zutena. Zergatik?

Axik eskegi egin zuen.

“Miren Akerretaren aita hil dute!”. Eta gero gehitu zuen: “Obra batean”.

Miren Akerreta EITBko egoitzaren ezkaratz erraldoian hurbiltzen ikusi duenean hots egin dio hainbatgarrenez Muñoz Eugik, badaki zertarako, eta hainbatgarrenez ez dio hartu; baina, badaki, zer edo zer erantzun beharko diola oraingoan.

Telefonoa hartu eta whatsapp zabaldu du. Muñoz Eugi.

Eginak

Zuzentzea falta. Bilbon

Bihar bidaliko

A2

ongi ibili

BIHARKO!

Miren Akerretak irribarre batekin eskaini dizkie bisitarien txartelak eta poltsa metal detektagailutik pasatzeko agindu die, manatzeko duen berezko dohaienez. Joseba nekatzen hasia dago bigarren izate horrekin, nahiz eta jakin Axi dela, oraingoan ere, lehendabizikoa besarkatua izaten, oraingoan ez Axi delako bai-

zik eta -pentsatu du ogen apur batekin- Axierdia delakoz. Urtebetean ikasi du bi besarkatuetatik aldendu eta behatzen; bizirik dagoen leku horretantxe, hor, berarengandik aparte. Nahiz onartu Mirenek ez duela ez deitu ez bisitatu, Miren leiala da. Miren ez da bere adiskidea, Axirena baizik, eta, hartara, Mirenen distantzia ulergarriago egiten zaio bere adiskideek, Begok eta Landerrek, hartu duten distantzia baino. Zahartua ematen du, baina aldi berean zaildua; baina senak ez daki harantzago joaten, Mirenen opakutasuna zio; eta, izan ere, horixe zen Mirenengandik Axi gehien kilikatzen zuena: hotsanditasuna eta opakutasuna oztopo, hura erabat ezin seduzitua.

Bukatu arte itxoin du pobre batek amoina nola. Mirenen aitarena jakin zutenekoaz akordatu da. San Frantziskoko gau hura, Axi eta bere artekoa aldatu zuen gau hura. Istripuaren ondoren behin baino gehiagotan pentsatu du gau hartan gertaturikoak baldintzatu duela gerora Axirekin izandako harremana -orain ez da horren harro sortu dutenaz, zutenaz-, ziur aski onerako, ordutik aurrera itun hura sinatu baitzuten, han Lekunberri Aranazko jatetxe hartan. Eta esan ere esango lioke -behin ere ez du aukerarik izan, nahiz eta uste duen Axik azalduko ziola nola jakin zuten-:

“Oraindik gogoan dut zure aitarena nola jakin genuen”; edo “badakit zer gertatu zitzaizun harekin, zurekin nago, zurekin bat egiten dut”, “zu etxerako”; baina bi musu eman dizkio ordeko, Axiren begirada irribarretsuaren pean. Zein normala ematen duen batzuetan! Harrigarria!

“Zer moduz haurra?” galdetu dio, nexka ala mutti-koa den ezin akordatuz.

“Ongi”.

Eta une batez Miren hor geldituko zela uste izan badu ere, hark aurrera egin du.

“Beranduegi etorri zaigu, baina Idoiak hala nahi zuen”.

Josebak gogoratu du umea pitilinduna dela, eta Pablo duela izena, euskal izenetatik aldengarri.

Mirenek eskaileratan gora gidatu ditu.

“Non gaude?” galdetu du Axik, Mirenen harridurarako.

“EITBN, Axi” erantzun dio Josebak, pazientzia tonua erantsiz, neurri batean Mirenek hotsandiaren pean Axirekiko pazientzia erakutsiz onaren plantak egiten dituela iruditzen zaiola.

Mirenek begirada bilatu dio, Axiz zer pentsatu ez dakiela. Hasieran baino ez du ikusi eta ez dio denbo-

rarik eman ohartzeko Axiren gaztaro zaharraz, kolokaz, dardaraz eta erdiaren faltaz.

“Oraindik badugu tarte bat. Lander ez da etorri, gainera”.

Josebak ez du ulertzen zergatik dauden han. Egia da Axi izan zuela *Dolutan* filmaren zuzendariak laguntzaile eta gidoigile, baina, seguru dago, Axi bere burua dagoenean ikusteko gauza balitz, ez lukeela honetan egon nahiko, elkarriketa bat aurrera eramateko ezgai, baina Mirenek ezohiko argudio sendoez-edo gairak ekarri ditu Axi, eta Axirekin bera, noski, filmari buruzko elkarriketa batera, giza eskubideen zinema esaten zaion horren esparruan izandako arrakasta dela medio -Human Right Watch erakundeak hainbat hiritan (Nairobin, Londresen, Amsterdamen) egindako zinemaldietan proiektatu dute- bi urteren ondoren, berriz ere mustuko baitute, ikastetxe, kultur etxe eta antzekoetan zabaltzeko; nahikoa, Miren Akerreta albistegietako buru izanik eta kanpoan arrakastatxoa izaten duten bertako produktuekiko probintziakeria tarteko, EITBko albistegiak filma harrabotsez hedatzeko.

Josebari filma ez zaio txarra iruditzen, beste kontu bat da Axi honaino ekarri beharra, Mirenen gogoaren

auskaloko zein morrontzagatik. Ezetz esan behar zion, Axik nahikoa baitu Iruñea eta Jarautako etxetik ateratzea desorientatua egoteko, nahiz eta onartu behar duen iluntzeko Bilbo ikustean, poztu egin zitzaiola bishaia, hainbeste ezen Joseba Axi Axi zeneko hura ikusi uste izan eta esperantza izeki zitzaion.

Mirenek zalantzan nabaritu du norabidearekin eskailera buruan.

“Bulegoetan sartuko gara?”.

Axik nagusien bulegoetako eremuari begiratu dio. Ilunxko dago, erdiko iturri antzeko horrek... akordatzten da... harantzago...

Axi korridorean barna hasi da Mirenek bulegoa behar duenerantz. “Hemen nagusiak egoten dira” bota die ozenegi argi iragazien ahultasunerako.

Moketa mardulean oinetakoen firfira entzun da.

Berrogeita hamarreko emakume lodikotea da. Zuzendari nagusia. Eszenatokiaren dekoratu lako argiek, sabaien altuerak, hormen zuritasun griskarak geldotasuna –Josebak ederki ezagutzen du– eransten die mugimendu eta hitzei.

“Asier” bota du zuzendari nagusiak.

Axik burua jiratu du ahotsarengana. Nor da? Zergatik dadena horren isila hemen?

Zuzendari nagusiak ez du zalantzarik egin; eta Asier besarkatu eta bularraren kontra estutzen saiatu denean, Axik bazterrarazi egin du keinu itsusi batez.

Zergatik besarkatu nahi du andre honek? Joseba bilatu du. Hortxe dago Mirenen ondoan, atzetik argiak dituzte, eta gero ez dago ezer. Zergatik nahi du andre honek besarkatu?

“Nor da andre hau?” galdetu dio Josebak.

“Baina”, hasi zaio Maite Iturbe zuzendari nagusia, “elkar ezagutzen dugu. Askotan egin dugu lana elkarrekin, Asier” mintzatu zaio haur batekin ariko bailitzan, Josebaren suminerako.

“Begira, ni naiz, Maite Iturbe. Eta zu, Asier Iminizaldu zara. Bilbotarra. Eta hori Miren Akerreta da”.

Josebak ez du inondik ezagutzen emakume hori, baina berehala jakin du hark ere badakiela lokatzetan sartu dela, izan ere, orain Joseba nor den seinalatzea tokatzen zaio, eta jakinaren gainean egongo bada ere, kostatu egingo zaio zure... senarra?, nobioa?, bikotea? ahoskatzea hetero askori bezala, moderno plantak eginagatik labur gelditzen baitzaie bi gizon edo bi emakumeren artekoa irudikatzeko gaitasuna, batez ere ordenaren zaindari baldin badira, eta eajkoak, izan, badira.

Miren Iturberi erori egin zaio emakume zuzendariren aiurria.

“Guk ez dugu elkar ezagutzen” bota dio Axik, muturturik.

“Bai, Asier, elkarrekin...”.

Josebari so egin dio. Joseba nazkaturik dago Axiren bozeramaile izateaz, haren keinuen interpretazioa egiteaz, nazkaturik dago hura izateaz non eta Axi ez denean gai, barnetik, Axiren baitan hedatzen diren zoko, muino, bidexka, etxe eta abarretan –horrela irudika badaiteke konszientzia–, 12 segundoko tartean kanpoko eta barnekoaren eskaner etengabea egiten duen jarduera elektriko horri eusteko.

Iturbek “Zer etorri zarete, filmari buruz mintzatzeraz?” galdetu du.

Mirenek baiezkoa egin dio buruaz, eta Axi besotik heldurik bulegoetarantz abiatu dira, Josebak, sadismo ukitu batekin, sorbaldak jaso dizkiola Maite Iturberi.

Axi itzuli egin da: “Ez dugu elkar ezagutzen” egin dio garrasi Mirenen besotik askatzen den bitartean.

Konfabulazioa. Eta betidanik gauzei kontra egiteko izan duen joera, EHGAMEkoei, esaterako, edo kazetari-tzako joera nagusiei, edo Josebari berari. Sartu direnean zoragarria iruditzen zaio Josebari areto nagusia.

Sabaiak hamar metrotik gora izango ditu, mahai zuri korrituek, bata bestearen ondoan ordenagailu eta paperez beteak, bulego itxiarena egiten dute; arkitektu-raren auskalo zein ezaugarriengatik metro erdira duten kazetariaren zarata edo soinurik ez da entzu-ten, eta harrigarriki, espazioan oso aparte dagoelakoa egiten da, zabaletara ez dagoen espazioa bertikalera dagoenak ordezkaturiko balu bezala.

Mahai ilarak eta ezkerretara dagoen hormak osatzen duten irudimenezko korridoretik egin dute aurre-ra. Roberto Moso ezagutu du Josebak, laurogeiko ha-markadako Oskarren sinbolo sexuala, rocka, euskal-duntasuna eta baskotasunaren sedukzioa biltzen zituena; ez zion telefonorik eskatu saunan ikusi zuen al-dian eta beharbada... oraindik zut dituen giharrekin akordatu da desioa eraiki nahian, adiskideen arteko muga gainditu eta sexukide ere bihurturik, Eduarden aldarriari bide eman beharko liokeela pentsatuz, “Maitasuna ere adiskidantzatik sortzen da”. Axik, ongi izan balitz, adarra joko lioke, “Baita zera ere”, Axirendako harreman nabarrak, gauza bat izan eta beste batean nahastea, adiskide eta amorante, esaterako, harreman baino areago anabasa izan baitira. Baitziren.

Felix Linares ezagutu du, eta Almudena Cacho, eta Fermin Etxegoien.

“Komunera joan behar dut” esan du Axik. Hirurak zutik gelditu dira Mirenen bulegoaren aurrean, Miren espera Axi noiz komunetarantz bideratuko; Joseba espera komunak non diren noiz adieraziko; Axi galdurik, galdera eta imintzio larria bisaian.

“Pixa, ostia!” bota du haserre.

“Ostia” ahoskatu du, “ostia” lehendabiziko aldiz. Duela hilabete batzuetako esperantza aienatua piztu egin zaio. Mirenek, Axik komunak non dauden ez da-kiela ohartzean, “Han, han” sinalatu dio. Presaka al-
dentzen ikusi dute. Josebak esanen luke pixka bat ez-kerretarantz makurtzen hasi dela.

Bulegora sarrarazi du. Mahaiaren beste aldean eseri da bera, leman, hotsanditasunari eutsiz, halako pisutasun bat dario, zeinak, Axiren denetan lehenda-
biziko izan beharra armarik gabe utzirik, xamurtasun bilakatu duen -zuen, zuzendu du-.

“Radio Euskadin da. Gazteleraz. Lander oraindik ez zen etorriko”.

Josebak badaki zurruntasun hori puska hautsiekin eraikitako ezkutu baten antzeko zer bat dela, urteen pasioz eraiki izana arrazoi, distantzia ironikoa ezaba-

turik bigarren natura moduko bat bilakatua; izan ere, Miren Akerretak, hainbat lesbianaren modura, ez dio berezko naturaren eta eraikitako bigarren natura “gizonezko” horren arteko tarteari erreparatu ere egiten, eta hartara, bigarren natura eraikia bilakatzen da lehenengo, segur aski, imitaturikoa –maskulinitatea, alegia– hegemonikoa delakoz.

Mirenek, gainera, badu hirugarren natura bat, aitaren heriotzak –erailketak, pentsatu du herri honetan gauzei bere izenez deitzea kostatu egiten dela erabakirik– harilkarazirikoa, tropoilu segur aski; eta laugarren bat ere izango duela erabaki zuen Axik haien 19. urtemugan kontatu ziona tarteko. Pentsatu du berari ere beste natura bat sortzen ari zaiola Axirena gertatu denetik; zaionetik; zaienetik. Minaren bidez.

“Eta Axik zer egin behar du?” galdetzera ausartu da, Mirenen lemazaintzaren sinboloek herabeturik, silla birakaria, kristal zurizko gaindun mahaia, Zorroztzurreko *irlaren* paisaia postindustrialak (horregatik da ederra Bilbo, bigarren naturako edertasuna duelakoz, bi aldiz pentsatu ondorengo edertasuna, esan liteke), moketa hau, isiltasunaren bermea.

“Hitz egin dezake, bere lana azaldu”.

Joseba durduzaturik gelditu da atzeko Ibaizabalen paisaiari so, Lekunberriko jatetxe hartan Axirekin biko-teari buruzko akordio hura sinatu zutenean zero urdin hari so geratu zen moduan.

Nonbait Miren ez da jabetu Axiren egoeraz; ez daki ez dela gauza elkarrizketa bat jarraitzeko, ez dela gauza hamar minutu lehenago entsalada jan duela gogoratzeko; ez eta testa egiteko ere; eta batez ere, ez da gauza galdutako Axi erdia berreskuratzeko; Joseba maite duela esateko.

“Miren, ezin du hori egin. Esan nizun telefonoz...”.

Mirenek ezinegon keinu bat egin dio, eta Josebak -Bilboko egonaldi honen ondoren dena aldatuko da- amore eman du keinurik gabe; izan dadila izan behar duena.

“Desastre bat izango da, baina hala nahi baduzu”.

“Moldatuko gara”.

Josebak pentsatu du honezkero igual dela, kartak emanda daudela eta berari eta Axiri karta exkaxak egokitu zaizkiela, eta erabakia hartuta dagoela.

Mirenek altxatzekoa egin duenean Josebak ondorioztatu du Axi atera dela komunitetik. Bizkarrez, Mirenen erdi-harridura, erdi-jakinmin bisaiari so egin barik, irudika dezake eszena: Axi, komunaren ate zuria

atzean, begirada galdua, areto itzelari so, izan den zutierekin sorbaldak aurrerantz, desoreka ia nabariezin bat ezkerretarantz, eta, batez ere, non dagoen ez dakiela. Eta badaki, ez du aurrera egingo, hortxe geldituko da komuneko sarrera oztopatzen, harik eta ezagunen batek -neroni, alegia, pentsatu du Josebak- hurbildu eta noraez horretatik ateratzen duen arte.

Josebak jaidura sadiko batekin unea luzatu du Axiren noraezaz errukitu barik, Mirenen durduzaz gozatzearren, ezen Miren, behin altxatzekoa eginda, sillan egokitu da atzera berriz Josebaren bisaiaren imintzio arinenari ere adi, zer egin behar duen jakiteko. Josebak kristalezko hormatik harantz so egin du; goibel bilbotarrak zerua estalita dauka, eta ageri den ibai berunezkoak eta Zorrotzaurreko ola erdi eroriek garai bateko Bilbo herdoildua iradokitzen dute, Quincoces-en koadro batean bezala.

Azkenean altxatu da. Irudikatu bezala dago Asier. Miren beirazko bulegotik atera, ikusi eta poztu denean berritu zaio Josebari Axik benetan maite zuela eta duelakoa, horren da benetakoa adierazten duen poza -ia aldrebesa- ezen Axirendako, halaxe azaldu zion neurologoak, Joseba ez da bakarrik maite duen norbait, baizik eta baita ere dardara eta durduzatik salba-

tzen duen norbait. Orduan ohartzen da maite duela, eta zuela, eta berak ere izugarri maite duela eta mai-tasun horren izenean honek ezin duela horrela jarrai-tu.

Hurbildu zaionean zera bota dio Axik: “Non zeun-den? Zergatik utzi nauzu bakarrik?”.

Haserre dago. Zorrotzaurre ikusi du han behean. Sirenak entzun ditu. Eta gero anabasa, porlanezkoa, zorua, oinak, zapatilla gorri batzuk...

“Bakarrik utzi nauzu”.

“Hau zure lantokia da”.

Sorbaldatik heldu dionean eskua kenarazi dio Axik erresuminez, eta Miren begiz jorik harantz alde egin du, Joseba atzean utzi nahian. Orain, Joseba izan da, galdurik, deslai, komuneko atearen parean gelditu dena; hasieran horrelakoek min egiten bazioten ere, ikasi du garrantzia kentzen, nahiz eta oraingoan Mire-nen begiradapean izanik, lotsa izatera ailegatzen ez den herabetasun batek jo.

Gaurko eguna desastrea izango delakoa egin zaio gogoan. Desastrea hona etorri izana Mirenen eskaera –orain ohartzen da– inuxenteari ameto eginik; desas-trea aurreikusten duen programa; desastrea bihar en-

tregatu behar duen presakako itzulpena; desastrea Begoñaren etxean izango duten afaria.

Landerren etorrerak faundu dio desastre adakera.
“Ez zinen etortzekoa!”.

Elkar besarkatu dute. Iruñean egon zireneko azken aldian alde egiteko zuen gogoaz akordatu da Joseba. Lander eta gizonak, Lander, gizonak eta giharrak; etengabe larrua jotzen egon beharra, telefono aplikazioetan kateaturik, nahiz eta gero kontatzen duenaren arabera, gauzatu, oso gauza gutxi gauzatu.

“Non da Axi?”.

Josebak Mirenen bulegoa seinalatu dio.

“Uste dut desastre bat izango dela. Ez da biktime-tatik inor etorriko. Batek ezin duela, bestea gaixotu dela. Baiezkoa eman zuen bakarrak, ustez etakoa zen anaia hil zioten Oiartzungo nekazari zinegotzi izandakoak, ez dakit filmetik akordatzen zaren, azken unean ezezkoa eman omen duela esan dit lehentxeago Mirenek telefonoz, mintzatzea tokatuko zaidala iradokiz. Bueno...” gehitu du Landerrek, “aginduz. Zeinen zurruna den emakume hori! Axi izango da mintzatzeko gauza?”.

Joseba suak hartu du, baina eustea erabakirik “mesedez!” adierazten duen keinua egin dio.

Landerrek “Nik zer dakit ba!” bota dio, eta Josebarririk ez zaio argi gelditu baiezkoa ala ezezkoa uste duen; ez du jakingo, gainera, gehiago egon balitz Axirekin eta berarekin ederki jakinen luke Axik ezin duela horrelako elkarriketa bat jarraitu, noiz eta eguneroko gauzei buruzko elkarriketa bat ezin jarraitu duenean. Orain errudun sentitu da, bera da dena desastrea izango dela dakiena, Axiren gabeziez jakinaren gainean dagoena, bikotekidea dena eta Mireni ezezko borobila eman behar ziona. Baina badaki ez dela ausartuko dena iraultzen. Bego. Izan dadila izan behar duena, agindu dio bere buruari, budismoaren bertsio kaletar eta arrunkeriazkoak dioenaren modura, hala-beharrezkotasuna onartzea horren erraza balitz bezala.

Eserita aurkitu ditu hirurak. Miren lemazaintzan eta Lander eta Axi, silla birakari banatan, kristalezko hormari begira. Zutik gelditu da, beste eserlekurik ezean.

“Baina... nola deitzen da” ari zaio azalpenetan Lander –seguru gaur jada larrua joa dela baten batekin telefonoa tarteko–, “Oiartzungo zinegotzia izandakoa, torturatu zuten hura...”.

“Iñigo Etxeberria” zehaztu dio Mirenek.

“Hori, Iñigo Etxeberriak baiezkoa eman zuen. Gainera ongi mintzatzen da, guapoa dela ez aipatzeagatik”. Tentuz ahoskatu du azkena, Mirenen arrapostuaren beldur, bai baitaki nolakoak dituen potroak mahai gainean paraturik dituenen.

Mirenek, ordea, ez du ezer esan.

“Zergatik ez da hura etorri ba?”.

Mirenek sorbaldak jaso ditu. Josebari iruditu zaio Axiri begiratu diola, Axik Iñigo Etxeberria Hendaian hildako ustezko Etxako militantearen anaia eta Oiartzungo zinegotzi ohia zergatik ez den etorri baleki bezala.

“Itxuraz bestela mintzatzen da”.

“Itxuraz bestela? Zer esan nahi du horrek?”.

Lander atzipetua sentitu da. Orain ez daki esaldi borobilak egiteko ohiturak lokatzetan sartu duen.

“Ba hori, itxura, abertzale, sendo, irmo, isilarena daukala baina gero, batez ere euskaraz baina baita ere gazteleraz, oso egoki adierazten duela bere burua. Ez da hala, Miren?” eskatu dio laguntza.

Eta Mirenek baiezko arin bat baino ez dio eskaini, berriz ere Axirengana ihes egiten diola begiradak, arrapostua hark baleuka bezala.

“Bai, baina ez dator. Laburpena horixe da”.

“Baina zer aitzakia paratu du?”.

“Ez dakit, Lander”.

Argi gelditu da Mirenek ez duela gehiago eztabai-datuko horri buruz. Hiruren artean moldatu beharko dute, Mirenek gainera ez du -ez du inoiz izaten- haren biktimatasunari buruz, horrela esan badaiteke, mintzatu nahi izango. Ez mintzatu ez galdekatua izan. Landerrek Miren zaila dela pentsatu du. Badauzkate esatekoak, dena den, nahiz eta Axiren mintzatzeko abileziaz zalantza egin. Lau-bost hilabete daramatza ikusi gabe eta zer edo zer aurreratu badu, nahikoa. Gaizki ateratzeraz, gainera, ez da ezer pasatzen, berrestreinua da.

Josebari iruditu zaio Landerren ustezko zaputza areago dela zinegotzi ohia ez etortzeagatik ezen ez el-karrizketa gaizki ateratzeagatik. Begiratu dionean samurtasuna egin zaio, traizio txikiak gorabehera, adiskide du, nola oso ongi ez dakitela gayakanpada hartan elkar ezagutu zutenetik bidearen sigi-sagek honaino ekarritakoa.

“Loreto Larunbe eta Almudena Cachok egingo digute elkarriketa” aurreratu da Miren, “eta ongi aterako da, lasai”.

“Lokarri, deuseztatu egingo zaretela!”.

“Bai, filmaren bigarren mustualdiaren promozioa izango da gure azken lana. Eta gero oraindik ez daki-gu nola –segur aski agur ekitaldi bat egingo dugu– agur esango diogu...” segur aski, pentsatu du Josebak, Lander eusten ari zaion tarte teatrala Begorengandik ikasitakoa da, Lander ez baita queen bat, Axi edo Bego diren moduan, “agur esango diogu euskal gizarte-ari”.

Lotsaren antzeko bat dario Landerri, badaki Josebak.

“Euskal Gizartea”. Arranditsua da kontzeptua, baina segur aski, Landerrek Lokarrin –oinarrizko militante moduan hasiera-hasieratik– sartu dituen ordu guztiekin, hura da kontzeptu hori erabiltzeko eskubidea duen horietako bat.

Isilik izan dira une batez, beirazko hormaren eraginezko zabaltasunagatik ere, itxituran jende gehiegi dir-elako, edo Mirenek zein Landerrek Axirekin egoteko ohiturarik ezean zer egin ez jakiteak halako loditasun bat erantsi diolako uneari.

Mirenek erlojuari begiratu dio. “Hamar gutxi dira. Bost gutxitan estudioan egoteko agindu didate”.

Altxatu egin dira eta tropelean atera, elkarri bulka-ka. Mirenek sarrerako aterantz gidatu ditu. Hantxe,

kristalezko gela batean kazetariak daude, aurikularrak buruan, mikrofonoei hizketan. Josebak esanen luke Axik piztua ematen duela, bisaia alaiago, lehengo nora eza aienaturik.

“Zer moduz zaude?” galdetu dio, barrukoek sartzeko keinua noiz egingo espera dauden bitartean.

“Ondo. Zer ba?”.

Josebak ez daki zer erantzun. Badaki urduriago paratuko lukeela azalduko balio irratian hitz egitera erdi-behartsu dutelako urduri dagoela; ez lukete hemen egon behar.

“Nik hemen lan egiten dut” esan dio Axik.

Josebak ez daki hemen lan egiten zuela jabetzea ona ala txarra den. Azken boladan etsi egin du lehen esperantzarendako txingarra bihurtzen zitzaizkion oroimenaren horrelako distirekin, ohartu baita -urte-bete baino gehiago pasatu da- aurrerakuntza apurrek ez dutela ez sendotasunik ez iraupenik, distira ilauna baino ez direla, ilaunagatik distirago.

Esatariek sarrarazi egin dituzte. Azkar agurtu dituzte. Almudena Cachok eskua eman die Mirenek aurkeztu dituenen. Joseba lotsatu egin da Axiren berri izanen duelako; oroimenik gabea delako, inguruan duen orok haiek baino istorio zoriontsuagoa izango

duelakoz, Almudena Cachok, esaterako, umea eta senar sano bat izango duelakoz; edo Mirenek Idoia eta umea; edo Landerrek berak, aplikazio informatikoetako gizon horiek guztiak.

Almudena Cachok ongi etorria egin dien bitartean, Loreto Larunbek sillak eskaini dizkie, mikrofonoetatik hurbil haiei hirurei, urrunago berari; bai, denek dakite Axiri zer gertatu zaion, “bestela kanpoan gera dadin aginduko zioten”, baina inortxok ere bera han egotearen desegokitasunari erreparatu ez dionez, ulertzen dute, gaixoaren aurrean izaten den ohikotasunetik kanpoko arau, salbuespen hori eskaini dietela, diotela zaintzaile den neurrian.

Axik oso galdua dirudi; atezuan ematen du mikrofono, belarri-entzungailu eta abarrekin. Berari so egiten dio laguntza bila eta berak, begien keinada batekin nahikoa du lasaitzeko.

Loreto Larunbek arreta eman die, eta kristalaren beste aldeko teknikariak sartzeko keinua egin dio Cachori.

“Hementxe gaude” hasi da, “Miren Akerreta, Asier Iminizaldu eta Lokarriko Lander”. Isilune arin bat egin du.

“Nola diren gauzak, guztion abizenak ditut zurea izan ezik Lander, barkatuko didazu” jarraitu du, eskarmentuko kazetariaren ahotsez.

“Lander Laka”.

“Eta Lander Laka, Lokarrikoa. Neurri batean ekoizlearen lanak egin dituenak. Bide batez, eta nahiz eta hau ez izan honetaz hitz egiteko parada, desegitea erabaki duzue...”.

“Bai, gure helburua erabat bete ez bada ere, uste dugu bidea erakutsi dugula, Aieteko Konferentziarekin-eta. Iruditu zaigu beste ekimen batzuei lekua egin behar zaiela”.

“Eta, besteak beste, Lander, bukaerari halako xingola bat paratzeko Miren Akerreta gure lankideak zuzenduriko film hau ekoiztea erabaki zenuten. Zergatik?”.

“Baketzearen inguruan egin diren jardunaldi, ekin-tza eta lan guztien artean iruditzen zitzaigun falta zela biktimen dolua aztertzea, alegia, biktima den subjektu postraumatikoak egin duen bidea aztertu eta gizartearen dolua egiteko lagungarri suerta daitekeelako gizarteari aurkeztea. Horixe izan dugu helburua”.

“A orduan... entzuleei esan behar zaie” jarraitu du Almudena Cachok, “esatari honek ikusi duela gure

lankide Miren Akerretak zuzenduriko filma, eta film oso sentikorra baina aldi berean zuzena iruditu zaiola. Esan daiteke sentimenduei eragitea bilatu duzuela, politikaz, alegia, atentatuei eta hilketei buruz jardutea baino areago? Zer deritzozu, Miren, zu zuzendaria izateaz gain biktima zaren aldetik?”.

Miren totelka hasi da: “Ni... beno... nik nahiago...”.

Beharbada hauxe da Miren Akerretari, lankide izatearen konfiantza zio, zuzendaritzaz gainera biktima izateaz galdetu zaion lehendabiziko aldia, ohartu da Lander.

“Benoa, barkatu, nik filmarekin hasi aurretik Lokarriren asmoez zer edo zer zehaztu nahi nuke. Film hau egitea bi filosofo amerikarren lanak irakurri ondoren bururatu zitzaigun: bat, Richard Rorty, zeinak adierazten baitu sentimenduek duten eta izango duten garrantzia humanitatearen aurrerabidean; eta, Judith Butler, zeina ohartzeko baita dolauren balio terapeutikoaz gizartea eraikitzeko”.

“Bai” hartu du hitza Mirenek, “ideia hori buruan, erailketa baten ondorioz norbait galdu osteko trauma nola elaboratu zuten, iragan zituztenaldiak, bizi izan zituzten sentimenduak, ibili zituzten gogoak, erailtzailatik leekiko harreman mentala nola elaboratu zuten, eta

azkenik, nola ailegatu diren barkamenera, eta barkamena ez bada, bakera. Eta filmean hori kontatu nahi izan dugu modu oso xumean”.

“Bai, hementxe dugu gidoigileetako bat, zuzendari laguntzailea izateaz gainera, Asier Iminizaldu, gure lankidea... Gidoia doluaren faseen arabera antolaturik dago, biktima bakoitzak fase bakoitza nola iragan duen kontatzen dela... zergatik erabaki zenuten hala egitea?”.

Almudena Cacho Axiri begira gelditu da, Miren Akerreta Axiri begira gelditu da, Lander Axiri begira gelditu da, Josebari Axi elkarrizketara ekarri izana damutu zaio. Hagitz.

Uhinetako isiltasun mundukoa erori da estudioko isiltasunaren gainean Axi aldika mikrofonoari aldika Josebaren laguntzari so egon den bitartean.

Josebak Axiren gogoia sigi-saga irudikatu du; Joseba, mikrofonoa; hustasuna, behin baino gehiago aipatu dion moduan, “Hutsik nago”, gero Landerri so egin dio, gero Mireni, eta Mirenekin beharbada, xamurtasunarekin batera, aspaldiko iragana gauzatuko zaio go-goan, gero mikrofonora berriz, gero, urduri jarriko dela irudituko zaio, eta mikrofonoa. Ez ote da urduri paratuko, estudio honetaz aparte elkarrizketa sukaldeetan,

kiroldegietan, tabernaren batean, autoetan, dendetan, kaleetan belarrietako entzungailuetan milaka aldiz errepikatzen dela jakinda? Behin ere ez? Segundo batzuetan ere ez? Mundua bere erantzunaren zain dagoela ohartuta ere ez?

Anbulantziak.

Axik Josebari so egin dio berriz ere, Almudena Cacho urduriturik Miren Akerretaren begiradaren bila hasi denean.

“Bueno” hartu du hitza Mirenek, “horretarako zenbait psikologo eta medikuren laguntza izan genuen, haien artean, eta eskertu nahi diot laguntza hemendik *Aulki Hutsak* filmaren egileari, Iñaki Peñari. Baina gure helburua biktimek bizi izandako prozesu hori erakutsiz eta gizarteratuz, gizartea sendatzeko baliagarria nola izan daitekeen proposatzea da”. Miren isildu egin da hitzen bila une bat lehenago isiltasunaren aurrean izandako izulaborria berriz ere piztuz.

“Zentzu horretan, biktimek dolua egiteko egindako bidea erakutsiz gizarteak egin dezakeena erakutsi nahi izan dugu”.

Josebak, bat-batean, desiratu du hori dena Axik esatea, behin baino gehiagotan eztabaidatu baitzuten berak eta Axik gai horren inguruan. Josebak desiratu

du Axi gidaria, Axi segurua, Axi manatzailea agertzea, baina Axi erdia baino ez dago mikrofono horiari so, bizitza, inguruan, joan-etorrian dabilen bitartean.

“Bai, horixe da gure proposamena” gehitu du Landerrek, “eta neurri batean salatu nahi dugu krisi ekonomikoarekin, beno argi gera dadila hau nire iritzi pertsonala dela eta ez Lokarrireana, dolu egitera bideratu beharko litzatekeen dirua ez dela ailegatzen. Esaterako, uste dut dagoeneko egon beharko lukeela irrati-telebista saio zorrotz bat kasuak banan-banan aztertu, zer gertatu zen kontatu, horretaz eztabaidatu, zein giza-eskubide urratu zen ikertuko lukeena. Baina hemen gatazka bukatu da, eta ezer gertatu ez balitz bezala egin da. Eta hori ez da arazoa konpontzea”.

Mirenen aurpegiera aldatzen ikusi du Josebak, asaldatzen esango luke, Miren gutxitan asaldatzen dela ez baleki.

Loreto Larunbe altxatu egin da estudioko ateraino kazetari laguntzaile baten seinalearen ariora. Berrogei urteko abertzale itxurako batekin dator, bizarra oraindik errubio antzean, begiak urdin, sendo, esanen luke Josebak. Almudena Cachok prestatua dutena paratze-ko agindu dio teknikariari eskuarekin, “Gogoeta honen

atzetik entzun dezagun gure lankideek baketze eta adiskidetzearen inguruan egin diguten erreportajea”.

Loreto Larunbek atea ireki du eta “Kristoren gizon-kotea duk” erabaki du Josebak, han sartutakoan.

“Iñigo Etxeberria” aurkeztu die Mirenek Almudena Cachori eta Loreto Larunberi. “Anaia GALEK hil zion HBko zinegotzi ohia”.

Cachok eta Larunbek eskua eman diote, “Urte askotarako” diotela. “Gainontzekoak ezagutzen dituzu” esanez bere sillan eseri da.

“Nik ez dut ezagutzen” esan dio Mireni Josebak, tonu abegitsuan. Mirenek, Axik Iñigori irribarre egiten dion bitartean, ez entzunarena egin dio, Joseba seguru baitago entzun entzun duela. Emakume hau non-bait urduri dago filmaren birmustutzearekin.

Joseba altxatu eta harengana hurbildu da: “Joseba, Asierren bikotekidea”.

Badaki esatean askori, Miren eta Landerri barne-gezurra dirudi- nabarmendu beharra irudituko zaiela bikotekidea esatea, baina bost axola zaio oraintxe bertan direna eta ez direna; ez lukete hemen izan behar-ko.

Eskua eman dionean ergela dela pentsatu du, ahotxulora begira geratu baitzaio, bi ideia lotzea kostatuko balitzaio bezala.

Josebari Txatorekin batera landutako Etika Marikaren bosgarren puntua egin zaio gogoan: “Ez zara heterossexual batekin inoiz maiteminduko, gizon heterossexuala bi ideia lotzeko ez baita gauza. Eta oheratu, bakar-bakarrik berak eskatzen badizu”.

Eskua eman diote elkarri. Josebak, eskuaren irmotasuna gorabehera, urduri nabaritu du, Axirengana zeharka begira, Axiri zer gertatu zaion jakingo balu bezala. Eta orduan berriz ere hemen egotearen haserrea egin zaio, Axi hona ekartzearen gehiegikeria, bere ahulezia zio.

“Axi ezagutzen duzu?” seinalatu dio Josebak Axi. Eskua eskaini dio. Anbulantziak. Deustuko Erriberako pabilioiak. Arraun Kluba. Ur arrea. Noruega auzoa, beste aldean. Zorrotza mendia.

“Bai” esan dute Iñigo Etxeberriak eta Axik batera; eta gero, altxatu ondoren, elkar besarkatu dute. Josebak utzi egin dio Axiren oroimenaren funtzionamendua ulertzeko ahaleginari; gainera, jada dadoak botak direnez ez du inporta, baina iraganeko jendea eta gertakariak gogoratzeak patroiz zehatza jarraitzen ote

duen ulertzen saiatu bada ere, ez du ulertzen Axik noiz gogoratzen duen istripu aurretiko jendea eta noiz ez. Neurologoak printzipioz aurretiko *guztia* –“denok gogoratuko genukeena” xehatu zion– gogoratu behar-ko lukeela azpimarraturik, oroitzapenak sortzea, sendotzea eta gogoratzea emozioekin lotuta dagoela azaldu zion –Josebak TED hitzaldi hartatik gerora zehatzago ikasi zuen zerbait–; horregatik galdetu dio bere buruari zergatik ez duen Axik Maite Iturbe ezagutu eta zergatik bai Iñigo Etxeberria hau; zergatik ez Felix Linares eta bai Almudena Cacho.

Iñigok besarkatu egin du Axi, eta Axik gogor besarkatu du Iñigo; eta Joseba ohartu da besteren maitasun imintzio jendaurrekoen aurreko ezerosotasunak hartu dituela denak.

Anbulantziak isildu egin dira Axirengan. Deustuko Erribera. Oiartzun. Arraun Kluba. Bertako gizon gazteak. Aita ala ama.

“Erreportajea bukatzeaz dago. Zuk baduzu hitz egiteko asmorik?” galdetu dio Cachok.

Iñigok baiezkoa egin dio.

“Badugu hemen *Dolutan* filmeko protagonistetako bat. Iñigo Etxeberria... Kaixo, Iñigo”.

“Kaixo”.

“Iñigok nonbait arazoren bat izan du errepidean”.

“Trafiko handia zegoen”.

“Bai, Oiartzun urruti samar egon daiteke Bilbotik. Izan ere, zu oiartzuarra zara, Ezker Abertzaleko zinegotzia izandakoa baina, batez ere, ez dakit horrela esan daitekeen, Euskal Gatazkaren bortxaren biktima, film honetakook biktima zareten moduan... Zure anaia Hendaiaiko taberna batean hil zuten ustez galekoek egindako tiroketa batean. Kontaiguzu zure istorioa”.

Eta orduan Iñigo hitz xehez istorioa aletzen hasi da, anaia hil zutelako jaso zuten telefono deitik hasita.

“Felizmente casado y armarizado; buscando similar para vivir la cara B de nuestras vidas”. Gaydarreko profileko argazkiak ez zuen ezer prometagarriarik iragartzen, bular zati bat ilaje, beharbada, iradokigarriaz, besondo sendo samarra, baina ezer gehiagorik ez. Beste argazkirik bazen klik egin zuen baina lauki gris-kara baino ez zitzaion agertu. Ezer prometagarriarik ez, salbu eta esaldiaren zinikotasun erakargarria. Axik berrogei urteko donostiar txatxu bat irudikatu zuen, luma ezin estalirik ezkonduko zen gizon soil txiki bat, “felizmente casado” hura andrearen maskarilla-, jantzi- eta kosmetiko-kide, senar, nola esango luke, ar bainoago, kontrakotasuna ahuldurik andrearen anaia bilakaturiko armariatua; gogoaren zolan ageri zitzaion Joseba eta bere artekoa berdintsu izan zitekeelakoari jaramonik egin gabe hasieran; baina gero ordenadorearen pantaila bezain presente egin zitzaionean, haiena bikote berezia zelakoak kiliki egin zion eta la-saitu, bere buruari aitortuz bazutela amodioaren mitologia oraindik: bikote irekia izan eta elkarrenganako konfiantza, zeinak harreman hura munduak ekar leza-

keena baino indartsuago zela aditzera ematen baitzuen, harremana zeloez harantz zegoelakoa, bata zein bestea beste batzuekin egoten zirela jakin eta -horretan ez zion Josebari amore eman eta bazekien ongi egin zuela- jakinmin barik besteari kontatu beharrik ez izatea; bata bestarekiko bereziak zirelako aditzera ematen zuten txantxa pribatuak; haien bikotea berezia zelako segurantzia. Bat-batean ohartu zen Josebak pentsatuko lukeen bezala pentsatzen ari zela, hark bikotea osatzeko jarritako oinarriak zituztela eta hainbeste urtetan ez zela ohartu, benetan hark agintzen zuela horrelako gauzetan. Errabia egin zitzaion pentsatu izan baitzuen alderantziz izan zela, berak paratu zituela oinarriak, berak gidatzen zuela hura eta ez...

Klik egin zuen berriz ere pantailan. *Baraka*36. Soy: hombre solo. Rol: Activo. Velludo: no, poco. Pene: no circunciso. Grande. Cuerpo: medio. Etnia: caucásico. Sexo seguro: hay que hablarlo. Fuma: socialmente. Drogas: socialmente. Distancia: 6.7km.

Aurpegia ageri zen argazkian. Ezer interesgarriarik ez, gaztea, irribarretsu, mehea, egosi gabea, hein batean. Josebak segur aski barre egingo zuen horrelako aplikazioetan ageri zen “buztan handien” ugaritasuna-

ri buruz. Pantaila txikitu zuen eta bulego argitsuan bira egin zuen begiradarekin. Han Felix Linares buru zuen kuadrilla bat, inguruko mahaietan inor ez. “Gure bizitzen B aldea”. Orrialdea ireki eta instant batean idatziz zuen mezua gatzeleraz: “Antzeko, zure B aldea bizitzeko gogoz”. Eta profila argazki gabekoa zuenez Josebarekin Bermeora egindako txango bateko argazkietatik bat aukeratu, klikatu eta erantsi zion mezuari. Irribarretsu ageri zen moilaren kontra neguan izaten diren egun eguzkitsu aratz horietako baten argitara; gazteago ematen zuen gainera, begi beltzak ilintiak bezala aurpegi zurbilean; zurbilegian, pentsatu zuen, beste argazki bat aukeratu ez izanaz damuturik.

Donostian online egin zitekeen bilera bat aurrez aurre egitera behartu zituen lankideak, aurreko urtean BBCK antolaturiko ikastaroan parte hartutakoan entzundakoak azalduko zizkiela -ahoskera, tonua, enfasiak eta beste hainbat ergelkeria- aitzakia; eta gero bazkaritxo bat proposatu zien esatariei, eta haiek amestutu. Bazkaldu ondoren di-da batean kafe legeak egin eta gasolindegira jo zuen. A4 familiar gorriaren bila, “autoa garbitzen arituko naiz. Aparkatu eta zurea garbitzen hasi”. Kitzika egin zion egoerak.

Josebak barre egingo ziola pentsatu zuen horren maskulinitate eskematikoan aritzeagatik, baina kitzika egin ziola onartu behar... ba... Joseba. Autoa ikusi zuen gasolindegiko sarrera hartu zuenean. Bakarra zen garbiketa eremuan. Sendoa iruditu zitzaion gurpiletan mangerarekin ari zen gizakia. Ondoan aparkatu zuen. Jaitsi eta harengana hurbiltzekoa egin zuenean, beste aldeko gurpiletara jo zuen besteak ihesean. Zur eta lur gelditu zen, besoa erdi luzatua airean. Amorraturik baina onartu behar zuen amorruren azpian desira egin zitzaiola, kreatura hura domeinatzeko nahia, egin zion itsuskeria pagaraztekoa. Bere autoari erreparatu zion. Esanen luke garbi zegoela. Eta ez zuela zentzu gehiegirik garbia zegoena garbitzen hastea baina zer egingo zuen han bestela.

Manera deserosoan kuzkurturik, mangeraren gakoa bilatzen ari zela burua altxatu zuenean bazkal-tzen egondako Donostiako egoitzako Arantxa lankidea ikusi zuen autotik jaisten, depositua betetzera. Langilea etorri, tapa ireki eta zenbat nahi zuen esandakoan burua altxatu eta begiradek topo egin zuten. Irribarre egin eta hurbiltzen hasi zitzaion.

BMWa garbi-garbia ageri zitzaion, distirant itzale-tan.

“Kaixo Asier, kasualitatea!”.

Ergela iruditu zitzaion, ergelak baitira jendeak us-tekabeen topo egitean erabiltzen zituen estereotipoak, handik gatoz eta hara goaz guztiak.

“Bai, garbitzera konprometitu nintzen eta hemen-txe. Ez dago oso zikin baina Josebari agindu nionez” bota zuen desenkusaz.

“Zer moduz dabil?”.

“Ondo”.

“Emazkiozu goraintziak. Eta garbitu ondo autoa, gizonon lana da eta... ondo egiten duzuen gutxieta-koa”.

A4 gorrirantz so egin zuen.

“Hara, Iñigo, zer kasualitatea. Zu ere hemen autoa garbitzen. Zein txikia den mundua”.

Auto aurrean kuzkurturik zegoen gizona ez zen mugitu, kontua harekin ez balihoa bezala. Lankideak Axiri so egin ondoren autora hurbildu zen.

“Iñigo!”.

Burua altxatu zuen. Serio zegoen. Bizarra. Sendoa. Begi berdexkak. Bizkar zabalak. Ezker Abertzaleko janzkera. “Euskal fantasia bat” pentsatu zuen pentsa-tuko zuela Landerrek, ala Begok, “euskal fantasia bat”.

Halako batean irribarre herabe bat egin zitzaion aurpegian. Oso urruna ematen zuen, nonbait babes-tua. "Agerian harrapatua" pentsatu zuen Axik. Eta Joseba eta haren "armairuaren paranoia" kontzeptua etorri zitzaion gogora, eta zita zalantzan ikusi zuen.

"Kaixo, Arantxa. Lanetik?".

"Bai, eta zu autoa garbitzen...".

"Bai, erietxera bisitan etorri, eta autoa garbitzea bururatu zait etxera joan aurretik, umeak biltzeko ordu pare bat falta zaidala".

"Eman ba...".

"Agur, Axi. Eman eskumuinak Josebari".

Autoan sartu eta bozina joz alde egin zuen. Axi ohartu zenerako gizona, Iñigo iruditu zitzaion ulertzea, auto aurrean zegoen aurreko lohিতakoa garbitzen. Axi pazientzia galtzen hasi zen. Berak autoaren aurrealde-ra jo zuen eta mangera irekiz lohিতako garbia garbitzeari ekin zion. Gizon kuzkurtuak zeharka so egin, eta irribarre itxia eskaini zion. Eskua hankartera eraman zuen jarrera behartuan, eta errepara gabea galtza busti zuen.

"Mekagoenlaputa!".

Axik algara egin zuen.

Iñigok ere barre egin zuen esku bustia hankartera eramaten zuen bitartean.

 Altxatu egin zen. Txalekotik ateratzen ziren beso sendoek mangera pilareko eskegigailuan utzi zuten. Esku mardula eskaini zion.

 “Iñigo”.

 “Asier”.

 Sendo eman zizkioten eskuak elkarri.

 “Zu ere oiartzuarra, Arantxa bezala?”.

 Urruntzen nabaritu zuen berriz ere, Arantxak auto aurretik aterarazi zuenean bezala.

 “Barkatu... galdera bat egiteagatik baino ez zen”.

 Jarrerak erakarri zuela ohartu zen.

 “Ongi da”. Ia nafarrera egiten zuen. Lesakako jatorria ote zuen galdetzekotan egon zen, baina uxatuko zuelakoan isiltzea erabaki zuen.

 “Miarritze inguruan bada hotel bat, harrerarik gabeko horietako bat, txartela sartzearekin nahikoa da”.

 Axi zahar sentitu zen, eta itsusi.

 “Jarraitu”.

 Joder armairuarekin!, pentsatu zuen BMWa pizten zuela. Hankarteak kilika egin zion. Mugitzeko manera, hitz egiteko modua, gorpuzkera, janzkera. “Euskal fantasia bat”, Begoña eta Lander adar joka.

Audi A4 gorria begi bistan egin zuen Miarritzerako bidea. Aireportu inguruan ibili ziren harik eta Formule 1 paratzen zuen eraikin anodino baten aurrean apar-katu zuten arte. Ematen zuen “euskal fantasiak” baze-kiela haren berri, zuzen-zuzenean jo baitzuen ate na-gusiaren ondoan zegoen kutxazain automatiko batera. Txartela atera, sartu, gakoa markatu, bi txartelak -berea eta irekitzeko giltza-, jaso eta irribarrez itzuli zitzaion. Bizar errubio distira galtzen hasiak ederrago egiten zuela pentsatu zuen Axik, begiek sorbaldatik sorbaldarako bide amaiezina egin zuten bitartean. Ho-telean sartzeko itzuli zenean ipurdiari begiratu zion. Axi pozak hartu zuen, galtza bakeroak ederki betetzen zituen haragi puska hura alaitasunaren arrazoi izan zi-tekeela susmatu zuen.

Gorputz gihartsu eta ar hark -buztana zut, potroak zintzilik- “Sartuko didazu” eskatu zionean -Axi ez zen ohartu baina eskaera hartan manua zihoan, berak uste ez bezala- susmatu zuen jada atxilotua zegoela, sendotasun haren errenditzeak, lau hankatara paratze hark, musua burukoaren gainean, ipurdia irekita kon-doiez estalitako buztana jasotzeko prest egote hark atzerabueltarik ez zuela, artasuna domeinatze hura ez baitzen parte onekoa, eta maskulinitatearekin arazo-

rik izan ez bazuen ere -Josebak ez bezala, horregatik aitatzen zuen etengabe eraikia zela- hankartean artasun hura guztia izateak arrago egiten zuen, sexuaren merkatuaren legeen egokiera bitxi batez, istantean poseditzailea poseditutakoaren ezaugarriez beztitzen zuela.

Iñigori, lehendabiziko larrualdi ero haren ondoren izandako hizketaldian, harrigarria eta beldurgarria egin zitzaion Axik horrenbeste urte eramatea bikotekide gizon batekin; harrigarria eta beldurgarria, “Nire bizitzarekin jarraituko dut” erantzun baitzion Axik egingdako bigarren zitaren proposamenari.

Hala ere, hamabost egunetan hamar aldiz elkar ikusi zuten, denak Miarritze inguruko Formule 1 hartan. Bakoitza bere autoan ailegatzen zen, Axi askotan lanetik zuzenean, Miarritzeraino zeuzkan 150 kilometro pasatxoak itokarrean eginak. Gehienetan hantxe aurkitzen zuen, autoan sarturik, aire klandestino batek inguraturik, Ternua *ipar polo* gorria eta galtza adabakidunak, bizar urdintzen hasi errubio hura, sendotasuna. Eta gero, eman egiten zitzaion, oinetara paratzen zen nahi zuena egin ziezaion, eta askotan eskatu beharrik ere ez zuen izaten, etzanda ipurdia gora, bi esku sendoez bidea seinalatzen zion, eta Axi, ustez

bere buruaren jabe, ohartzen zihoan zulo hura irekitzearekin berarekin gero eta gutxiago zela bere buruaren jabe.

Lehendabiziko hamabostaldiaren ondoren -whatsappez aritzen ziren etengabe zerrikeriak eta beste-lakoak elkarri botatzen- Iñigo desagertu egin zitzaion whatsappez bakarrik desager daitekeen moduan; bidalitako mezuen erantzunak ez ziren bat-batekoak, lehorragoak ematen zuten, urrunagoak. Axiri, horrelako harreman bat bizi gabea inoiz, arraroa egiteaz gain desesperagarria egin zitzaion ulertzen ez zuen urrun-tze hura, eta antsiatu ere egin zen gorputzean artasun dosi hura gabe.

Pare bat aldiz deitu zion hanka sartzen ari zela jakinik, bai baitzekien armairu bati deitzea izugarrizko bekatua zela; telefonoaren beste aldetik baiak eta ezetz lehorrak baino ez zitzaizkion etorri.

Eta etsi egin zuen. Ez zituen horren egun tristeak aspaldi gogoratzen. Autoa hartu eta Iruñera jo zuen astegun buruzuri batean -urteak zeramatzan horrelakorik egin gabe- eta Josebak erdi ilusioz erdi mesfidantzaz so egin zion egongelako atetik sartzen ikusi zuenean.

“Zer gertatzen da?”.

“Ezer ez. Zu ikusteko gogoa nuen” bota zion, bera ere esandakoaz sinetsirik.

Eta erabateko egia ez bazen ere, ez zen erabateko gezurra, Iñigorekiko pasioaren erauzketan -harriturik zegoen pasioa zeinen azkar sortzen zen ohartzen -Joseba eta bien artean eraiki zuten mundu eroso, eta jada monotono eta aspergarri samar hura hil ala biziko aterpe bilakatu zitzaion. “Gutxienez hura zuen, eta hura asko zen” pentsatu zuen “gutxienez” eta “asko” termino haien arteko kontrakotasunaz jabeturik, hainbeste bazekien testugintzaz.

“Eta Ternua ipar-forro hori? Berria?” galdetu zion Josebak. “Galtza adabakidunak bakarrik falta zaizkizu!”.

Sorbaldak jaso zizkion.

Larrua jo zuten, eta orduan kontsolatuago sentitu zen. Gero afaltzera atera ziren aspaldiko partez, Josebaren pozak -“Zenbat denbora horrelako bat egin gabe” bota zion behin baino gehiagotan- errotuladore fosforito baten moduan bere obsesio eta tristuraren azpimarra egiten zuela. “Zergatik ez zion mezurik idazten?”.

“Zuk zer uste duzu erabateko pasibotasunari buruz?” bota zion Josebari hitzetik hortzera, larrua jo ondoren.

Josebak harrituarena egin zuen, ala harritu egin zen, ez zekien.

Iñigoren larrualdietatik ederki ikasitako erantzuna Josebak emango zionaren antzekoa izango zela baldin bazekien ere, egin egin zion galdera: “Pasibotasunak gizon maskulino bat maskulinoago egiten du hetero-sexualitateak uste duenaren kontra, ez zaizu iruditzen?”.

Josebak barrezka besarkatu zuen.

“Joder, Axi, queertzen ari zara?! Noiztik interesatu zaizkizu horrelakoak zuri?”.

Isiltasuna egin zen, bien artean sinaturik zuten ituna zio. Amildegia bat beharbada.

“Dena dela” gehitu zuen Josebak, berak izandako azken pasiboa zeinen aspergarria iruditzen zitzaion, bost minutu garreneko “Sartu, sartu” hasi baitzitzaion, sinatu zuten itun madarikatu hari nekez eutsiz “bat emetzea edo artzea generoarekin jolas egitea da, hori ipurtzulotik hartzea emetzea delako uste hetero-sexuala kontuan harturik. Ni %100 aktibo direnek moles-tatzen naute, badirudi gizarteak homosexual izatea-

gatik kendu nahi izan dien artasunean gotortu direla; homosexualitatea onartzeko desertutik iragan eta azkenean, gizarteak nahiko lituzkeen gizon bilakatu direla desertutik ateratzean. Zu ere aktiboa zinen, neuk bertsatilitatera pasarazi arte. Gainera, gizarteak, homofobia medio, norbait pasiboa delako iraindu nahiko balu, denok pasibotarako joko beharko genituzke geronen buruak. Horixe zioen Txatorekin erdi adar joka idatzi genuen Etika Marikaren puntu batek”.

Berriz ere gehiegi esandakoaren hondarrak haien artean gelditu ziren.

Axiri ituna sinatu zuten egun hartara egin zion gogoak, Lekunberriko hotel hartara, San Frantziskotik bueltan, elkarrekin ibiltzeari utzi ziotenekora. Gerora, behin baino gehiagotan gogorarazi dizkio Josebak une hartan esandakoak: “Badaude nire nortasunean zuri min egin dizuten gauzak”; gero *pause* egin omen zuen; “Horregatik barkamena eskatu nahi dizut”. *Stop*. Josebarengandik daki, ze berak gogoratu, haien arteko hitzak baino areago, ingurukoak gogoratzen ditu: edaten ari zen Coca-Cola basoaren distira, eta gero begiak altxatu zituenean likore botilen ardora berdea, marroixka, gorrikara, eta barraren zuraren halako laztasunak begietara egiten zuen mataza itxura,

kamareroaren joan-etorriak, edalontziak eskutrapu zuri batekin sikatzen zituen bitartean. Eta gero, hori bai gogoratzen zuela, “proposatzen dizut norberak bere aldetik larrua jotzea nahi duenarekin, baina ez biok hirugarren batekin” esan ziola Josebari.

Eta berriz ere botilen ardora, mantel arrosa, kamareroa edalontziak lehortzen, eta Josebak elkarri gauzak kontatzeko egindako proposamenari “nik ez dut ezer jakin nahi” erantzun ziola. “Ez dut ezer jakin nahi!”. Eta Josebak elkarriketa hartaz hitz egin nahi izan zuen bakoitzean ihes egiten zion.

“Ja, Etika Marika” arrapostu egin zion Josebari, “baina orduan aktibo bat, zuk diozun bezala, desertutik iragan eta gizarteak ezarri dion parametroetara itzultzen bada, pasibo batek bide hori egin eta gizarteak paraturiko emetasun parametroetan aterako litzateke desertutik. Eta ez da horrela. Galdu egiten naiz”.

“Ni ere bai” erantzun zion Josebak. “Dena dela, generoa eta aukera sexuala nahasten ari gara, queer teoriak ongi azaldu bezala, nahiz eta nahasirik egon. Esaterako gay jendearen artean emetasunaren baloreak erabiltzen dira gaur egun iraintzeko, gure garaian ez bezala; gaiztakeria, promiskuitatea, ‘oso puta da’

esaten da; esaterako, ‘pasivaza’ eta horrelakoak... Ba-
dirudi artasuna-emetasuna dikotomia gairiditurik da-
goela gay girotan, baina egon, ez dago”.

“Ja” onartu zion Axik, interesa galtzearen plantak
eginik, elkarren aitorpenek lurralde arriskutsurantzko
norabidea hartzeko aukera saihesteko, mahai gaineko
liburua hartzen zuela. “Eta liburu hau... zelan?”.

“Euskal Literaturaren azken *hita*, Muñoz Eugirenez
gure adiskide Begoren azken fitxajea. Queer omen.
Ale bat erosi dizut”.

Eta horretan Axik, hala ere, lehendabiziko egune-
tatik aurrera, aurkitu zuen bere obsesioari, artasuna-
ren gabezia hari, aurre egiteko modua: gorrotoan ez
bazen haserrean ezarri zuen bere gogoa, eta horrela
hamabost egunetan hankartean izan zuen gorputz
hura ia suntsitua zuen, txorimalo baten modura arras-
taka erabilia, labanaz pasata, txikitua, desegina. Uste
ez bezala, ordea, ez ahaztua.

Eta gero tristura etorri zitzaion, baina abegitsu, ia
sofa baten moduan. Egunero mintzatzen zen Joseba-
rekin, eta pentsatzen zuen pozik zegoela eraiki zute-
naz, “eraiki” hitza ere erabiltzen hasi zen, hamazortzi
urtetan sortu zuten hartaz, eta azkenean, pasioa etxa-
fueroak baino ez zirela erabaki zuen.

Eta, hala ere, telefonoaren atezuan bizi zen, ez zetorren mezu haren egarriz askotan lanaldiak luze egiten zitzaizkion eta deseroso sentitzen zen, bizimodua absurdoaren mugetara hurbiltzen zela.

Eta egun batean, isildu bezala whatsapp jaso zuen:

Zmz?

“Putakumea” pentsatu zuen, eserita ezin egonik EITBko areto erraldoitik paseatzen hasiz. Argia argiago egin zitzaion, isiltasuna -harrigarria zen sabai altuek nola biltzen zituzten soinuak ondoko ordenadorekoak hitz bakarraren marmarra ere ez aditzeko- isilago, eta bihotzak jauzi egin zion bularrean.

Bere buruaz beldurtu zen, Iñigoren gabezia domeinatzea kostatuko zitzaion lan eta sentimenduen indarra ez zetorrelako bat Iñigoren presentziak eragin zion poz eta sentimendu uholdearekin. “Maitasun” hitza iragan zitzaion hanka puntetan gogoaren eszenatoki atzetik. Eta iragan ahala alde egiten utzi zuen.

Denbora pixka bat hartu zuen erantzuteko. Ordenadorean eseri zen berriro ere, Donostiatik emititzen zen goizeko hamabietako albistegirako berriak erredaktatu behar zituen, baina ezin izan zuen.

Zmz? idatzi zuen whatsappean.

Ezabatu egin zuen.

Ausarta izango zen. “Ez daukak ezer galtzekorik, izan hadi ausarta” esan ahala bururatu zitzaion bazeu-kala galtzeko, lohitan sartzen ari zela eta, beharbada, kolkoan dantzan zituen gorabehera haiek guztiek “eraikita” zeukatena pikutara botako zutela.

“Non ibili haiz, kastroia? Kristorenak jasoko dituk!”.

Bere buruari galdetu zion zein eremutan hasten zen pasibo bat, eta zein eremutan bukatzen zen. Ohean pasiboa zena pasiboa zen bizitzan? Pasibotasu-na continuum bat ote? Josebaren analisi zorrotza fal-tan izan zuen. Hobe eremu seguruan.

Gauzak egiten

Noiz geldituko gtu?

datorren astean?

A2. Bota eguna.

Formule 1 hotelaren atarian gelditu ziren berriz ere. Bere buruari galdetu zion ea galdetu behar zion errurik sentitzen ote zuen. Zergatik? Kontua ez maite-mintzea zen. Zakila tentetu zitzaion Iñigoren autoa aparkalekura sartzen ikuste hutsarekin. Eta estalian ibili behar hura zegoen. B aldea. Gero etorri zen *Dolu-tan* filmean elkarrekin egon beharra, A aldea eta B aldea partekatu beharra. Eta Axiren ilusioa.

Axi siestara sartu ondoren, Josebak sukalde minimalista bildu –antzekoak dira Axiren etxeko sukaldea eta Begoren etxekoa– eta ordenadorera jo du, aurreko eguneko itzulpen artxiboa ireki eta lan ongi eginarekin gozatzeko, sentimenduaren azpitik Andrew Motionen poemek –aitari buruzkoek batez ere– eragiten dioten bere buruaren saindu lako irudiaz goatzera; autoerrukiak amarru horiek ditu, badaki.

Gogora ditzaket pasatzen dituzun larreak
 fortin utziak soro distirantak
 okupatzen. Oraindik han banengo,
 aurpegi desesperatutik
 ile mototsa nola kentzen diozun begira,
 aurkitua izango nuen (nuke) honezkero
 nolako itxura duen maitasunak, haren argitasun izugarria.

Nolakoa den maitasuna, haren (bere) zehaztasun (garbitasun) izugarria.

Ez zaio itzulpena gustatzen. Eta ez gustatzeak auterrukia eragotzi dio, azken estrofa zuzentzeko moduak bilatzen hasi baita. “Redios” ez dute balio ez *argitasunak*, ez *garbitasunak*, ez *zehaztasunak* ingelesezko *clarity* azaltzeko. Hala ere, beharbada, *zehaztasun* hitzarekin gelditu beharko litzateke. Hiztegieta ibili da aurrera-atzera, *klarotasun*-aren bila aritu da baina ez da inon ageri, *klarki/klaroki* aldiz bai, gauzak zehatz eta argi esan eta izatearen adieran, ingelesezkoan duen horretan, hain zuzen.

Bihar erabakiko duela pentsatu du, Muñoz Eugiri egun bateko epe luzaketa eskatu beharko diolakoa al dapa gora. Gero deituko dio. Lanaz akordatu da. Itzuli egin beharko du; gogoia du, gainera; Axik –Pili, arreba, ere konforme dago–, Nafarroako Garun Kaltetuen elkartek antolaturiko tailerretan pasatuko ditu goizak, eta arratsaldeak... Baina horrek ez du zentzurik orain, hori lehenago zen; orain, hartua du erabakia. Bueno, bihar egingo duten paseoaren ondorioak ikusi behar. Gauzak, banaka-banaka...

Telefonoa hartu eta Grindr aplikazioa ireki du. Hantxe agertu da. Eta halako batean *gardentasun* hitza egin zaio gogoan. Horixe da, *gardentasun izugarria: horrowing clarity*. Eguna alaitu dio hitzaren aurkikun-

tzak lehendabizi; gero ilundu, izan ere, ez dago bere onenean, horren hitz arrunta garunean horrenbeste egunetan -bakarra baino ez da izan, zehaztapenari kasu egiteko ez da gauza- agertu ez izana seinale.

Aplikazioan sartu da berriz. Atzera-aurrera ibili da aurpegi, bular, hankarte, pantaila huts eta paisajeen pantailan zehar.

GAUR68: horixe.

Kaixo -bota dio Josebak euskaraz-. Itxura ona duzu! -gero gazteleraz.

Zuk be bai -bota dio euskaraz bestea.

Euskalduna?

Bai

Ongi

Beste argazkirik?

Josebak telefonoko argazkietara jo du. Ez du harreman onegirik argazkiekin, baina Landerren aholkuz argazki batzuk egin zituen atzo komunean, gustuko duen aurpegia, horren gustuko ez duen gorputza gal-tzontzillotan. Bi aukeratu ditu eta bidali. Han agertu zaizkio elkarrizketaren parte.

Mmmmm

Joseba ez dago ohiturik eta zalantzan gelditu da hemendik aurrera egin beharrekoarekin. Zahar sentitu da, oso zahar.

Mmmmm –erantzun du besterik ezean.

Gero ergela iruditu zaio bere burua, besteak ez baitio argazkirik bidali.

Beste argazkirik?

Leihotik so egin dio plaza hutsari. Axi siestan da, eta hiria lozorroaren eta arratsaldearen hasierako tarte horretan dago.

Argazkiak ailegatu dira. Bi. Gorputz ederra, kilo gehitxo aukeran. Baina ilajeak, gizonkotetasunak eta bularraren formak erakargarria egiten dute. Gero aurpegia ailegatu da. Badaki eskatu gabe jendeari kosta egiten zaiola aurpegia bidaltzea. Txatok arrazoi, aplikazio informatikoek ligatzea erraztu badute ere, kalte handia egin diote homosexualitatetik gizartea eraldatzeko nahiari, hainbeste ze sexuaz gainera homosexualitatea bera ere kontsumo gai bihurtu baita; “Guretzat, neska, bestearen aurkikuntza zena kontsumo gai bihurtu da. Zure aitaren herrian esango luketen bezala *earki gauden erreboluzittua eitteko!* Orain jada ez da jotzen bestea ezagutzeko; Landerren egoera ne-

gargarria bezala... nobioa bilatu nahian bikote horrekin daraman istorioa. Txakurrarena egiten die?”.

“Bai” egin zion arrapostu, “Durangora joaten da eta txakur bat bezala tratatzen dute”.

“Joder, mojarrekin!” ebatzi zuen Txatok, “hala ere, pentsatzen jarrita, ez da hori bere inozentzia mojon-tziaren seinalea? Txakur moduan tratatzen duen bikote batez maitemindu, hirukoa osatzen ari dela pentsatuz. Badakizu nola bukatuko den, ez? Landerrek min harturik”.

Joseba egon zen Txatoren aurrean Lander defendatzeko, EHGAmen zebiltzala horrelako harremanak amestu zituztela, Asierrek eta berak ere asmatu zutela halako zer bait... nahiz eta gero... eta hortik aurrera isildu egingo zen eta pentsatuko zuen Txatok, azken finean, EHGAmeke buru azkarretako bat izanik, bikote oso tradizionalak izan dituela beti, bata bestearen atzetik, hori bai; eta esango zion, neurri batean zapuztu egin zuela ezer berririk ez asmatzea Txatok, aipatutako politika bizitza pertsonalera ekarri ez izana, Axik eta berak ez bezala. Hori esango zion, baina bere hartan utzi zuen elkarriketa, Axiren istripuarekin nahikoa zuela pentsaturik.

Bizarra du, sudur handia, aurpegi atsegin eta, beldurrik gabeko paratu duen zerbait –Axik ez ditu, baina maitasuna beste kontu bat da, bereziki gizonendako, zeinrentzat askotan sexua eta amodioa aparteko bi gauza diren, edo izan daitezkeen, behintzat–, belarri txabalak, gainontzeko bisaiaren markoarena eginez, halako umore bat eranstean diela.

Guapoa!

Esk ask

Josebak pentsatu du beste aldetik, bular horretatik, aurpegi bizardun eta belarri txabal horietatik “zu ere bai” bat etorriko dela, baina ez da ezer ailegatu, bere antsia ez bada.

Landerrek azaldu dio eutsi egin behar diola elkarriketaren eremuari, mintzakideen txandakatzea dela espero dena, bien arteko tonuari eustea, zerrikeriari zerrikeriarekin erantzutea, pazientzia izatea –ez du sekula izan– eta, batez ere, ez behartzea, elkarriketa ki-deak betebeharraren apurrenik susmatuz gero, alde egingo baitu, edo, makurrago –“Exajeratze bat da” aitatu zion Landerrek–, blokeatu egingo zaitu, eta, ondorioz, argazkian klikaturik “o ez, erabiltzaile honek bere profila ezabatu egin du!” aplikazioaren abisua, “leher hadi, profil honek blokeatu egin hau!” ulertu behar

duzu. “Dena dela” zehaztu nahi izan zion Landerrek, hari handi zetozkion aholkuak berari egokitu nahian, “hartu hau burlaizez; hemen gertatzen den guztia ez da serioa”; nork eta Landerrek...

Zeren bila?

Sexua. Eta beste zerbait sortzen bada, ederto

Nik bakarrik sexua

Idatzi ahala damutu da, uste izan baitu terminalaren beste aldekoak hori irakurtzean paso egingen duela.

Ederto –poztu egin da. Badoa.

Noiz gelditu nahi duzu?

Orain

Orain ezin dut

Noiz?

2etan

Esperatu idatzi du, baina ezabatu egin du bizkaitarrendako hitzaren arrotza arrazoi.

Itxoin pixkat

Whatsappa ireki eta Lander bilatu du. Badaki tenore honetan, pazienteak utzita, Eusko Jaurlaritzako Ba-kegintza eta Bizikidetzarako Idazkaritza Nagusirako lan batekin ari dela, etxetik, hilabete pare baterako.

Asierrekin gelditzeko gaur atsaldien? –idatzi dio.

Berehala erantzun dio, ez ordea berak nahiko lu-
keena, bai baitaki zertarako kontatzeko bidesaria pa-
gatu beharko duela. Erabaki du ergelkeriekin ez ibil-
tzea.

Zuk aholkatu bezala, batekin geldi naiz. Gaur arra-
tsaldean

Zornak! Ok. Zer ordutan?

Espera

Eta orduan gay aplikaziora jo du.

18:00etan?

Ok Non? Ez dut tokirik

Nik bai

Trauko 1, 8 A

Uribarrin

Ok. Akt ala pas

Bertsatila

Josebak pentsatu du horrelako galdera bat duela
hogeitaz urte ezinezkoa izango zela, dela lotsa, dela rol
zehatz eta jakinek homosexualitatea lurralde ireki eta
prometagarria den ideiarekin kontrako zirelako, dela
norberaren desiren esplorazioa eta aurkikuntza egin
gabe eta garatu gabe zegoelako, dela sexua oraindik
bestearen ezagutza eta deskubrimendurako zelako.

Ni ere bai. Gehiago pas

Ok gero arte

Gero arte

Landerri idazteko whatsapp ireki du.

17:30 eramango dizut Axi etxera. Ok?

Ok. Eta nor d bera?

Ez dio erantzungo, berarendako gordeko du. Izorra dadila Lander, eta egon dadila Axirekin. Adiskideak horretarako dira: gaizki gaudenean gutaz arduratzeko. Ez daki zein klasikok esaten duen adiskideak direla hortxe direla jakitearekin konformatzen garen horiek.

Seiak arte urduri egon da. Ez dio kasurik egin Landerren ironiari, Axi etxean utzi duenean.

Berriz ere dutxatu da eta, sagarra kendurik, ipurtzulotik sartu du dutxaren tutua. Betetzen utzi du, eta bete denean gogoz bota du ura kanpora. Ez dio begiratu nahi izan urarekin batera eror daitekeenari, eta, gogoia beste norabait eraman nahia izanagatik, ipurtzulotik eroritako balizko kaka puska areago inposatu zaio erreprimituaren indarrez garunean.

Begiak jaitsi ditu kristalezko dutxa-kabinan zehar. Ezer ez, edo dena joana. Axirekikoa bezala. Indarrez igurtzi du gorputza lehortzerakoan, kondoiak atera ditu mesanotxetik –ederki daki non dauden, bikotea ireki zuenetik berez atera zitzaien Axiri eta biei erabil-

tzea, *badaezpada* ere bota zuen Axik, hura gertatu zenean atzetik emateko eskatu zion lehendabizikoan.

Uste du ez duela ongi aukeratu. Izan ere gaur behan aritzeko hobe baitago, eufemismo ergel bat erabiltzearren.

Txirrinak jo duenean, nor den galdetu gabe ireki dio.

Goiko atea ireki du eta sukaldera abiatu da baso bat ur edatera. Atea entzun duenean “ep!” bota du. Landerren ustetan horrelakoetan bizkaitarrek “aupa!” esaten dute, gipuzkoarrek “eup!”, nafarrek “ep!”, arabarrek bizkaitarrek bezala “aupa!”, eta hor bukatuko da Landerren landa-lana, Iparraldekorik ez baitu aipatzen. “Gehienek ordea *hola* esango dute” erantzun zion Josebak. Lander, gizajoa!; Txatok iragarri bezala, gaizki bukatuko da durangarrekiko istorioa.

Ezkaratzean ageri zaiona argazkiak erakutsitakoa bezalatsukoa da: bizarra, gizonkotea, belarri txabalak. Josebak pentsatu du zenbat denbora daraman larrurik jo gabe eta oroimenak atzera, oso atzera egin dio, urtebetera edo, istripu aurretikora, Axirekin Iruñean jo zuten larrualdi trixte batera; egia esan behar badu, Axi eta bereak azken boladan... nola esan... gogogabeturik bezala zeuden, bata bestearen gorputzaz go-

zatzea gogo kontua bainoago lan kontua egiten zitzaien... areago, aldapa gora; istripu ondokoarekin, ordea, ez da saiatu ere egin, ez du beharrik sentitzen eta, gainera, elbarri bat bortxatzea bezalakoa izango litzateke. Sexua gure animaltasunari dagokiola esan zuen hark gezurra esan zuen, sexurako ere adimena behar izaten baita, gure baitako ez-animaliena. Ez, ez luke jakingo horrenbeste ezagutzen duen gorputz horrekin nondik hasi, zer egin.

Mutilak eskua eskaini dio: "Iñaki".

"Joseba".

Uste baino altuagoa da, eta zabalagoa, eta argazkian ageri ez zen tripatxoa du, baina Josebari gustatu egin zaio.

Elkar musukatu dute ezkaratzean, deseroso hasieran, jokoaren arauak geldo, losintxez, arretaz ikasten ariko balira bezala. Gelaraino eraman du eskutik helduta, honezkero kamisetarik gabe. Ilajea beltza du bukarrean, argazkian bezala. Joseba txiki sentitu da une batez, eta gutxitu, baina bihotz eman dio bere buruari.

Ohean belauniko, galtzontzillotan elkarri zirrika hasi direnean, Josebak jakin du ongi pasatuko duela.

Gero, alde egin duenean, halako tristura bat egin zaio. “Zergatik ezin dut horrelako bat izan?” galdetu dio bere buruari. Izango du. Denborarekin, erabakita-koak bete, dena pasatu eta baretzen denean, horrelako asko hasteko, eta gero horrelako bakarra, larru adiskide-adiskide; ez du bikotekiderik nahi izango denbora luzez.

Lanaren ondoren ETBren egoitza berriaren inguruan dauden taberna kaskar horietako batean gelditu eta hurrengo egunean ez zela lanera etorriko esan zionean, ez zen gehiegi harritu, ez lanera ez zetorrelako gauza arrunta, ETBko langileek erreportaje eta abarrek egiteko egunak hartzen baitzituzten-, baizik eta gauza inportanteak ustekabeen bezala esaten zituelako, informazioa erregalia moduan ematen ari zitzaizuneko adakera harekin. Dena dela, ohituta zegoen Axi Mirenekin lehiatzera. Haien artekoa ez zen Bego eta bere artekoa bezalakoa, ia anai-arreba egin zituen zerbait, baizik eta lankidetzat, errespetua eta halako distantzia batetik sortutako zerbait, Axik desioak zintzilikatu ezin zuen toki bat, beharbada, Miren Akerretak profesionaltasunaren ezkutuaren atzean ostenduriko zer bat *saltzen* zuelako, zeinari mina eta herabetasuna susmatu ahal zitzaizkion.

Baina Axik begiratzen zionean, profesionaltasun hutsetik eta hutsera mugaturiko harreman hari errespetua sortzen zitzaion. Gauza gutxi jakin izan zuten bata bestegandik Iruñean batera lan egin zutenean,

salbu eta Axiren lehendabiziko egun haietan elkarrekin egin zituzten erreportaje haiek; aita 1993an hil zutenetik Mirenek ezin izan zuen Iruñean laketu, eta hura utzirik Bilbora etorri zen, Axi etorri zen garai bertsuan.

Zaila zen erabakitzen Miren Akerretaren nortasun haren oinarrian -lanerako lehiakortasun prostestantean, esaterako; edo seriotasun pisu eta duinean, zeinak, bestalde bat egiten baitzuen hainbat lesbianek, bereziki Euskal Herrikoek, maskulinitateari aurre egiteko ezkutu moduan garaturikoarekin- nazioa zegoen, alegia, aitaren hilketa, edo aukera sexuala, heterosexualitatean ezin egokitua. Kontua zen Miren Akerretarengan ezerk ez zuela iradokitzen arintasuna, eta beharbada Axik bere desioen bitartekotzat ez zuelako, *beste* mota bateko harremana zuen harekin. Eta Axi bera ere, nortasun bikoitzekoa izanik -horretarako zen Gemini, pentsatzen zuen Josebak- serio, eta larri, eta geldi bilakatzen zen, ia hotsandi.

Lagunak egin ziren, beharbada, Nafarroan ezagutu eta aldi berean etorri zirelako biak ere lanera; lagunak egin ziren, baina ez ateratzeko, edo elkarri haien bizitza kontatzeko moduko lagunak, baizik eta eremu komunean dabiltzala jakinik etsai bera izan dezakete-

la uste duten lagunak; zorionez ez zieten etsaigo desberdinei aurre egin behar izan. Axik gainera bere alde egin zuen beti, normal hitz egiten zion, mundu guztia-
ren aurrean, ez beste batzuk bezala, zeinak, Akerretak
susmatzen zuen, bakarrik harrapatzen zutenean ai-
seago aritzen baitziren berarekin, besteen begirada-
pean, “enpresari erailaren alabarekin” baino, batzuk-
batzuk lotsaz, errukiz, harro baten bat, eta beste ba-
tzuk zurtasun gisa uler zitekeen gehiegizko elkartasu-
nez. Urteekin hori ere aldatu egin zen. la traidorea iza-
tetik, 2010. urtean, krisiaren hirugarren urtean, Miren
Akerreta besterik ez zen. Informatiboetako burua. Eta
azken boladan *Dolutan* filmaren egilea.

Axik begiak keinatu zituen Termibusen parean ze-
goen taberna itsusira sartzean. Han ez zituen inork
ere elkarrekin harrapatuko, ezta nahi izanez gero ere.
Txikia zen, hiruzpalau aulki altu baino ez ziren ageri,
eta Athleticeko bandera erraldoia. Bertan zegoen
Miren agertu zenerako. Betiko seriotasuna arindurik
zegoela pentsatu zuen Axik, beharbada haurdun zeu-
dela -denbora zeraman haren bikotekideak ezin haur-
dun gelditu- eta hortik poza, eta ETB barneko kafetegi-
tik atera beharra, lehendabiziko aldiz zerbait pertso-
nala komentatzeko.

Misterio airea zerion.

“Inork ere ez daki, baina bihar komunikatu bat aterako dugu Donostian”.

Axik arinkeria bildu zuen eta zurrundu egin zen, Josebak esaten zion bezala, zurruntzearen itxurak egi-ten zituen guztietan bezala, ahotsa sendotuta.

“Nork aterako duzue komunikatu bat?”.

Mirenek barkatzeko eskatu zion, “bukaeratik hasi naiz-eta. Irlandan, Glencree delako leku batean, euskal gatazkak eragindako biktimak bildu dira 2007tik hona. Santi Brouarden alaba, Zabalaren ahizpa, ETAK aita militarra erail zion seme bat. Eta ni ere han izan naiz. Bihar aterako dugu komunikatua”.

Axik ez zuen ezer ulertzen.

“Miren, berriz ere”. Hura ez zen betiko Miren zurrun, protestante, antolatua.

Orduan Miren xehe-xehe hasi zitzaion azaltzen 1993tik hona bizi izandako mina. “Mesedez, ez kontatu inori. Josebari bakarrik”. Hasieran ez zuela sinetsi, areago, aita hil ziotenean harekin haserre zegoela ez zitzaiolakoz gustatu alabak -marimutila, baina alabak esan ziona, alegia, Bilbon ezagututako neska batekin jarriko zela bizitzen Iruñean. “Lesbiana zikin bat bezala bizitzen?” bota zion, gauza inportanteak esan behar

zituenean egiten zuen moduan, gazteleraz, Etxarri Aranazko euskara hura alde batera utzita. Eta orduan Mirenek esan zion: “Aita, lesbiana naiz, horregatik jarriko naiz neska batekin bizitzen”.

Ez zion begiratu ere egin. “Lotsamangarria” esan eta alde egin zuen, obraren batera, ezkondu aurretik Liberian lanean egindako diruarekin sortu zuen Nafarroako eraikin enpresa handi haren obraren batera. “Baina ni langileak baino lehenago egoten naiz obran!”. Asko eraikitzen ari ziren garai hartan Nafarroan, eta aitak aprobe txatu egin zituen, jakina, UPNrekin zituen harremanak, bereziki Allirekin. “Alli euskaltzalea da” esaten zuen. Kontua da haserre zeudela Miren Akerreta eta aita, eta hil egin zuen unean. Mirenendako ustekabeko itzela izan zen, aitak “lotsamangarria” esan eta etxetik alde egiteko esan eta astebetera...

Eta Glencreen horixe kontatu zuen duela bi urte. Horixe esan behar izan zuen: “Nire aita hil zutenean, haserre nengoen berarekin”; eta gero isildu; gosalduta ondorengo saioan bigarren txanda harturik, ahotsa dardaran, hasieran leihotik ageri zen berde izugarri hartan begiak iltzaturik, nor zen kontatu behar izan zuen: “Miren Akerreta dut izena, eta aita eraikitzailea zen”. Galen bi biktimen senideek ezagutzen zuten,

noski, aitareen etxarri-aranaztartasuna, euskaltasuna, eajrekin izan zuen lotura, Alliren adiskidantza asko aipatu baitziren atentatuaren ondorengo egunetan, eta gero. Akerreta. Famatua egin zen abizena, eta euskaldun bat hil zuelako, lehendabiziko euskalduna balitz bezala. Eta gero berriz ere: “Nire aita hil zutenean haserre nengoen berarekin”, euskaraz, eta gero gaztelez. Mahaiaren inguruan denak, bat edo bat kiharari helduta, besteren bat kutxarillari eraginez, begiak handiturik, zer esango zuen espera, irribarre abegikorra ezpainetan -bezperako saioak zaildu egin zituen, bestela entzutera behartu, komunitate bat sortu, hauskorra baina komunitatea azken finean- aurrera egiteko laguntzen ziotela.

“Ezin izan nion adios esan”.

“Ez kezkatu” ebatzi zion militarren semeak gaztelez, “guk ere ez”; ondoan zituzten bi psikologoek aholkuez bestera, arauak hautsiz komunitate zentzua sortzen gehien laguntzen zuen.

Eta Miren isildu egin zen psikologoari ezinezko keinu bat eginez. Ez dagoela zertan kontatu, neurriak, mugak eta hemen entzuteko eta bakoitzak nahi eta ahal duena kontatzeko daudela, ez gehiagorako. Eta ia beste norbaitek hitz egin nahi zuen. Eta militarren

semeak eutsi zion aurreko egunean, ausarki kontatutakoa zipriztintzeari, doitzeari... Hogei urte zituela, egun berrogeita hamar izango zituen, nola esnatu zuen halako danbateko batek, eta leihotik begiratu zuenean aitaren autoa ikusi omen zuen, sutan. Ardaila, eta halako beldur bat. “Oinutsik jaitsi nintzen kale-
ra, Paseo Salamanca, San Sebastian. *Aita, ama!* egin nuen garrasi. Eta gero itzal batzuk ikusi nituen garren artean. Ez naiz gehiago akordatzen”. Doitze bat nabari zitzaion, trebeziak bezaturiko min bat, jada minaren arrastoa baino ez zena. Eta Mirenek pentsatu zuen gizon hark urre gorria balio zuela, aitaren etxarri-aranatzeraz esanda.

Bukatutakoan berriz ere hitza hartu zuen eta esan zuen: “Aita eta biok haserre geunden, lesbiana naizela esan niolako”.

Eta orduan burua altxatu zuen eta Axiri begiratu zion taberna ilun hartan, atzean Athleticen bandera zuela. Eta Axiri iruditu zitzaion lehendabiziko aldiz utzi zuela alde batera Miren Akerretak zurruntasun hura.

“Pelikula bat ematen du, ezta? Idoiak baino ez daki, eta Irlandatik itzuleran kontatu nion, duela pare bat urte edo”.

Mirenek lesbiana hitza bota zuenean, mahai hartan horren zegoen bere baitara bildurik, besteen begirada eta abegi keinuak mutu bilakatu zitzaizkion. “Hasserre geunden, ez zuen ulertu, ez genuen aukerarik izan”.

Iruditu zitzaion bertan zeuden zortzi lagunek atzera egin zutela, nor bere baitara gorde zela, eta, beharbada, ez zegokion zerbait esan zuela, han esan ezinezko zerbait, gatazka madarikatuari ez zegokion zerbait.

Bitartekaria, Eusko Jaurlaritzako Biktimen Aldeko Kontseiluko profesional hura, ezustean harrapatu zuela iruditu zitzaion, eta damutu egin zen ezer esan izanaz. Eta nekea nabaritu zuen, eta mina, bi min haiek min bakarra bilakatu zitzaizkiolako, eta min hura mahai haren erdian gelditu zelako trapu zikin tzar bat bezala, inor hartzeko higuingarri.

Isiltasuna egin zen mahaiaren gainean. Mirenek berdearen kontsolamendua bilatu zuen, baina kontsolamendua ez zitzaion etorri. Altxatzekoa egin zuen, baina ez zen ausartu, txikitatik ikasitako aitaren egin-beharrarekiko hotsandi hura zio, zeina aitaren heriotzarekin areago zurrundu baitzitzaion berak eutsi

behar izan zion-eta amaren gainbehera azkarrari nola anaiaren noraezari. *Eutsi*, zer aditz malgua euskaraz.

Bitartekariak keinu abegikorra egin zion eskuarekin, segitzeko erregutuz.

Eta orduan Mirenek urteetan gordetakoa ahoskatu zuen, hitz bakoitza kutxatik atera, aztertu eta aukeratu eta bere tokian paratuz; ideiak atonduz min hura izenak enborretan bezala zizelkatuz: bi gauza nahastent zitzaizkiola, aitzak ez onartu izana eta aita hil ziotela. Esan ziotenean, gogoratu zuen, hamabost egun ziren aitarenetik Idoiaren etxera alde egin zuela, eztabaida hura izan gabe; “Bueno, badakizue baskoak... ez zen eztabaida izan, ez zen elkarrizketa izan, esan gabeko hitzen elkarrizketa izan zen”. Amak ez omen zekien ezer, ba omen zekien haserretu zirela, baina ez zergatik. “Denok irakurri dugu, denok joan gara psikologoengana, denok irakurri dugu doluari buruz”. Gero isildu egin zen. Korapiloa askatzen hasi izanak eragindako ausardiak bultzaturik, banan-banan so egin zien: gizaki arruntak, inork ez luke pentsatuko barnetik eraman izan duten guztia, mundua ez dela justua bat-batetan ikasi izanak utzitako aztarnei erreparatzeko arretaz begiratu behar zen, eta hala ere, nekez ziren aurkitzen: begietako bustidura gehiegizko bat, dardara

antzeman ezinezko bat, zigarroa erretzerakoan halako inpazientzia keinu faun bat, gorputzaren presentzia zurrunetik barnera zerbait ezkutatzen deneko seinale ahulen bat. Mirenek ulertzen zutela jakin zuen. “Zuek zarete hil zenean elkarrekin haserre geundela esaten lehendabizikoak”. “Hil zutenean” gehitu zuen gero. “Hil egin zuten” bota zion Axiri, ez baleki bezala. “19 urte eta 17 egun egin ditu gaur”.

Ongi zegoenean Axi pixka bat aurretik joaten zenez, aurretik uztea erabaki du Josebak, lehengora itzuliz-
edo sorginkeria gerta daitekeelako esperantzarekin. Istripua gertatu zenean haserre izan ez balira sikiera, beharbada ez zitzaion gertatuko! Aurretik, lehen beza-
la, aztikeria gerta dadin. Zein da buruzagia: aurretik
doana edo aurretik joaten uzten diona? Orain ohartu
da urteetan izandako gogoeta hori ez ziola Axiri aitortu,
edo harekin eztabaidatu, hari horrenbeste gustatzen
zitzaizkion “informazio hutsune” batean eroriz;
informazio hutsuneak: edozein bikote bizimoduk be-
harrezko dituen zulo beltzak, baina askotan arazo larriak
sortzen direnean kidearen erabateko alderdi us-
tekabekoa azalarazten dutenak, ilargiaren alde ezku-
tua agertuko bailitzan.

“Aizu, Axi” bota dio atariko atea zabaltzen dion bi-
tartean, “zu beti joan zara aurretik gure harremanean,
irudi izan dut zuk gidatu izan duzula gure artekoa”,
nahiz eta gezurra dela jakin.

Axiren begi durduzatuak galduta aritu dira une ba-
tean, Josebarengandik portaleko ispilu handira, ispilu

handitik portalera, ardailan, iruditu zaio Josebari, garunak zaratak eginen balizkio bezala.

“Agintzen duenak agintzen du, hor ez dago zalan-tzarik. Ez etorri niri zure filosofiakeria horiekin” erantzun dio, *ironikoki* pentsatuko luke, ironiarendako ere oroimena –gogoan gordetako lehendabiziko irudia zeinaren gainean paratzen baita kalkomania batean bezala bigarrena, eta dagoen desberdintasunetik sortzen baita– beharrezkoa dela jakinen ez balu.

Aurretik iragan zaio, lehenago pisuko atetik bezala, erronkari eta zabar.

Bat-batean Josebari zutiago iruditu zaio, oldarkorrago, eta berriz ere, lehengoago, esperantza apurrak sortzen dizkiola.

Baina berehala iraungi zaio adakera, kalearen erdian noraezean agertu zaionean. Hurbildu eta besotik hartu duenean itzuli da Axi bere baitara, oraindik antolatzeke den hiri plano horretara.

Besotik heldu eta plazan behera hasi dira biak. Badaki geldoa izango dela paseoa, baina honezkero kalkulaturik du –egunerokotasuna irakasle abil eta zurruna bilakatu da– zenbat denbora behar duten paseoa egiteko, zenbat itzuli Bidebarrietako Liburutegira ailegatzeko, Bego eta Pello Muñoz Eugiren arteko *Euskal*

Kultura Gaur izenburuko mahai-inguru horretara. Aurreikusia ez duen bakarra Axiren errebelazioa da, Deustuko Erriberara ailegatu eta bertan... Bertan zer? Neurologoak eta zantzuek -horretan ere egunerokotasuna irakasle abil eta zurruna da- bestela erakutsiko diote; baina egin egin beharra du, hartutako erabakia gauzatu ahal izateko. Josebak nabari dezake Axiren gorputzaren hondoko dar-dar antzeko bat, makineria baten burrunbaren antzeko zerbait, orekaren ezegonkortasuna adierazle duela. Axi izaten zen Josebari bizi-tzaren ezegonkortasunari buruz errieta egiten ziona, batez ere azken boladan, Josebak betikotasuna, haien arteko harremanean, demagun, aipatzen zuenean. Jainkoa betiko, erantzun zion zakar Axik, behin estuturik zakarra izaten baino ez baitzekien. Zakar, lehen-txeago izan den moduan, eta horretara, pentsatu du Josebak, urteak joan urteak etorri, ez da ohitu, ezta ohituko ere, zakarkeria, askotan, segurtasun eza dela-ko, zuritzea gorabehera.

Kristo kaleko eskaileretan behera jaitsi dira biak besotik helduta, Axi osasuntsuak, Axi Axi zenekoak, neurri batean erridikulua zen maskulinitatea eraikitze-ko zuen modu ponpoxo hark inondik inora onartuko ez zuen moduan -askotan Josebari maskulinitatearen

irudi estereotipatuaren parodia iruditzen bazitzaion ere, halako xamurtasun bat sortzen zion, Axi ohartzen ez bazen ere, ezinaren elbarria azalarazten ziolako-, besotik helduta joatea afektu erakustea zen neurrian ez-maskulinoztat jotzen baitu gizontasunak eta eus-kalduntasunak bat egiten duten gun e ilun horrek, haurtzaroko ~~EA~~ko ikastoletako kode etikoaren prediku ez-ahoskatuak eraginik.

“Eskailera hauek ere konpondu egin beharko lituzkete” bota du Axik, azken egun hauetara arte izan ez duen iniziatibaz.

Josebari poza egin zaio betikoagatik. Askotan pentsatzen du bere bizitza erredundantzia bihurtu zaiola azken urte honetan, atzera eta aurrera baina inora ez doan zerbait. Axi hobetuko da, hobetuko da, hobetu da.

Bilbo narras hartatik gelditzen den adabaki bakarra Kristo kale iluna dateke, laurogei eta laurogeita hamarreko hamarkadetako usain harekin, Bilbo-Berri parke tematikoan iraganaren kistch moduan gelditzen den zati bakarrenetakoa, Atxuri inguruko zatiren batekin. Txato eta Axi gutxitan bezala ados egoten ziren horretan.

“Axi, hemendik” seinalatu dio, Oteizaren eskultura aurrean dutela.

Axik zalantza egin du, Zazpi Kaleetara begiratzen duen bitartean. Igual amets bat irudituko zaio, pentsatu du Josebak.

“Hutsik nago” horretatik Josebak ezin du irudikatu Axiren konszientziak, irudikapen sentsorialen irudikapenez osaturiko aktibitate elektriko horrek zer eite duen. Neurologoak ebatzitako ziria: “Neuronak hil zaizkio”. Kito.

“Akordatzen zara, Axi?”.

Egun hartan ikusitakoa irudikatzen saiatu da. Zubiak ikusiko zituen, Zubi Zuri, La Salve, Arrupe pasarela, Deustuko zubia. Nola egongo zen marea? Zein kolore izango zuen urak, egun batzuetako arrea, beste batzuetako berunkara?

“Akordatzen zara?” galdetu dio, antsia handiagoz.

“Zertaz?”.

“Hemen ibili zinen azken aldiaz?”.

Axik ezezkoa bota dio zakar.

Geldo doaz, saiatuagatik Axi pixka bat atzerago, atezuan bera, haren erreakzioak ikertu, aztertu eta interpretatu nahian.

Baina onartu behar du han aurrean, urruti-urrutian, Deustuko Erribera baino lehentxeago Euskalduna zubia ageri zaiola, esperantzak zaputx egin diola, “azken aldiz, hemendik aurrera ez baita izango esperantzarik”.

Aduanaren fatxada ikusi du. Moilaren iluna, laurogeiko hamarkadako Bilbo ilun hura. Orain pentsatzen paraturik, nola izan zezakeen burgesia hark bere hiria horren zikin? Askotan sutu egiten da, Axi bezala, hiriaren parketematikotzearen kontra mintzatzen direnen kontra. Bilbo hau Bilbo hura baino ederragoa da; egia da, hala ere, Bilbo honen eta, demagun, antzeko prozesua iragan dutelakoz, Turinen arteko aldea txikiagoa dela. Nolabait edertzeak berdindu egin ditu, edertasuna bat eta bakarra balitz bezala, eta igual, izan, hala da.

Ongi gelditzen da Aduanaren fatxada hori eraikin gorria barnean duela. Zer pentsatuko dute ondokoek horrelako barrokokeriak ikustean. Gustatu egingen zaizkie edo adabakien juntatze itsusi eta zentzugabea baino ez zaie irudituko? Auskalo.

Ezkerretara Guggenheim eta armiarma eskultura metalezkoa.

Axik ijarari heldu dio eskuekin. “Mina dut ezkerreko ijaran”.

Josebak ez du atzeratu beharrik izan, geldotasuna areagotzearekin nahikoa izan da Axi beregana hurbiltzeko.

“Gutxi ibiltzeagatik da hori” esan dio Josebak.

“Zu beti igual. Sirenak entzuten ditut”.

“Sirenak?”. Josebak begiak zorroztu ditu. Ez da sirenarik aditzen. “Ez dago sirenarik, Axi! Non entzuten dituzu?”.

Axik sorbaldak jaso ditu, ez dakielakoa eginez. “Sirenak eta zapatilla gorri batzuk”.

Josebak barre egin dio esaldiaren absurdoagatik. “Zer esan nahi duzu? Begira Rafael Moneoren eta Alvaro de Sizaren eraikinak zein politak diren” bota dio Josebak, paisaiari errepararaziz paseoaren helburua *berrezarriz*, pentsatu du hitzaren egokitasunaz gogobeterik.

Axik itsasadarraren beste aldera so egin du Josebaren begirada zaintzailearen pean.

Sirenak urrundu egin zaizkio. Zapatilla gorriek alde egin dute. Josebak, batzuetan, ergela ematen du *polita* hitza behin eta berriz erabiliz. Gezurra dirudi itzultzailea izatea!

Mila aldiz ikusi ditu eraikin horiek eta zer... zer daukate berri... zer daukate... betikoak dira...

La Salveko trafikoaren burrunba entzun uste izango zuten, Axiren bidez Josebak ez balu jakin zubian plastikozko hesiak paratu zituztenetik lehen haizearen arabera entzuten zen zarata goraka egin eta eguratsen galtzen dela.

“Akordatzen zara zerbaitez?”.

“Zertaz, esaterako?”.

Josebak ez dio ezer esan, ez du berezkoa izan beharko lukeena astindu edo bideratu nahi.

“Pasatu al zaizu ijaretako mina?”.

Oraindik hor du. Pausoak eman ahala tenkatzen dion indar baten modura, mina izatera ailegatu barik, oinaze.

Motel joaten da, askotan haserre antzean, Joseba aurretik norbaitekin hizketan baldin badoa, batez ere. Eta asko maite baldin badu ere, bere buruari ametitu behar izan dio, psikologoaren laguntzaz, dena den, maitasuna baino sakonagoa dela gaixoa osasuntsuaren artetik bereizten duen lubakia. Eta *lubakia* hitz exkaxa da, izan ere, bi mundu ezberdin dira, bi galaxia, nahiz eta biak gizakiari egokitu. Axi gaixo bat da, eta gaixo bat ez da gizaki bat, gaixo bat gaixo bat baino

ez da. Beste nonbait dagoen zerbait. Hobetuko balitz sikiera! Bakarrik doazela, bata aurrerago, bestea atzetik, Axi bakean joaten da, baina Joseba aurretik beste norbaitekin baldin badoa, muturtu bezala egiten da, bere apartekotasunaz ohartuko balitz bezala.

Arraunlari batzuk iragan dira, oihu erritmikoei arraunen zaplastaden soinua gehituz.

“Begira, Axi, arraunlariak! Zenbat gustatzen zaizkizun!”.

“Niri ez zaizkit arraunlariak gustatzen, pilotariak baizik”.

“Axi, zuri arraunlariak, pilotariak, harri jasotzaileak, bertsolariak, horiek denak gustatzen zitzaizkizun. Zertara dator hori orain?”.

Axi, si-es-no gelditu da galderarekin. Ideiek jai egiten diote, etxe sail hutsak bezala sortzen zaizkio ia orube dirudien paisaia. Erantzun bat bilatzen saiatzen da, baina ez du aurkitzen. Horrek ardaila puntta bat sortu dio.

Bat-batean laster egiteko gogo sortu zaio eta korrika atera da, kolokan baina abiadura handiz. Barnean nabari duen zerbaitengandik ihes egin nahi du.

Ezinegona. Ezinegonaren konponbidea La Salveko zubiaren azpian du, bertan egiten zuten jolas, akorda-

tu da, txikitan angulak arrantzatzen, Pikorekin eta Xabierrekin. Olde bat bezala etorri zaizkio arrapaladan haurtzaroko oroitzapenak. Uribarri, Trauko kalea, auzotik ihes egin eta ibaia jaistera etortzen zirenean.

Korrika egin, korrika egin, korrika egin Deusturaino, izebaren etxea. Uste du urte asko egon dela bizitzen Iruñean. Zergatik Iruñean? Han oposizioak gainditu zituelako, eta Joseba ezagutu zuelako. Joseba... non ote dabil Joseba? Deusturaino korrika egin. Nekez mugitzen du gorputza, lehen beste bat zen bere gorputza, gazteagoa, eta uste du *zerbait* pasatu zaiola, *zerbait larria*.

Oztopo egin du andre batekin. Hatsak hatsari emanik gelditu da andreari begira, andreak garrasi egiten dion bitartean. Zergatik?

“Ez duzu ikusten non zoazen, edo!?”.

Galduta sentitu da. Andrearekin doan gizona ere garrasika ari zaio. Ondotik iragaten diren ibiltariek erdi gelditu erdi aurrera egiten dute, gertatzen ari dena konprenitu nahian.

“Ez duzu ikusten?”.

Axi durduzatuta dago, sorbaldak beherantz, begiradaren moduan.

“Atzeratua zara? Ez duzu ikusten?”, gizonak.

“Ez naiz atzeratua” oldartu zaio Axi, zubipe horretan horixe esan baitzion behin Pikok, eta elkar jo zuten.

Axik oharkabea gorputza aurrera bota du, hanka batekin bermea bilatzen duen bitartean. Joseba ailegatu denerako gizona babes jarreran dago, eta Axik bere kordoka guztiekin ukabila bilduta dauka muturka hasteko.

“Axi, lasai”.

Besotik heldu du, lasaitu nahian. Axik bazterrarazi egin du keinu zakar batez.

“Non zeunden?”.

Lehendabiziko aldia da oraingo Axi honek halako ostia txarra erakusten duela, horrelako oldarra norbaiti kontra egiteko.

“Ez, geldi”.

Andreak eta gizonak eroei moduan begiratu diete. Beste paseante batzuk ere gelditu egin dira, bikoteari laguntza eskaintzeko moduan. Josebak bat-batean gazte punki batzuei bezala begiratu dietela sentitu du. Berrogeita hamarretara hurbiltzen, eta nahiago luke laurogeiko hamarkadako Bilbo zikin hartako bi gazte-txo balira, eta hementxe ostiaka hasi.

“Goazen, Axi”.

Besotik heldu dio, mugiarazteko, baina Axi ezezkoan dago.

“Zergatik?” galdetu du.

“Zergatik zer?” arrapostu egin dio bikoteko gizonak. “Barkamena eskatu beharrean, zergatik galdezka. Nosajodido”.

Gizona oldartu egin zaie, gertatzen zenaren jakinminez gelditu diren bi gizonekin batera.

Josebak Axi besotik heldu eta alde egiten hasi dira, gizona marmarrean atzean utzita. Deustuko zubipetik iragan dira.

Telefonoak jo dio Josebari. Pili dela ikusi du. Ez luke hartu behar, hartzeak paseoaren helburutik aldendu egiten baitu, baina hurrengo asteko epailearen zitarengatik izango dela dakienez sakatu egin du ikur berdea.

“Bai. Paseoan”.

Arretaz entzun ditu Axiren arrebaren azalpenak, begi batekin ur arreari so, bestearekin Axiren ibilera kordokariari.

Zintzilikatu duenean, “Dena agerian utzi behar” bota dio Axiri.

“Zer?”.

“Ezer ez”.

Axik une batez ulertzekoa eginagatik ere, Josebak badaki ez dela gauza arrazonamendu luzeko ezer ulertzeko, eta, hala ere, zera kontatu nahiko lioke: epaile-tutorearen aurrean arreba Pilik niri zure tutoretza emateko eskaera baloratzeko bilera daukagu Bilboko epaitegietan, eta horretarako, Axi, nire diru kontuak ura baino garbiago agerrarazteaz gain, zureak xehe-mehe erakusteaz gain, zu eta biok zure istripuaren aurretik, Axi Axi zinenekotan, aspaldiko bikotea osatzen dugula frogatu behar dugu; eta horretarako zure arre-baren eta gure lagunen testigantzak behar izango ditugu, elkarrekin bizi ez ginelakoari epaileak paraturiko erreparoei aurre egiteko; Axi, noizbait ere, zuk Iruñean genuen elkarbizitzatik alde egin zenuelakoz; Axi, bestela Iruñean berregiten ari garen elkarbizitza -zer ironia- zaildu egingo zaigulako edozein erabaki hartzeko zure arreba Piliren -zeina uste ez bezala oso ongi portatzen ari baita- baimena behar izango dugulako; hori dena azken esperantza betetzeraz, bestela askatu egingo baitzaitut, seguru nago, zuk nahiko zenukeen moduan, San Frantziskon hileta hartan esan zenidan bezala. Hori dena esango lioke Axiri, ulertzen duelako susmo txikiena balu, baina ia seguru dago ez liokeela

entendituko. Eta paseoaren helburua beste bat da gainera.

Tigre eraikina eskuinetara. Euskalduna jauregia ezkerretara. Euskalduna zubia. Azpitik pasatu dira. Deustuko Erribera. Josebak ez daki non izan zen zehazki, baina badaki errepide zati hau iraganda mugaz betalde egongo direla, Axiren oroimena astin daitekeen tokian.

“Hau zen zuen haurtzaroko muga ez, Axi? Harantzago ezin zenutela joan aipatzen zenidan”.

“Sirenak entzuten ditut!”.

Eta lasterka hasi da Deustu alderantz Ibaizabaletik ihesi, Joseba durduzaturik gelditu den bitartean. Haren atzetik lasterka hasi denean, bidegorritik datorren batekin tupust egin eta lurrera erori dira biak. Hankan mina hartu du. Txirrindularia lurrean dago, bizikletaren gainean erorita, haserrea aurpegian. Joseba altxatu eta arrapaladan desenkusa botarik lasterka hasi da herrenka. Axi ez da inon ageri. Euskalduna zubiaren oinarriak, azpian dagoen haurrendako jolastokia, harantzago Deustuko kaleak. Arnasestuka gelditu da, zeharka atzera begiratzuz txirrindularia altxatzen ikusi duelarik. Ohartu denerako desagertua du zubiaren oinarrien artetik. Ez da inon ageri. Ez da inon

ageri. Semafororaino hurbildu da. Eraikin marroixka-arreak ditu aurrean, eskola eta kiroldegia, parke antzeko hau, Bilboko toki abegitsuak, Botikazar. Ez da Axi ageri. Ez zuen honaino ekarri behar. Nonbait zerbait mugitu zaio. Baina mugitu izanak beharbada... Josebarririk esperantza egin zaio berriz ere.

Arnasestuka ari da. Luis Power kalean gora egin du, 112ra deitu beharko lukeen galdezka. "Senarra; ez, nobioa; ez, bikotekidea galdu dut. Ez du oroimenik, baina uste ez bezala kordoka utzi eta herioak harturik egiten du laster, ez du jakiten non dagoen, ez daki non bizi den; bilbotarra da, baina Iruñean bizi gara istripuaren ondoren; asko maite dut; geldotasunera kondenatu nau; Deustuko Erriberan, Zorrotzaurreko bidean eman zion bihotzekoak, eta zerbait pasatu zaio, igual gogoratzen hasi da".

Blas de Oteron barna ibili da; Iruña kalean, ageri ez; De Madariaga, ageri ez; Agirre Lehendakariaren etorbidea. Trafiko sarriaren burrunba. Axiren arrastorik ez.

Telefonoa atera du eta Begoren zenbakia markatu du. Inor ez. Bego, behar denean inoiz ez dagoen inor hori.

Ferreteria Deusto. Iruña kaletik behera egin du. Araba kalea; Burgos kalea; Blas de Otero, berriz; Gipuzkoa kalea; Logroño; Santander; Jon Arrospide; Bortikazar.

Berehala jo du begiz haren silueta kordokaria.

Haurren jolastokira ailegatu denean, alaitu egin da Axiren bisaia izutua.

Besarkatu egin du.

“Sirenak entzuten ditut. Eta zapatila gorri batzuk. Zer egiten dut hemen?”.

“Baina, Axi, zerbait gogoratzen duzu? Bihotzekoak eman zizun”.

Beldurra bisaian. Beldurrak kolore hori du, gorria ia, begi irekiak, odola aurpegirantz.

“Niri? Ez”.

Euskalduna zubirako eskailerei erreparatu die. Txirristak. Balantzinak. Kulunkak.

“Bai, zuri” egin dio gogor.

“Niri! Ez”.

Hanka puntetaraino erori zaio esperantza. Ostia txarrak hartu du eta zaplasteko bat jo dio, jo ahala damutzen zaiola.

Axiri harria lakoa paratu zaio aurpegia. Sirenak isildu zaizkio. Eskua eraman du aurpegira. Beldurraren

kariaz atzera eman ditu pauso bi. Eta lasterka hasi da berriz ere itsasadarrerantz.

Josebak behera jaitsi du airean zuen eskua. Jo egin du. *Jo egin dut*, errepikatu du hondoan urtebeteko zaintzaren ordaina delako plazerak toki egiten diola, eta bere burua barkatzeaz gain zapuzturik, berehala ohartu delako paseoak -susmatzen zuen bezala- ez duela ezertarako balio izan.

Alea jacta est.

Barandaren kontra estutu du eta berriz ere besar-katu.

“Barkatu!”.

“Jo egin nauzu”.

“Barkatu”.

Ez daki noraino ohartzten den Axi bere baitako barkamenaren bikoiztasunaz.

“Barkatu” desenkusatu da berriz ere, Axiren erre-seteatzea azkarragoa izan dadila desiratzuz.

Eta halako batean gertatu da. Begien keinadagatik, gorputzaren jarreraren aldaketa nabariezkin batekin badaki Axiren errealitatea berriz ere hasi dela, jada ez duela gogoratzen jo egin duela.

Taxi bat gelditu du Botikazarrean. Bidebarrietako liburutegira ailegatu direnerako publikoa atarian dago

jada. Erlojuari so egin dio. Bukatua behar du. Hantxe agertu zaizkio Bego eta Pello Muñoz Eugi, bakoitza zenbait alde. Berehala ohartu da mahai-ingurua gatazkatsua izan dela. Ez du ezer jakin nahi. Agurtu eta etxera doazela esan die. Bakoitzarendako hitz berdinak erabiliz. Ez dago txorradatarako. Bihar egun handia izango da.

EZ zuela ezer jakin nahi adierazi zion Miren Akerretak. Glencreekoa azaldutako egun hartan nabarmendu zitzaion ahuldadetik –egunetara errotu eta betikotu zelakoan egon zen Axi esperimentu bati arreta eman bezala– betiko gotortasunera itzuli zen, zurrun azaltzen zitzaion haien arteko adiskidantza gauza serio eta larria balitz bezala. Axi poztu egin zen, neurri batean betiko Miren agertzeak lasaitu egiten baitzuen, Axiri jende berria ezagutzea gustatu egiten baitzitzaion, ez, ordea, betiko jendea aldatzea.

“Ez dut ezer jakin nahi” moztu zion lehor Axiri, autotan sartu eta Erreteriarra *Dolatan* aurkeztera abiatu zirenean, “ez zaituztet inoiz ulertuko”. Eta irribarre egin zuen Mercedesaren bolanteari heldurik Bilbotik ateratzen ari zirenean. “Nola esan duzu? Felizmente casado y armarizado; buscando similar para vivir la cara B de nuestras vidas”. “Horixe dun, horixe!” eragin zion buruari Miren Akerretak, Axiri zeharka begiratzeko ziola, bai baitzekien zerabilten elkarriketaz aparte Axi urduri zihoala, ez zitzaiolako bera gidari ez zen autoetan ibiltzea gustatzen, eta Mirenek, zuen hondo

serios baina aldi beran burlaizekoarekin, adarra jo nahi zion.

“Ez dut galdetuko nor den?”.

Axik irribarre egin zuen aho ertzarekin autoaren potentzia hanken azpian nabari zuela, aldeztu aurretik Mirenen harrituraz gozatuz.

“Marikak... nolakoak zareten! Bide batez, haurdun gaude, azkenean. 5 urteren ondoren”.

“Zorionak!”.

“Bai, hala beharko!”.

Durangoko autopistako pagagunera ailegatzen ari ziren.

“Pozik nago... gaude. Batez ere Idoia. Nik pentsatzen dut, beharbada, beranduegi datorrela. Urte gehiegi dira 55 urte ume bat izateko”.

“Bueno, Idoia gazteagoa da”.

Autopistaren txartela eman zion nonbait gorde zezan.

Axiri ez zitzaion gustatu Mirenek bera haren zereginen luzagarri moduan erabil zezan, txartelen eusle, kopilotu, mendeko -adiskideak izanik ere, mendeko zuen- ordeztu, eta haren burlaizearen itu, beharbada, Josebak behin baino gehiagotan aurpegiratu ziolako berak horrela tratatzen zuela bikote harremanean,

bere desiren atzetiko lasterraldi irrikatsuak sorturiko beharren hornitzaile, eta askotan ikusle behartu. Ez zitzaien gustatu nahiz eta onartu Mirenena -berea beza- la, barkatu zion bere buruari- izaerari zerion zerbait izan, dena delakoaren kontrako mendeku nahia baino- ago.

Bizkarra bermatu zuen asentuko tapizeria leunaren kontra, urduritasunari ihes egitearren. Ohartu zen halaxe izan zela bien arteko harremana, Miren nagusi eta bera mendeko. Errabiak hartu zuen, ez Mirenekiko, baizik eta bere buruarekiko... eta Josebarekiko; ez zekien zergatik.

“Ezagutzen duzu, gainera!”.

Aurrea hartu nahi izan zion nagusigoan.

“A bai?”.

Arbuio? Jakinmin? Nagusigo?

Miren nahasirik gelditu zen. Bidaia hartan Axi egi- ten ari zena gaizki iruditzen zitzaiola esateko delibero- an atzera egin zuen, parada hobearen zain. Gaualde- ra, beharbada. Bazekien adiskideak baziren ere, haien artekoa adiskidantza eta lankide harremanaren arteko zerbait zela... gorabehera pertsonaletara lerratzen zi- renean tentu handiz, hanka puntetan ia, ibili beharre-

ko eremua, ahaidetasunak bainoago ohiturak eragindako zerbait bilakatzen baitzen.

Ia hitzik gurutzatu barik egin zuten Erreenteriarako bidea. Axi barrunbeetako bol-bola baretzen, Miren, errepidea eta barneko paisaia zurrunaren artean -oro ederki apaindua, arreta emana, nabarmenegi zaindua- kukuka.

Aparkatu eta Niessenera ailegatu zirenerako, kamera eta soinu teknikariak zain zeuzkaten. Niessen kultur etxeko areto handia aztertzen aritu ziren kamerak non paratu ezin erabakirik. Azkenean bigarren maila aldian kokatzea erabaki zuten, eszenatokitik nahikoa gertu; eta, horrela, atzean norbait mintzatzera, kamera itzuli, eta soinu teknikariarekin nahikoa izango litzateke.

Kostatu egin zitzaion Miren Akerretari Erreenteriako alkatea kamera aurrean jartzeko konbentzitzea. Ez zuen nahi Julen Mendozak kamerarik egon zedin, baina, azkenean, Miren Akerretak *Dolutan* filmaren zuzendari eta ЕИТБko albistegietako buru izatearen “galoiak” erakutsi zizkionean amore eman zuen; bi kargu horien gainetik bera ere biktima zela bazekiela susmatzea ere ez zitzaion gehiegi gustatu Mireni.

Kamerena konpondu ondoren, udaletxera abiatu ziren eta Julen Mendoza agurtu zuten, gero elkar ikusiko zutelako promesarekin. “Guapoa da” bota zuen Axik, Mirenekiko adiskidantzaren legeak hautsiz, neurri batean.

“Hala da”.

Oiartzunen hartu zuten ostatu eta hara abiatu ziren autoan, han bazkaldu, siesta egin –Mirenek beharrezkoa zuen–, eta arratsaldeko zazpietarako prest egongo ziren atzera berriz Niessen aretoan.

Norbere gelara sartzerakoan, “Gero berarekin geratu naiz” bota zion Axik Mireni.

“Berarekin? Ez dut gehiago jakin nahi. Dena dela, ez dakit zertan ari zaren... Esan zenidan Josebak ez zekiela... Uste dut kontatu egin beharko zeniokeela, eskubidea dauka. Ez dizut ezergatik esaten, ni lasai gelditzeagatik... sekretuaren jabe egin nauzun aldetik... Zenbat denbora daramazu berarekin?”.

“Kontratuaren barnean dago”.

“Kontratua? Ez dakit ze kontratu daukazuen... Beno bai, esan zenidan... baina berdin da... kontratuak kontratu, inori ez litzaioke gustatuko bere bikotekideak amorante bat duela jakitea”.

“Urtea! Urtebete inguru daramagu”.

“Urtebete?! Hori bizi oso bat da horrelakoetan! Mingarria egingo zaio Josebari. Eta hori gutxi esatea da. Nik ez dut gehiago jakin nahi. Esan beharrekoa esanda erretiratu egingo naiz”.

Korridorean dardaran utzi zuten Mirenen hitzek. Gelara sartu zen siestarik egiteko batere gogorik gabe; zurrunbiloa egin zitzaion, nola esan ziezaiokeen hori, baina aldi berean bazekien Mirenek arrazoia zuela: aurreregi egin zuela bide hartan. Mirenen hitzek ordura arte desioaren atzetik antxintxika bizi izandakoa muturren aurrean paratu zioten, argifokuen izpie-tara: Josebak bizitzen ari zenaz pentsa zezakeena, desleialtasuna, zintzotasun eza, gezurra, entzun zuen bere baitan, gezurretan bizitzen ari zen; kontratuan ote zegoen egiten ari zena? Ezetz erabaki zuen baina... berak ez zuen bilatu, eta ikusi beharra kontratuan ote zegoen, zenbat horrelako izango zituen Josebak berak jakin gabe; eta gainera berak esan zion ez zuela ezer jakin nahi, eta horregatik ez zuen...

Ohean etzan zen sabaiari begira, gogoa dundu-nean harraboska. Ezin zuen lo hartu. Ez zuen pentsatu nahi. Oiartzungo plazara atera zen. Bitan-edo egona zen herrian... sagardotegiren batean, behin, eta bestea laneko erreportaje bat egiteko-edo. Akor-

datu zen egon zen azkenekoan Castro delako taberna bat zegoela, barra azpia behi larruz estalia, eta atzean balkoi beiradun bat zeukala, eta bertatik halako patio moduko bat ageri zela. Plaza erdian. Taberna barnera begiratu zuen. Aldatua zegoen, izena, altzariak, ez zen ageri barra azpian behingo behi larru zuri-beltza eta, beiraren bestaldera, ez zitzaion agertu egon zeneko hartan bezala ilajearen leuntasuna, barnera sartzeko ia kantuan deika.

Pattarra behar zuela erabaki zuen, taberna arruntan sartu eta barrako aulki altutan eseri zenean.

“Txupittoa!”.

Eta Miren, lesbiana puta hori, horren urrun eta horren harro beti, zertan ari zen berari horrelakoak esaten. Damutu egin zitzaion aitortu izana, baita Bego eta Landerri ere, baina gaizkileak behar du gaizkia aitortu, gaizkia izango bada, ez baita nahikoa izaten Jainkoa ala Justizia bezalako zera abstraktu bat gaizkiaren lekuko, gaizkilea egindakoaren okerraz jabetzeko; lekukoak haragizkoa izan behar du, eta ahal bada hurbilekoa, eta gaiztotara, mina jasotakoa hobe.

Goitik behera so egin zion zerbitzari gazteak. Urduri zegoen. Eta ez zuen pentsatu nahi. Ihes egin zion garunean pertsekutatzen zuten gogoeta nahasiei, ba-

rraren atzean zeuden likore ugarien botilei begira. Ginebra askotakoak: Beefeaterren karratua, Lariosen txaparra, Gordonsen ttoporra, Bombayren urdina, Tanqueray berdea, Oxley zurruna, Seagram's makia, Gin Mare diszifrindua, Bulldog, Cittadelle, Larios Dry, Hendryck's... Instintiboki bilatu zituen tonika botilak... Ez zuen ulertzen azken hiru urteetan hedatu zen gin-tonikarekiko txorrada hura guztia. Ginebra marka ugariak, tonika ugariagoak, barazki, fruta, belarrak eta fruituak eta haziak. Ez zuen esango ez zituela probatu baina betiko gin-tonika zen gustuko zuena, hartu ezin zuelako batez ere, ez ginebra baizik eta tonika, anti-malariko baten ondorioz -nonbait, medikuek ere ez baitzekiten nondik zetorren- bihotzaren taupaden antzeko soinu txiki bat sortu zitzaiolako ezkerreko belarrian, isiltasun erabatekoan baino ez entzuteko modukoa. Tinitus edo akuifenoa. Kininarena omen. Josebak, bera baino areago kezkatzen zen gainera, ekarria zion hor zehar bildutako informazioa, besteak beste *El País*-en argitaratuko artikulu bat, non aditzera ematen baitzuten ez zela belarri kontua baizik eta garun kontua; garuna nonbaiten edo zer batekin sintonizaturik egon eta beste kanal batera mugitzean aurrekotik geratzen zen zarata zela tinitusa. Joseba. Hainbeste ur-

tetako gorputzaren irudia egin zitzaion atzera berriz, eta atzera berriz jo zuen botilak arakatzera: tonikak: Schweppes, Blue Tonic by Kas, Nordic Mist, Fentimans, 1724, Fever Tree Indian Naturally Light, Fever Tree Mediterranean, Fever Tree Lemon, Boylan... Joseba. Joseba. Eta Iñigo. Zer egin behar zuen? Whiski txupittoa dzangada batez edan eta hotelera abiatu zen berriz ere.

Miren zain zeukan sarreran. Elkarri so egin zioten, nork bere oholatzatik.

Axik erabaki zuen ez ziola esango nor zen Iñigo. Ez zuen merezi.

Mirenek harengan zuen autoritateari esker keinu faun batez eserarazi zuen aurreko silloian.

“Ni ez naiz inor zuri zer egin behar duzun esateko, baina esan didazunez eta lagunak garenez uste dudana baino ezin dizut esan: konpon ezazu kontu hori, egin ezazu aurrera ala atzera, baina, batez ere, hitz egin ezazu Josebarekin. Zure adiskidea naizen aldetik ezin dizut besterik esan”.

Axi silloian mugitu zen urduri. Bazekien arrazoia zuela baina izorratu egiten zion arrazoia izan zezan. Tanqueray, Larios Dry, Bombay, Nordic Mist, Boylan... Baiezkoa egin zion.

“Gin-tonik bat hartu beharko genuke abiatu aurretik. Ondo egingo liguke”.

Mirenek esandakoa esana duenaren patxadaz baiezkota egin zion.

Axi hotel txikiko jabearekin negoziatzera abiatu zen.

Badaki Begoren etxeko txirrina jotzean hura ez dela azalduko, gauzei kara emateko duen gabeziak galara-zi egingo baitio. Beharbada ez da adiskideek abando-natu dutela, beharbada 50etara hurbiltzeak horixe baino ez du esan nahi, bizitzak emandako egurraren-gatik zaildu egiten garela, eta zailtzeak, neurri batean xamurtasuna higitzen duela, eta trapu zahar bat be-zala utzi; eta, hala, besteekiko gor bilakatzen gara; eta adinak jakintza eransten duela ukatuz, adiskideek harekin izan duten urruntzea eragin du, gauzei min egin ezin diezaguketen urruntasunetik so egiteko babes -edo berekoikeria- hori artatzeari ekin diotela, beharbada, halabeharrez. Gutxik lortzen dute zahartu eta, aldi berean, bizitzarekiko zaurgarritasunari haragi bizian eustea. Txato entzun du bere ileapaintzaile ja-kintza queerra dariola: “Gogoeta horiek mendebalde-ko klase ertainaren kontuak baino ez dira, ikusiko ze-nuke marikita afrikarrak bagina, ze txorrada gutxi”. Txato, hor egon den bakarra. Lander eta Bego, aldiz... Joseba lasaiak, dena dela, eusteko esaten dio, ziur aski Axik Axi izateari utzi izanak eragin handia izan

dezakeela gauzak ikusteko moduan, baina, bestalde, Joseba haserretuak zera eranstean dio, orduan behar duela... sutan jarri arte eltzea nolakoa den nork jakin, esaerak dioen bezala.

Urratsak entzun ditu hurbiltzen. Kostatu egiten zaio singularreko lehen pertsonan mintzatzea, horren dago ohiturik gutanora.

Hogeita hamar urte inguruko mutil batek zabaldu die atea. Kaskamotz, gihartsu, belarritakoa ezkerreko belarrian, galtza higatuak.

“Kaixo” irribarre egin die.

“Kaixo, Mateo” bota dio Josebak.

Axi ailegatu denean, eskua eskaini dio. “Kaixo, Axi naiz, Asier”.

“Elkar ezagutzen dugu” erronka egin duela iruditu zaio Josebari.

Axik Josebaren begirada bilatu du, zerbait oker da-goela segurta diezaion.

“Ez dut uste. Ez zaitut inoiz ere ikusi. Eta ikusi izan bazintut akordatuko nintzen”.

“Utzi” agindu dio zakar Josebak Mateori, zeina hasita baitzegoen arrapostua ematen.

Mateo isildu egin da; gutxi ezagutzen du, baina badaki gero Txatori kexatuko zaiola. Azken boladan,

Axik Axi izateari utzi zion lehendabiziko lehen sei hila-beteak-edo pasatu ondoren erabakia hartu zuenetik, irmoago ikusten du bere burua, kanpotik lehorra, agintzailea, zakarra eman dezakeela ametitu arren.

“Kaixo” entzun dute sukaldetik.

“Kaixo” erantzun dute biek.

Josebak eutsi egin dio ustekabeen agurraren arrapostuari darion tonu kexati eta akusatzaileari.

Irudikatu bezala egongo dira, Txato afaria prestatzen, Bego ardo kopa eskuan. Harriturik utziko ditu, bihar dena desberdina izanen da. Badaki. Harriturik. Nolabait mendeku hartuko die, negarrez, edo zergatik nirika hasi izan denean paratu dizkioten asperdura aurpegiengatik. Ez dute konprenitu denbora behar izan duela zailtzeko.

Korridorean barna abiatu dira espedizio batean bezala. Badaki Axiri elkar ezagutzen dutenetik gustatu izan zaiola Mateo, apustu egingen luke, gainera, Txato-ren estalian noizbait ere zerbait egin dutela, “bikoteek funtzionatzeko”, Axiren hitzak dira, “behar duten zonalde ilun” horretan; horregatik egiten zaio arraroa ez ezagutzea, istripu aurretiko jende guztia ezagutzen baitu.

“Kaixooo!”.

Uste bezala Txato ari da afaria prestatzen, Bego- ardo kopa eskuan- zutik dagoen bitartean; izan ere, areago ezagutzen du Txatok sukaldea ezen ez jabeak berak. Begok ardo kopa utzi eta Axi besarkatzera jo du, irribarrea ezpainenetan.

Une batean, Begok berari so egin eta begiak gurutzatzean, jaitsi egin ditu herabeturik, edo beldurrez, edo ezkutatzekorik balu bezala. Beharbada atzo goizeko telefono errietagatik -huskeria bat-, oldoztu du Josebak orain; Axi horren maite duen Bego horrekin Axi ez zebilen erabat konforme azken boladan, haien “gogoak elkarrekiko energiaz nekaturik ezaxolatasunera lerratuak ziren, gaizki idatzitako erreportaje bat bezala” laburtu zuen Axik, Josebaren harridurarako. “Gogok gorputzak bezala nekatu egiten dira, eta aspaldiko harremanak, direnak direla, higatu egiten dira, hainbeste, askotan izan zirenaren oihartzunez elikatzen dira egun”. Ez daki haren eta Begoren artekoa hor zegoen, baina hurbil zebilela bai, Begoren maitasun gehiegizko keinu horiek keinu gehiegizko. Eta berarekikoa ere berdintsu. Urte gehiegi elkarri gauzak kontatzten, gehiegi elkarri konfidentziak egiten, elkarren akatsak modu klinikoan aztertzen eta, batzuetan, aurpegiratzen.

Noraezetik ihes egiteko, eta hark, bai, maite due-lako, Txatorengana hurbildu da eta hark -entsalada prestatzen ari da, legatza labean sartu ondoren- ez-painak paratu dizkio musu emateko, EHGAMEko 80ko hamarkadako ohiturari jarraiki. Baina sukaldeko premien eraginez, ulertu du Josebak, urrun egon da, edo hobe esan, ez da egon, berehala jo baitu tomateak labana prestu batez moztera.

Azkenean Begok askatu du Axi, eta Josebari so egin dio, besoak zabaldurik. Josebak pentsatu du Bego eta Axi ongi konpontzen direla biak erreginatxoak direlako, zirelako. Axi, nola esan, berak ezagutu zuen garaiko Axi armairatu hura kenduta, beti izan da -Pili arrebak halaxe dio eta sinetsi egiten dio- berezko buruzagi natural horietako bat; Txato, aldiz, Tuter a beza-lako herri batean homosexualitatearekin lehiatzeak egin du erregina, erreginatasuna oinarritzko izaerarekin txirikordatzeko batere ahaleginik gabe; Bego, bestalde, Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak eskura paratu dion boteretxoak egin du erreginatxo; bertsolari, idazle jende, kazetari, zinemagile, eskultore, pintoreen zoriari buruz erabakitze ahalmenak gupidatsu bilakatu beharrean, zapalgailuaren modura jokatzera eramandu; eta Josebak badaki, Muñoz Eugik esana, noiz-

bait ere eroriko dela eta zor guztiak kitatu beharko dituela, “artista jendea mendeku zalea baita”.

Josebak badaki maite duela. Eta badaki hark badaikiela berak ere maite duela, bidaide direla, nolabait. Areago orain Axik Axi izateari utzi eta inoiz ere Axi izatera itzuliko ez den honetan.

Begok sorbaldatik pasatu dio eskua maitasun azterna ala haien arteko tartea leuntzeko edo; tartea leuntzeko, erabaki du, maitasunak ez baitu helbururik.

Txatok tomateak erretiluan bota, eskuak garbitu eta Axi besarkatzera hurbildu denean Joseba urtu egin da; hori da adiskide bat, horixe.

Begorengandik askatu da eta urrundurik so egin dio gorputz osoz ikusi ahal izan eta zuri-zuri zein ongi dagoen adierazteko. Josebak erabaki du Lander eta Begorekiko mesfidantzak, batzuetan goizetan bolbolka darizkion sentimendu horiek guztiak, bere doluaren ondorio direla, ez dutela abandonatu, bizitzak abandonatu duela: adiskideak bidaian doazela, eta agurtzeko asmotan atarira atera, autoan igotzen ikusi eta eskua altxaturik agur esaten ari balitzaizkio bezala dela otu zaio, eurak, betebeharrek hartuta, hantxe nahigabeturik gelditu behar duen bitartean, biribilketa alaia

-urrutitik alai ematen dute biribilketa guztiek- nola le-
kutzen den begira.

Begok ardoa eskaini die eta gero, Axiri heldurik,
“Zer moduz?” galdetu dio.

Axiri dena egiten zaio arraro, Marzana moilako
pisu zaharberritu hau, sukalde high-tech-a eta Bego...
arraro nabaritu du... urrutiago bezala... batzuetan ez
du ezer sentitzen, hutsik du burua, argiak, eta sirenak,
txistuka.

“Hogei minututan prest afaria” bota du Txatok.
“Mateo, faborez, aterako ardo bat niri?”.

Mateo, ate bokaletik alde egin, eta ardo botila har-
turik kopa zerbitzatzera joan zaio. Ez diote asko irau-
ten Txatori nobioek, baina honekin badaramatza,
denen harridurarako, bi urte.

“Eta Lander?”.

“Lokarri itxi ondoren, azken bilera zuten, edo hala-
ko zerbait”.

“Zer moduz dago?”.

Txatok eta Begok elkarri begiratu diote nork eran-
tzungo.

“Hemen sartu nauzunez”, Txatok sukaldea seina-
latu du, “ez dut erantzuteko denborarik izan”.

Begok ufa egin du eta gorputza tenkaturik. “Ez dut ulertzen zuena, bikote baten txakurra izatea, ez da harreman bat; nik ez dakit zer pasatzen zaizuen mari-koi... Prestatuta ez zaudeten tokian sartzen zarete eta gero negarrak. Non dago idatzita bikote baten eskla-boa izan eta ugazabek utzi nahi zaituztenean azalpe-nak eman behar dizkizutela!”.

Txatok eskuan daukan padera utzi du sukalde-gai-naren gain distirantean.

“A ez! Hori ez da horrela. Ez dut ezagutzen bikote hori, baina txakurra baldin badaukazu, txakurra zain-du egin behar duzu; eta kendu nahi baduzu, azalpe-nak eman behar dizkiozu. Hori esan nahi du txakurra izateak. Kontua da, beharbada, Lander ez zegoela prestaturik horrelako bat izateko, baina bikote hori ere ez”.

“Baina, txakur bat uxa dezakezu, kendu, zuk esan duzun bezala, batere azalpenik gabe; ez dizkiozu zor, txakurra delako”.

“Ez, ez zara txakurra, txakurrarena egiten duzu. Gainera, gure Etika Marikak esaten zuen bezala: mari-kak ez du ahaztu behar paria dela eta pariekin egin behar duela bat. Paria berdin txakurra. Ba... pasatuko zaio” laburtu du Txatok.

“Baina hori ez da hirukote bat. Bikoteak, indeed, ez du arriskatzen, bikotea bata bestearekin babesturik dago, eta, nola esango nuke, txakurra bere txakurtasunean beherako ordena batekoa denez...”.

“Horretan arrazoia duzu. Baina maitasuna edozein tokitan azal daiteke, baita bikote batekin txakurrarena egiten duzun bitartean ere, nahiz eta gure Lander... Isilduko naiz”.

“Eta zu zer moduz?” galdetu dio Josebak Begori, eztabaida mehatxua haizatu nahian.

“Ondo” erantzun du Begok, Josebari iruditu zaio berari zeharka begiratzuz, “lan pila batekin. Busy, busy. Bidaietan gora eta behera. Batetik bestera; gehi Gas-teizera joan beharra egunero; gehi egunkarietako liburu-
rueen kritikak”.

Josebari oka egin zaio. Ezagutzen duenetik aritzen da Bego lan asko egiten, batetik bestera lasterka, *busy* beti *very busy*, eta adinarekin etengabe ingelesezko hitzak sartu beharra aje bilakatzen ari zaio.

“Orain Etxepare Institutuak bultzatuta euskal idazleen antologia bat argitaratuko dugu AEBetan; *you'll see*”.

“Nevadan?” galdetu du Josebak, maltzurki, Muñoz Eugiren hitzak gogoan: “Renon argitaratzea Abaltzisketan argitaratzea bezala duk”.

“Ez, ez. San Frantziskoko argitaletxe batean, eta Euskal Zinemaren aste bat egingo dugu San Frantziskoko Unibertsitatean, eta bertsolariak ere eramango ditugu, dokumental batez lagunduta, kantatzera... Dena Kennethen bidez... Txatoren bidez kontaktatu genuen eta...”.

“Kenneth!”.

Josebak badaki Txatok eta Kennethen badutela noizbehinkako harremana, Txatok duela urte batzuk San Frantziskora egindako bidaia baten ondoren kontaktua berreskuratu zutela, baina ez zekien hainbestekoa zenik. Jeloskor nabaritu du bere burua eta urrundu egin da Txatorengandik, Begorengandik adina.

Zenbat gauza gertatzen aritu diren azken urte eta erdian, bera Axi zaintzen aritu den bitartean, adiskideek abandonatu dutenetik... doluan egon den bitartean. Txatorena traizio bat iruditu zaio!

“Bai, cool; galdetu zidan zuei buruz. Irakasle da San Frantziskoko unibertsitatean. Queer ikasketak. Ikertzeko azken modua”.

Josebari uxarazi egin dio Txatorekiko traizio sentazioa Begok adituaren tonuan “queer ikasketak” aipatu dituenean –mundua oihu bizi beharra– haren buru gainetik bota dion konplizitate begiradak. Oraindik gogoratzen du San Frantziskoko bidaiatik bueltan Begok Kenneth zertan ari zen galdetu zionean, Cultural Studies aipatzen hasia zen garai hartan, Begok muturra okertu eta “lesbiana beltz eta gizenak promozionatzen” bota zuela, Txatoren haserrerako. “Nik ez dakit ezer kulturaz, baina nahikoa daukagu heterosexualitateaz!”.

“Eta zer moduz dago Kenneth?”.

“Ongi, zuei buruz galdetu zidan. Eta asko tristatu zen Axiri gertaturikoa aipatu nionean”.

“Gertatu... zer gertatu zait niri?”.

Denek jiratu dute burua. Mateoren ondoan dago. Dilindan gelditu da hitza sukalde zuri eta aratzaren airean. Joseba egon da Axiri azken urte eta erdian mila aldiz erantzunikoa erantzutekotan, baina hondoan daukan minak atzenarazi du, pentsatuz haiek –haiek biek, Begok eta Txatok– erantzun beharko lioketela zer geratu zaion; ikus dezatela zer den Axirekin bizi-tzea, ohar daitezela zein den beren, bere, mina; sufri dezatela Axiren hitzak entzutean –“Niri?! Niri ez zait

ezer geratu!"-. Baina ez Txatok ez Begok ez dute ja ere esan.

"Bai, Axi", haiei ikasgai bat ematearren ez zaio inporta Axirekin krudela izatea, "bihotzekoak eman zizun, eta oroimenik gabe gelditu zara. Bueno, hamar minutukoa edo".

Izorra daitezela, ikus dezatela nolakoa den haren egunerokoa orain, haiek bizi ez duten egunerokoa.

Isiltasuna egin da. Harria lakoa. Josebak sukalde zuriari erreparatu dio. Aldizkarietan ateratzen diren horietakoa dirudi. Nonbait Begok dirutza irabazten du Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan.

"Lander noiz etorriko da?" galdetu du, isiltasuna hausteagatik.

"Hemen egon beharko luke. Seguru bilera ondoren norbaitekin zeratzen gelditu dela. Horrelakoa da. Ez dut ulertzen horren..." gehitu du Begok.

"Horren... zer... muskuloka?" galdetu du Axik.

Barre egin dute denek harengana itzulirik.

"Eta Miren ez da etorriko?" jarraitu du.

"Zer Miren? Akerreta?" galdetu dio.

"Bai".

Xamurtasuna egin zaio Axiren adiskide beharraren aurrean.

“Miren ez da hemengoa” bota dio, handik aparte beste mundu bat izan dutela, eta dutela aditzera eman nahian.

Axi durduzaturik gelditu da.

Txirrinak jo du, “filmetan bezala” pentsatu du Jo-sebak, egoera konprometigarrietatik salbatzeko.

Mateo, atezaina, abiatu da irekitzera, Begoren be-tebeharra hartuz.

“Kaixooo” entzun dute sukaldetik.

Lander...

Sartu denean Txatok Josebarekiko begirada kidez-koa bilatu nahi izan du, baina Josebak ihes egin dio.

“Barkatu... Lokarriren azken barne bilera izan da. Zer egin paperekin, ibilbidearekin, merezi duen denen artean liburu bat idaztea eta horrela...”.

So egin du.

“Nork jarriko dit ardo bat. Mateo?”.

“Sí, buana” bota du Mateok.

Barre egin dute. Axi besarkatzera jo du, zer moduz galdezka.

“Ongi. Zer ba?”.

Landerrek Josebaren begirada bilatu du Axiren gal-dera erronkariaren aurrean, baina Josebak ez dio eran-tzun ere egin.

“Gero kafera gonbidatuak datozkigu” esan du Begok.

Josebak pentsatu du hori dela Begok egiten duena, besteei protagonismoa kendu, eta horretan Axiren berdina dela... norbait nabarmentzen hasten denean haiek ezusteko bat, gauza harrigarriago bat bota behar dutela, eta aitatzen zionean, hauxe egiten zuen Asierrek, barre.

“Gonbidatuak?”.

“Marikak edo lesbianak, espero” bota du Txatok.

“Bai, queer...” egin dio Begok erronkari. “Iker Balzola da”.

“Eta nor da Iker Balzola?”.

“Cool...”.

Iker Balzola, Iker Balzola... *Bestela Izanik*. Duela urte pare bat kafea hartzetik bueltan Muñoz Eugik seinatu zion liburua erakusleihu batean eta bi ale erosi zituen, bata berarendako, bestea Axirendako. “Nobelista gaztea, apartekoa, eta probokatzailea” bota zuen Muñoz Eugik ironikoki. Gerora, behin liburua leiturik, “petardo probokatzailea” izan zen Muñoz Eugiren epaia. Berari, aldiz, gustatu egin zitzaion, batez ere periodo luzeen estiloa; aitzitik, adulterioaren istorioa, liburuko gai nagusia, idazle gazteak eman nahi zion

ukitu ia metafisikoa gorabehera, arruntegia iruditu baitzaion ere.

“Elkarrekin irakurri genuen, Axi! Akordatzeko zara?” galdetu dio, ia krudel gelditu den galderan, baina oraindik ere Axiren errekonstruzioaren esperantzaren salagarri.

“Zer titulu du ba?” galdetu du Axik, Joseba eta gaitzazkoen haridurarako.

“*Bestela Izanik*. Akordatzeko zara”, Josebak. Badakilerantzuna ezezkia izango dela.

“Bai” bota du Axik sendo.

Denak itzuli dira Axirengana, eta gero Josebarengana.

“Marikita, orduan..!” bota du Txatok Mateori gerretik helduta, “Bego, gau osoan zuz izango zara emakume bakarra, eta heterossexual bakarra”.

“Bueno, emakumea” aurreratu da Lander, “biologikoa; buruz, gu baino arago”.

Begori gustatu egin zaio esan diotena, boteretsu sentiarazten baitu, eta, neurri horretan erotikoa, orain, jada gizonak interesatzen ez zaizkiola –oso urrun gelditu da, azkenean, Cruz Mari ergel hori– artistak aurreratu eta bedetinkatzeko irrika horrek ia likits sentiarazten baitu.

“Queer da, bai; baina liburuko istorioa heterosexuala da, modu oso queerrean tratatua, hori bai”.

“Modu queerrean?”, Txatok.

Josebak Txatoren gorputza tenkatzen ikusi du eta Mateorengandik aldentzen.

“Zer esan nahi duzu?”.

Begori segurantzia alde egin dio, badaki Txatoren pelukero kultura gehiegizkoa ez bada ere, gai honetan tarte handia ateratzen diola, areago bizi duenagatik ezen ez ikasi duenagatik.

“Ez dakit, arazoak ditu haiekin, gizon-emakume harremanak berrezarri nahi ditu, gizonen baloreak gaitzesten ditu, eta bere desamoretik errealitatea irauliz beste errealitate bat aldarrikatzen du”.

“Baina marikoiak eta lesbianak agertzen dira?”.

“Ez”.

“Baina orduan ez da queer... gehienez ere feminista. Ederki dago Euskal Literatura, marikita baten lehendabiziko liburuko istorioa, zer eta heterosexuala!”.

“Nik uste dut queer dela... eta bera da... *fantastical*... Benga afaltzera”.

Jantokian sartu direnean dena prest dagoela ikusi du Josebak. Mahaia beterik dago: urdaiazpikoa -bada-kite ona izango dela, Begok *quality*-zko jakiekin nahi

izaten baititu beste gabezia batzuk konpentsatu-, es-
parragoak, pateak; klase ertaineko bazkari edo afarie-
tako ohiko menua, laurogeita hamarreko hamarkadan
modan paratu eta ohiko bilakatu dena, mutxoasmo
adierazi bai baina gero ohikeriak ohiko bilakatua.

Eseri egin dira. Begok ia keinu nabariez in batean
Axi bere ondora eserarazi eta Joseba uxatu du Lande-
rrez harantz; eta Josebak eskertu egin dio, badakiela-
ko, adiskidantza erakutsi behar horren aitzakian, bera
arintzearen egin duela, jai-edo izan dezan.

“Balzola-aren nobela- eta honetan Muñoz Eugi eta
biok konforme gaude- maitasunaren kontzeptu erro-
mantikoaren alde egiten da, bi maitasunen artean
amodio praktikoa aukeratzen du bigarren aukera gisa,
alegia, amodio ez erromantikoa, eraikitzean oinarritu-
rikoa, eta gaizki ateratzen zaio amodio erromantikoa
faltan duelako”.

“Muñoz Eugi, hori tipoa” bota du Begok, “bere no-
belak baino hobea da. Balzolak, gutxienez, periodo lu-
zeak egiten ditu, indeed”.

“Muñoz Eugi gustatu egiten zait niri. Baina Muñoz
Eugi osotara arbuia- tzen duzu zuk kulturaren arloan or-
dezkatzen duzun Lakuako Gobernuari, ez dago parti-
dua aipatu beharrik euskaraz egiten den kultura bost

axola zaiola plazaratu eta eztabaida publikoa izan duzuelako. Eta Muñoz Eugik arrazoi du egindako salaketetan. Erreparatu, bestela, ETB-1i, edo Etxepare Institutuak egin dituen hainbat promozio lan negargarriri, katalanek Laurie Anderson, Patti Smith eta Lou Reed kontratatu zituzten haien poesia munduan zabaltzeko, edo EAEKO agintariek Euskal Literaturaz, literatura hartu dut adibidetzat, irakurtzearen ahalegina eskatzen duelakoz, duten jakintza exkaxa. Eta Munoz Eugi da, nafarra izanik, zuri kontra egiten dizun bakarra. Izan duzuen ika-mika publikoan idazle jende, zinema-gile, bertsolari eta abarren esku garbitzea adibide”.

Sutzen ikusi du.

“Joseba, desdeluego, nola esan diezadakezu hori?”.

Muturtu egin da. Josebak Landerrengan bilatu du laguntza baina laguntzarik ez da etorri.

Bego ez da benetan ari. Joseba bere tokian jarri nahi du; aspaldi du azala horrelakoekin loditurik; ez dio minik egiten partzialtzat akusa dezaten, nahi dituen artista eta proiektuak aukeratzen dituelakoz, berak bere iritziak dauzka eta “ikuspegi nazionala” eman behar baldin badu, azal dezala beste norbaitek, esaten dio bere buruari jakinda esaten ari dena neurri

batean dagoen talaiaren segurtasunetik eragindakoa dela, Kultura Sustatzeko zuzendaria izatea ez da edozer gauza izatea, badaki, baina ez du azalpenik eman behar, “botere kuota kudeatzen jarri dute, eta botere kuota kudeatuko du bere gustuen arabera”.

Josebak badaki ez lukeela hortik jarraitu behar, suari egurra botatzea dela, haize ematea Begori, baina zirtolari sentitzen da, mugak gainditu eta beste aldean -galtzeko ezer ez du- dago eta “Ba orain poema homosexualak idazten hasi da” bota du espantuka, Begoren arreta lortu nahian, bere baitan bai baitaki Begori oraintxe dion erresumina gorabehera, errespetua diola.

Akordatzen da zenbat kostatu zitzaion Begori Axi-
rekiko harremana bukatutzat eman eta haiek bikote zirela onartzea. Eta gerora -Josebak sentituko zuenaz bestela- lotsagabezia, behin onartu eta ezer gertatu ez balitz bezala aurrera egite hura, gauzen gainetik, norberaren buruaren usteen gainetik, iragana ezabatu ezin bazen ere, bai bestelakoa izan zeneko seguran-
tziaren itxurak egitea; zentzu horretan Axiren igual-
iguala denez, ezinezkoa zen haien arteko bikote hura biak ere desioen atzetik herioak harturik abiatzen zire-
nez talka egingo zutelako; horixe esaten zion Josebak

Axiri, “Ez dakit nola zauden nirekin oraindik, nola ez duzun alde egin zure desioen atzetik”.

“Zertaz ari zarete?” galdetu du Txatok, Mateorekin batera entsalada eskuan dakarrela.

“Kulturaz” bota du Axik, “kulturaz ari gara”.

Joseba harriturik gelditu denez harridura bilatu du besteen begiradan baina besteek -Txatok, Begok eta Landerrek- ez diote batere garrantzirik eman Axik el-karrizketa segitzeari.

“Eta zer esan dugu, Axi?” galdetu dio Josebak.

“Muñoz Eugiz-eta aritu zarete”.

“Baina nor dator?” galdetu du Axik.

“Idazle gazte bat eta haren andregai bertsolaria” erantzun dio Begok, samurtasuna ahotsean.

“Baina, orduan, zer da marika ala queer?”.

Barre egin dute denek berak esandakoarekin. Eta Axik pentsatuko luke barre egin zutela ume baten ateraldiari barre egiten zaion moduan, kondeszendentziaz, oinarritzko gauzak topatu eta esaten dituztenei egiten zaien moduan.

“Begok erantzun dezala”.

Begok badaki adarra jotzen ari zaizkiola, badaki -aspertzen hasia da eta Axiri ezkutuan esana zion Txato eta Josebaren hainbat komentarioren atzean mi-

soginia ezkutatzen dela- kudeatzen duen botere kuotaren ordaina dela.

“Aizue, bat izan daiteke queer heterosexual izanda. Horretaz ez zarete enteratu, zu, zure ileapaindegitan galduta”, egon da “eta nobio ugaritan” gehitzeko, baina Mateoren presentziak atzenarazi du, “eta zu, itzulpen eta bikotekide bizitzan...”.

Ohartu da Lander adarjotzetik kanpo utzi duela eta “Zu Euskal Gatazka zorionekoa konpontzen duzun bitartean gizonekin larrutan jo eta fuego”.

“Ze zuek queertasun asko baina bakoitza bere bizitzan galduta” egin die erronka.

Joseba Txatoren jokaldiaren espera gelditu da, hark bere gogotik iragandakoa jaso, laburtu, atondu eta aurrean duenari aurpegiaratu diolakoan, baina Txato entsalada mahai gainean kokatzen ari da.

Isiltasunak txintxin egin du, eta dilindan gelditu. Aurre egin beharko lioke Begok ustekabe antzera mahai gainean pausatu duen akusazioari, alegia, urte-tan haien bizitza pribatuan aritu direla, munduaz eta beraz gehiegi kezkatu gabe; leporatu egin beharko lioke, “azkeneko urte erdian zerorrek egin duzun moduan”, eta gero “alegia” bat gehitu, edo “hain zuzen” bat, argi gera dadin; baina ez, eutsi egingo dio, aspal-

di ez dira elkartu, eta Axiik merezi du bere adiskideekin onesean egotea. Gau alaia pasatuko dute, eta ba-keak egin.

Txato bilatu du.

“Ikusi duzu, Txato?”.

Gero Axi ere sartzea erabaki du elkarrizketan, batez ere adiskideekin, ongi egingo diolakoan.

“Ikusi duzue, Txato eta Axi, zer esaten digun Begok, ez dakigula queertasuna zer den gure bizitzetan murgildurik egon garelako”.

Txato atezuan agertu zaio. Gaztetako Txato izan balitz jada erasoan litzateke, hozkaka, marikitismoaren erreginatxo, baina hark ere atzera egin du Begori ar alfaren tokia utziz.

“Honek gu baino marikago izan behar du oraindik”.

Hortxe dago Txato! Txato berreskuratua!

“Ez dut hori esan nahi!” bota du Begok.

“Eta zer esan nahi duzu?” arrapostu egin dio Txatok, gero “maitea” ironiko bat gehituz.

Axi Begorengana itzuli da esango duenaren atezuan, eta mahaian halako isiltasun bat egin da, gauza inportante bat gertatzera balihoa bezala. Bego ez da urduritu.

“Esan nahi dudana zera da: hainbatetan aipatu dituzuen EHGAMEko garai haiek, Bilbokoekin izan zenuten eztabaida hura, marikita, identitatea, bisexualak garelakoa, handik asko aldatu direla kontuak, orain queertasuna afera politikoa dela, edo behintzat politikoa-goa”.

“Ze konbersazio rolloa! Betiko kontuak” moztu du Axik.

Denek barre egin dute.

“Ez dakit hala den, baina argi daukat queertasuna dela guk marika deitzen genionari deitzeko oraingo modua. Beharbada orain marikitismoa, queertasuna zuk esaten duzun bezala, sartuago dago hainbat arlotan, literaturan, unibertsitatean, telebistan baina marikitismoa deitzen genuen hura queer deitzen zen frantsesez eta ingelesez. Gauza bera da” arrapostu egin dio Txatok.

“Ez dut uste”, Begok. “Queertasunak identitatea fauntzea, desegitea, mugak ahultzea dakar; eta zuek identitatea defendatzen zenuten”.

Txato durduzaturik agertu zaio, hutsean harrapatu balute bezala.

“Bai” lagundu dio Josebak, Begoren kontra egitea-gatik ausart, “identitatea zen orduan behar zen zer-

bait, bereziki hemen –ez dakit nola izan zen, New Yorken ala Parisen, queertasunaren kontzeptua sortu zen tokietan–, baina hemen oraindik denok bisexualak gina aldarrikatzen aritzen ziren Bilboko EHGAMEkoak, alegia, identitatearen kontra, eta neurri horretan eraso, errepresio eta bazterketari haize ematen. Queertasuna, behin identitatea eraikita, gay identitatea nahi baduzu, identitate hori desegiten hasten da, baina... nola esan... barnean, barnetik”.

“Kontua da” hartu du hitza Landerrek, “hainbeste queer eta muer, ez dugula lortu zerbait berria eraikitzea gure identitateez harantz. Ez dugu bizitzeko modu berri bakarra ere sortu, bikotea, bikotea, edo bakardadea”.

Josebari berehala bururatu zaio jolasa izan baina jokoa dena, “bikotea eta bakardadea”. Zalantza une baten ondoren, esan ala ez-esan, bota egin du: “Bikotea eta bakardadea”. Harria lez erori da mantel lore-dunaren gainean. Axiri zor dion errespetua gorabehera, bere gaur egungo egoera da, bakardadezko egunerokotasun geldoa. Beharrik lanean hasiko den laster, nahiago du, mila bider ere, Nafarroako Aldizkari Ofizia- la itzultzen aritzea ezen ez goizak Axirekin pasatzea.

“Nik oso argi daukat... beharbada ez naiz ni ego-kiena gauza hauek esateko EHGA hasi eta berehala utzi nuelakoz, baina ni gehien harritzen nauena” hasi da Lander, besteek jada suharregi ari dela pentsatzen dutela, “harritu ez, zapuzten nauena da ez dugula ezer sortu, suntsitu bai, Euskal Herriari dagokionez bezala, ezer ez. Ez dugu bikoteaz aparte elkarrekin bizi-tzeko modurik sortu, ez dakit, hirukoteak, komunak, kuadrillak, taldeak... ezer ez. Dena amodioaren ideia ergel horretara mugatu dugu, eta azkenean, bizitza, heterosexualena bezain murrizta bilakatu zaigu”. Bu-lartsu aritu da, gehienetan bezala.

“Nik aurkitu dut norekin bizi” bota du Txatok modu burlatian, Mateo sorbaldatik heltzen duela.

“Esan dudana ez hartu arinki, joder!” mindu da Lander. “Sortu... sortu ez, normalizatu dugun gauza bakarra bikote irekiaren kontua da. Egia da, eta zen-tzu horretan gu queertasunaren lehendabiziko olatu-koak izateagatik kontrako erasoari eutsi egin genion, baina ez dugu gaitasunik izan eutsi eta, aldi berean, gauza berriak sortzeko. Ikusiko ditugu queerrak? Eta ikusiko dugu” Begori zuzendu zaio tonu abegitsuago-an jada, “zer egiten duten queer heterosexual, queer feminista, queer gay horiek guztiek. Niretzat, dena

delat, gaurko gayen mundua txorrada eta sinplekeriaz beterik dago. Sexuaren esperimentazioaren bidez eraiki nahi ziren bizimodu berriak kontsumo gaiak baino ez dira. Beraz zuen Etika Marikaren puntuetako batek porrot egin du: ‘Marikak bide berriak jorratuko ditu bestelako bizimoduak sortzeko’”. “Kaka putza” bota du haserre, “orain ETA gayak hiltzen hasi behar zuenean...” arindu nahi izan du mahai inguruan haserreak hedatu duen behegalea.

“Gure alde” egin dio arrapostu Josebak, “zaila izan dugula esango dut, gaur eguneko gay eta lesbianek baino zailago. Ezta, Axi?, zure adiskide Miren Akerretaren kasuan bezala, ^{xxi}. mendeko gizon-emakumeak gara baina ^{xix}. mendeko arazoei egin behar diegu aurre, gure buruen eta gure egoeren artean desoreka itzela sortuz”.

“Zer gertatzen zaio Miren Akerretari?” galdetu du Landerrek.

“Ez nuke kontatu beharko baina... ba bere burua emakume oso modernotzat duela baina afera oso zaharrari egin behar izan diola aurre, alegia, aitaren arbuioari, lesbiana delako. Aita hil zutenean elkarrekin haserre zeuden, eta etxetik bota zuen. Ematen du daraman bizitza, Idoia bikotea, armairutik kanpo, umea

izatea oso urruti gelditzen dela aitaren arbuio horretatik, eta horrek halako eskizofrenia antzeko bat sortzen duela”.

“Ez nekien”, Landerrek.

“Inork ez daki; Axik izan ezik”.

“Ze euskalduna dena!” bota du Txatok, Mateori sorbaldatik heltzen diola.

Isiltasuna egin da. Gogoek Miren Akerretarengana alde egin dute errari. Gaixoa. Denek, Axik izan ezik, hartu dituzte kopak eskuan edateko aitzakiarekin hitzak galaraziz.

“Zer kontatzen du marikitiki horrek liburuan ba?” galdetu du Txatok, lehengora itzuliz, aurreko aldartea berreskuratu dutelakoan.

“Neska baten mundu ikuskera ageri da; neska nahiko punkia da, maitale batetik bestera pasatzen da, baina behin maitemindu egiten da eta mutilarekin hasi. Mutil hori, Asier deitzen da, zu bezala, Axi” gehitu du Begok “baina punkitasuna utzi eta mixin-mixina bilakatzen da mutil horrekin. Hark agintzen du harremanean, hark gidatzen ditu, hark hartzen ditu erabakiak neskarekin adostu gabe eta neskaren...”.

“Neskak izango du izena, ez?” galdetu du Landerrek.

“Bueno... hori da kontueta bat... *main character* neskaren izena ez da inoiz aditzera ematen baina iradoki da idazlea bera dela, are gehiago, hortik *queerness*-a, ze halako *transexuality* bat iradokitzen da... Proust”, Begori darion tonu profesionalaz ohartu denean Josebari oka antzeko bat egin zaio, “our transexual Proust!”.

Begok Prousten izena dilindan utzi du gainontzekoek zerbait erantsiko dutelakoan.

Proust, Proust, Proust... ongi egongo balitz barre egingo luke Axik, Prousten izena bera dilindan utzi ondoren atzetik ezer ez gehitzeak jakinaren gaineko eremura garraiarazten du Begoren baieztapena, zeina gezur hutsa baino ez baita.

Balzola berdin Proust, falta zitzaiguna.

“Bueno, segi” bultzatu du Landerrek.

“Kontua da, Asier delako mutil horrekin apurtu eta hor inguruan eduki duen mutil batekin hasten dela berehala. Ez du maite, edo hobe esanda, ez dago maite-minduta, baina elkarrekin bizitzen jartzen dira. Bizitza masomenoskoa egiten dute, bikotean bizi zaretenok egiten duzuen moduan, pixka bat libertitu, pixka bat larrua jo, pixka bat aspertu, bikoterik ez dugunoi nagusikeriaz begiratu... gauza horiek”.

Txatok aurea hartu dio: “Bikotedunok nagusikeriaz begiratzten dizuegu bikoterik ez duzuenoi?”.

“Hombre, Txato, zu askotan egon zara bikotekiderik gabe, eta hori badakizu” moztu dio lehor antzean Begok; eta Txatok zurruntasuna ulerturik onartu behar izan du horrela dela, edo ez bada ez dela orain hori eztabaidatzeko abagunea.

“So Madame Bovary moderno eta nihilista baten moduan mutil lagunaren ezkutuan hainbatekin larrua jo ondoren aurrekoarekin, Asierrekin itzuliko da, berriz ere pasio suhar eta salbaia”. Hemen Begok pausa teatral bat egin du, eta mahaiaren ingurura so egin du. “Eta harremana berrasten dute, oraingoan beste baldintza batzuk ezarri”.

“Zein baldintza?” bota dute denek batera, *beste baldintza* hitzek zerbait oso berea ukitu izan balute bezala.

“Bueno, hasteko erabakitzen dute beste batzuk direlako itxurak egingo dituztela; gutxi mintzatuko direla afera pertsonalez, eta mintzatzen direnean *beste horiek* horien kontuak izango dira, bizitza asmatuak”.

“Bai, baina jolas hori dena pixka bat beharturik ageri da liburuan, ez zaizu iruditzen?”.

Begok ez dio kasurik egin Josebaren galderari.

“Eta horrela bestelakoak izaten ikasten dute, ba-koitza bere bikotekidearekin bizi den bitartean. Egune-tik egunera, ordea, gauza handitzen joaten zaie, gero eta gehiagotan bilatzen dute elkar, eta etxean gezu-rrak handitu, ugaritu, bihurritu ahala, soiltzen, isiltzen, hitz gabetzen doa haien artekoa, errazagoa bihurtzen, elkar ulertzea sakontzen, baina beti ere beste batzuk direlakoan. *It is great*”.

Bego isildu egin da, badakielako orain isildu egin behar duela, etenaldi teatral batek asko laguntzen duelako arretari eusten.

“Baina, orduan, non dago Muñoz Eugik aipaturiko amodio domestikoari uko egin eta erromantikoa auke-ratzen duelako kontu hori?”.

“Esango genuke egunerokotasunetik aldentzen duen bide malkartsu moduan, batzuetan eite tragiko-arekin, beti ere heroiko; horren aurrean egunerokota-suna, zehatz eta mehatz deskribaturik, laru ageri dela, hits, hutsal; zentzu horretan Asier eta narratzailearen arteko harremanean despertsonalizatze prozesua au-rrekoan bizi izan duten harremanaren errepikapena ere bada, izateak eta ez-izateak ardurarik ez balu be-zala, eta zentzu horretan maitasun -sufrimenduzkoa,

elkar ez ulertzekoa– handiaren aldarria egiten du gure lkerrek”.

Josebari nazka egin zaio, badirudi hitzaldi bat ematen ari dela. Gero eta puztuago dago Bego Agirre-gomezkorta, Kultura Sustatzeko zuzendari, egunkarie-tako Euskal Literaturaren kritikari eta Andere Txit Azkarra.

“Baina bueno, zer pasatzen da?” galdetu du Landerrek.

“Neska protagonistaren mutil lagunak harrapatu egiten ditu, email baten bidez. Hasieran ez daki Asier dela maitalea, baina gero jakiten duenean izugarrizko istilu baten ondoren, hori ere oso ongi kontatuta dago, utzi egingo du *main character*a. Geroxeago jakingo dugu –eta hau aldiz oso gaizki kontaturik dago, ze ematen baitu txisteratik ateratako kontu bat narratiboki justifikatu gabea– Asier ere utzi egin duela andre-gaiak. Bukaera aldera narratzailea eta Asier elkartu egiten dira, Guggenheim museoaren parean, aurrez aurre erreparatzen diote jada ezin dutela *beste izan*, bikotekide ofizialik gabe gelditzeak ezinezko bilakatzen duela despertsonalizatzea, eta ohartzen dira haien arteko amodio handi hura ezinezkoa dela”.

Begok Josebari so egin dio baiezkola, ez behar duelako, oso sendo eta irmo esan baititu esan beharrekoak, baizik eta elkar ulertzeko moduan edo.

“Halaxe da; ez da Euskal Literaturako libururik hoberena, baina segur aski haustaileena bai”.

Josebak Muñoz Eugi irudikatu du irribarre maltzura ezpainetan, “Zenbat bider entzun ditiagu horrelakoak... bost urtero edo liburu haustaile bat argitaratzen duk, eta denak hire adiskide horrek aurkitzen ditik. Colon Agirregomezkorta deitu beharko geniokek. Hobe eginen likek kritikari aritu beharrean Euskal Kulturaren ajeak konpontzen arituko balitz. Ez zekiat, gainera, kargu hori izanda zer egiten duen kritikak idazten”.

Eta Begok batere lotsarik gabe bota du jarraian: “Neronek deskubritu nuen... *indeed*”.

Josebak erabaki du gogoetetatik, sentimendua esaten zaion gorputzaren mapa horretatik alde egingo duela, ez dela petxu aldean sortu zaion estutasun eta higuinaren arteko adakera horri jarraiki geldituko, Guillerrok irakatsi zion bezala “Sentimenduak sentimenduak baino ez baitira, iragankorrak dira, eta haien menpe zaudenean ere horiek baino gehiago zara,

areago, eta ez prexiso soberakin bat; mandazaina kontzientzia da”.

“Queer batek ez luke horrela jokatu” egin dio arrapostu, “queer batek ez -ezta Txato?-. Etika Mari-karen aginduetara dagoenez, jakinaren gainean izango luke bikotekidea, eta zerbait egitera, kontratuaren barnean dagoena egingo luke”.

“Etika Marika? Laurogeita hamarreko hamarkadatik aipatzen duzue etika hori, baina esanen nuke ez dagoela, desideratum bat baino ez dela, Euskal Gatazka konpon dezagun bezalako desideratum bat, baina praktikan ez dut ikusten hori nik. Orain gazte queerrek praktikara eramaten dituzte desideratumak” argudiatu du Begok.

“Legatzaren bila noa! Hau lehen ere entzuna dugu” altxatu da Txato, azkeneko komentarioarekin haserre antzean.

Txatok legatzaren padera zakar utzi duenez, jauzi egin dute olio tanta batzuek gainera, eta han gelditu dira ehuna berazten, mahaiaren egurretan barnerritzen.

Baina Txato horrelakoa da, beharbada hura da adanismoak jota dagoena, ez baitu onartzen haien ondorengoek ere zerbait egin dutela, iruditzen baitzaio

hark egindakoa benetakoa dela, eta gazteena, behar-bada ezezkeria bat.

Ohartu da zaharren modura ari direla hizketan. Eta neurri horretan poztu egin da Iker Balzola -andregai bertsolariarekin ulertzea iruditu zaio- etorriko delako gero; haien baitatik ateraraziko ditu, urteetan zehar hainbat afaritan -ez asko, azken urtean egin dio potin minak- sortutako dinamikatik, zeina askotan eztabaida bikarioetan bukatzen baita, elkarri aurpegiratzen ausartzen ez direna, eztabaida gaia, arma gisa erabiliz.

“Nik faltan bota dut, egia esateko” ausartu da Joseba, “bikoteen arteko leialtasunari buruzko gogoeta; alegia, nola deitzen da, a bai Asier, zu bezala” zuzendu zaio Axiri, “Asier eta haren bikotekidearen artekoari buruzko gogoeta, eta narratzailearen eta haren artekoa. Fideltasuna leialtasun moduan ulertzeko ahaleginari buruzko ikuskera bat, zaintza, zerbitzua, laguntasuna... azken finean etxean dutena izateak ahalbidetzen die gero elkartzen direnean beste bat, askotan inor ez, izatea, neurri batean bizitza eta bizimodu domestiko hori gabe ezin izango luketelako jolas horretan aritu, deseginik bukatuko luketelako”.

Joseba ohartu da Bego harritzen ari dela.

“Ez zaizu iruditzen?” galdetu dio erretorikoki.

“Eta hori da liburuaren hondoan egon, esan gabe izan, baina liburuak ahalbidetzen duena. Hori gabe, liburuak ez litzateke posible, pasio-amodioaren alde egiteak liburuaren estiloa –gogoetak bezain sigi-saga-koa– eta erradikaltasun irrika neurri batean itxurakeria eta haurkeria bihurtzen dituela”.

Begok bizkarra aurreratu eta besoak bermatu ditu mahai gainean, hari bururatu gabeko zerbait bururatu zaiolako. Muñoz Eugiri, eta Muñoz Eugik jarraituko luke, Joseba lotsatu egin da gogoetaz, besteen ideia –*Bestela Izanik* liburuaren bestelako interpretazio bat– jaso, berea egin eta berari bururaturikoa bezala saltzeagatik.

Begok pentsatu du, Josebaren interpretazioak berearekin talka egin eta deuseztatu egingen lukeela; *Bestela Izanik*, horrela, ez litzateke bizimodu queerraren irakurketa eta interpretazio bat, areago, ez eta nonbait idatzi duen moduan, amodioaren bidez beste identitate bat sortzeko ahalegin indartsua. Baina orain Josebaren ahotik entzun duen interpretazio horren arabera, porrota, Asier eta narratzaileak bikotea osatu eta aurrera ezin eginga beharbada pasio-amodioa aurreratu izanaren ondorioa dela argi gelditzen da. Erra-

biak hartu du interpretazioa berari beharrean Josebark bururatu zaiolako.

“Bueno, gogoeta ez da nirea” jarraitu du Josebak, “Muñoz Eugirena baizik!”.

“Muñoz Eugi!?” harritu da Bego. “*He is not even slightly queer!*”.

“Eta zer!?” arrapostu egin dio Josebak. “Gainera gu lantzen hasi ginen Etika Marika haren arabera –se-guru aski etika queer baten parekoen izan zitekeen etika–, ez da zuzena, esan dezadan horrela, zure bikotekidea engainatzea, engainatze hitzak, desleiala izatea esan nahi duelarik. Horregatik ere ez da liburua queerra”. Eta gehitu du: “Uste dut”, baieztapenaren hondoko mendeku irrika ezkutatzuz.

Begok *Bestela Izanik* nobelaren azterketa egin zuenean gogoeta egin zuen horretaz, baina bazterreko arazo bat iruditu zitzaion, garrantzitsua baina bazterrekoa, adulterioaren baitan askapen apeta argi dagoelako, eta argudioa luzatuz utopia nahia, beste bizitza errealago baten aukera. Pentsa, bestela, hemeretzigarren mendeko pertsonaia horietan guztietan: Emma Bovary, Ana Karenina, *Dama txakurtxodunaren* protagonistak, La Regenta. Emakumeen askapena hasi zen garaia, ezkontza maitasunaren bidez izan be-

harko lukeela aldarrikatzen hasi zen garaia; maitasun... pasio-amodioa. Ez zen ba liburuaren interpretazioan okertuko eta *Berrian* erridikulua egin?

Errabiak hartu du.

“Zergatik da adulterioa ez-queerra? Esanen nuke zuek marikitok inor baino promiskuoagoak zaretela, berdin bikotean izan ala ez. Zuek larrutan egitea baino ez daukazue buruan, eta berdin zaizue zuen bikoteki-dearekiko leialtasuna. Zenbat aldiz entzun dizuet: ‘Bikotekidea dauka baina hor ibiltzen da larrutan besteak ezer ez dakiela’; eta gainera bestela ere horrela ibiliko dela jakinetarako ematen duzue. *We know each other*”.

“Bai, diozuna egia da, baina horrek ez du kentzen Etika Marika bat aldarrikatzea, eta etika horretatik irakurtzea liburua. Nik ez dut irakurri, baina Josebak dioena zentzuzkoa iruditzen zait” laburtu du Txatok.

“Bai; zentzuzkoa? Zentzuzkoa eguneroko bizimodua da. Ez balizko gauzak; utopia, hemen eta orain. Hori ere oso queerra da, eta zuen Etika Marika hori... zer esanen dizut... auskalokoa da; ezinezkoa eta hemen ez egoteko modu bat. Entelekia. Gutxi batzuen desideratuma”. Axi seinalatu du orduan, “Axi bera ere

ez zenuten konbentzitu. Konbentzitu izan bazenute ez zuen amorantea izango...”.

Esan ahala ohartu da argudiatzeko erabilitakoak urrutiegi eraman duela. Axi ondoan du, esan duena ezin konpreniturik; Joseba, begirada bere baitaratua, oraindik harri eta zur, entzundakoa ezin irentsirik; Txato eta Mateo, besarkaturik orain. Eta Lander. Hark ere bazekiela uste du, ez daki Axik esana berari beza-la ala kanpotik jakinda.

“Bueno, ez nuen hori esan nahi, *Bestela Izanik* nobelan...”.

“Nik ez nuen amoranterik” egin dio arrapostu Axik, “nola izango nuen amorantea?”.

Isilunea egin da. Orduan etorri zaizkio Josebari, arrapaladan, istripu aurretik Axi astegunez sortu zitzaion egun hura; larrualdien bakantzea; hainbat ohi-turaren aldaketa: Ternua galtzak, gipuzkerazko hitz haiek erabiltzen hastea.

“Axi” zorrotz begiratu dio Josebak haserreak harturik, estomagoan janaria nahasita, “Axi, amorante bat zenuen nire ezkutuan?”.

Axik harridura erakutsi du, ohiko harridura, begiak galdurik, inguruan zertaz ari den ez dakien harridura galdu hori. Ezin du sinetsi; ez da egia.

“Nik amorantea? Ez”.

“Axi, bihotzekoak eman zizun!”.

“Niri bihotzekoak? Ez”.

Begorengana jo du, begiak sutan.

Berehala ohartu da Begok ihes egin nahi diola. Bat-batean, azken hilabeteetan landu eta hartutako erabakia sendotu egin zaio. Mendekua. Amorantea zuen.

Begok ihes egin nahi dio eta ez dio utziko. Ez eta batere.

“Axik amorantea zuen ezkutuan?”.

Begok badaki ez duela ihes egiterik, egia aitortu beharko dio, dakien egia apurra bestalde... Axik ez zion ia ezer kontatu, urtebetetik gora zeramatela eta Joseba... Ez da ausartu harantzago joaten, baiezkoa egitera baino ez da ausartu.

Joseba mahaitik altxatu da. Goitik so egin die. Hor-txe daude, inurriak ematen dute; mahai gaineko apur eta hondarren artean, haiek, bere adiskide izandakoak, gezur esan diotenak.

“Txato, zuk bazenekien?”.

Txatok ezezkoa egin dio. Altxatu eta besarkatzera jo du, baina Joseba aldendu egin da eta Axirengana hurbildu.

“Axi, amorante bat zenuen?”.

Axik harriturik so egin dio. Josebak esanen luke irribarre maltzur bat dariola, Axik benetan badakiela haren barrunbeak bor-bor dabiltzala orain, eta adarra jo nahi diola, baiezkoa ala ezezkoa –berebizikoak irudititu zaizkio orain– ahalik eta gehien atzenduz.

“Axi” garrasi egin dio, “amorante bat zenuen?!”.

Axik harrituraz so egin die. Zer gertatzen zaie? Zergatik daude horren... serio... zergatik? Sirena hotsak entzun ditu, eta gero irudititu zaio badoazela. Non daude? Zergatik begiratzen dio Josebak, eta Begok, eta Landerrek, eta Txatok horrela. Txatoren ondoan dagoen mutila ez du ezagutzen.

“Nik ez nuen amorante bat”.

Isildu egin da.

“Amorante asko izan ditut”.

Eta barrez lehertu da. Ez daki zergatik.

“Txato, zuk bazenekien... eta ez zenidan esan”.

“Et, et, et... nik ez nekien. Badakizu Axik niri ez zidala gauza askorik kontatzen”.

“Eta zuk seguru bazenekiela, Lander”.

Lander isildu egin da. Josebari irudititu zaio urteak joan urteak etorri adiskideek norberarenak izaten jarraitzen dutela, leialtasuna jatorrizkoa dela, bizitzaren

amarru, gorabehera, traizio eta saminetatik harantz balego bezala.

Landerrek baiezkoa egin eta burua makurtu du, damuturik.

“Joder, gatazka konpontzailearekin!”.

Badaki injustua izaten ari dela, baina zer ostia... urtebetea ia utzita izan dute, ez dira haren adiskide mina zaintzera etorri eta orain hau.

Landerrek ez du ezer esan. Apur batzuk hartu ditu mahai gainetik eta pilotaxkak egiten hasi da Asierrek amorantearen afera kontatu zionekoa gogotik uxatu nahian. Baina gogor egiten dio hondoan narraska. “Amorantea dut” bota zion deblauki, Axik zuen bat-batekotasun zoragarri hartaz baliatuz; ez zion garrantzi handirik eman.

“Eta...” so gelditu zitzaion.

“Amorante bat dudala”.

Iruditu zitzaion bere jarrerak Asier itxiarazi zuela.

“Esan, esan...” egin zion arrapostu, konplizitate tonuz.

Baina Axi barnera alde egina zen; ez mindua, Joseba izango litzatekeen moduan, baina bai zerratua. Eta ondo zekien handik ez zuela ezerk aterako.

“Espero dut ezer serioa ez izatea”.

“Ez da ezer serioa, ez” erantzun zion Axik, afera utzi nahi zuelako tonuan. Gero menua eskatu ondoren beste gai batzuei ekin zieten.

“Baina uste dut ez zuela garrantzirik” ausartu da Lander.

“Leher hadi! Ez omen zuen garrantzirik”.

Lander egon da Axik kontatu zionekoa xehatzeko, baina atzera egin du Josebaren “gatazka nahi” larregikoaz oharturik.

“Axi, amorantea zenuen. Eta zuk, Bego, zuk zer zenekien?”.

Begok Asierren deia gogoratu du, gausaldera etxean egongo zen galdezka; Uribarritik Marzana kaleko tartean busti egin zela esanez sartu zela, elkarri eman zizkioten bi musuak; Begok afari lege paratu zituen gazta eta urdaiazpiko platerak; sukaldaritza ez da zure kontua, “definitiboki”; eta hitzetik hortzera bota zion: “Amorante bat dut”.

Ez zuen gehiegi harritu; inoiz ez zuen ulertu -literaturan ondo geldi zitekeen- harreman irekiaren kontu hura; irekia?; gainera elkarrekin ikusi zituen azkenekotan iruditu zitzaion txinparta falta zela.

“Seriotan da?”.

“Uste dut baietz” erantzun zion Axik.

“Zenbat denbora daramazue?”.

Eta gero handik gutxira korrika zihoanean bihotze-ko hura.

“Nik uste dut” ahotsa leuntzen saiatu da, nahiz eta badakien ezer ez duela egin, salbu eta bikotekideen arteko gaizki ulertu baten erdian egon “ez zela ezer serioa, afera ergel bat baino ez”.

Badaki gezurretan ari dela, Asierren hitz erdi eta monosilaboen hondoan harremanaren garrantzia susmatu baitzuen.

“Zenbat denbora zeraman berarekin? Nola du izena? Hemengoa da, Bilbokoa?”.

Poztu egin du Bego lehen izorratu zuenak, alegia, ez-jakiteak, orain babestu egiten duelako

“Ez dakit” erantzun dio, Axiri eskua hartzen dion bitartean.

“Ez dakit, benetan”.

Josebak ez dio sinesten.

“Benetan, amorante bat zeukala baino ez zidan esan”.

“Bai” garrasi egin dio, Axi seinalatzen duen bitartean begiak sutan, “eta hemengo hau ezer gehiago kontatu gabe gelditu!”.

“Zer pasatzen da?” galdetu du Axik. Ez du ezer ulertzen.

“Amorante bat zenuen?” jarraitu du.

“Nik amorante bat?! Ezzz”.

Joseba erotzekotan da. Bat-batean hutsala egin zaio Axi zaintzen daraman urte eta erdia. Hutsala haien istorio osoa. Balazta egin dio buruaren abiadurari.

“Bai, amorante bat zenuen!”.

Axi durduzaturik gelditu da Josebaren erantzunaren bortitzarekin.

Zer gertatzen zaio? Zergatik daude denak horren serio? Ona dago goxoki hau. Tarta zati bat ahoratu du. Batzuetan bere baitara so egiten du eta hutsik dago dena, hutsik, hutsik. Sirenak entzun ditu eta begiak jaso ditu. Zertan daude denak zutik?

Joseba Landerrengana itzuli da.

“Eta zuk zer dakizu?”.

“Bueno, Joseba, nahikoa da!” moztu du Txatok.

Joseba ez dago amore emateko prest. Amorante bat izan badu, jakin beharra du. Areago, jakin beharra zuen, Axik berak esanda. Horretan ari baitziren, zintzotasunean eta egiatan, eta ez XIX. mendeko nobela batean. Haiek bikotekide ekinak ziren, arazoak kon-

pontzen saiatzen zirenak, Etika Marikaren gerizpean bizi zirenak... eta ez... adulterio istorio ergel batean.

“Zer dakizu?”.

“Begok baino gutxiago” esateko egon da, baina “Begok adina” esan du.

“Ezer ez, alegia” aurpegiratu dio Josebak lehor. “Ederki gaude. Denok zenekiten istorio bat bizitzen ari zela nire ezkutuan, eta zuek... ezer ez. Gutxienez aholkatu zenioten niri kontatzeko?”.

Begok pentsatu du Axi ez zela aholkatzeko moduko, *aholkagarria* bururatu zaio, *aholkatzen erraza*. Hori, Axi ez zen aholkatzen erraza, gehiegi zekien bizitzari buruz besteren aholkuak jasotzeko.

“Esango zenioten behintzat niri esan beharra zeukala?!”.

Hemeretzigarren mendeko nobela bat ematen du; ezkutuan amorantea, noiz eta, beharbada ez hitzetan baina bai bikote baten elkar ulertze adierazi gabe, are bikotearen beraren oinarrietan zizelkaturik ageri den itunean, “bestelako bikotea” osatzen zuteneneko ustekizuna haien arteko loturarik sendoena baitzen.

“Joseba, badakizu nolakoa zen...”.

“Eta zer uste duzu egingo zuela?”.

Ez daki, ez du erantzun nahi, ez zaio axola. Horrelakoak dira “bikote irekia” asmatzen duten hauek, nolabait haien arteko itunaren partaide egiten zaituzte, eta ituna zartatu, hautsi edo desegiten denean inguruko guztiak dira ia bikotekide, eta, ituna haustea “afera morala” denez, parte hartzera beharturik zaude; antzezlan batean protagonista biek -edo haie-tako batek- bat-batean papera aldatu edo inprobisatzen hasita gainontzeko bigarren mailako aktoreak beren paperean galdurik inprobisatzera beharturik dauden bezala nabari du bere burua. Eta Axik, bere lagunak, uste du, haien arteko ituna -hari batere gustatzen ez zitzaiona- aldatu zuen bat-batean.

“Ez dakit, Joseba”.

“Badakit ez dakizula! Esan didazu. Zuk zer uste duzu egin behar zuela?!”.

Josebak Axiri begiratzen dio. Iruditu zaio dena ulerturik ez-ulertuarena egiten ari dela; aurpegiari erreparatu dio. Ez zen ausartuko bera uztera, hori badaki, ziur, benetan... Ala bai? Ezin du horrenbeste eza-gutzen duen sudur handiko aurpegi hori interpretatu, ezin du irakurri, benetako Axi falta delakoz, Axik Axi izateari utzi ziolako bihotzekoaren ondoren. Arraroa

da, lehendabiziko aldia da urte batean Axiren erabaki batek hainbeste garrantzia duena.

“Nik benetan uste dut ez zela istorio oso serioa” ebatzi du Landerrek, susmatu zuenaren arabera gezurra esaten ari dela jakinda, baina, zer arraio, zertarako balio du egiak une honetan, Joseba aztoratzeko. Egia? Euskal Gatazkaren kasuan bezala, gezurra esan gabe, egiak gauzak hobetzeko balioko lukeen gertakarien inguruko kontaketa baino ez luke izan beharko, Axirena lako amnesiatik ihes egiteko modua: mina, arakatu baina hausnarrean egon gabe, gogoratu, konpondu, eta aurrera egin. Zer on ekarriko lioke Josebari orain Axik zuen istorio hori seriotan zen ala ez jakiteak? Axik hura uztea pentsatu ote zuen? Edo beste toki batera eramanda, bakegintzan ari direlarik, zer axola orain “helburu politikoak”? Orain garrantzitsue-na da bakegintza bermatuko duen egiaren zati hori bakarrik kontatzea -biktimak, sufrimendua- eta gero beharbada helburu politikoen eztabaidara ailegatuko gara. Dena dela, aldrebes gertatu balitz, zainduko al luke Axik Joseba?

“Ez zuen zu uzteko asmorik” gehitu du Begok.

Josebari berehala iruditu zaio esaldiaren borobiltasunak kontrakoa adierazten duela, borobiltasun hutsagatik beragatik.

“Benetan” gehitu du gero Begok, Landerren adostasuna bilatuz.

Gero eta argiago egiten ari zaio uzteko asmoa zuela.

Berriz ere Axiri begiratu dio mahaiko hondarren gainetik. Zer egitea pentsatzen ote zuen? Ez du uste utziko zuenik. Ala bai? Haren keinu eta usteak ezin irakurriak ernegatu egin du; lehen bai, ia bera balitz bezala ezagutzen zuen 19 urteren ondoren; haren keinuei asmo bat paratzen zien, imintzioei helburu bat, bisaiaitiko itzalei nahigabetze bat, begien distirari poz ageriko edo estali bat, irribarreari ironia bat. Baina orain 20 urteren ondoren aurrean duen aurpegi hori mutu bilakatu zaio, ezin du haren aurpegieraz barne aldarterik ondorioztatu, are gutxiago aldarte hori iragandako aldarte bada, Axik berak ezin duelako gogoratu, nahiz eta istripu aurretiko gehienak gogoratu.

“Uztera zihoan?”. Galdera bera arraroa da. Uztera zihoan? Gauzak hartu eta uztea aukera bat balitz bezala, eta ez ezintasun bat... Eta gero berehala etorri zaio gogora ez dela egia, Axi eta bere artekoa neurri

batean bukaturik dagoela, eta hemendik aurrera bukatuago, hartu duen erabakia hartu duelako. Axiren-dako bera ez da hamar minutu baino irauten ez duen halako ilusio antzeko bat... nahiz eta gero Clive Wea- ringen kasuaz akordaturik –segundo bateko oroime- nak ez zion galarazi andrea ezagutu eta maitatzea- Axik bera ainguratzat duela sinetsi; ez zuen utziko oraindik ere hamar minutuko oroimenarekin, bera baitu helburu, horregatik izan behar du adoretzu eta hedatzen zaion oinazearen gainetik egin beharrekoa egin. Axik hala nahiko luke, eta gupida gidari, aukera bakarra da.

“Ez zintuen utzi nahi” laburtu du Begok.

“Nahi?”.

Begori berriz ere hanka sartu duelakoa egin zaio.

“Bueno, esateko modu bat da”.

Josebak Axiri so egin dio. Durduzaturik dirudi. Ba- tzuetan nabaritu egiten dio noiz erreseteatu duen, noiz topatu duen bere burua ulertzen ez duen egoera batean, eta noiz eman dituen une batzuk gertatzen ari dena kokatzen, jendea ezagutzen, baina, badaki, haren garunak abiadura ere galdu du oroimenarekin batera, gordetako antzinako informaziora ailegatzeko abilidadea.

Badaki, ez zuen utziko, eta horregatik egin behar du egin beharrekoa.

Begirada ekortu du gelan zehar. Axi, xor; Bego, errudun, hura dena sortu duelako; Lander, ongi ezagutzen badu, deseroso, eta Axi eta beraren artekoa epaituz; Txato eta Mateo elkar hartuta. Eta mahaiko hondarrak, plater gehienak legatza erdizka janda elkarriketan jakinarazirikoak jatea galarazita. Halako pena antzeko bat egin zaio, eta ez luke jakinen nola, gogotan haserrea pilatzen joan zaio.

“Axi, goazen!... hemendik!” oihu egin du, mende-ku moduan edo.

Axik beldurtuta ematen du. Sirena hotsak entzuten dira nonahi, eta gero, argiak, Ibaizabala eta pabiloi batzuk argitzen. Nora doaz? Ez du joan nahi. Josebarekin haserre dago.

“Nora zoazte?” galdetu du Begok.

Ez diet gure konpainiaren plazera emango!, pentsatu du Josebak.

Amorantea izan eta uzteko aholkatzeko ez ziren gauza izan. Orain badaki. Neutralitatea. Hori, neutralitatea, nahiz eta gauzak gaizki eginak izan, gauzetan ez sartzea, gauzak gaizki eginak daudela ez adieraztea –salatzea pentsatu du gero–, besteren bizitza de-

lako aitzakiaekin. Errabiak hartu. Larkara begiratu ditu. Bere adiskideak, Axiri aurre ez egite hutsagatik bera saltzeko gai izan diren adiskide horiek. Bego eta Lander. Lander eta Bego. Beharrik Txato daukan oraindik. Txato. Eskertzen dio ezkaratzera kuntzak ez ikuster a etorri izana.

Azkenean jantzi dio zamarra Axiri. Ongi ematen dio berarendako erosi baina Axirendako erabakitako parka berde horrek. Ez zaio ezer gelditzen. Mina bakarrik. Eta Axi. Ez da posible amorante bat izatea. Nola ez zion ezer esan?

Estropezuka jaitsi dituzte eskailerak, Axi aurretik ia bultzaka eraman duela, atea itxi aurretik zeharka begiratu eta bi putakume horien bisaia harri lakoei so egin ondoren. Halako plazer eri bat nabaritu du, hildura eta sadismoa nahasten dituen plazer bat.

Ez daki zergatik baina Axik amorantea zuela azaleratu denetik halako bihozkada izan du, orain, eskailerak beheara doazela argi baino argiago ageri zaiona, Miren Akerretaren etxera joango da, seguru aski, hark badaki zerbait. Atarira ailegatu direnean Bilboko gau umelegiak hartu ditu. Indautxuraino joan behar dute. Lehendik argi bazuen orain argiago du. Mendekuagatik egingo du.

“Axi, amorantea zenuen?”.

“Niiik?”.

“Bihotzekoak eman zizun” bota dio, hainbatean botatako esaldia herraz botaz.

Jabe dadila bihotzekoak eman ziola. Bihotzekoak. Eta horregatik erabakitakoa egin beharra du elkar eza-gutu zuten tokian, Artxandan.

Gin-tonikaren alaitasunarekin egin zuten Oiar-tzundik Erreteriarako bide laburra. Mirenek amoran-tearen kontuari buruz ezer gehiago ez esatea erabaki zuen, eta Axik ez zuen ezer erabaki, aurrera egitea baino, aurea non zegoen ez bazekien ere.

Niessen en ondoan bertan aparkatu, eta sartu zire-nean kamerak bertan zeuden, nahiz eta aretoa erabat hutsik egon. Mirenen telebistako albistegirako berria emateko iradokizuna, agindu entenditu zuen Axik, ongi entenditurik. Urteak zeramatzan kameran au-rrean agertu gabe, Euskadi Irratiko berrien erredakto-re lanean, eta gustatzen ez bazitzaion ere bere burua-ri aitortu behar izan zion oraingoan ez zitzaiola inpor-ta izan. Halako poz bat nabaritzen zuen bere baitan.

Seiak aldera hasi ziren agintariak agertzen; lehen-dabizi, Julen Mendoza alkatea ailegatu zen, gero Jose Angel Rodriguez (PSE-EE), Maite Peña (EAJ), Jose Maria Herzog (PP) eta Jose Manuel Ferradas (Ezker Anitza). Banan-banan identifikatu zituen Axik, ongi ikasia bai-tzekarren ERAIKIZI buruzko guztia.

Denak aurkeztu zizkien Julen Mendozak: Miren Akerreta, “Euskal Telebistako burua” esan zuen gazte-leraz, eta *Dolutan* filmaren zuzendaria, eta gero Axi, “kazetaria” eta filmaren gidoigilea. Mirenek, usadioaz bestela, eskua eskaini zien andreei zein gizonei.

Gero egonen zirela eta Mirenek, Julen Mendozak eta Axik kamera teknikariak zeudeneraino alde egin zuten. Sarreratxoa grabatu behar zuten zuzeneko falsu bat egiteko, eta gero, elkarrizketatxo bat egingo zioten alkateari telebista eta irratirako.

Mirenek, beharbada izan zuten haserrea leuntzeko-edo berezkoa egin ez zitzaion keinu batez, ilajea orraztu zion amakiro kamera aurrean paratu aurretik. Butaka marroi ilun lerro hutsek -jakin gabe zergatik Kennethen etxetik ageri zen pareko loredun eraikina-ren leiho lerroa ekarri zioten gogora bere burua harritu ere egin zuen elkarketaz- eta argi ilunxkek abegia iradokitzen zuten, eta bera argituko zuten foku erregarrak izeki ondoren, magia galdu bazen ere, erabaki zuen hortik joko zuela. Minutu erdi batez eseri, lau hitz zirriboratu, eta prest zegoelako keinua egin zion kamerari. Fokupean kokatu eta mikrofonoa hurbildu zuen.

Kamera teknikariak erpurua jaso zion. Urduri zegoela ohartu zen. Telebistan agertzera zihoalako edo, beharbada, irudia sedukzio tresna gisa erabiltzera zihoalako.

“Erreenterian gaude. Gaur ERAIKIZ ekimenaren hirugarren saioa burutuko da areto huts honetan. Miren Akerretaren -errotik saihestu zuen lankidea zela aipatzea- *Dolutan* dokumentala eskainiko dute, eta gero bertan parte hartutako biktimekin eztabaida izango da, orain hutsik baina gero jendearen abegiz beteko den areto honetan”.

Grabatua utzi zuten erreportajetxo sartuko zuten gero.

Mirenen irribarreak ongi ari zela adierazten zuen. Julen Mendozari beregana hurbiltzeko eskatu zion keinu nabarmenez.

“Erraza izango da. Bi galdera. Hori bai, gero gazte-leraz grabatu beharko dugu”.

Mendozak baiezkoa egin zion. Guapoa zen, isila ematen zuen, neurritsua, eta, iruditu zitzaion, Josebaren demasa aztertzeke ohitura txarrari jarraiki, baita izua ere. Zalantza egin zitzaion ondo egingo ote zuen.

“Zer da ERAIKIZ ekimena?”.

“ERAIKIZ ekimenak duen dohainetako bat zera da: partidu guztiek hartu dutela parte prestatzen eta bul-tzatzen. Berez, film eta antzerki zikloa da. Udaletxean gaudenon artean hasita gaude elkarren arteko kon-fiantza lantzen, eta bururatu zitzaigun gogoeta giroa sortzea film eta antzerki lan horiek akuilu harturik. Bertan ageri ziren testigantzak ekartzea, edo antzeko-ak, hori igual da, hortik eztabaida sortu ahal izateko. Eta hori da gaur hemen gertatuko dena”.

“Zer lortu nahi duzue ERAIKIZ ekimenarekin?”.

“Guk, udaletxeko talde guztiek, bakea eraiki nahi dugu eta horretarako denok hitz egin beharra dugu, denok elkarri entzun behar diogu ezer ukatu gabe. Bi aukera ditugu, edo korromioan jarraitu, edo iragana azterturik, korromioa atzean utzi eta etorkizuna denon artean eraikitzen saiatu. Ez daukagu besterik”.

“Honaino Julen Mendoza, Errenteriako alkatea. Es-kerrik asko, Julen. Errenteriatik, Asier Iminizaldu”.

Jendez bete zen instant batean aretoa. Klase guztie-tako jendea, Axik batez ere zaharrak espero bazituen ere, gazte samalda sartu zen, batzuk-batzuk, seinale egin zion Miren Akerretari, ezker abertzalez jantzita.

Mendozak aurkezpenak egin ondoren, argia itzali zuten. Mirenek bere baitara so egin zuen, baina ez ze-

goen urduri, profesionaltasunak iragazgailuarena egiten zion, beraren, gertatzen ari zenaren, eta izan litzakeen sentimenduen artean halako sare sarri bat paratuz. Aita. Aita, uxatu egin zuen Etxarri Aranazko gizon hura. Baina susmoa zuen, lanean ari zela une batez zalantzan paratuko balitzaio, berehala egingen lukeela bat aitaren galerarekin; eta uste zuen hari ere neurriari eustea gustatuko litzaiokeela, Glencreen urtu zenaz bestela egin, eta EITBko albistegietako buru eta zinema zuzendariaren iragazgailua paraturik aparte mantentzea.

Filma hasi zenean Axi telefonoa begiratzen ikusi zuen.

Zerbait edan beharra zuela pentsatu zuen Axik. Lasaitzeko. Mirenekiko eztabaidak hondoan zuena azaleratu zion, eta azalaraztean ertzak ikusi zizkion ia izaki bat zirudienari; ez zen egoera bat, baizik eta beste izaera bat hartu zuen zerbait, ez luke jakinen zer. Ardailatu egin zen eta kalera atera zen, zerbeza bat behar zuen. Zerbeza, zerbeza, zerbeza. Mirenen harridurarako kalera atera, eta Niessenaren pareko tabernan sartu zen.

“Zerbeza bat. Ez, gin-tonik bat”.

Filma ikusia zeukan. Barrako aulkietan eseri zen. Bazekien Mireni ez zitzaiola gustatu atera izana, baina laneko kontu bat zelakoarekin zuri zezakeela jakiteak lasaitu egin zuen, Mirenek ez baitzekien gehiegi irratiko kontuez.

Zerbitzariak paraturiko gin-tonika hartu eta itokarrean edatean kontrako eztarritik joan zitzaion. Eztulka hasi zenean esku bat nabaritu zuen sorbaldan.

“Iñigo!” bota zuen.

Burua altxatu zuen. Serio zegoen. Bizarduna. Sendoa. Begi berdexkak. Bizkar zabalak. Ezker Abertzaleko janzkera. “Euskal fantasia bat” pentsatu zuen pentsatuko zuela Landerrek, edo Begok. “Euskal fantasia bat”.

“Zer moduz?”.

Beti egiten zuen duda, seme-alaba eta andreari buruz galdetu behar ote zion, egoera arraroa baitzen, baina Axik aurrera eginez konpontzen zuen arazoa izan zuten bigarren zita alditik.

“Zer moduz familia?” galdetu zion, zerabilen pentsamendutik ihes egin nahirik.

Iñigok baiezkoa baino ez zion egin galderaren deserosotasuna leuntzeko. Baiezkoa buruarekin, bai, ongi zeudela haren bi seme-alabak eta andrea, Oiar-

tzunen, ez zirela etorriko, andreari ez zitzaiola egokia iruditu.

“Prest zaude?”.

Eta oraingoan ere Iñigok ez zuen hitzez erantzun, begien baiezko keinu batekin nahikoa iruditu zitzaion, eta Axik pentsatu zuen, beharbada, horixe zela haren-gandik erakarri zuena, erantzunak urre gorria balitz bezala gordetzea. *Armairua* laburtuko zion Josebak kontatu izan balio.

Elkarri so egin zioten.

Iñigo, aspaldi, larrualdi batzuk baino gehiago zen, Mirenekin izandako eztabaidak azaleratu zion dena. Beste begi batzuekin so egin zion gorpuzkeraz harantz: alegranzia topatu zuen.

“Sartu beharko ginateke”.

Axi ohartu zen ez ziola galdetu bera nola zegoen.

Filma bukatzen ari zen eta Axik Mirenen ondoko eserlekua bilatu zuen. Iñigo lehendabiziko ilarara zihola ikusi zuen. Batzuetan gertatzen zitzaion elkar ikusi gabe egoten ziren hamabost egun-hilabete arteko tarreetan, aurpegia ahaztu egiten zitzaiola, eta aurrean zuenean, gaur bezala, lehendabiziko unean harritu egiten zela betileen luzerarekin, edo kopetako zimu-

rren batekin, edo bi eguneko bizarreko ilajearen sarriarekin, gorpuzkerarekin edo keinu batekin.

Filma bukatzen ari zen eta han agertu zitzaion Iñigo, berriz ere, oraingoan tamaina itzelean pantailan. Beste bat ematen zuen, ez hamar minutu lehenago tabernan izan zuen hura.

Mirenek, Axiren iritziaren kontra, dokumentala el-karrizketatuen aurpegien lehen plano eta Mikel Laboaren *Lekeitio* batekin ixtea erabaki zuen; txalaparta eta atonalitatearen soinu eta karranken airera zihoa-zen aurpegiak: Iñigorena, ETAK hildako ertzainaren an-drearena, GALEK hildako gaztearen amarena, Arrasate-ko zinegotziaren alabarena, unibertsitateko irakasle mehatxatuarena, frankismo garaian herriko komando batek hil zuen alkatearen semearena. Lehen plano aukeratu zuen Mirenek, ezkerretik eta kontrapikatu arin batekin. Handiago ematen zuten denek, bisaia urruntzen zitzaiela, “ahotsak urrunagotik sortzen zire-la” iradokitzea nahi izan zuen Mirenek nolabait doluan minaren jabaltzea adierazi nahian. Josebari sentimen-talegia iruditu zitzaiola akordatu zen.

“Sentimentala izan beharra dauka, ez?” erantzun zion Axik, “sentimenduen bidez gizartea eraikitzean datza kontua, ez?”.

“Sentimentalegia” indartu zitzaion Joseba. Eta harendako halaxe geratu zen erabakita, gerora filma aipatzen zuten aldi orotan izenondoa erantsiz.

Argiak piztu zituzten. Axik jende hura guztia bere baitatik atera eta ingurukoarekin lotzean jaritako energia sumatu zuen; animalia erraldoi baten moduan nagiak ateratzen nabaritu zituen gogoak.

Hizlari-aktore-biktimak banan-banan igo ziren patxadan oholtzara eta prestaturik zeuzkaten aulkietan eseri ziren abangoardiako antzerkia izan nahi zuen kutsu batekin.

Axik erabaki zuen prestatu egin zutela, igoera, jai-tsiera, esertzea eta baita oholtzako aulkien kokalekua ere.

Lehendabizi andreak igo ziren: ETAK eraildako ertzainaren andrea, Maria Jesus Plateado; GALEK hildako gaztearen ama, Felisa Dorado; Arrasateko zinegotziaren alaba, Patricia Jurado; eta gero gizonak: frankismo garaian herriko komando batek hil zuen alkatearen semea, Josu Erreparatz; Iñigo.

Foku bana zegoen bazterretan eta Maria Jesus Plateado ertzainaren alarguna hizketan hasi zenean, behetik gora argitu zien Axik zein Mirenek dramatikoegia iritzi zioten argi-itzal jokoaz.

Halako patxada batez aletu zituen ETAK leherrara-ziko bonba batek senarra hil ondorengoak; noraeza, gorrotoa, ezin sinetsia, zentzurik eza, kanpotarra izanik -Extremaduran jaioa eta Madrilen hazia-, *baskoa*-rekiko gorroto itzela; eta urteekin, nolabaiteko itzule-ra, seme-alabak hemengoak izan eta asko lagundu izanaren ondorioz “lur hau, nire senarrarena zena eta nire seme-alabena dena” berriz ere maitatzen ikasi eta haren alde zerbait egiteko beharra; gaurko ekintza hau esaterako.

Banan-banan aletu zituzten arrazoiak, sentimenduak, minak, oinazeak... Iñigok, txanda ailegatu zitzaionean, xehe-mehe aletu zituen anaiaren heriotzaren deia jaso zuten unetik hasi, Guardia Zibilak gorpua bahitu eta lurperatu arteko lokamutsetik pasa eta amaren oinazera arte; gerora urtetan bizi izandako erretenitze zentzugabeak, jazarpena, haien baserri inguruetan Guardia Zibilak egiten zituen tiro ariketak. Eta errua gero, bolada luze batean bizitzaren gainean itzala eragiten zuena anaia salbatu ezin izan zutelako.

“Familiari esker gainditu nuen” esan zuen Iñigok.

Hortxe gelditu ziren aitortzak dilindan une batez, jendearen gogoetan ñirñirka gogoeragile, harik eta seguru aski tentsioa lehertzeko norbaitek txalo bi jo eta

aretoa txaloka hasi arte. Luze. Katartiko. Hainbeste, eztabaida izan behar zuena isilune izan zen.

Elkarrekin egin zuten, jendeak alde egin zuenean, hizlari-aktore-biktimek, zinegotzi-alkateek, Miren eta Axik ondoko tabernarako bidea, pote bat hartzera. Julen Mendozak baretu zien zaputza saioak horrela zihoazela azaldu zienean, jendeak, hunkiturik, nahia-go izaten zuela gerora eztabaidatu, etxe edo tabernetan, eta ez kezkatzeko.

Zer nahi zuten galdetu zien. Mirenek pentsatu zuen markoa ezabaturik -aretoa, kontaketa erritualizatua, udaletxeko bilera-, biktimak eta zinegotziak, bere ezezagunean, ez zirela elkarrekin konponduko, izango zela ardoa eskuan paratu arteko tarte horretan ezezagunen artean gertatzen den deserosotasun hori, ordukoan areago, nolabait ere, batzuk intimitate mingarria kontaturik, arrasoan gelditu zirelako edozein komentario gaiztok edo desegokik mina berritzeko agerian. Mirenek berriz galdetu zion bere buruari filma errodatzen ari zirela galdetu ziona: berak, hitzaren bila aritu zen, "lasatzeko" behar izan zituen urteak behar izan zituzten zinegotziaren alabak, Maria Jesus Plateadok, galek hildakoaren amak, alkatearen semeak -bereziki mingarria hiltzaileak eta hildakoak

herri berekoak izaki-. Bat-batean jende oso arrunta iruditu zitzaion, hantxe, basoak eta kopak eskuan, Errenteriako alkateak ekitaldia ondo atera zela eta proposaturiko topa egitera altxaturik. Jende arrunta, ez biktimak.

Mendoza alkateak “Nola sentitu zarete?” galdetu zuenean, harekiko lilura puxika moduan hustu zitzaion, irudi baitzuen hura -tabernako barrako pintxo-ei erreparatu zien zeharka, haiengandik hurbil zeuden bizpahiru talderi, argi foku erregarriei- ez zela galdera hura -“nola sentitu zarete?”- egiteko toki egokiena, hura taberna baitzen.

Baina Mari Jesus Plateadok “Hasieran pixka bat urduri, baina gero lasaitu naiz” erantzun zuen ez herabe.

“Ohitura hartzen ari gara” erantzun zion alkatearen semeak irribarrez. “Profesional bilakatzen” gehitu zuen gero barre artean. Denek egin zioten barre, eta Miren ohartu zen barre hark eman ziela baimena besterik gabe talde bat zirela onartu eta aisatzeko, ordu-ra arte osatu zuten zirkulu hutsa -euskal kuadrillaren lotunea- utzi eta ondokoarekin hizketan hasteko. Mireni inbidia egin zitzaion, mina agerian uztearen pasioz bezatu zutelako. Edo hori ematen zuen. Alkatearen se-

mearen aurpegiari erreparatu zion. Axirekin ari zen Lekunberri Aranatzi buruz hizketan, Lekunberritik Bilbora alde egindako familia aitzakia.

Taldea fauntzen joan zen; alde batetik alde egin zuten alkatearen semeak eta Arrasateko zinegotziaren alabak, biak ere ETaren biktimak; Maria Jesus Platedo joan zen gero, agurtu eta Bilbora bide luzea zutela aipatuz; GALEK hildakoaren amak Donostiako autobusa hartzera zihoala “eramango zaitut neuk, Donostiara noa” bota zion Herzog pko zinegotziak. Eta alde egin zuten, espanturik gabe, bizkarrean txaplatarik gabe, ohiko afari baten azken kopatik edo ostiral gaueko poteotik alde egingo luketen bezala, filmaren azken errodate egunean egin bezala.

Mendoza, Iñigo, Axi eta Miren gelditu ziren azkenean. Mendozak autoraino lagundu zituen.

“Eskerrik asko, benetan”. Eta “benetan” errepikatu zuen gero.

Eskua eskaini ondoren autora nola sartzen ziren begira gelditu zitzaien.

“Eramango nauzue, ez? Autobusez etorri naiz” bota zuen Iñigok.

Mirenek atzeko atea seinalatu zion.

“Zuberoara goaz, probatzera, etorri nahi baduzu” esan zuen Axik.

“Ez, familia zain daukat”, Iñigok, “Zuberoa ez da egunero joatekoa, gainera”.

“Aprobetxatu” erantzun zion Axik, “nik pagatuko dut, honekin apustua galdu nuelako”.

Mirenek bolanteari heldu zion sendoago han zer gertatzen ari zen galdezka.

“Ez, eskerrik asko, familia zain daukat”.

Zuberoan afaldu eta hotelera itzuli ziren. Gin-tonika proposatu zion Axik eta baiezkoa egin zion Mirenek. Axi goizean egondako tabernan sartu ziren.

“Utz ezazu whatsapp zikin hori, gizona, bestela ez dut hartuko gin-tonikik zurekin”.

Axik barra gainean utzi zuen telefonoa, zeinak ti eta ti jarraitu zuen. Tanqueray, Larios Dry, Bombay...

Gin-tonikak eskatu zituzten. Halako batean telefonoak soinu desberdina egin zuen.

“Hartu beharra dut hau”.

Mirenek sabaira altxatu zituen begiak.

Axi, iPhona jiratuta, idazten hasi zen, zeharka Mireni begiratzen zion bitartean, erdi desenkusa, erdi ume malizios.

“Iñigo da”.

“Zein Iñigo?”.

“Iñigo, GALEK hildakoaren anaia. Etxeberria”.

Baiezkoa egitearekin bat ohartu zen Miren nor zen Iñigo. Ez zen posible... “Horrekin ari zara? Zenbat denbora daramazue? Armairu bat?!”.

Axik esperaraztearen plazera luzatu zuen telefonan mezua bidaltzen; gero begiak jaso zituen eta ume malizios bisaia paraturik, begietara so egin zion arratsalde osoan sekretua gorde izanaren plazerak harturik. Irribarre egin zion.

“Bai”.

“Zenbat denbora daramazu berarekin?”.

Axi berriz ere sekretu baten jabe izan, eta galara-zi nahi izan zionez, esan beharrean, irribarrea erakutsi zion, Iñigorekiko bere harremanaren jolasaren erakusle.

“Josebari esan behar diozu!”.

Begiak altxatu zituen telefonotik. Ninien hondoan jolasa ageri baldin bazen ere, kezka, eta makurrago, zaputza sortu zitzaizkion; eta gero, Mirenekiko halako nazka bat, jolasa hausten ari zitzaiolako.

Axiri bururatu zitzaizkion hainbat erantzun Mireni emateko baino areago aurpegiratzeko: Joseba eta bere artekoa bikote irekia zela, eta horren arrazoia Jo-

sebaren garai bateko -berak ez zuen nahi- bikotea eraikitzearen matraka hura zela "harreman berriak sortzeko"; Josebak ere izanak izango zituela horrelakoa, bat baino gehiago; berak, Axik, paratu zuela ezer ez kontatzeko baldintza.

Eta azkenik bere buruari orain arte aitortu nahi izan ez zion arrazoi garrantzitsuena, Iñigorekiko sentitzen zuenak beldurra ematen ziola, eta, neurri batean, Joseba ordezkatu ziola Iñigok. "Armairu bat!" arrapostu egin zion berriz Mirenek garrasika -bazekien garrasika egiten-, azkena esango balio bezala. "Esan egin behar diozu. Ezin zara horren koldarra izan".

Koldarra. Mindu egin zuen izenondoak, eta mintzen zen guztietan bezala gogoia bolbolka nabaritu zuen, pilota baten antzera uraren burbuilen menpe, batetik bestera, baina bazekien Mirenekin ezin zuela jokatu Begorekin edo Josebarekin jokatzen zuen moduan, bolbola isiltzeko aurrera egin, kontrarioa atzean utziz ala hari garrasi eginez.

Bere burua lasaitzen saiatu zen. Beharbada Mirenek arrazoia zuen, Josebarekin hitz egin beharra zuen.

Whatsappak jo zion berrir.

“Joan beharra dut”. Begia keinatu zion eta Mirenek irribarrea itzuli zion haren indarraz harriturik. Urtebete birekin?

Gin-tonika dzangada batez edan eta plazaren beste aldean gelditu zen auto baterantz abiatu zen, Mirenek kalea gurutzatu eta plazako plataneroen arte-tik bidea nola egiten zuen begiratzen zuen bitartean.

San Antongo zubira atera dira. Ez dabil inor ka-
lean. Bilbo handiagoa izanik, Iruñea baino mortuagoa
egiten zaio batzuetan. Taxiari eskua altxatu dio eta zu-
biaren erdian gelditu da. Espaziontzia ematen du,
atzean Atxuriko estazioko tren aparkatuak sumatzen
direla. Auto bat zubia gurutzatzen hasi denez, errep-
ide erdian gelditu behar izan dute. Hauxe da metafora,
pentsatu du Josebak, ezerezaren erdian, iragana eta
etorkizuna -bai, etorkizuna- argituko dielako ustean
taxi bat hartzea.

“San Mames etorbidea Indautxu plazarekin” agin-
du dio taxistari, lehor.

Taxistak martxan jarri eta egoitzarekin hitz egin du
irratiz.

“Okupatuta nau. Berriz, 102, okupatuta nau”.

Arenaletik barna egin dute, Plaza Biribila, Gran
Via, Indautxuko kale dotoreak, txaflanean, dorre an-
tzeko horretan bukatzen diren eraikin horiekin; Indau-
txuko plaza eta argi bereziak, metroaren sarrera.

Ia arrastaka atera du Axi autotik, eta Miren Akerre-
ta eta Idoiaren etxeko atezain automatikoa jo du. Ta-

xista so gelditu zaionean ohartu da ez diola pagatu. Harengana itzuli da, eskua sakelara botaz.

“Zenbat da?” esan dio.

“11 euro eta erdi”.

Josebak berrogeita hamar euro eman dizkion bitartean, “Nor da? Nor da?” entzun du atezain automatikoaren bozgorailutik. Taxista kanbioak bilatzen ari da guanteran. Ez ditu aurkitzen. Josebak burua atera du autoaren leihatilatik.

“Nor da ordu hauetan?”.

Josebak Axi ikusi du haren eta atearen artean. “Axi, agurtu Miren!”.

Axi noraezean gelditu da, ezer ulertzen ez duela.

“Itxoin” egin dio garrasi taxistari, eta lasterka egin du bozgorailura.

“Miren, Miren!”.

Ailegatu denerako aurikularra eskegitzearen soinu sorra entzun du.

“Miren, Miren!”.

Inor ez. Taxistarena konpontzea erabaki du lehen-dabizi. Axiren ondotik pasatu –haluzinatuta dirudi bere joan-etorriekin– eta taxistari zakar kendu dizkio kanbioak eskuetatik. Axiren ondotik iragan eta atezain automatikoa jo du atzera, zalantza une batzuen ondoren.

Atezainaren botoia sakatu du berriz ere, beranduegi ote den duda-mudatan. Zertxobait itxoin du Axiri so egiten dion bitartean. Makurtu egin zaio zutitasuna, emanen luke Indautxu plazako kale-argi makurtuekin bat eginez. Berrogeiak arte gorputzak bereari eusten diola pentsatu izan du behin baino gehiagotan azken aldi honetan, baina, gerozkioz, iruditzen zaio gorputzari eusteko gogoaren indarra behar dela; eta Axik ez dauka indar hori, falta zaio, Axi falta da, asmoen gauzatzea adieraziko lukeen Axi hori behintzat, amoran-tea bazuen edo ez adieraziko lukeen Axi irakurgarria. Horregatik ezin izan du lehenago senez, bere sen famatuaz, jakingo lukeena jakin: bai ala ez. Baita uzteko asmoa ote zuen edo ez; horrenbeste urteren ondoren seguru dago jakiteko gauza izango zela. Deskodetzeko ezintasuna, esanen luke Muñoz Eugik.

Horregatik dago beharturik egin behar duena egi-tera, Axi ere konforme legokeelako, berarendako zein bere buruarendako Axi hizkuntza arrotza bilakatu delako; hori Axiren buruan zerbait dagoela onarturik.

Luzeago sakatu du botoia oraingoan.

Atezuan gelditu da. Gogor egin dio Axi erakarri eta besarkatzeko gogoari, espaloia-aren erdian ezer ulertzen ez duela. Sirena hotsak entzun dituzte. Axi asal-

datu egin da eta ate bokalera hurbilduta babesa bilatu du Josebaren gorputza ukituz haren harridurarako.

Anbulantziak Indautxu plazako gaua zartatu du haien paretik iragatean. Axi dardaran dago. Sirenak.

Josebak botoia sakaturik duela ohartzean, utzi egin du, etxean sirenak bi tokitatik -leihoetatik eta atezain automatikotik- entzungo dituztelako erreparoz. Bi tokitatik. Axi bitan galtzea bezala. Hirugarrena, behin betikoa. Halako batean argia egin zaio buruan, Miren eta bera berdinak dira, biak zeuden haserre maite zutenarekin, hura aitarekin, bera Axirekin. Derri gorrez hitz egin beharra dauka Mirenekin.

Kraska bat entzun da bozgorailutik.

“Miren, Miren!?”.

Berriz ere sakatu du botoia baina oraingoan ez da soinurik entzuten. Deskonektatu egin dute. Biak zeuden haserre.

Telefonia atera eta Begoren lauzpabost dei dituela ikusi du. Izorra dadila. Hijaputa. Mirenen zenbakia markatu du. Deskonektatua. Plazan zehar ekortu du soa: farola makur zuriak, metroaren ahoa, balkoidun eraikin dotoreak, zuhaitz bakanak, zoruak egiten duen maldaxka, eliza... Axi.

“Axi, amorante bat zenuen?” galdetu dio antsiatz.

“Niiik? Ez!”.

Taxi bat iragan da geldi-geldi haien paretik. Josebak berehala ikusi du aspaldi prestaturikoa egiteko ordua gaur dela; ez du destainez egingo, gainera, baikik eta maitasunez; edo beste modu batez esanda, gupidaz. Barre egin dio gogoak. Destainaz ez? Maitasunez? Batetik besterako tartea horren da exkaxa. Deliberoa hartua duenez, hala ere, ez du zalantzarik, beti kostatu izan zaio erabakiak hartzea baina behin harturik, ordea, ez da amore ematen erraza, nahiz eta erabakia betetzeko bide horretan oker ari dela ohartu, aurrera egiten du, erabakia hartzeko ahalegin nekezak bultzaturik.

Lehengo taxista da.

Gaua errepikapenez beterik dago. Baina gaurtik aurrera ez da egongo errepikapen gehiago.

“Zer? Ez zeuden?” esan die oraingoan ironiko.

Josebak erlojuari begiratu dio. Gaueko ordu bata da.

“Uribarri; Trauko, 1”.

Taxiak berriz ere Bilboko kaleen argitan zehar eramandu. Erakusleiko itzaliak, atari dotoreak argi hilekin, farolen argiak autoen kapotetan islan, ibiltariren bat edo beste, taberna ireki bakanen aho ia hutsak.

Udaletxeko zubia iragatean eskuinetara so egin du Josebak Axiren errainua kristalean ageri zaiola. Zazpi Kaleetan biziko ote da Axiren amorantea? Nor ote da? Gazteagoa? Zenbat jakingo du Mirenek? “Igual zait”. “Jada ez du inporta!”. “Alea jacta est!” bota du hortzartean Txatori berari ere gehiegizkoa irudituko litzaiokeen espantuz.

Taxiak ezkerretara hartu eta gero Uribarrin gora hasi da. Axiren etxe aurrean utzi ditu.

“11 euro eta erdi” esan dio taxistak

“Zer, adarra jotzen?!” egin dio erronka Josebak.

Taxistak keinu bakarrarekin markagailua seinalatu dio: 11,50.

Joseba harriturik gelditu da.

“Nola da posible ibilbideak desberdinak dira-eta!”.

“Ba halaxe da”.

Guillermo psikologoa gogoratu dio.

Deitu egingo dio. Laguntza behar du ordu honetan.

Zer pentsatuko luke egitear dagoenaz? Espantu gehiegirekin ari dela seinalatuko lioke? Budismo ergel hori gomendatuko?

Atea ireki dio Axiri. Bizitza errepikapen bitxiz beterik dago, errekkurentziak, zeruan hasi eta lurrean ahi-

tzen direnak; Axi eta bera elkar ezagutzea ahalbidetu ondoren, Kultura eta Hezkuntza departamentuan berriaz ere elkar ezagutzera eramane zituen errepikapena, kometa baten ibilbide maiztasunezkoa bezala, San Frantziskotik itzuleran Lekunberriko hotelean zeru urdin haren hustasuna, urtetan elkarrekin landu duten bikote berezia izatea, Axi astegunez, duela ez hainbeste Iruñean agertu zitzaioneko aparteko hura... elkarrekin egotera kondenaturiko bat, kondenaz plazera egin, hori dena hogeituroko istorio ederra hemeretzigarren mendeko adulterio istorio merkean bukatzeko.

Horregatik egin behar du erabakitakoa. Mendekuz ere bai.

Taxistak alde egin duenean geroan pentsatu du, bere bertsioa sinetsiko ez balute taxistak haien egotari buruzko informazioa eman dezakeela pentsatzeak urduritu badu ere, berehala baretu da; dena ongi atondua du, prestatua, pentsatua, norbaitek ordu horretan Artxandan zertan ari diren galdetuko balio, adulterioarenak berak argiago, ulergarriago egingo luke bertan egotea zuritzea. "Gure istorioaren hasierara itzuli nahi izan dut, eta bertan behera amildu da". "Amorantzeren bat zuela esan didatelako galdetu nahi izan diot han

bertan gezurrik esan ez diezadan.” “Baina berak ez du ezer gogoratzen”.

Uxatu egin du galdera garajearen atea ireki duela-rik eta, autoaren aldapa igotzeko ahaleginaren burrunban aienatu nahi izan badu ere, berriz agertu zaio; ongi egin beharko ditut gauzak, agindu dio bere buruari.

Begoñatik gora egin dute harik eta maitasunaren kurbara ailegatu diren arte. Hemen izan zen, ordutik hona ez da inoiz itzuli, Axi bai, itzuliko zen; hogeitaz urte; hogeita urte eta gero hau; bizitzaren laburpen exkaxa. Egitera doana maitasunak eragindako gupida ekintza da, baina mendeku bilakatu zaio. Errabiak hartu eta Axiri so egin dion bitartean, “hau ere kendu egin didazu!” aurpegiratu dio hortzartean.

Axik harriturik begiratu dio. Ez, hobe, izaturik, sirenen hotsen artean, arriskua susmatu baitu haren animaliatasunak. Eta atezuan jarri ondoren lasterka hasi da errepide hutsaren aldera.

“Nora zoaz?” garrasi egin dio Josebak.

Axik badaki handik alde egin behar duela. Zerbait gertatu da eta ez daki zergatik. Josebari zerbait susmatzen dio, txarra, eta... sirenak...

Josebak atzetik segitu dio.

“Zatoz, Axi; elkar ezagutu genueneko tokira eramango zaitut. Zure sufrimenduaren bukaera izango da”.

“Sufrimendua? Nor ari da sufritzen?”.

Josebak esanen luke Axiren zentzumenek, adimenak -oroimena gehituko luke ez baleki oroimenik ez dagoela-, zorrotzago ematen dutela, orain, azken orduan, ia lehengo Axi egin zaio.

Ukitu duenean otzandu egin da animalia bat bezala. Pinu artetik gora egin dute bide lohituan zehar; kondoi eta klinexek marikiten gurutzebidea seinaltzen dute. Lasai hartuko du, gauza aspaldi prestatuek, ezkutuan atondu eta osatuek gauzatzeko eskatzen duten deboilamendu gabezia eta lasaitasunarekin.

Pinu artetik iragaterakoan kartel bat agertu zaio. Sakelakoa atera -Landerren dei bat duela ikusi du, zortzi whatsapp- eta linterna pizturik, zera irakurri du: “Auto honen jabea seropositiboa da; kondoirik gabe jotzen du larrua; sala ezazu. Harekin kondoirik gabeko harremanak izan badituzu, dei ezazu telefono honetara: 976 999 999”.

Antzinakoa egingo zitzaion Landerrengandik ez baleki azken boladan jendea kondoirik gabe hasi dela larrua jotzen; maiz behartu egin behar duzula -gazte

jendea batez ere- kondoia erabiltzera, eta askok ez dutela kondoiarekin nahi izaten. Berari, ordea, oso laurogeiko eta laurogeita hamarreko istorioa iruditu zaio, Axik eta berak elkar ezagutu zuten garaikoa.

“Nora goaz mendi honetan barna?”.

Sarkastikoa izatea bururatu zaio, baina lehengo Axiren beldurraz akordaturik leunera jo du.

“Elkar ezagutu genuen tokira. Ea han zaudela, oroimena berreskuratzen duzun ustekabea”.

“Zer pasatzen zaio nire oroimenari?”.

“Bihotzekoak eman zizun eta galdu egin zenuen”.

“Niri?” bota dute biek.

Eta gero Josebak barre egin du. Ez dago zer eginik. Bizitza ergelkeriaren errepikapen eta absurdoaren artean gertatzen den tarte hori baino ez da.

“Utzi, Axi. Ez da ezer gertatzen. Hor goian lasai egongo gara. Akordatzen zara elkar ezagutu genuen tokiaren ondoan dagoen amildegiaz? Zer izango ditu, ehun metro? Zaborra dago behean. Eta Bilbo Handiaren argiak ageri dira. Akordatzen zara, Axi?”.

“Bai, Artxandan. Nik hurbildu behar izan nuen zurregana, bestela ez genuen elkar ezagutuko. Gaur baltz bezala gogoratzen dut”.

“Akordatzen zara”.

Joseba akordatzen da. Eta hogeitertan sorturiko bikote mitologia errepasatu du: elkar ezagutu zuten uneari buruzko bertsio ez bateragarriak; bikote klase berezia izatearen harrotasuna, gaizkiulertzeak, elkar ongi konpontzeak, isiluneak, isilguneak.

“Bai” erantzun dio Axik, “hor goian izan zen”.

Joseba harriturik gelditu da Axiren zehaztasunarekin eta zalantza egin du deliberoan, baina gero, bada-ki, horrelakoak espejismoak baino ez direla, Axik betiko galdu duela oroimena, eta nonbaitetik begira balego, eskertu egingo lukeela “hor goian” egitera doana. Haserretu izan ez balira, sikiera! Ez du uste utziko zue-rik. Badaki haien artekoa, hogeitertan eraiki duten bikote berezia ez dela eraikitzen erraza; eta seguru asko, Axi Iruñera sortu zitzaion ez horren aspaldiko aldi hartan esan zion bezala, harro, harroegi, beharba-da, EHGAmen ibili izanak eragin zion Etika Marikarekiko ardurak bermatu du biak honaino elkarrekin ongi konpontzen diren bi adiskideren moduan ailegatu izana, eta ez, hainbat bikotetan -batez ere heterosexualetan- bezala asperdurak dakarren urruntasunaz ohitura eginik.

“Zoriontsuak izan gara, ezta, Axi?”.

Axik baiezkoa egin dio, Axi Axik zenekoa balitz bezala.

“Bai, konbentziturik nago, ez ninduzun utziko. Gurea handiegia da”.

Josebak Axirengandik zerbait espero izan badu ere, ez da etorri, Axik aurrera jarraitu baitu kili-kolo.

“Axi, maite al nauzu?”.

Zer galdera estupidoa! Klaro maite duela eta berak hura ere bai, bestela utzia izango zuen, nonbaiten sartua, edo Lekunberrin, arreba Pilibekin.

“Bai, maite zaitut” erantzun dio Axik. “Hor goian ezagutu genuen elkar. Eta ni ez banintz hurbildu ez genuen elkar ezagutuko”.

“Bai, eta hor goian bukatuko da dena. Amorante bat zenuen, Axi? Utzi behar ninduzun?”.

Baina Axik urrundurik dago aldapan gora, Deustun ihes egin zion arintasun berdinez.

Kaskora ailegaturik Bilbo Handiko argiak ageri dira, printza lauso eta zikin baten moduan. Josebak badaki, eta gaur uste du Axik ere gogoratzen duela, kaskoko azken pinuen tartetik abiaturik –hemen ibili ziren duela hogeita bat urte– kaskoa ebaki egiten dela lur gerritu handi bat eginez, zulo beltz bat ematen du,

eta han behean, argitza zikinaren argitara zabor zati zuriak ageri direla azaleko pikostak bailiren.

Josebari bururatu zaio zer egingo duen norbait sortu eta ikusten baditu; ez da harrituko, ikusiak izate-ra etortzen dira hona gizonak, baina gerokoak beldurtzen du.

Klinexak ageri dira nonahi, Axi gidatzen duen bitartean.

Badaki ez zuela utziko; ala bai? Zalantzak berak sua eragin dio bularrean. Gupida ekintza izango da, ez mendekua. Baina esan ahala gezurra iruditu zaio. Axik amorantea bazuen –gero eta seguruago dago bazuela; ala ez?–, bi bekatu egin zituen eraiki zutenaren kontra: bat, izatea; bestea, larriena, ez esatea; ez, etorri eta esan “aizu, hau gertatzen ari zait; bizi nahi nuke; zer egin dezakegu? Nahi baduzu konpartitu egin dezakegu”.

Eta halako batean ohartu da irudikatu duen Axi eraikitzaile, negoziatzaile, abegitsu hori urte hauetan guztietan zehar buruan izan bai baina errealtatearekin bat ez datorren Axi dela, Axik, Axi izateagatik beragatik, ez baitzuen inoiz amorante bat konpartituko.

Mendekua, mendekua, mendekua. Kasu eginen zion hark berak kasu egiten dion bezala? Ez zuen kasu

eginen. Mendekuz botako du amildegian behera, elkar ezagutu zuteneko tokian bertan, eta libratu -horixe da hitza- egingo dira; da.

“Akordatzen zara, Asier?”.

Gutxitan hots egin dio Asier. Axik gipuzkerakoa ematen du, Bilbon dauden Asier ugarietatik desberdintzeko modu bat.

Xamurtasuna egin zaio. Horren ziren gazte, horren berde. Bera izan zuen lehen gizona, lehendik Bego egon zen.

Amildegira ailegatu dira. Josebak elkar ezagutu zuteneko lekuaren bila egin du begiekin. Hortxe? Ez, hantxe? Harantzaxeago? Erridikulua iruditu zaio leku zehatzaren bila aritzea. Akordatzen da, ordea, amildegia ertzean egon zela bera, Axik, orduan itzal ilun bat, beheragotik gora begiratzen zion bitartean, orain bezala.

Amildegia lurrezkoa da, lurbetetze batek eragindakoa, eta pixkanaka bihurtzen da amildegia. Lehendabizi gainbehera dago, eta gero, hutsunea, sasi batzuen artetik, berez aterako balitz bezala. Hondakinak laharretan zintzilik, eta han behean zaborra, ezin jakin zergatik, baina gogoratu bezala, zuri, ia distirant. Beharbada zainduko zuen, bai.

“Zatoz, Axi!”.

Animalia zauritua dirudi, erosi zion parka berde horren azpian ia estalirik.

“Eskertu egingo didazu; eta benetan, ez naiz mendekuz ari, nahiz eta baditudan arrazoiak”.

Eta esan ahala Axik amorantea zuelakoa ezin sine-tsizkoa egin zaio; eta gero, haserrea ez bakarrik Axirekiko baizik eta baita ere munduarekiko, mundua mari-koien kontra dagoelako, marikoiak beraiek beren bu-ruen kontra daudelako, “besteen” morala -deitu nagu-si edo heterosexual- bere-berean onartzen dutelako, Axik, moral berri hori utzirik, haien artekoa XIX. men-deko nobela baten argumentu ergel bihurtarazi duela-ko; haserrea laba uhalde baten moduan herra bilaka-tu da, eta gero gorroto itsu; eta azkenik, akidurak jota, tristurak hartu du. Eta orduan, tristuraren hegala geldo-en bidez behartu ahal izan du bukatzeaz dagoen haien arteko bizitzaren ibilbidea, “denon ibilbidearen mo-duan”. “Besteak bezala hiltzen dira lesbianak eta ma-rikak?” “Ez lirateke, Etika Marika eta lesbiarraren ara-bera bizi ondoren, besteak baino modu duinagoan hil beharko?”. “Ez luke amorante bat -Tebasko gudaros-tean bezala- gaixorik dagoela-eta besteak akabatu behar, duintasunagatik beragatik?”.

Zein erridikulua den dena.

“Axi, zatoz!”.

Sirena hotsak entzun ditu Axik. Zer nahi du Josebak? Zer egiten dute hemen?

Josebak sorbaldatik heldu du Axi, meheturik dago, giharrak ahuldurik, besondoak ziren pilotak koxkor bihurturik.

“Zatoz, Axi”.

Gerritura gerturatzen saiatu da, baina Axik atzera egiten du haren mehetasunak ematen ez duen indarrez. Zatoz, Axi; hoberena izango da, aspaldi joan zinen, eta badakit eskertu egingo zenidakeela egitera noana. Behin hegan hasita ez omen da nabaritzen. Zor dizut, badakit, ongi bazeunde hala eskatuko zenidakeelako. Akordatzen zara San Frantziskoko hileta hartan esan zenidanaz?, hura dena iragatea baino nahiago zenukeela amoranteak hil bazintu.

Eta halako batean Axi baretu egin da. Sirena hotsak isildu egin zaizkio, bere burua baino ez du entzuten, lasterka, erritmo onean, hanka bat lehendabizi, gero bestea, gero atzera bata, gero bestea, bihotza odola punpatzen gorputzean zehar, zainen zabalera giharrak erregadiatzen, indarra, aita ala ama erabaki beharra pentsatu duenean sirena hotsak sortu zaizkio

atzera. Lasterrago egin lasterra, sirenak atzean utziz, hanka bat lehendabizi, bigarrena gero. Eta gero jauzi bat, eta hegan egin gertaturiko guztia gogora datorren bitartean.

Joseba amildegi ertzeko gainbeherara hurbildu da, Axi bizkarretik bultzatuz. Dorpeki egin dute gerritua hasten den tokiraino laharren artetik; argi lauso zikinak behetik gora argitzen ditu. Horrela bukatzen dira gauzak, hasi bezala. Bultzada bat eta gupidaren jainko bilakatu da, gerokoak inporta gabe. Edo mendekuarrena, ez daki. Axik hegan egingo du, parka berdea hai-zaturik, lurrera ailegatu baino lehenago hilko ote den du zalantza, buruaz beste egiten dutenen moduan. Ibili duten xenda ebaki eta laharraren angeluak amildegia ertza seinalatzen du. Orain bultzatuko balu, Axik hegan egin eta dena bukatuko litzateke, Axi erdia-edo laurdena- denekoa bukatu egingo litzateke. Argi du maitasunagatik egin beharra duela, Axik hala nahiko lukeela, ez dela ekintza berekoa, baizik eta maitasunaren azken froga; baina harra sartu zaio, behar bada, ez zela esan beharko luke, Axik amorante bat zuela jakiteak duela sei hilabete pentsatu zuen ekintza hori gupidazkoa beharrean mendekuzkoa bilaka baitezake. Begiak itxi ditu lehen guri izandako Axiren

gorputz erkina eskuetan duen bitartean arrazoiak bilatu nahian. Anabasa baino ez du topatu, sei hilabeteetan zehar prestaturiko ekintza aratza narrasa bilakatu zaio.

Bultzatu egin beharko luke zergatiez kezkatu gabe Axik hala nahi bailuke, edo horixe uste du, behintzat. Argi dauka, bera Axiren tokian balego Axik egitea nahi lukeena dela, ertz horretan izan, eta bultza, hegan egin eta bukatu; galdutako oroimena eta galtzera doana bat eginik.

Axi itzuli egin da amildegiaren ertzean. Azkeneko hilabeteetan ez bezala so egin dio, atezuan, sakon, hondora nahian.

Axi Axi zenekotan berehala jakingo luke zer adierazi nahi duen begirada horrek, “Bultza nazazu, behingoan; alde paretik, zer egiten dugu hemen?”.

Eta ez bada Axirendago askapena, baizik eta eguzki lauki batez gozatzeko aukeraz galaraztea, Muñoz Eugiren poemak dioten bezala: “Zoriontasuna eguzki lauki batean gauza baitateke”.

Esadazu, zer egin behar dut, Axi?

Gupidaz hil, ez mendekuz.

Bere burua madarikatu du horren ahula izategatik. Badaki Axik barre egingo liokeela horrenbeste hilabe-

tez eraiki, indartu, landu, jorratu, tinkotu eta tenkortu-
riko erabaki bat hartzeko gauzeza izateagatik, “Nire
borondatearen aurrean zurea ahula da” esanez.

Ez da ausartuko, ez du hilko, ez du horren gertu
duen ekintza hori egingo; ez dio bukatzen lagunduko,
ez du Axi atzipetua askatuko, ez du amildegian behe-
ra hegaldi askean ikusiko.

Bere burua madarikatu du. Zergatik gertatu behar
zitzaien haiei!? Zerk egin zituen zordun? Axi madari-
katu du, gero bere burua, gero mundua, gero... herra.
Ez du hilko. Axi Axi ez dena izaten utziko du.

Parka berdea kendu dio herraz. Bildu eta Axiren
buruaren gainetik amildegirantz bota du; parka ber-
dea hedatu egin da ibilbide hegalariaen gorenean;
mahukak zabaldu egin dira hutsa besarkatu nahiko
balute bezala; sorbalda luzatu egin da. Axi bera ema-
ten du jauzi egin ondoren, txanoa buruarenak egiten,
beherantz. Paraxut baten abiaduraz hasi da behe-
rantz, geldoki, aireak haizaturik. Beha gelditu zaizkio,
eguratsean ia kulunka, argi lauso eta zikinaren kontra.
Josebak izugarrizko jabaldura nabaritu du, eta Axireki-
ko izugarrizko lotura, elkarrekin gauzen amaiera -eta
hasiera berria- bizi izandakoengan ezartzen den lotu-
ra mota hori. Dena desberdin izango dela pentsatu du,

badaki Axi ez dela sendatuko, baina desberdina izango da... beherantz hegan doan parka berde horrek adierazten du; ez du ez gupidak ez mendekuak erabaki, baizik eta bien tartean egon daitekeen... hitzaren bila aritu da... *maitasuna*, bururatu zaio, baina badaki hitza lausoegia dela oraingoa zehazteko; beharbada onarpena, sublimazioa, bizitza honen akabantzaren benetako ametoa. Ez daki. Ordea, badaki jada lurrera ailegatuko zen beroki horretan zerbait joan zaiola.

“Goazen, Axi”.

Bidezidorretik barna egin dute. Amildegia atzean utzi ahala erokeria iruditu zaio azken hilabeteetan go-goan erabilitakoa; nola pentsa zezakeen bere bizitzatik alde egitea? Nola? Axi libratzearena aitzakia iruditzen zaio orain. Sastrakek aztalak jotzen dizkiote eta oreka galarazten dio Axi atzetik eskutik helduta garraiatu beharrak. Horixe da bere bizitza -haien bizitza, zuzendu du- eskutik helduta orekari eustea.

Auto bakartiaren kapotak distira egiten du duela hogeita bat urte bezala.

Atea ireki dio, eseri denean, haren harridurarako, hankak sartzen laguntzekoak egiten hasi da. “Ez naiz elbarri bat”.

Autoari itzuli eman eta sartu aurretik basoari begiratu dio. Basoa-edo, Lekunberrikoekin edo Eugikoekin konparatuta.

Gero autoan sartu da eta motorra izeki du.

“Akordatzen zara, Axi, hemen elkar ezagutu genuenekoaz?”.

“Bai, nik hortik goitik jarraitu behar izan zintudan, ez zenidalako kasurik egin”.

“Ez da horrela... nahikoa seinale eman nizkizun, baina ez zenuen zirkinik ere egin”.

Uribarriko zinta mekanikotik behera jaitsi zen galtza motzetan, azkeneko boladan ohi bezala, astean hirutan. Aspaldi ibilia zen lasterka, baina gero utzi egin zion lana arrazoi baino areago aitzakia. Baina azkeneko urtean -bere buruari aitorrarazi nahi ez bazion ere- Iñigoren arazoa zela tarteko hasia zen berriz ere lbai-zabalean zehar lasterka, tentsioa jaisteko-edo.

Miren Akerretari afera azalarazi ondoren, harrigarria egiten zitzaion Josebak ezer ez sumatu izana: bi-daiak, lana eta *Dolutan* filma aitzakia kale egindako egunak, Iñigok deitu ziolako bat-bateko desagerpenak (erdibidean egindako zitak; horiek izaten ziren hobere-nak, desioa potinka, autoan elkartu, eta galtzak orka-tiletan bilduta hautsiapur korritutakoak) saiatzen ziren bakanetan larrua jotzeko nekezia, eta, batez ere, inti-mitate eza. Ardailak hartu zuen intimitate eza nabar-menegia izan eta Josebak ezin izan zuela ez ohartu ohartu zenean. Udaletxeko eskaileretan tenkatu zituen giharrak, inguruan autobusari espera zuen jen-deari ezaxola. Astebete zeramaten hitz egin gabe, auskalo zergatik haserretu zelako, noiz eta haien urte-

muga egunean. Zein dramatikoa izaten zen batzuetan!

Eguzki firrinta ageri zen zeruertzean. Txandalaren lepokoa jaso zuen freskotasunetik babesteko. Eguraldi sanoa zegoen, Bilbon ez ohikoa. Iruñetik faltan zuena horixe baino ez zen: eguraldia. Edo hobe, hango eguraldiaren sanotasuna, hotz ikaragarri hura, aireari halako purutasun bat eransten ziona. Bilbon bakanak izaten ziren horrelako egunak, esana zion EITBko meteorologo Urko Aristik, Bilbo zulo bat zelako eta itsasorearen hurbiltasunak pertza baten antzeko bilakatzen zuelako, umel eta narras.

Giharrak mugitzen nabaritu zuen. Ezkerreko orkatilak min pixka bat egiten zionez, indarrez eman zituen bi pauso eta desagertu egin zitzaion. Bizkarra ongi zuen, lepoari eragin zion bitan nagiak astintzeko, besoak luzatu zituen, aldakak. Eta korrika hasi zen. Zubiak agertu zitzaizkion: Zubizuri, La Salve, Arrupe pasarela, Deustuko zubia. Euskalduna ezin zuen ikusi baina bazekien han zegoela, eta iritsi eta pasatu egingo zuela Zorrotzaurre bidean.

Lehendabiziko aldiz otu zitzaion erabaki bat hartu behar zuela. "Aitatxo edo amatxo aukeratu". Irrigarria iruditu zitzaion garunak, ezin jakin oso ongi zergatik,

zegoen ataka izendatzeko erabiltzen zuen modua. “Aitatxo ala amatxo”. Joseba seguru azalpen psikoanalitikoan galduko zela. “Kronika bat egiteko ezer interesgarria ez, ez bazen Iñigorekiko nabari zuen posesio sentsazio itzel harengatik ez balitz; Iñigo berea, eta soilik berea zelako hura, berea objektu bat bezala; edukitzeak berak nagusitasuna ematen zion; kronika hortik eramango zuen, Josebak maite zituen nagusi eta menpekoen arteko istorio haien bidetik; nagusiak eta esklaboak, eta bien arteko harremanak, Foucault eta gay kinkila hura guztia”. Nahiz eta, onartu behar zuen, eraiki zutena, marikoikeria guztia gorabehera, nahiko txukuna izan. Beharbada behingoan marika egin beharra zuen.

Bi egun zeraman lasterka egin gabe eta gorputzak eskertu zion. Batzuetan bi egunetan segidan egiten zuenean, nekea nabaritzen baitzuen, gogoak gorputza urratsak ematera behartuko balu bezala; ideia ailegatzzen zen lehendabizi, mugimendu automatikoa izan beharrean, eta gero garunaren prozesu nekez eta nahasiaren ondoren giharrek, gluteoek, abduktoreek, grazilek, bikiak, tibialek hanka altxatu eta aurrera botatzzen zuten, harri bat botatzzen zen bezala; eta atzetik, baldar, bizkarra zetorren, eta besoak, deltoideak,

dortsalen laguntza. Lasterka egitea borondatearen ekintza bilakatzen zen, eta bukaeran, borondateak nekea eta nagia bentzutu ondoren, izaten zen zinezko lasterka egitea, gihar mugimendu eta arnasa hartzearen arteko dantza hura, plazer antzeko, eta ez sufri-mendu. Baina egun hartan alai zihoan, bigun nabari zuen gorputza, hankak arin, giharrak tenk abiadura eta zoruaren erasoei aurre egiteko.

Berehala iritsi zen Zubi Zurira. “Aitatxo ala amatxo”. Ez zuen hanka sartu, besterik gabe Iñigorena gertatu egin zitzaion; bestelako... ez zen hitzarekin ausartu. Joseba kidea izan zen beti, Iñigo, aldiz, zerbitzatzeko zuen joera harekin, errepide bazterreko hotel hartan itzuli eta atzealdea eskaini zionean... Gaydar bidezko zita -aitortu beharra zuen-, irakurri zuen aipu hura akuilu -“felizmente casado y armarizado; buscando similar para vivir la cara B de nuestras vidas”- bidali zion mezu arrunta eta baldarra, Gaydar eta antzeko kontaktu orrialdeak bikotea daukalako bizkarrak gordeta dituenaren axolagabetasun urduriz erabiltzen baitzituen. Galdetu izan baliote zer gustatu zitzaion Iñigorengandik, ez luke jakingo esaten, haren bereganako lehiakortasun saiatua, etengabea eta aldi berean neurrikoa, “niaren losintxa” zehaztuko lioke Josebak

batzuetan zuen gauzak aztertzeko zorroztasunez, “zeure buruari aitortzeko gai ez zarena”. Ze Iñigori Donostian gelditu eta Miarritzeko Formule 1 hotel horietako batean larrua jo ondoren Euskadi Irratiko esataria zela aitortu zionean –“ustekabe itxuran baina parada aukeratu eta prestatuaz”, Joseba atzera- begiak argitu zitzaizkion, eta ordura arte gazteleraz izandakoa euskaraz izan zen.

Gustura zihoan, hankek segitu egiten zioten; bizkarreko min arinak ez zuen galarazten; abiadura egoia zeraman; eta paisaiak, Ibaizabalean aurrera agertu zitzaion baporeak eta atzetik marrazten zuen uharak, lasaitu egin zuten. Ez zeukan aukeratu beharrik. Horrela bizi zitekeen, ez baitzion inori traizio egiten. Garunetik traizio hitza iragan ahala, azkarrago eman zituen oinkadak. Etxe-eraikinak, Aduanaren fatxada, eraikin gorria, Isozaki Dorreak. Iñigori ez zion adierazi Josebak ez zekiela ezer beraiez; adierazgarria eta adierazia nahasten ziren, eta ondorioz bata zein bestea berdin zirela sinetsaraz daitekeen eremu horretan mugitu zen urtebetea, Josebak bazekiela aditzera eman eta, aldi berean, “amorante” bat izatea onartzen zion harreman bat eraikitzeko gauza izan zirela-

ko -Joseba eta bera- harrotasuna arrazoi Iñigoren bizitzatik gainetik zegoela sinetsirik.

Ohartu zen bukatu zutela La Salveko zubia pintatzen. Guggenheim agertu zitzaion ezkerretara, LCDren *Sound of Sand* diskoko funkiaren airera. Iñigori ez zitzaion gustatu gizon batekin ezkondata egotea. “B aldea? Niretzat dena da A aldea” bota zion harrotasunukitu batez, nahikoa mugarria paratu baina ez uxatzeko. Ze hasieratik gustatu zitzaiola onartu behar izan zion bere buruari -batez ere menpekotasuna onartu eta atzealdea eskaini zionean- gustuak bizitzarekin bat egiten zuen une horretan, gehiegi axola gabe, gustuko izaten den horrek ordura arte sortu eta erakitakoa eraits dezakeelako igarpenari batere kasu egin gabe, edo, beharbada horrexegatik, eraisteko igarpena izan, izan zelako.

Ezkerreko ipurmasailean min pixka bat egin zitzaionez, kostatu egin zitzaion hurrengo urratsak ematea. Ezkerreko hankaren oinkada laburtu zuen inpen-tsan, babesteko edo. Behin joanak ziren Iñigo eta bera lasterketara Hendaiako hondartzara. Gero luzaketak egin zituzten alde nudistaren parean. Axi oso gizon sentitzen zen, errugbi talde bateko kide, jokalaritik jokalarira gorputzen elkarrizketa bat sortuz sorbalda

berna luzaturantz luzatzen zuen bitartean. Kide eta, hori gustatzen zitzaion gehien, menpeko. Menpeko-kide, gizontasuna domeinatu balu bezala. Gero bainua hartu zuten, eskuak urpean zirri egin zioten elkarri, gizon orroak botatzen zituzten bitartean. Ura hotza zegoen, apiril hasiera zen eta. Axi akordatu zen La Salveko zubiaren azpitik ateratzen ari zela, titiburua ukitzen saiatu zela, baina, orduan herabetasunari egotzi baina gerora armairutasunari zegokiola erabakirik, Iñigo igerian atera zela, ihesean hankak astinduz aparra aurpegira botatzen ziola.

Bere buruan uxatzen saiatu zen galdera sortu zitzaion ipurmasaileko mina jabaltzen zitzaion bitartean: utzi egin beharko luke Joseba? Mirenek ia agindu zion aitortza desegokia egin zitzaion. Zer irabaziko zuen Josebak aitortzearekin? Zer irabaziko zuten? Us-tekabeen sartu zen bidegorritik baina gustatzen ez zitzaionez, belarrezko parterretik jauzi egin eta oinezkoen bidetik jo zuen ordu horretan jende gehiegirik ez zegoela baliaturik. Barandillara hurbildu zen. Guggenheimen sabaietako batean eguzki printzek halako firrinta bat egiten zuten, eta eraikina lurretik altzarazi bezala egin zen ia espaziontzi bilakatuz. Orain hobe erantzuten zion gorputzak oro har eta, bereziki, ber-

nek. Oinkada egokia berreskuratu ahala nabaritu egin zuen oinpean zapatilla garestien aparraren materiala. ASICS (Anima Sana In Corpore Sano)-Foam, beltzak eta berde minak. Buruko zurrunbiloari ihes egiteko pixka bat azkartu zuen erritmoa ipurmasailaren kexari kasurik egin gabe. Geroz ere, berak ez zuen ezer txarrik egin. Ez zuten ba Josebak eta berak Iñigoren aukera sinatu San Frantziskotik bueltan Lekunberriko jatetxe hartan zuela... hemeretzi urte inguru ? Zeru hodei batek gogoko hodei batekin egin zion bat. Bai? Aukera hura sinatu zuten? Berak argi esan zion nahiago zuela ez jakin, eta biak entenditu zuten, itun hartan harremanak sortzeko aukera ere bazegoela. Egia da gero Josebak hura esan zuela: "Sentimenduak nahasten badira, agerian jarri behar da". Baina hura esan beharrekoa zen. Gainera sentimenduak tartean zebiltzala ohartzerako berandu zen, horregatik beragatik, sentimenduak tartean zebiltzalako... baina igual Mirenek arrazoi zuen, Josebari aitortu beharko zion; pentsatze hutsak erritmoa jaitsarazi eta larritasuna egin zion estomagu ahoan, eta kartak erakutsi beharra zeukan... baina zer... beharbada hobe zen erabakia hartzea... eta Josebarekin jarraitzea erabakiz gero-ideia bera gezurrezkoa iruditu zitzaion- hobe zen

ezer ez esatea; total, zertarako Josebari sufriarazi. Es-
kuinetara Deustuko Unibertsitateko fatxada nagusia
zuen. Aurrerago Deustuko zubiaren egitura griskara
eta Botikazar institutuaren eraikin itsasontzi forma-
koa, bere leiho borobil eta guzti. Txikia zenean Uriba-
rritik aldentzen zirenean zubi hura zen muga; haran-
tzago joatea gurasoen aginduei ez entzunarena egitea
zen. Behin egin zioten eta Deustuko Erribera ertzerai-
no ailegatu ziren. Errepide ertzetik ageri zitzaizkien
itsasontzi bakanei so egin zieten, zaman ari ziren, ga-
rabi txikiak hautsiapur mugitzen. Beste aldean, aldiz,
handiagoak ziren garabiak, eta animalia erraldoien
moduan mugitzen ziren, ontzi atal eta txatarra ga-
rraioan. Ez ziren harantzago egiten ausartu.

Deustuko zubi azpitik iragaterakoan pozik hartu
zuen itzala. Berotzen hasia zen. Ijaretan oinazea naba-
ritu zuen, gorantz, bular aldera, eta, beherantz, ipur-
masaila aldera hedatzen zitzaion. Urratsak laburtu zi-
tuen, eta ezkerreko eskuaz ipurmasaila ukitu zuen, ho-
rrela oinazea jabalduko zitzaiolakoan. Baretu egin zi-
tzaion; arreta Euskalduna jauregiaren fatxada herdoil-
dura eraman zuen; laukiak begiratu zituen arnas errit-
moari laguntzeko. Ongi zihoan, baina oinazeak burua
gorputzari lotuta eusten zion, ezin zuen beste batzue-

tan bezala –horregatik hasi zen berriz ere lasterka egiten– gogoan airean erabili, batetik bestera, handik honantz inon gelditu gabe dantzan, budistek, bizitzaren metafora, aholkatzen zuten moduan, ez baitzitzaien –erraza zen esatea– ezeri atxiki behar, atxikimendua txarra baitzen, bidetik aldentzen baitzintuen. Bidea Joseba ote zen galdetu zion bere buruari, edo Iñigo ote zen. Iñigo, zer eskaintzen zion Iñigok artasuna domeinatzen zuelako sentsazio ahaltsu hartatik aparte? Utziko zituen andre eta umeak berarengatik? Gogoeta osatu ahala ergela iruditu zitzaion, ilusio faltsu bat, eta, lotsagarri egin zitzaion Josebarekin horrenbeste urtez eraikitakoa ezeren truke “saltzera” zihoalako asmoa bera ere. Zer eskainiko zion Iñigok? Ezer ez. Zer eskaini zion orain arte? Asteburu batzuk, larrualdi zoragarriak –redios, ze larrualdiak!– eta ezer gutxi gehiago, nahiz eta, halaxe aitorrarazi nahi zion bere buruari, filmeko irudi eta elkarrizketetan Iñigok artasun hartatik harantz hondo korapilatsu eta nahasia zuela iradoki, eta horixe zuen gustukoen, katramilak askatzea. Urtebetean bitan edo destolestu zuten geroa, bikote harreman hasi berrietan eternitatearen moduan eremu funts gabeko eta balizko hura, balizkorik bada; baina bitan leku berera ailegatu ziren: “Zu

ere ezkonduta zaude”, Iñigok; “Bai, egia”, Axik. Eta bata bestearen besoetan murgiltzen ziren berriz ere, gauzak okertuz gero bata bestearen minaren arrazoi izan zitezkeela ohartu barik, amodioan ohi den moduan. Lehendabiziko aldiz aitortu zion bere buruari maiteminduta zegoela, Josebaz bere garaian egon zen moduan. Eta ipurmasailetik ijaretan gora egiten zion oinazeak ezkerretara egin zuen estomagu ahora non larrimina egin zitzaion etorkizunaren beldur. Gogoetak uxatu zituen borondatearen indarrez eta oinazea baino ez zitzaion gelditu. Eskuinetan Deustuko Tigrea eraikinera ailegatzen ari zen. Perspektiba horretatik burua baino ezin zuen ikusi. Haurtzaroa berriro. Eta zeinen erraldoia iruditzen zitzaion tigre hura txikiak zirenean, eta zenbat lekutatik so egiten zioten, eta nola irudikatzen zuten oihanaz inguraturik. Ordura arte ez zion urari erreparatu, marea gora zegoen eta handiturik zetorren itsasadarra, eta arre. Oinazeak gorputza bainoago gogoaz zamatzen zion, harria zirudien, gora bota eta berriz ere giharren minetara kateaturik. Pentsatu zuen Josebak berehala lotuko zituela zerabilen katramila -zer egin?- eta ipurmasailetik, ijaretan gora ezkerreko bularraldera paratu zitzaion halako haize antzeko hura. Ez mina, oinazea, herstura baten mo-

duan, bularralderantz. Kostatu egiten zitzaion ezkerreko hanka altxatu eta aurrera jaurtitzea, oina lurrean paratu eta haren gainean gorputza zamaturik eskuinekoa botatzeko orekari eustea, gorputzak kordoka egin baitzuen une batez, zer egin ez baleki lez, grabitatearen kontrako legeak berriz ere ikasi beharrean. Pentsatu zuen Euskalduna zubira iritsitakoan iragan egingo zitzaiola oinazea. Arrazoirik ez zuen hori ez kontrakoa pentsatzeko. Gogoeta klasea Josebarena ematen zuen. Zergatik pasatu behar zitzaion oinazea Euskalduna zubira ailegatzeari. Zer pentsamendu magiko mota zen hura? Bizitzak emandakoa, erantzun zion bere buruari. Oinazeak pasatu egiten zirelako, eskarmentua izan bazuelako. Iñigok ere pentsamendu magikorako joera zuela iruditu zitzaion. Edo beharbada utzikeriarakoa. Harritu egiten zuen aita izateak, familia bat osatu eta mantentzeko beharrezko adorea, afana eta lehia izateak berarekin horren... utzi, pasibo azaldurik. Ia ukitzeko moduan irudikatu zuen berrogei urte bete berritan, bizkar sendoak, utzikeriazko jarre-ra, bizarra, kaskamotza, ilajea bularrean, berezko beso sendoak, begi nabarrak... Esanen luke oinazeak hankartera halako joan-etorri bat egin zuela. Euskalduna zubira ailegatu zenean -harritu egin zuen umeen

jolas parkeko txirristan eskale bat panpina hautsi baten moduan lotan ikusteak- oinazea jabaldu barik ijaretatik gora egiten zion min bilakatu zitzaion, hainbeste, gelditu behar izan zuen nahiz eta jakin -zapati-la hobe lotzeko, bakanetan egin zitzaion barea edo goragalea edo dena delakoa zela- ondoren hasteko nagiak hartzen zuela, eta akiturik nabaritzen zuela bere burua, are egiten ari zeneko hura zentzugabekeria iruditzen zitzaiola. Gorputz enborra makurtu zuenean zintzilika egin zion begien parean lepoan zeraman lauburuak, hura ere Josebaren oparia. Ezkerreko ijarari heldu zion baina minak gora egiten zion, eta beste batzuetan nahiko izan zuen eskuaren epelak ez zion ezertarako balio izan, han jarraitzen baitzuen min zorrotzak labanazo baten moduan.

Altxatu eta lasterka hasi zen geldirik gehiago irauten bazuen berrasteko adorerik izango ez eta etxera oinez itzuli beharrak eragingo zion hoztearen beldur. Jabaldu egin zitzaion mina urratsak bata bestearen atzetik ematean. Erritmoa azkartu zuen pixka bat. Hortxe segitzen zuen, baina jasateko modukoa zen.

Berehala egin zion gogoak azkeneko bi asteetako obsesiora: aita ala ama aukeratu beharra. Iñigoren gorputz ar harekiko zuen posesio oldarrak -barea zela

erakusteak ez ezik beste batzuek larrua jo diezaioten mailegu uzteak- Josebarekiko amodioa erakutsi zion perspektiban: beti izan ziren kideak Josebak harremanean berak agintzen zuela esanagatik ere. Haren gutxiagotasun konplexuaren ondorio zen gogoeta hura. Iñigo, aldiz... Behin baino gehiagotan bere buruari egindako galdera egin zuen atzera: nola zitekeen bi seme-alabaren aita eta senar zintzoa horren, horren pasiboa izan ohekidearen eskuetan borondatea paraturik objektu bilakatu arte. Eta bat-batean konprenitu egin zituen behin edo beste tuamo.net-en iragarriarik agertu eta ezin ulertuzko haiek: “Quiero un macho que me anule la voluntad”, “quiero que un macho decida por mí”.

Deustuko Erriberara hurbiltzen ari zen. Minak ipurmasailean hasitako sustraiarekin zer ikusirik ez zuen umea bota zuen deltoidean, aurrerantz eta atzerantz. Atzerantzkoak bizkarraren ezker aldea hartu zion, ia bizkarrezurreraino. Aurrerantzkoak besoaren luzeran barna egin zion, sorgor, hatz erakusleraino. Kezkak hartu zuen ezkerreko hanka luzatzen zuen bitartean. Ia oreka galdu zuen eskuineko hanka luzatzeko gorputzaren zama ezkerrekoan bermatu zuenean. Eskuine-tara begiratu zuen arraunlarien elkartearen egoitza

zekienara. Itxita. Irekita zegoen beste egun eguzkitsu batzuk gogoratu zituen. Ezkerretara San Mames berria. Lantokia aurreraxeago. EITBren egoitza, hori ere, berria, distirant, borobil. Ordu eta erdigarreneko bertan egongo zen, berriak bildu eta erredaktore lanetan. Minak bularraldera egin zion sastakai baten moduan. Ez zen gauza izan urratsik emateko eta hormaren kontra bermatu zen gorputza makurturik. Bularrari heldu zion. Baina babesa ez zen etorri. Minak hor jarraitzen zuen zorrotz bularraren ezker alde osoa harturik. Be-launikatzeko gauza izan zen. Aita ala ama? Nor zen aita? Nor zen ama? Azkenean konprenitu zuen Iñigo eta konprenitu izanak interesa galarazi zion. Utziko zituen emaztea eta seme-alabak? Beharbada marika bat izaten ikasi beharko luke, eta lasai bizi. Marika bat. Konortea galdu zuen bi eskuak bularraren ezkerreko aldean loturik. Sirenak entzun zituen. Zapatila gorri batzuen ardaila. Ezin zuen arnasarik hartu.

Etxera sartu direnean, Josebak komuna seinalatu dio Axiri.

“Badakit non dagoen! Zer uste duzu?”.

Josebak sukaldeari so egin dio Axi komunean dagoen bitartean. Barra grisak bat egiten du armairu zuriekin. Ekarriko zuen hona? Nor ote da? Benetan utzi egin behar zuen?

Keinu batekin uxatu ditu gogoetak, eta faundu egin dira airean. Igual da. Komuneko bonba entzun duenean, atera hurbildu da.

“Axi, orain hortzak garbitu behar dituzu. Hor duzu zepilloa”.

“Badakit non dagoen zepilloa!” erantzun dio zakar.

“Eta pasta”.

Hortzak garbitzen utzi ondoren egongelara alde egin du. Ohea egin gabe dago.

Maindireak atera ditu. Edredoia kendu eta behekoa paratzen hasi da. Txukun aritu da, maindire lisa-tua lisoagotzen. Gero goikoa paratu du. Urduritu egin da Axik bukatuko duelakoa egin zaiolako. Lasai. Arna-sa hartu du. Badaki orain behin-behineko aldia bukatu

eta behin betikoan sartu dela. Axi ez da hobetuko eta hau izango da haien bizimodua. Ongi egin dio pentsatzeak berak. Alde egin dute minek, alde egin dute haserre, alde egin dute bizitza injustua izan delako adakerek, alde egin dute lagunek. Mesanotxeko telefono itzaliari so egin dio. Goizeko laurak direla abisatu dio ondoko erlojuak. Badaki dei pila izango dituela. Begorenak, Landerrenak, Txatorenak. Ez ditu behar. Txato beharbada bai. Utzi egingo zuen? Badaki berak ez zuela inoiz utziko. Bat-batean ohartu da izan dituen larrualdi horietan guztietan ez duela inoiz lige bakarra ere eraman Jarautako etxera, orain begien aurrean irudikatu duen veluxdun gela horretara, etxean zuena, Axi, alegia, nahikoa izan baitu istripua arte, eta hemendik aurrera ere bai; heterosexual askori arraroa egiten zaio sexua eta amodioa bereiztea, berari mari-ka den aldetik, erraza, nahiz eta onartu behar duen Axiri ez zitzaiola horren erraza egiten, Axik joera izan duela larrua jo duenekin beste sentimendu batzuk sortzeko; "Iruditzen zait" ametitu behar izan du, hitz egin, inoiz ez baitute horretaz hitz egin. Ze kabroia! Amorantea. Eta sufritzen jarrai dezan utzi badu bizirik?, uler baitaiteke mendekua ez zela bart amildegian behera botatzea, baizik eta bizirik uztea. Urduritu egin

du gogoetak, eta ihes egin nahian indarrez astindu du edredoia fundan sartzeko lanekin hasi aurretik. Ez ditu gustuko, beti trabatzen zaio, Axi Iruñean zegoela egitea egokitu zitzaion bakanetan –zein gutxi hogeitartan– laguntza eskatu zion, bikotean bizitzearen alde onetako bat horixe dela bere buruari gogoraraziz, alegia, gauzak erdizka egitearena. Axirengan zer portzentaje dago Axitik? Hemendik aurrera ere erdiz egingo dituzte, baina bera izango da erdia gehi ia erdia. Jakingo balu Axiren zein portzentaje dagoen Axirengan, errazagoa eginen litzaioke, jakingo bailuke gauzak zenbat kostatuko zaizkion, Axik lagun dezakeenaren kopururik ez baitaki. Ala bai?; baina uxatu egin du gogoeta. Maitasuna da. Eta kito. Eta beharbada gupida, eta ardura. Eta Axi erresidentzia batean ezin sartua.

Edredoia ohean zabaldu du. Gero komunera abiatu da. Bertan dago txoritegiko haitzetan, ispiluari euriari bezala begira. Muturrak pastaz zikindurik ditueenez sorbaldatik heldu eta delikatuki kendu dizkio hondarrak. Gero zepilloa utzarazi dio.

Halako bake bat nabari du.

Korridorean barna bulkatu du Axi, gelarantz, haren protesten erdian: “Ez bultzatu badakit non dagoen”.

Mesanotxeko argiak izeki ditu ilunxkoago “Axiren kordoka ez ikustearren” paratu dio aitzakia bere buruari, hilabetean buruan izan duena erokeria iruditurik orain Axiri, Axi izan denari, begietara so ezin eginez, lotsa ikus ez diezaion. Nola pentsatu zezakeen hiltzea? Josebaren erdiak ekintza gupidatsua zela aitorrarazi badio ere, beste erdiak bere burua Axiz libratzeko aitzakia baino ez dela izan adierazi dio.

Axi, ez da Axi zenekoa, baizik eta Axi oroimenik gabea, Axi Axi dena, kordoka egiten duen norbait, entsalada jan duela akordatzen ez den eta akordatuko ez den norbait, amorantea zuen norbait -kostatu egin zaio gogoetara ailegatzea- eta hogeita bat urte ondoren bera uzteko deliberoa hartuta zuen norbait. Ezezka hasi zaizkio barrunbeak bol-boolean. Baina eutsi egin dio gogoetari, “gainera ze garrantzia du horrek orain”, hemen dago Axi denarekin.

“Axi, ni izango naiz zure oroimena!”.

“Oroimena?”.

Ez dio erantzun. Hortxe dago, deslai, galtzak izterretan trabaturik, ohe gainean eserita.

“Axi, kendu oinetakoak lehendabizi”.

Sokak laxatzen hasi da.

“Axi, utzi egin behar ninduzun?”.

“Utzi?”.

“Utzi. Ez du inporta”.

Ez du inporta. Ez du hori jakin beharrik. Ez du garrantzirik, ez du minik.

Belaunikatu eta oinetakoen sokak laxatzen hasia zaio hura bere egitea dela bere buruari esanaraziz. Axik burua laztandu dio estreinako aldiz bihotzekoak eman zionetik, eskuak sartu dizkio ile artetik, azala ferrekatu dio arretaz, kaspa pikosta batzuk ikusi ditu erortzen mesanotxeko argitara.

Gogoak Axiren sendaketara egin dio trosta, baina eutsi egin dio, “ez da sendatuko, hobera ere ez du egingo, horrela geldituko da edadeak ekar dezakeenari garuneko kaltea ez dugunok baino aurre egiteko ezgauzago. Baina ni izanen naiz bere makulua”.

Bat-batean oso indartsu nabaritu du bere burua. Bizitza behin onartutakoan erraza da, edo erraza izan behar luke, behintzat. Gelari so egin dio. Armairu dotorea, larruzko ohe burua, horma griskarak, egurrezko zoru lustratua. Astean zehar Iruñean eta asteburuetan Bilbora etorriko dira. Epaileak Piliren tutoretza berea izatea onartzen badu, ez luke arazorik izan behar.

Etika Marikaren beste puntu bat gogoratu du bere baitan, “marika batendako askoz garrantzitsuago da

leialtasuna ezen ez fideltasuna”; eta leialtasuna zure ondokoari so egin eta bion arteko berdintasuna onarturik, zuri egitea nahi ez zenukeena ez egitean datza, “baztertuen arteko -ez zaio hitza gustatu baina aurkituko dute Txatorekin biek besteren bat- elkartasunean”.

Bizitzak erraza izan behar du behin onarturik. Leialak izan dira adiskideak berarekin? Aitatu behar ote zioten amoranteari buruzko ezer?

Galtzak atera dizkio eta poloa kendu.

“Jantzi kamiseta, Axi”.

Kamiseta hartu eta dorpeki janztera behartu du. Altxarazi eta ohea ireki dio. Etzan denean tapatu egin du.

“Hortzak garbitzera noa”.

Zepilloa hartu du eta arreta jarri du egiten ari denean, Landerrek eta Guillermok agindu bezala. Ileak hortzarteetan sartzen saiatu da, entziak igurtzi ditu, arretaz so egin dio ispiluaren aurrean duen horri. Ohitzen hasita dago geldotasunera, gauzek uste baino denbora gehiago hartzen dutelako adakera nekeza egiten baldin bazitzaion ere, laztan baten abegikortasuna du orain. Amorantea! Zer inporta du. Badaki ez zuela inoiz utziko. Gehiegi eraiki dute. Pilik tutoretza

eman eta epaileak onartuta, bizi zoriontsua eramanez dezakete. Eskuko telefonoari begiratu dio. Begoren, Landerren eta Txatoren deiak bilatu ditu, whatsappak. Behar denetan funtsa eskuragarri ez duen sukurtsala da adiskidantza. Ez ditu behar. Txato, beharbada. Txato, bai. Eta bestea ere bai. Funtsak ongi datoz balizko etekinengatik bada ere. Zer gutxi eraiki duten! Oro ke-seinale jolas bat baino ez delako susmoa uxatu du. Dena dela, errazago egingo zaio bizitza Lander eta Bego aldean baditu. Bego, hijaputa hori. Arretaz igurtzi du aurpegia aloe verazko ukenduarekin, begi zuloetan bereziki. Oso urrunak iruditzen zaizkio orain Andrew Motionen poemak, beste garai batekoak ia, ez duen min batekoak. Lasai dago. Kainua itxi du eta logelara abiatu da. Sabaiari begira dago Axi.

Eta halako poz ero batek hartu du Joseba, kolkoa betetzen dio, ia airean jaso du. Inguruetara begiratu du nondik datorren bila. Mesanotxeak, horma grisak, argi iragazia, edredoi zuria, armairua, zoru lustratu ilundua. Ez dator inondik bere baitatik baizik. Poz ero hori.

Etzan eta Axi besarkatu du fuerte, haren harridurarako.

“Zer gertatzen da?”.

Azken aldiz egingo du froga.

“Axi, bihotzekoak eman zizun eta oroimena galdu zenuen”.

Begiek bere begiak bilatu dituzte.

“Niri!? Ez! Hori gezurra da”.

“Arrazoi duzu, gezurra da”.

“Banekien”, egin dio arrapostu Axik, “gezurra zela. Sirenak isildu zaizkit”.

Handitu egin zaio poza, kolkoa areago bete. Bera izango da Axiren oroimena, herri amnesiko batean bizi den bikote amnesikoa izan ez daitezen. Badaki aurre-ra poza izango duela, ez zorientasuna, baina bai poza, uholdeka, erretiratzean, bizitzaren maxkala itsasoko ur putzuetako tontorrak balira bezala agerian utziz. Heteroendako udalekua da zorientasuna. Poza baka-rrik. Poza. Aldrebesa, bai, baina poza, azken finean.

Eskerrik asko:

Nobela honen A aldea idazteko
eredu izan ditudan bi lagunei
(bizitzako etsenplu).

Bilboko lagunei
(bigarren aukerak, izan, badira)
eta betikoei.

Ainara Erentxuni
(0 irakurlea izateagatik),
Ibon Egaña doktore dotoreari
(zenbat buelta e!),

Fermin Etxegoieni
(Biba Bilbao!),

Joseba Gabilondori
(Iana, Iana eta barreak),

Iban Zalduari
(aber oraingoan...),

Arrate Mardarasi
(zortziak goiz izaten da),

Roberta Gozziri
(non zabiltza?).

Eta, azkenik,
gure familiari.